ulunpian, dio Jinco-Jaunac;	*ulunpian, dio Jinko-Jaunac.*
hoyec dira Jesusen hitçac,	*Horik dira Jesu-Kristen hitçac*
çougnez abisatiac beikira,	*çointzaz erakasten beiteicu*
behar dugula haren eguitatia,	*behar dugula haren bizitcia*
eta bicitcia (1) imitatu, nahi	*eta eguitatiac imitatu (1), nahi*
baguira eguiaçki arguitu izan,	*baguira eguiazki arguitu eta*
eta uxumentu orotarik escantçatu.	*bihotçeco uxumentu orotarik libratu*
Imitatçia erran nahi da beste	*imitatu erran nahi da araurtu,*
Batec hitcez eta obraz complitu	*uduritu, bezalacatu*
Dutian gucier jarraikitia eta	
hen beren eguitia	

1858 – *Le Verbe Basque.* Hau lan handia izan da eta orano baliagarri da.

1858 – *Apokalipsiaren* ützülpena, züberotarez.

1864 – Axularen *Gero* berrargitaratü züan. Atalen ordrea aldatü züan, uste errandüra gordinak elki zütüan.

1866, 1872, 1875, 1885, 1902 – *Uscaldunaren guthunac.* Agertü zen ere 1946an, arrahounkirik, eta emendaturik. Hortan edireiten dira: otoitziak, Khristi hounantzo biziteko bidiak. Mezako otoitze berheziak, bezperak, hilen ehorzteko ofizioua, ehortze eguneko meza, doktrina kirixtia llaburzki, Jesu-Kristen erranetarik eta kantika zounbait. Libürü hori gure etxeetan erabilten zen, orai düala hogeita bost bat urte orano.

1892 – *Le peuple Basque:* sa langue, son origine, ses traditions, ses caractères anthropologiques, Pauen eman züan mintzaldia, irailaren 12an, «Association française pour l'Avancement des Sciences» Congresoan. Hor aipatzen dü eüskarak mündü zabaleko hitzeki egite zerbait badüala, bena bereak ere badütüala; deklinabidea eta aditza oso bereziak dira; mintzaje güzietako ederrena da. Eüskara zen Espainako lehen bizizaleen mintzajea. Espainan bizi ziren ibertarrak eüskaldünak ziren. Ibertar horik Izkiribü Saintüetako Tubal, Noeren arrahaurraren, üholdetik landa zortürik, ondokoak ziren. Gero agertzen dütü ohidüra zaharrak, Jinko bakoitx batetan eüskaldünen sinestea eta ürrentzean haien ariaren ezagügarriak.

1894 – *Maria Birjinaren hilabetia edo Mayatzian egun oroz eguiteko irakourraldiak Maria Virjina bizitze eta berthute ederren gainen.* Aldi oroz ipuin bat emaiten dü. Hor badira ere mezako otoitzeak eta beste otoitze herroka bat eta bezperak.

Gure gaztaroan elizan biltzen ziren eta apeza gabe irakurten zen hilabeteko egün oroz.

1897 – *Kantika saintiak.* Badira 142 kantika. Heben ere otoitzeak eta bezperak.

Antoine d'Abbadie ararteko, Inchauspek, lan zonbaitetako, Louis-Lucien Bonaparte Printzearen lagüngoa üken züan. Hala nola San Mathiuren ebanjelioaren, Apokalipsiaren ützülpenetako, *Le Verbe Basque* lanarentako. Hona zer zioen 1857ko azaroaren 4ko *Le Courrier de Bayonne* egünkariak:

> «Louis-Lucien Printzea bihar asteazkenareki Züberoaren ikustera abiatüko da. Gure bibliografo hoberenetarik batek, Inchauspe Jaun Apezak, sortzez lürralde hortakoak, ebilaldi hortan lagüntüko dü.»

Eta üngürüa egin züen, Larrainen gainti Otsagiartino. Ez beitzen bide honik Larranerat bürüz, hanko erretorat galtegin zeion ea ez leiteanez bide bat egin. Printzeari esker Larrainerako bidea zabaltü zen.

Ikusten dügün bezala, Inchauspek idazlan aberatsa egin züan. Erran behar da laneko albidat handia bazüala. Ez, haatik, lanealako baizik, bena ere apezküpütegiko akodiñetan edo beste zoinahi eginbidetan, orozgain apezen alte jarri zelarik, prefetaren aitzi. Halere gizon apala eta eztia zen, bai apezküpüeki üken zütüan harremanetan edo eztabadetan, bai eta bere lan güzietan. Dubarat jaun apezari, 1890eko maiatzaren 26an, hau idazten zeion, Jauffret apezküpüak bere lanetik elki züalarik:

> «Kurrinkarik gabe banoa; haxearen üzteko ez naitekean haizü, Jinkoak osagarria emaiten beiteit; bena besteek elkitzen beiteitae, botzik nago eta Jaunari eskerrak emaiten deitzot.»

Oro kontzapen zen, ihori ogenik ez egin nahiz, bena nola bakoitxari kausi eta bihotz eman bila. Hau ere zion ber Dubarat jaun apezari:

«Jakin ezazü ene bihotzak ez deizüla den gütien herrarik aipatzen deitazün eztabadagatik.»

Bena uste düt ez genezakeala behar bezala erran nor zen, berak bere ordeinü ezpiritüalean üzten deigün itxüra bezain ontsa. Onizegaineko etxeko sükalteko mürrüan, arren, hitz larriz hau tintarazi züan:

Jincoaren grazia eta bakia
Hemen beti daudela
Alkar maitha, alkar lagunt, alkar egar
ez etxeki bihotzian herrarik
ez bekhaizteriarik
ez erran ihourtzaz gaizkirik
ez behinere gezürrik
Izan ezti eta umil bihotzetik
Ahalaz beharrari eman sokhorri
Izan jinkotiar zühür eta langile
Hortan dago aberastarzun chahu eta segura.

Gure aldetik, harro izan gitean holako gizon bat aipatüz eta goretsiz. Gure artean izan bedi beti bizi. Idazle argi ere izan da, eüskalzale sühar. Haren ildotik gük ikas dezagün bide xüxenean ebiltzen eta Herriari indar hoberenak emaiten.

ERRELIJIONEAREN ETSAIAK INTXAUSPEREN LIBÜRÜAN

Atharratze, 2003-IX-25

Txomin Peillen

Intxauspe kalonjeak düala ehüneta berrogeita hamabi urte Zuberoko Eüskaraz elizako libürü bat agerarazi züan. Libürü horrek hamar bat agerraldi ezagütü zütian hala nola 1851, 1866.an, 1893, 1901, 1921, 1946. urteetan. Üskara plainian eginik libürü hori lehenaldian *Uskaldunaren guthunac* izenarekin agertü zen, gero *Uskaldunaren guthuna*. Izenaz kanpo barnekoa ere kanbiatü zen eta hemeretzigerren mente azkenean kapitülü berri bat sarthü.

Ezpeiniz norbait Fedeko zerez mintzatzeko eliza libürü hortako latin eta üskarazko otoitzak ez deitziet aipatüko, bena bai politikarekin hanitx lotürik diren kapitülüak *Errelijionaren Etsaiez*; ordüko pentsamentüa eta propaganda entelega dezagün.

Erabili düdan 1866.eko libürüa Napoleon III. aren denboran idatzi züan eta ordüan Elizak, lehenagoko etsaiak bazter ützirik ez zükian bi etsai handi süberte baizik protestanta edo higanaut eta mahometanoa edo türka.

Hantik 27 urteko libürüan, errepüblika berriaren denboran eta laikotarzüna sortzen delarik, *Uskaldünaren guthuna* delakoak badü etsai berri bat Framazona edo Hargin Beltza.

Egiaren erraiteko mente hartan Intxausperen argüdiatze ber berak erabili ziren Frantzia osoan bena libürü horren abioa da nola jente oroek konprenitzeko gisan eüskara aski honean ezkiribatzen. Usatzen da erraitea XVIII mentea *Argien mentea* izan zela, erran niro Eüskal Herrian XIX. rena *ülünpearen mentea* zela, geroago ikusiko dütügün arrazoen gatik.

LEHENAGOKO etsaiak

Intxauspe, historiaren gainti elizaren lehenago hürrüneko etsaiak aipatzen deizkü zeren harentako errelijionea Erromako katolikotarzüna beitzen. Irakur dezadan. Hona zer dioen Intxauspek:

Paganoak

«Jesus Kristek erran züan haren dotrina eta haren dizipüliak izanen zirela ifernüaz eta gaiztoez thai gabe persegitürik, bena goithürik ez seküla» (op.cit. 1866, 67.or.).

Gure kalonjearentako ifernüa prefosta paganoak ziren eta dio:

«Hastean Erromako enperadorak probintzia guzietako gobernadoreak jüntatürik nahi ükhen züan errelijione berri hura odolean itho» (op.cit, 1866, 67.o.).

Eztü erraiten bixtan da, Karlo Magnok konbertitü nahi ez ziren paganoak milaka hil zütiala eta espainolek Ameriketan ber lana egin züela eta apeza denez ez dü düdatzen kiristitarzüna eta katolikotarzüna direla mündüko egia bakotxak eta egiaren bidetik zirelakotz irabazi züela .Hau irakurten dügü.

«Azkenekoz erregeak eta enperadoreak berak kiristitü ziren eta bakearen alde hortarik gozatzen hasi zen Eliza bena etzen etsai gabe baratü» (op.cit. 1866, 67.or.).

Heretikoak

Lehenagoko bigarren etsai tanda: heretiko zaharrak. Egia hain argi balitz eta Jinkoa hortan poteretsu, kiristi süberte bat baizik etzen izanen bena debrüa Jinkoari nausitzen zaio hona zer irakurten dügün.

«Lehen gerla hortan ifernüa(paganoak) goithürik beste gisaz abiatü zen errelijionearen atakatzera eta arimer ogen egitera. Jesu Kristek erakatsi egien gezürtatzez, thürbüstez eta nahastez eta ofizio hortako orai artio bethi ediren dü Mündüan izpiritü ürgüillütsü eta arima galdü franko. Gaistoenak Elizatik Khiristien beren artetik elkhi dira, Arius, Euticles, Nestorius, Pelage, Photius, Lüther thema gaisto edo heresia handiena aitak oro kiristi ziren» (op.cit. 68.or.).

Intxauspek ezteikü erraiten heresia zahar gehienak Erroman odolean ito zituela eta berak dion „denboarren indarrez" zirela galdu. Sekta edo heresia horietzaz hona zer zion:

«Igaran dira alkarren ondozka eliza ama saintaganik separatü ziren kasta malerus hurak. Eihartü dira eta errhaustü denborareki adar bat zühainetik muztü denean, hiltzen, eihartzen eta txüstazen den bezala».

Intxauspek ez deikü historilari eta sabant lan bat emaiten bestelan behar lüke aitortü errelisione güziak sekta direla ezen sekta erran nahi dü moztü eta berhexi dena: hala da kiristarzüna judaismotik sektatüa eta jüdaismoa Sumer eta Mesopotamiakotik berhexia.

Intxausperen denborako etsaiak:

Higanautak edo protestantak

Berak hola deitzen dütü eta heer bürüz irakurten dügü.

«Lütheren kasta da orano bizi dena, protestantak edo higanautak oro deitzen dira, nahi bada beren artean mila sinheste süertetan berhezirik diren».

Intxauspe beno hobeki mintzatzen ote gira? Eztü aspaldi Tolosako unibertsitateko irakasle bat G. Lorcaz mintzo zenak„ les sectes protestantes» erran züan? Ihardoki nion katolikoak bezain beste errelijione eta eliza zirela.

Lehen püntüan erraiten deikü.

«Lüther komentütik elkhi eta erlijiosa batekin ezkuntü zela» (aip.lib. 1866 eko argitalpenean 68.or.).

Ez ote züan ontsa egin bekatüen bizitzeko partez eta ordüko Elizaren nahaskerien sendotzeko ez ote zen hobe lehen kiristiek egiten züen bezala apezak ezkun zitean. Nola nahi ahazten düalarik denbora heetan Aita Saintü batek edo beste andreak eta haurrak bazütiela eta bat ere bere askaziekin zirikokan ibili zela. Egiten düan protestantaren potret itsusia beltzatzenago dü.

Bena gure ziberotar kalonjeari ez zaio beltzatze hori aski eta beste zerbait gainetik jaunsten dio fraide, serorek eta apezek ezkontzearen libertatea galtatzea itsuskeria bat bezala ikusten beitü.

Bigerren püntüan Lütheren zikintzeko: «Ardoa eta aipairü honak maite zütian» (op.cit. 1866 69.or.).

Arauz Intxauspek ez züan denbora hartako historia ezagützen eta zer plazerak baziren komentütik joan gabe. Jura mendietan bazen komentu bat «*Baume les Moines*» izenekoa eta protestanten denboran sekülako bestak egiten beitzütien barnen «*Baume les messieurs*» «izena hartü züan eta orano ere badü».

Hirurgerren püntüan ezkiribatzen dü Lütherrez oraiko katoliko gehienek pratikatzen düena:

«(Lütherek dio) etzüala behar gizonak naturari bortxarik egin: barur, bijili, penitentzia eta kofesionerik ez» (op.cit. 1866, 68.or.):

Laurgerren püntüan Intxauspe kexatzen da Lutherek Mariaren birjinatarzüna ükatzen düalako.

Bosgerren püntüan, Lüther beitio ez tirela saintiak ez ohoratü ez eta othoiztü behar idolatria beita Intxauspe kexü.

Seigerrena «korpitz Saintien ez zela Jesus Krist present» (op.cit. 1866, 69.or.).

Gero kontatzen deikü kalonjeak nola protestantak Zuberoatik galarazi ziren eta argi da hortakoz konbertitzeko armak erabili zütiela. Ondotik kontatzen deikün bezala historia lüze, jakingarria:

«Erregina joanak nahi ükhen züan Uskal Herria ere higanauterazi, bena ez balaküz, ez bortxaz, ez pheredikariez, ez armadez etzüan erreusitü ahal ükhen egiazko fedearen üskaldüner ützaraztera». Herots egin züan denbora haietan Pierre Arnaud Maitia Maulekoaren egitate korajusak. Margarita de Valois Erregina joanaren amak, Oloruko apezküpü sarrerazi züan Gérard Roussel, higanautü zen apez gaisto bat.

Malerus harek Biarno oro phozoatü züan bere dotrinaz, eta uste züan etzüala ephantxü haboro ükhenen Uskal Herriaren higanautzeko. Bera üdüri fraide arnegat bat igorri züan Maulerat errelijione berriaren pheredikatzera, bena üskaldünek gaiztürik lasterkatü züen astongainen miserable hura eta bere apezküpüagat ohiltü, konfusionez betherik. Koleratü zen Roussel eta brehala bera abiatü Maulerat ustez haren ikhusteak ikharatüren zütian üskaldünak eta etzüen ausartüko haren autoritateari bühürtzera, erreginaz bermatürik zelakoz.

Heltü zenean hiriala erran zeion M. Maitiak ützül zedin jin bidetik; ezpeitziren üskaldünak aski bürü galdü Jesu Kristen denboratik honat mündü güzian begiratürik zen Errelijioniaren üzteko eta arnegat eli baten ideia berrien besarkatzerko.

«Etzeion behatü Roussel, popülüa elizarat deithü züan eta igain zen peredikagiala. Jarraiki zen M. Maitia aizkora bat kapapean hartürik; manhatü züan Roussel eraits ledin eta kanpoa har; eta ezpeitzeion behatü nahi, hüillantü zen pheredikagia ondoala; hartü züan aizkora, jo eta urtiki pheredikagia lürrialat pheredikazaleareki. Eraiki zien bere ondokoek Roussel erdi hilik, lotsak minak beno borthizkiago jorik eta eraman züen Oloruerat (Hori khontatia da librü horietan, Gallia Christiana, Anales Ecclesiastici eta Histoire de l'Eglise gallicane)» (op.cit 1866, 70-71.or.).

«Gero Erregina Joana hil zenean eta Henri IV konbertitürik Frantziako erregetü M.Maitia haren seme bat izan zen Oloruko aphezküpü handienetarik» (op.cit. 1866 72.or.).

Protestante masakratzen ibili gizonen semeak apezküpü egin ziren Baigorrikoa eta Maulekoak: Etxauz, Maitia, Ezponda. Argi da nuntik joan den borroka hortan garhaitea, ezen 1895.an eta beharbada Intxausperen lümaz *Ziberoko armanak* edo *Egünarian* Ezponda apezküpiaren goraipamena egiten beitü protestantegoa utzirik katolikotarzüneala igaran beitzen. Hona testü hau:

Jaun Ezponda aphezküpü eta katoliko (1568)

«Uskal Herriko gizon aiphatüenetarik izan da Henrik Ezponda Ziberoko hiri gehienean, Maulen 1568.an sorthü zena eta erregina Joana higanaut sobera famatüaren bereter. Bere haurrak batheiarazi zütian Donaphaleün eta eraiki erazi bera bezala higanaut sinheste izünian. Henrik hunen ügazaita izan zen Henrik erregina Joanaren semea, geroan Henrik izeneko laurgerren Frantziako errege handia izan behar zena (...). Henrik jakite handieneko gizonen artean gora etsirik eta aiphatürenik zen eta higanauten loria bat. Konbertitü ziren bezain sarri (bi anaiak) higanautek eginahalak egin zütien, haien gütietserazteko eta laidostatzeko, gorago heltü nahiz konbertitü zirela otsez. Johanek ihardetsi zereien protestanten erakaspenen aitzi eta egiazko errelijionearen althe izkiribatü züan libürü sabantaz.

Henrik Errumarat joan zen; han bost urthe eroan zütian estüdiatzen eta libürü ezkiribatzen. Baronius deitzen den izkiribazale aiphatü batek Eliza Santiaren edo Khiristigoaren istoria argitara eman beitzüan haren segida egin dü, 1640 gerren urthealano eta ordüan Erroman berean apheztü zen.

«Haren lan sabantek eta kalitate handiek ekharri zien Luis XIII. Frantziako errege zena haren, Pamiers den hirialat igortera, apezküpü. Lüzaz etzüan onhetsi nahi ükhen aphezküpügoako karga ohoragarria berheziki bere etsaiek eta protestante elezen ükhen estakürüa erraiteko goranahiak zebilala». (Ziberoko Egunaria, Armanak Uskara, Tardy Pigelet, Bourges, 1895, 65-69.orr.).

Ordüan erran giniro egiaren izenean ezin adiskidetüz beren egiaren inposatzeko, nahiz protestantek nahiz katolikoek zoinek gogorkiago gerla baizik ez züela gogozkatü, bena Intxauspe metodoen esplikatzen ez da lüzatzen.

Ez dü Intxauspek gezürrik erraiten egiaren erdia baizik, ezpeita jakitate libürü bat *Uskaldunaren güthüna* egin düana, bena bai jente xeheentako, popülüarentako eginik, xehetarzün sobera emaitez jenteek estakürü horien artean deus ezpeiliroie entelega eta apezek beren perediküetan erabilteko gisan emanik.

Elizaren altheko lehen arrazunatze hortan ageri da, beharbada eliza katolikoak Frantzian züan potere handiegiz, harroki eta gogorki mintzo dela Intxauspe, gero Errepüblikarekin egiazko arrenkürak izanen badütü ere. Elizak XIX. mentean opinionearen kontrol handiegia bazüan eta besteak ez errespetatzen, egia da Frantses Iraültzak eta errepüblikak ez düela Eliza sobera errespetatüko Erromako Elizari gerla eginen baizik.

Mahometanoak edo türkak

Orai musulmanak arabe deitzen dütügülarik, haboroenak ez dira arabe, errelijione hortan nausi dira beltzak, pakistaniarrak, iraniarrak, indonesiarrak, hala hala lehen türk hitza mahotemanoen beste izen bezala erabilten zen eta omen Eliza katolikoaren etsaiak ziren:

«Mahomet izan da ifernüak egiazko errelijionearen kontre igorri düan gaistoenetarik».

Ondotik llaburtüren dügü zonbat estakürü badüen mahometanoek:

1. Eskolarik gabeko kamelüzain bat zela Mahomet (bena zer eskola züen Kristoren arrantzaleek?).
2. Mahometanoek ez züen dretik katolikoek bezala mündü güziala hedatzeko.
3. Alhargüntsa jüdiosak bere fortüna ützirik aberastü zelarik nahi izan zela bere herriko gehien izan. Kontatzen deikü nola Mekatik kanpoan eman zioen eta nola Medinan lagünak bildü eta gerlaz bere fedea hedatü.
4. Hona Koran liburüaz zer dioen:
5. «Bena errelijionea ezkibarazi züan Korana deitzen den librü batekin, bürürik ez büztanik eztüan libüru bat da: kristian eta paganoen errelijioneaz eginik den nahaspuila itsusi bat».

Azken arrazu huni oraiko ikherzaleek liokie errelijioneak oro nahaspuilak direla, batetik besteala ezpeita eta ez lüke izan behar etenik. Bibliako lehen kapitülüak mündiaren sortzeaz, dilubioaz, paradüsiaz Mesopotamiako eta Sumereko pagano errelejionetarik hartü zütüen judioek, gero eztira ez aingürüak, ez eta ifernüa kiristiek asmatürik. Aingüriak aspaldi zaharragotik Indiako sinestean *apsara* delakoak beitira. Beste Mündüan arimen jüjatzea, Egiptotik hartü zen. Kiristiek, Elizako Aitek geroago Platon, Aristoteles eta Demokrita paganoen filosofiak onhartü zütien. Ez dio Ekialdeko herrietan eta orozgain musulman errelijionean besteen profetak ohoratzen direla, Zonbat musulmanek ez düe Jesus izena ekarten Aiza forman, Musa Moises, Brahim (Abrahan) eta beste. Ezpeita nahasi gabeko errelijionerik.

Leheneko apezen litania izan zen beste errelijionetakoak bizioz beteak zirela eta kiristiak garbi garbiak hola zion Intxauspek:

«Hartakoz ere mündü hontan lohikeriari üzten dü libertate oso bat. Gizoner haizü üztez nahi düen bezainbat emazteen hartzea eta kontent eztirenean haien igortea».

Bai, agian legezko poligamiarik ezta Kiristien artean bena erregeek ez züen lotsa mistress, andre baten edo bigen hartzera. Bestalte jakin behar da Mahometek ez züala poligamia asmatü, bera beno lehen.

Asian lekü hanitxetan beitzen, bena bera hainbeste gizonekin gerla egitera joanik, arraza gal ez zedin ez zen ausartu monogamia galtatzea.

Intxauspek ez dü erraiten nola Islamak, mahometanoek, ogen egin zien kiristitarzünari: lekü hanitxetan galarazi bena: ez osorik Sirian, Egiptan, Ipar Afrikan eta San Agostiren herria musulman izateak, agian, min egiten zeion Intxausperi, bena hori eztü aipatzen.

Framazonak edo Hargin Beltzak

Artikülü hau azken bi edizionetan baizik ezta agertzen erran dügün bezala hirurgerren Errepublikaren sortzearekin Elizak Frantzian züan potere eta itzalaren galarazteko laikotarzünaren lehen ürratsak eman ziren.

Ez da düdarik hortan Hargin Beltzek beren lana egin züela, bena Uskal Herrian ere beste exkerreko indarrek ere bai. Zerk ekarri züan Intxausperen kolera berria? Jules Ferry ren politika laikoak.

Denbora hartara artino elizak konkordato bat bazüan sinatürik, gobernüak apezak phakatzen zütian, gobernüaren lizeak motikoentako balin baziren nesken eskolatzea osoki seroren esküetan zen. Falloux legearekin kontrolatürik, kongregazioneek bestalde eskola hanitxen jabe ziren eta hortarako baimenak bazütien, Jesuitak legez kanpo ari ziren. Jules Ferry antiklerikala zen, eta jesuitekin hasi zen 1880eko martxoaren 29-30.an bi dekretoz Jesuitak debetatü ziren eta hiru hilabete ützi baimenik ez zirener kanpoa har zezen eta beren kolejioak ütz hona zer zion Jules. Ferry famatuak:

> «Baimenik gabe autorisazione gabe irakasten düen kongregazioneak hunki nahi dütügü eta berheziki gure historiatik baztertürik Jesusen Konpania. Bai heer nahi deiegü frantses gazteen arimak idoki» (Jules Ferryren dekretoa).

Lehen heineko eta bigerren heineko eskoletan Errepublikak jakobinismoa azkartzen dü. Frantses handientako zibilizatu behar beitira «les races inférieures», «les langues inférieures» hots Jules Ferryren hitzez, bai Frantziako peko arrazak, bai Afrikakoak. Ferry arrazista hori kolonialista errabiatüa izan zen bena gure exkerreko demokrata handiek gora aipatzen düe; hala hala Paul Bert, eskoletara; igorten züanak eskola libürüa motikoen arma erabilten ikas zezen.

Onésime Reclus ezkertiarrak 1855.an peko jente aphal horietan sartzen zütian Bretoak, Uskaldunak, Altsasiarrak.

Eskola dohainik izatea aitzinapen handia izan zen nahiz. egia da Uskal Herrian jenteak ez zirela hastean baliatü Ez da harritzekoa Errepublika berriarekin Intxauspe kexü izatea.

«Errelijionearen oraiko etsaietan gaitzena da Framazonak edo Hargin beltzak deitzen den khidegoa. Satanen konfraria da eta eztü jagoiti Satanek holako harmadarik lürrean bildü Jinkoari eta haren Elizari gerla egiteko» (op. cit. 1893.).

Hargin beltzak, xede beltzekin, ülünpeko eta sekretüzko jenteak dirade.

Lehen xedea Intxauspen arabera: «Errelijione katolikoari gerla egitea».

Bigerren xedea «Erregen eta berheziki errege khiristien kentzea, haien galeraztea», Errepüblika bazter orotan sarthüz.

Intxauspek sinestarazi nahi dü errepublikano eta hargin beltz izatea ber gaüza dela eta nor diren khideak erraiten:

«Lagünak edo khideak dira aberats ahal bada eta errege khiristi gaistoak eta jüdioak».

Ezta argi nola erregeak hain ütsüki hargin beltzetan sartzen ziren, Framazon delakoak erregetzaren kuntre baldin baziren. Jente xeheentako argiago izan dadin Intxauspek errelijione bat dela erraiten deikü:

«Hargin Beltz sinestea errelijione bakotxak oro besarkatzen dütiana eta khanbiatüko eztena da».

Norbaitek pentsa liro errelijione güziak biltzen badütü ez dela hain gaisto, bena kasü:

«ükatzen düe Eliza eta haren zeremoniak, bizitza eternala; arimarik eztela, ez eta Jinkorik».

Eztü ezkribatzen Intxauspek Hargin Beltz ez diren jente frankok bardin pentsatzen düela, bena Jinkoa ükatzen düela ez da egia zeren *L'Etre Suprème* izena emaiten baitioie ere, Jinkoa ez düela haboroenek baztertzen.

Nola funtzionatzen düan Framazoneriak xeheki erraiten deikü, badirela nibelak, heinak hein apalean apendizak, artean lankhideak, gorenik nausiak eta goihenena Nausi Handia. Nausiek thegiez kanpo badütiela beren arteko sekretüak Gibel Thegietan eta barneko zaldün gradoak, bena nekez sinets giniro ondotik irakurten dügüna:

«Hiltzeko phenarenpean begiratüko dütiela khidegoako segretiak eta ütsütüki obeditüko khidegoako erreglamentüer eta gehienen manhüer. Khidelagünak eraikiren eta ürgaitziren dütiala eta jagoiti eztüala bere izena emamen Framazoneriaren etsai datekean sozietate bati» (aip.lib. 412-413.orr.).

(Azken phüntü horietan Intxauspe okher dago, lehenik bizia penareki eztela sekretürik salatü behar eta bestalthe badakigü Hargin Beltzak jarraikiten ahal züala Eliza katolikoan «etsaiaren sosietatean» ibilten).

Elizaren etsai direlakoan bere gisako zerbaiten berri emaiten deikü allegia Zaldün Kadoschen bandera zer den argitzez: «Hirur bürütako süge bat beitoa, batean errege khoroa, bestean aita saintuarenaz eta hirurgerrenean ezpata, erran nahi beita Erregeren Aita Santiaren eta Errelijionearen ehaitea».

Judioak

«Jüdioek indar badüe Framazonerian: haboroenak konfrarian beitira, aberats, abill, atzipetsü eta aiher khiristier, berak eztira hanbat agertzen bena besteak erazten dütie» (aip. Lib. 414.o.).

Pentsatü behar da ber arrazuekin XIX. menteko ezker antikapitalistek judioer ber ezinikusia ber aiherra zeiela.

Hargin beltzen gaizkiak historian

Lehen Erreboluzionea edo Iraültzak zeiela Luis XVII, Marie Antoinette bier bürüa moztü, 1830 iraültza eta halaber 1848.ko iraultza egin.

Azken kapitülüa etzen lehen edizionetan agertzen; gerokoetan bai, berak oritarazten deikünez 1871.an Komunako iraultzaleek Pariseko artxebiskoa füsilatü beitzüen Garzia Moreno Ekuadorreko presidenta 1875an. Pio IX aita santiaren ministroa 1879.an, nabela khaldüz akabi Leon XIII Franchi kardinala pozoatü gero Errusiako enperadoreen ehaitea hanitx aldiz bonba edo dinamitaz. Heben Anarkistak ere holakoak Hargin Beltzetan sartzen dütü. Azken edizionetan eztü Intxauspe laikotarzüna irensten eta Jinko gabeko eskolaz hola mintzo zaikü:

> «Uste beitüa arrazoekin errelijioniaren galarazteko biderik hoberena dela lehenik haurren eskolatzea errelijionerik erakatsi gabe, bigerrenekorik aphezen gütitzia eta galeraztea bi xede hoier bürüz azkarki ari dira».

Jules Ferryren 1880.eko legeak eta erreformak gure kalonjeak kexarazten düe:

> «eskola komünalak oro gobernamentüak phakatzen dütianak khentüren direla seroren eta fraideen esküetarik eta laikoer emanen».

Intxausperen beste khexüak:

Gobernüak ezdütiala apezak haboro phakatü nahi, apezgeiak soldado joaitera obligatü. Ehortzetak apezik gabe egiten (agian gogoan zuen Agosti Xahorena). Elizak ilherrien monopolioa galtzea, dio:

> «Legea ekharri düe sineste gabeak eta errelijione orotakoak nahas ber lürrean ehortziko direla».

Dibortzioa Hargin Beltzen ogenez agertü omen zen: «Jesü Kristek erakatsi dü ezkontzea eztitakiela barreia, erran dü Jinkoak jüntatü dütianak gizonak eztitzala solta eta haiek aldiz ekharri düe ezkontzen barreiatzeko legea».

Eliza arrazu düala erakusteko lüzaz kontatzen deikü nola kolonel Hargin Beltz bat katolikotarzünera eta fedeala ützüli zen. Itze hori ezpaliz aski barna sartü kiristiak kexarazteko zerak aipatzen dütü, frantsesez idatzi propaganda paper batetik hartürik.

> «Harritzeko dira Framazonek beren gibelthegietan egiten dütien itsuskeriak. Batheiari ükho egiten, khürütxia ostikatzen, Jesü Krist bürhaustatzen. Ostia Saintiak elizetarik ebatsirik edo sakrilejioki errezebitürik eta harat ekharririk profanatzen dütie, thüstatzen eta ganibet khaldüz zilatzen».

Azken deskripzionea sorgin eta belagileen akelarretan egiten zen üdüri da eta Lapurdin edo Espainian XVII. mentean alegia kiristitü judioek ber gaüza egiten züela aküsatzen ziren eta ehaiten.

Intxauspe bere denborako gizona izan da, eta libürü hortako kapitülüak frantsesez erregetiarrek egiten zütien gisakoak dira. Anai Elizanburu fraideak holakoak kontatzen dütü *Hirur errepubliken historian.*

Bestalte Elizak ordüan hartzen zütien ostikatekin apezak bühürtzea ezta estonagarri., bai azkenean frantses Erreboluzione Handia Elizari jokatzez jente eskolatü franko *Argien menteko* agerpenetik, *Ülünpe mente* batetara igaranarazi zütian eta apezak nola ez? Hain xüxen denbora buxi bat baratzen baitzait Intxauspe aitzineko menteko ziberotar zen Jüsef Egiategireki konparatü nahi nüke.

Egiategi argien menteko errelijionen alkar errespetü eta egarpenaren alte.

Jüsef Egiategik filosofia libürü bat ezkribatü zian bere gisako eüskaraian *Filosofo hüskaldünaren ekheia,* Lehen partea Euskaltzaindiak agerrarazi zeitan. Egiategi soldado izan ondoan errejent izan ondoan Mauleko lehen kolejioan «Humanités» erakasle izanik Erromako eta Greziako historia zaharrak ontsa ezagützen zütian eta etsenplü bezala pagano hanitx emaiten.

Paganoak

Intxausperen kinbereala Egiategik paganoak miresten dütü eta *haurren eginbideaz aitamen eretzian* kapitülüan idazten deikü.

> «Tertulianek dio Lazedemonak deusere etziela erresolbitzen aiten thonbetan jarririk baizik heen obrak jakile izan zaitian deusere gaitzik etziela egin nahi».

(***Filosofo hüskaldünaren Ekheia,*** lehen libürüa, 127.or.):

Beste güne batetan etxekoen errespetüa eta etsenplüa paganoen artean zoin zen azkar erakusten deikü:

«Damaskenek ere dereikü erraiten bizidünak apairürik etziela hartzen non etzien bizitziaren premisa, bizia eman zereiener eskentü» (aip. lib. 183.or.).

Sinestean ere paganoak arrimü hartzen dütü, «Hilen bitzairaz» kapitülüan.

«Dügün Paganoak ikhus Anaximandra khorpitzen pitzairaz gaüza ützezgarriak bezala da mintzo. Demokritak ere gomendatzen dü hilen ehorztea direlakoz haren arauiala arrabiziren» (...).

«paganoetan zen jende süerte bat beren legetzaz (...) zioelarik ahalke handia zela bizitziari haiñbeste amorio erakustea kristianetan aldiz lauetan hogeietan ber kasüan hamabi dotor deith lirokienik dira mündia,. Estekamentü holakoa ez dea harrigarri» (agertü gabeko libürüan 183.or.).

Mahometanoak edo türkak

Egiategi egarpenaren althe da:

«Türkak kiristiak eztirade, alabada ere badüe besta egün bat behiram deitzen düena hartan düe Jinkoari hitzemaiten barkhatzen dütiela etsaier egin dereien ogen güziak» (Behiram Ramadanaren azken eguna da).

«gü girade kiristi barkhamen hau da gure lehen legean. Zer girade? Türkak beno sordeitz giradenean. Gure aitamen manhier bihürtzeko» (aip.lib 136.or.).

Türkez Egiategik beste mirespena erakusten deikü:

«Nori dolü elizateke Türkiak bere akadoia (justizia), gure herrian ezten jarri. Han abogatürik ez eta proküradorerik ezta batere. Nork bere züzena Bizir Handiaren aitzinean dü pleteiatzen. Harek galdü düanari, düan ogenaren arauiala, belhariko jarrerazirik 40 edo 50 makhila khaldü, hoin zoletan dereitzo emaneraziten eta audientziatik kanpo düe urthikiten honat berriz eztadin khoi jitera».

Hala Akhadoikeriak (jüstiziakeriak) eztü laborari gaixoa hezürretaradrano jaten ta hoinen minez ibil ezpadaite ere, jarririk dü etxen ogi jaten eta gogo honez dü mina berakatzen (lib. aip. 225.or.).

Higanautak edo protestantak

Egiategiren bigerren libürüa ezta sekülan agertü Euskaltzaindiko sistema digitalean omen da, bena agertü behar züan libürüa bekanikaz jo beinian kopia orano badüt. Gauza ezinago jakingarriak kontatzen deizkü, ezen protestanten althe mintzo beitzaikü. *Errelijionea* izeneko kapitülüan irakurten dügü:

«Eztait arrazoan daudenez hotzki bizi behar giradeala gure errelijionean etzireneki ezi güziak girade Adanen seme ta aurhide. Errelijioneen diferentziak (banaitiak) askazigoa hori desegin eztiro; uste badüt nere errelijionea anglesarena beno hobe dela, haren gogoan khinperra dago. Enian ezta legerik harena dezadan

güda, berean da hain gizon pherestü nola ni enian, ni enian beno anglesa berean leialago».

Protestantez mintzo dio, Luis XIV gerrenak, ogen handiz higanautak zütiala kanpoan ezarri:

«Lois XIV.ak zütialakoz errelijionean bere popülüak eskerniatü, gerla tristetan zen sarthü, milion bat gizon Frantziatik desterratü ta deuse honik obratü, lana etzelakoz Jinkoari agrada» (lib. agertu gabean 238.or.).

Errepikatzen du franses errgeak *Edit de Nantes* hautsez horrekin higanautak Frantzian debetatü zütianekoa:

«Lois XIV bere konfesoreaz enganatürik Nanteseko Edita errebokatzera atrebitü zen ta Jesuiten amorioaren gatik bere photerean galtzera herena; zilegi etzaikü Jinkoaren justizietan so egitea bena zirelakoz Jesuitak lür güziaz hügüntürik dirade orai judioak bezala lür guzian herratürik» (agertü gabean (250.or.).

Angleterrako protestantak aipatü ondoan, Alemaniakoez konplimentü egiten deikü bera Belako zaldünareki Prüsian gainti Polonian gerla egiten ibil beitzen:

«Prüsiako erresuman bada errelijione güzietarik ta heen artian ez aharra bakhoitzik (..) ezi arrotz heetan kalbinista frantsesek saldoa dienak handi. Nork eztü ezagütüren alabadere Alemanak eta Prusianoak bezain mantso daudeala bakean Hirur Johane Lili bethi bihotzean dütükiela hilartio dioelarik».

Errelijionen egarpena eta errespetüa

Errelijione gerlak eta bortxak Intxauspek aipatzen ez zütianak Egiategik emaiten deizkü, eta etzaikü batere misionen alte agertzen.

«Gauza zaharretan dügü fedia hain tinko non sinhets ezpeikiniro gure aitasoak ibili direla bide okherrean hartakoz indianoak zioan: nahiago zela aitekilan ifernian eziez khiristien lagün pharadüsiaren esperantzan» (agertu gabean, 239.or.).

Jenteen kunbertitzeko eztü armadetan sinesten eta lüzaz goretsi ondoan Frantzia katolikoa Aleman printze protestanteen althe agertü delako idazten dü:

«kanon khaldüz pharadüsüko borthak eztirade phorrokatzen ezetare heetan jendia bortxaz sareraziten» (ag. gabean 242.or.).

Beste güne batean irakurten dügü:

«errelijioniaren astakürian zonbat gerla hari arrotz ziradianak ta kapa haren pian zonbat latzeria ta herio mündian» (ag. gabean 240.or.).

Bai azkenean erran niro Kristok kiristier alkar maita zazüe erranik, alkar maitatzen züela protestanteek eta katolikoek, alkar eho ondoan.

Zertan diren errelijioneak

> «Auherki geroztik Jinkoak bere semea lürrilat igorri zelüko segretüetan jendearen argitzeko. Zer da handik helthü? Jüdioak diradeala bere lege zaharretan egon ta J. Kristena ükhatü, mahometanak sorthü eta teologiaren aharrek Europaren bi herenak Luther, Calvinen eta zonbait beste heresiaz bethe» (ag. gab. 196.or.).

Zentako hainbeste errelijione

Lehen arrazua:

> «errelijione egiazkoak bester eztü mespretxürik ekharten bena bai heer errespetü eskentzen» (239.or.).

Bigerren arrazua:

> «Dezagün arren Jüdioa, Calvinista Lutherian ütz beren sinhestetan, khatolikak bezain khiristiak dirade, bi azkenak: halako Jinkoak nahi ezpalütü, hitz bakhot nahi bezala lütüke. Jüdioak ta türkak beren errelijionen gozomen osoan dütü üzte» (a.g. 242.or.).

Hirurgerren arrazua:

> «Dezan nork berak jarraik zelüak eman dereion bürübidia, hau delako gizonaren arau xuxenena» (a.g. 242.or.).

Laurgerren arrazua:

> «Nor berian dagoeno berziak beza ütz bizitzera heen iritziak faltsü izanik ere» (a.g. 242.or.).

Bosgerren arrazua

«jenderik ezta aiten errelijionia etzereienik hoberena, hartakoz berri baten aipamenak ohiltzen eztiana» (a.g. 239.or.)

Intxausperen libürüan errelijionearen etsaiak aipatü ondoan *Egiazko errelijionea* aipatzen deikü eta zer den erakusteko miraküiliez bermatzen, Egiategi aldiz filosofoa dügü, berak dion bezala. Monoteista sinesteek Jinko bakhotxean sinesleek uste düe bakotxak egiaren jabe direla eta besteek ez, Egiategik aldiz dio:

> «Egia bezain gorderik ta ez ezagütürik mündian ezta gauzarik? Demokritak egia baizik bere bizian erran nahi etzianak zion: haren altharea lanhoz eta odeiez estalirik zagola hartakotz hartan ihur hel ez laiteala».

Ber mintzajea entzün günian behin Birmaniako Bonza jakintsüenari erran beitzeikün Budaren libürü guziak bazakitzala, Biblia beno hamar aldiz handiago izanik ere, bena hil artio egiaren ondotik ibiliko zela ezpeita gizonen helmenean.

Eztakit Egiategi etzenez Intxauspe bezala mintzatüko Hargin Beltzez, Frantses Iraültzaren ondoan eta Elizak ezagütü itzaltze haren ondotik, ezkiribatü balü. Adios egarpena? Adios errespetüa? Nork daki? Haleikere nahiz bi ziberotarrak bakoitza bere menteko gizon izan, Intxauspek etzüan Egiategiren ber xedea.

Errelijioneak, legeak eta zibilizazioneak gizonen obrak direnez beren nokü, hütsak, okherrak emaiten dütie, bena bakhotxak, poterea izanik ere, bestearen errespetatzen eta egarten ikasi behar lüke. Halabiz.

INTXAUSPE AXULARREN ZENTSURATZAILE? *GERO*-REN GAURKOTZAILE?

Atharratze, 2003-IX-25

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Frantses iraultza, aski laster, Elizaren kontra jokatu da, hain zuzen zatikatua baitzen Frantzia erregeen garaian, hiru sail zirela: lehena, eliza, bigarrena, nobleak, azkenik jende arrunta. Jadanik 1790eko uztailaren 12an Lege Biltzarrak bozkatzen du «Constitution civile du clergé» lege famatua, apezpikuak eta apezak jendeek izendatzen zituztela bertze agintari guziak bezala eta 1790eko azaroaren 27ko dekretoak galdegiten zien apez eta apezpiku guziei zin egitea Frantziako lege nagusi berriari.

Egia erran, Euskal Herri honetan gutik zin egin zuten, bainan lekutu behar izan zuten, gehienak joan zirela Hegoaldera. Egia da ere batzu tokian berean egon zirela gorderik eta ahal zuten bezala meza emaiten zutela. Bainan «Terreur» edo Robespierre-n garaian bultzatua izan zen bertze erlisione bat Arrazoin Jainkosarena. Zin egin zuten apezei galdegiten zitzaiela beren apezgoaren uztea. Eliza batzu sabai gisa erabiliak ziren eta zenbait herritan erre ziren liburu sainduak, apez jauntziak eta noiztenka erretauletako zuriduriak.

Robespierre erori-eta giroa aldatu zen emeki-emeki: elizak berriz kontsakratu ziren, apezak herbestetik berriz etorri, bainan bakearen lortzeko osoki behar da igurikatu zenbait urte. Anartean Napoleon Bonaparte lehen kontsul izendatua izan zen eta 1801eko uztailaren 15ean sinatu zuen konkordatua Aita Sainduarekin. Den gutienik hamar urteren izialdura Frantziako elizarentzat.

Emeki emeki berpizten da Baionako eliza, Loison apezpikua duela buru, Inperio garaian. Gauzak aldatuko dira osoki Louis XVIII.a jarriko delarik tronuan, tronua eta aldarea elgar biltzen direla iraultza baino lehenago bezala:

Biba Frantzia
Biba Fede
Beti Frantzian
Borboi Fede.

hori da aldarrikatzen den leloa.

Orduan hasten dira herriz herrietako misioneak Hazparneko misionestek eragin haundia lortu zutela Iparraldean, d'Astros apezpikuak (1820-1830) sortu zituelarik (1821). Nahasmendu haundiaren ondotik —hala deitzen zen orduan frantses iraultza— Elizak, misionestei esker, bildu nahi ditu euskaldun guzien arimak. Ohidurak aldatu dira azken hogeita hamar urteetan eta beraz prediku alkitik erakusten dute laburra dela bizia eta Jainkoaren hasarreak ifernura igorriko dituela jende gaixtoak ez balinbadituzte Jainkoaren manamenduak segitzen. Euskarazko «Dies Irae» delakoa entzuten da ehorzketetan:

Bizia labur, hiltzea segur
Gauza dudarik gabea
Ororentzat da egin legea
Ororen zorte dorpea
Bertze munduko athea.

Azken eguna, azken jujamendua aipatzen du kantu horrek bereziki 2. eta 3. bertsuetan:

Salbamendua dezagun obra
Kartsuki orai beretik,
Aldatu behar bizi huntarik
Ez jakin noiz eta nola
Gauden beraz pentsaketa.

Bizia ez deus hau utzi orduko
Hor dugu jujamendua,
Nork bederak du eman beharko
Hertsiki bere kondua
Laster dukegu ordua.

Aspaldi danik Elizak zabaltzen du parabisua eta ifernuaren arteko eztabaida, onen edo justuen eta gaixtoen arteko jujamendua, batzu eskuin aldean gozatuko dutela betiereko zoriona, besteak aldiz, ezkerrekoak erreko direla ifernuko sugarretan.

Adibidez, hona XVII. mendean, *Ah !gizona!* deritzan kantuan zer aipatzen duen Joanes Etxeberri Ziburukoak:

Berehala juje mendekariak
Zabalduren dik suzko lezea,
Han beharko tuk tormenta guziak
Bethi jasan, oi zorte dorpea.

Badira euskaldunen artean ifernurako bidea hartzen dutenak dudarik gabe; horiek dira musikariak, arrabit joileak, txülülariak, besteak dantzara gomitatzen dituztenak. Dantza da, orduan, lizunkeria sortzailea. Zenbat eta zenbat arima ez dira galtzen dantzarekin eta horren bidez seigarren eta bederatzigarren manamenduak begiratzen ez dituztenak.

Hain zuzen 1832an Atharratzeko elizan Garat soinulariaren ehorzketetan bikarioak, Musde Tiraz-ek, erran omen zuen kutxaren aitzinean: «Deitorazazue ifernuan erretzen ari den arima honen zorigaitza; madarikazazue betikotz soinulariaren ofizioa; zenbat hemengo jende ez dira jadanik ifernuratuak dantza tzar horren gatik hil honek hain luzaz zerbitzatu duena. Arima gaixoak oroit zaitezte zuen bizi-moldearen gatik zorigaitz berbera heldu zauzuela».

Iduriz ez zuen Musde Tiraz-ek aski erran. Kutxa hartzera zoazilarik hil harrietara eremaiteko hasi zen berriz:

> «Memora novissima tua et non in aeternum peccabis». «Oroit zaitezte zuen azken egunaz. Gorputz honetan egon den arima oroitu bazen horretaz ez zituen ezagutuko beharbada egun pairatzen dituen oinazeak. Hemen daukazue Zuberotar erdiak galdu dituen gizona. Orai artio deabruaren zerbitzaria izan da».

Orduan elizan zagon jendea azaldatu zen, bainan gertakari honek erakusten du nola jokatzen ziren zenbait apez.

Zuberoan ez ziren bakarrik dantzaren kontra predikatzen ari, pastoralak ere debekatzen zituzten. Oroit gaiten Barkoxeko erretoraren kontra Etxahunek bota zituen khantoreak:

Barkoxeko neskatilak
Eginez phastoral bat,
Ezin atsolbituz dira higatürik oski zolak,
Eta haieri sogitera jin zirenak orobat.

Dantza, pastoralak, bertsularitza, jostatzeko edo soleitzeko ekintza horiek debekatzen zituen elizak. Ostatua zen toki lanjerosa, han orditzen zirelakotz gizonak, han ere entzuten baitziren bertsolariak. Ez ditu estimu handitan Camoussarry Ziburutar apezak. Interesgarriak dira «Basa koplaria» deritzan kantuaren azken bertsuak:

Ezin detzake arrima
Lau bertsu elgarrekin,
Ez baditu, o lastima!
Lokarritzat lau hitz zikin.

Hik galtzen duk hire koplaz
Jakin ezak hire krima,
Jesu Kristoren odolaz
Erosia den arima.

Malurusa hire koplaz
Bil-ustez zernahi fama
Galtzen duk Kristok odolaz
Erosi hire arima.

Zenbat gure herrietan
Ez dira gastatzen hasi,
Gaizkia hire kopletan
Zeren baitute ikasi.

Ikara hadi, tristea!
Laster bahoa tonbarat,
Ikusak hire zortea!
Kantaz hoa ifernurat!

Ikus daiteke ideia berberak erabiltzen dituztela bai Tiraz eta Camoussarry apezek, ahantzi gabe Schmarsow Barkoxeko erretorak ukatzen zietela bekatuen barkamendua Barkoxeko neskatilei eta pastoral so-egileei. Halakoa zen orduko giroa.

Frantses iraultzaren ondotik burgesiak bereganatu du boterea. Industria sortu da Napoleon-en gerletarik landa, 1820etik harat eta Guizot ministroak bota zuen oihu famatua : *«Aberats zaitezte»*. Bigarren Errepublikaren ondotik (1848-1851) Inperioak sortuko du «ordre moral» delakoa, hain zuzen burgesiari hastio zitzaiolako anarkia eta beharrezkoa zuelakotz boterearen ganik jinikako larderia hobeki aberasteko. Etika da beraz nagusi lekuko direlarik, Flaubert eta Baudelaire-n kontrako auziak. Lehena, 1856. urtea bukatzean erranez *Madame Bovary* eleberria zoala etika publikoa eta erlisionearen aurka. Ez zuten kondenatu Flaubert. Bertze urtean aldiz, 1857an, Baudelaire olerkariaren *Les fleurs du mal* auzitan ezarri zuten, hau ere etika publikoa eta bizi molde onaren kontra, kondenatua izan zelarik olerkaria.

* * *

Denbora berean, Iparralde honetan ezagut daiteke euskararen aldeko oldar bat. Diharce de Bidassouet-ek argitaratzen du *Histoire des Cantabres ou des premiers colons de toute l'Europe avec celle des Basques, leurs descendants directs... et leur langue asiatique-basque* (1825). Lécluse-k Tolosan publikatzen du bere *Dissertation sur la langue basque* (1826). Agertzen da ere Baionan Darrigol apezaren *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque* (1827). Hogeita hamarreko hamarkadan bi gaztek Antoine d'Abbadiek eta Augustin Chaho-k eskaintzen diete zazpi Euskal Herriei *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne* (1836). Chaho-k segituko du *Ariel* aldizkariarekin, hasia duelarik jadanik euskaldun kantuen bilduma.

Orduan ere hasten dira idazle zaharren obren berrargitalpenak: 1847an, Bordelen agertzen da Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* titulu honekin: *Poésies basques de Bernard Dechepare, recteur de Saint-Michel-le-Vieux. Publiées d'après l'édition de Bordeaux 1545 et traduites pour la première fois en français*. Edizioaz Gustave Brunet arduratu zen eta Archu-k egin zuen frantses itzulpena. Bainan, eta horretan ikus daiteke orduko giroaren eragina,

«Emazteen fabore» olerkiaren bi estrofa oso ezagunak *«Munduan ezta gauzarik hain eder...»* hasten dela lehena eta *«Io badeza dardoaz...»* bigarrena,argitaratu baziren euskaraz ez zen menturatu Archu bi estrofa horien itzulpenaren eskaintzea. Hona, beraz, nola Etxepare zentsuratua izan den frantses itzulpenean, laiko bat dela zentsuratzaile.

Bigarren berrargitalpena Axularren *Gero* da, 1864an, Baionan, Lamaignère alhargunaren moldeguintçan, titulu luze batekin : *Gueroco guero edo arimaren eguitecoen gueroco utzteac cenbat calte eta çorigaitz dakharquen. Gogomenac, escritura saindutik, eliçaco dotorretaric eta çuhurren liburuetaric, Axular Saraco erretorac bilduac. Edicione berria, garbitua, chuchendua eta bere baithaco ordenan emana.*

Behar diren baimenak ukanak ditu "edicione berri" horrek, bai alde batetik Haramboure bikario jeneralarena eta bai ere François Lacroix jaun apezpikuarena, otsailaren 2an lehena eta otsailaren 4an bigarrena. Titularen azken hitzak nahi nituzke bereziki azpimarratu : *garbitua, xuxendua eta bere baitako ordenan emana. Gero*ren kapituluen ordenaren eztabaida hasi da hain zuzen Intxauspek argitaratu duen argitalpenarekin. Berak dio aitzin solasean ez zuela Axularrek gidatu eta artatu 1643ko argitalpena eta deplauki, deus beldurrik gabe hauxe idazten du.

> «Badirudi Axularen guthun edo paperac emanac içan cirela imprimatçailleari ondozcatu gabe, ordenan eçarri gabe; eta hunec imprimatu dituela albeçala, escuen artean guerthatcen citçaican ereduraz, lehena azquen, azquena lehen; etçuelacotz guidariric eta ez chuchençailleric».

Utziko dut alde batera Intxausperen iritzia ez delakotz egokia ene ustez. Alabainan Lafitte-k aurkeztu zuen bertze bat eta Patxi Salaberri Muñoa-k erakutsi du bere tesian ordenan ezarriak zirela kapitulu guziak eta nihaurk ere erakutsi ordena horretan non bukatzen den lehen partea eta non hasten bigarrena.

Gelditzen dira bertze bi hitzak: *garbitua eta xuxendua*. Bainan zer da Intxausperen ikus-moldea bi hitz horiek idazten dituelarik? Zer da garbitzea? Zer da xuxentzea? Aitzin solasean berak emanen digu bere pentsa-moldea:

> «hutsac ahalaz khendu edo chuchendu ditugu; cenbait nasqui guri ere itçuri çaiquegu, ezpailitaque bertcela; baina hequiec, uste dugu, iracurçailleac aise chuchenduren dituen»

Honekin badakigu zer den xuxentzea: hutsak edo erratak kentzen ditu, aitortzen duelarik egin ditzazkela berak ere. Bertzerik da garbitzearekin; Intxauspek, ahoan bilorik gabe, erraiten digu zertako eta nola egin duen garbitze hori. Pasarte luzea da bainan adierazkorra:

> «guti toquitan behar izan dugu Axularen mintçaia ere estali, aphaindu edo aldatu, oraico ienden delicatasunagatic. Axularen demboran, bai erdaraz bai euscaraz, orai baino libroquiago eta nasaiquiago mintço ciren; gaucen bere icenaz deitceaz nehor etcen asaldatcen. Oraico azturac nahiz eztiren orducoac baino

hobeago edo garbiago, bai ordea minberago dira beharriac; eta benturaz gogoa ere gaizquiaren phensatcera çalhuago eta lasterrago. Minberatasun horren ariaz, eta amoreacatic arima garbienec probetchurekin iracur ahal deçaten liburu ederra, garbitu, leundu eta aphaindu ditugu lekhu harro, cakhar (sic) eta gordinegui cirenac; alabaina osoric uzten dugularik Axularen laneguina».

Argi dago zer den garbitzea. Ñabardura guziekin erakusten du zer lan egin duen. Jendeen delikatasunaren gatik XIX. mendeak, jadanik ikusi dugun bezala, goraipatzen dituela bizimolde onak, hots, onestasuna, mende batetik bertzera aldatzen baitira azturak *«estali, aphaindu edo aldatu»* du Axularren mintzaia eta, dirudianez, orokorki mintzo da Intxauspe. Urrunago xehekiago idatziko du eta aurkatzen balin baditugu hitzak *garbitu* du *harro* zena, *leundu zakar* zena eta *apaindu gordinegia*. Hobeki ikusteko nola jokatu den Intxauspe, hartu ditut haragiaren bekatua aipatzen duten lehenbiziko bost kapituluak hamalau direlarik orotara, jakinik nola azaltzen dituen Eliza katolikoak seigarren eta bederatzigarren manamenduak XIX. mendean bereziki herriz herri doatzin misionen bitartez eta herri bakoitzeko apezen predikuetan.

Garbitu, leundu, aphaindu: hiru hitz horiek, dirudianez, erakusten dute zer lan mota egin duen Intxauspek *Gero* liburuarekin.

1–*Leundu*? *Aphaindu*?

Oraiko jendeen delikatasunagatik edo oraiko azturak nahiz ez diren ordukoak baino hobeago edo garbiago, bai ordea minberago dira beharriak, diolarik Intxauspek, horrek erran nahi du XVII. mendean erran edo idatzi zitekeena ezin zela erran edo idatzi XIX. mendean. Horren froga daukagu mintzaira arruntean: emazte bat haurdun delarik erraiten zen lehenago izorra zela eta hori zen hitz normala. Hala uste zuen Maria Solt-ek, bainan Barnetxbordako andereak erantzun zion emazte zaharrik ez dela oküpü agitzen edo beste toki batean erantzunen zioten ez zela esperantxetan izaiten ahal. Axular-ek aipatzen dituelarik bastartak idazten du: «Zeren nola ezpaita lejitimo, nola baita bastart, bort, ezkontzaz kanpoan egina, ezin mintza diteke libreki, iend'artean, ezin bururik ailtxa dezake: berehala lehenbiziko liskarrean putaseme deitzen dute».

Gaixo beharri minberak! Jende delikatuentzat ez daiteke hitz hori idatzi: p...seme eta bertzerik ez. Ez idatzia, bainan irakurle guziek ulertua. Azkenean, ez zuen bertzerik egin Jean-Paul Sartre-k idatzi zuen antzerkiaren titulan: *La p..... respectueuse*.

2–*Garbitu*

Nahiz Intxauspek goraipatzen duen Axularren mintzatzeko eta idazteko manera diolarik aitzin solasean:

> «Eztu Axularek bere antçoraco euscara bat eguin; eztu bere mintçaia makhurtu, bihurtecatu, escarniatu eta escaçatu, erdaren aderetara edo erregueletara plegatu nahiz, bertce cenbaitec eguin eta eguiten duten beçala. Harc euscara euscaraz mintzatu du eta esquiribatu: euscara garbia mintçatcen den toquietan, Zugarramurdin (sic) bere sor lekhuan, eta Saran bere erretorian erraiten den beçala».

Garbitzaile gisa jokatu da hitz batzu aldatuz edo gaztelerako maileguak zirelakotz, edo ez baitziren ulertuak izanen Iparraldean, edo pentsatzen zuelakotz hitz hobea eskaintzen ziola irakurleari. Hala nola etsenplu zenbaiten emaiteko bi lerrotan ezartzen ditudan.

	Axularrek	Intxauspek
444. or.	fabore	laguntça
446. or.	kastitatea	garbitasuna
448. or.	inozentzia	chorotasuna
452. or.	kulpa	gaizquiguina
453. or.	komun guztia	populua
454. or.	kaltekoa	kaltetakoa
472. or.	plazer	atseguin
472.	desira	hirrits

Egia erran, aldatze ttipiak dira eta ez diote kalterik egiten Axularren testuari. Bainan hobeki ulertzeko zer egin duen Intxauspek, hartzen dut etsenplu gisa XXXI. kapituluaren lehen paragrafoa bi idazkiak arakatuz, ikusiz dauzkaten diferentziak. Hasi aitzin ohargarri da konparatzea kapituluaren tituluak. Axularrek dio: «Zenbat kalte egiten duen haragiaren bekhatuak, lehenbizikorik itsutzen duela adimendua eta nola behar den hartan sartzetik begiratu eta sarthuz gero ere lehen baino lehen ilkitzera enseiatu». Titulu luzeegia Intxausperentzat lehen hitzak bakarrik hartuko dituela: «Cenbat calte eguiten duen haraguiaren bekhatuak». Labur eta motz karga guzia datzala «calte» eta «haraguiaren bekhatuak» hitzetan.

Orain bi testuak konparatzen direlarik egin daitezke hiru ohar:

1) Hitz baten aldatzea – Axularrek dio: «zer eginen du emaztetako bekhatuak?». Aldatzen du «emazte» hitza eta horren ordez ezartzen «lohiqueria». Hona mintzatzeko bi manera. Xoilki aipatzen du Axularrek emazteekin gizonek egiten duten bekatua eta beraz «emazte» hitzaz baliatzen. «Lohikeria» hitzak beste erran nahi bat badu, lohiarena, zikinarena, garbi ez dena, garbita-

Macho cabrío. Según Sanz Pezonaga, de **IRA** y sufijo **-SKO** diminutivo.

K

KILIKI

Cabezudo. Del euskera **KILI-KILI** «Cosquillas, que produce risa, por extensión».

L

LACHO

Cordero destetado que se alimenta de hierba. Del euskera **LATZ** «áspero, amargo».

LANCHURDA

Escarcha muy fuerte. De **LANTXURDA** «aguanieve, escarcha, llovizna de alta montaña».

LANGARRA

En Lumbier se llaman langarras a las nubes bajas. Del euskera **LANGAR** «agua de la niebla».

LANGARRAEAR

Que hay nubes bajas o que se hacen langarras.

LAYA Instrumento para labrar la tierra y revolverla, compuesto de dos piezas de hierro en forma de h. Del euskera **LAIA** «laya».

LAYAR

Laborear la tierra. De **LAI(TU)** «layar».

LIECO

Terreno que se queda sin cultivar. Iribarren trae «lieco» con el mismo significado para la Zona Media, Cuenca de Pamplona y Montaña. Se han propuesto diversas etimologías para esta voz. Alvar considera «lieco» adaptación del euskera «**LEKU**» lugar.

LERA

En Lumbier piedras lisas y llanas. Del euskera **LERA** «especie de trineo, carro rústico sin ruedas».

También especie de trineo de tablas para arrastrar carga, piedra, leña, etc.

M

MAITIAR

En el sentido de acariciar, halagar, cuidar. Del euskera **MAITA(TU)** «amar».

Cuando el niño está enfermo «se le maitia»

MANDARRA

Delantal. Del euskera **MANTAR** «trapo, pañal, delantal»

MALCARRA

Paja de las legumbres y especialmente de las habas. De **MALKAR** «paja de veza y gerón».

MATACHERRI

Estar de matacherri es estar de matanza de cuto. De **TXERRI** «cerdo».

MINZA

Se le dice a la telilla de la parte exterior de la cebolla. Se suele decir que una cosa es «más delgada que la minza la cebolla». Del euskera **MINTZ (A)** «dermis, epidermis, membrana fina que envuelve los huevos, castañas, cebollas, etc.»

MISINO

Minino, gato Del euskera **MISITSU, MITXITXU** «Gato, en lenguaje infantil»

MIS-MIS

De lo anterior vendría **MIS-MIS** para llamar al gato

MOCHA

Según José María Iribarren en Lumbier se dice mocha a la oveja que no tiene cola. Del euskera **MOTZ** «romo, corto, chato»

MOCHO

En Lumbier significa corto, pelado. Se dice que «el peluquero te ha dejado el pelo mocho». También de **MOTZ.**

MOTILON

Se le dice al buen mozo, fuerte y grande. De **MUTIL** «muchacho, chico, mozo».

MOKORDO

Excremento humano de forma cilíndrica. Del euskera **MOKORDO** «chorongo, excremento humano duro».

MOZCORRA

Borrachera, embriaguez. **MOZKOR** «borracho».

MOZORRO

Los encapuchados en Semana Santa y en la Romería de la Trinidad. Del euskera **MOZORRO** «careta, máscara, disfrazado».

MUGA

Límite, frontera. **MUGA** «término, frontera, límite, linde».

MUGAR

Lindar. De **MUGA.**

MUGANTE

Limítrofe, lindante. Decimos que esta huerta está mugante con la de fulano.

MUSTUR

El extremo o pico de un pan. Del euskera **MUSTUR** «hocico, jeta. En plural, labios, morros».

Ñ

ÑARRO

Pequeñajo, charro, canijo, desmedrado. Se aplica a personas, animales y cosas. Del euskera **ÑARRO** «pequeño, chaparro de altura».

O

ORDAGO

De uso general en Navarra. Voz utilizada en el juego del mus para significar que se pone en juego toda la partida. También, por extensión se dice de algo excesivo, fuera de lo común, que es de órdago: «Se armó un follón de órdago».

En euskera **HOR** «ahí» y **DAGO** está, del verbo **EGON** «estar», **HOR DAGO** «ahí está».

ONDARRA, ONDARRAS

Restos, pocos, sobras de comida. Del euskera **HONDAR** «residuo, hez, resto».

ORDEA

A cambio. Trabajar a *ordea* es trabajar a cambio de trabajo. Del euskera **ORDE** «pago, equivalente».

OSCA

Muesca, incisión. Según José María Iribarren es voz vasca. Sainz Pezonaga dice que **OXKA** en euskera es «hendidura, fisura hecha con instrumento cortante», **OZKA** «muella, mueca» de origen latino.

OSQUIADA y OSQUIAR, se usan en el mismo sentido. «La hoz está osquiada».

OTAMEN

Almuerzo o tentempié que se come a media mañana. Del euskera **OTAMEN** «bocado, merienda ligera, desayuno, bocadillo de las diez».

P

PACHACA

Ciruela silvestre o fruto del endrino. En Lumbier se le llama al fruto del manzano silvestre.

PACHARÁN

Licor elaborado a partir de la elaboración en anís de los pacharanes. En euskera **PAXARAN** «endrino», compuesto de **BASA** «silvestre» y **ARAN** «ciruela».

PITARROSO

Legañoso, que tiene legañas. La voz **PITARRA** «legaña» incluida en el Diccionario De la Real Academia de la Lengua Española (DRAE), tiene su origen según Corominas, en euskera **PIZTA** «legaña».

POCHOLO. POCHOLA. POCHOLADA

Hermoso, guapote, bonito, rechoncho. Generalmente se aplica a los niños. Pocholada se aplica por extensión a determinados objetos que son bonitos o hermosos. En euskera **POTTOLO, POTXOLO** «regordete, rechoncho».

PIMPÍN

Recogido por José Mª Iribarren en Lumbier. Cierto pájaro pequeño. «Come menos que un pimpín». Según Sainz Pezonaga en euskera **PINPIN** «aguzanieves «pájaro», de origen onomatopéyico, recurso frecuente para designar pájaros.

PIPERRA

Hacer piperra es faltar los chicos a la escuela. Cuando un niño ha faltado a la escuela se le decía: «Has hecho piperra». En euskera **PIPAR, PIPER** «pimiento», procedente del latín *piper*, pimiento.

PIPERRADA

Fritada de pimientos.

PURRUSALDA

Plato cocinado consistente en puerros y patatas. Del euskera **PORRU** «puerro» y **SALDA** «caldo».

PURRA

Gallina. Voz que repetida se usa para llamar a las gallinas. En euskera **PURRA** «voz con que se llama a las gallinas».

RIECA

Arroyo, río pequeño. De **ERREKA** «arroyo río pequeño, raya, traza».

ROJE

Rosco de forma casi ovalada y de elaboración casera, que se lleva a bendecir a la iglesia el día de San Blas. Según Iribarren lo elaboran mezclando a la masa huevo, azúcar, aceite, canela, anís en grano, etc. y se llama Roje en Sangüesa, Aibar, Lumbier y Valle de Urraúl. El Diccionario de la Real Academia Española señala ROGE como propio de Navarra, del vascuence **HERROGUI** pan de pueblo, roscón que se lleva a la iglesia como ofrenda el día de la Candelaria y el día de San Blas.

S

SABAYADO

Desván de una casa, la parte superior de la casa destinada a almacén de diversos objetos. Del euskera **SABAI** «techo, desván o pajar situado en lo alto de la casa»

SAGUNDILA

Lagartija. Del euskera **SUGANDILA** «lagartija». En zoología *Lacerta muralis*. Esta voz la recoge Iribarren como propia de Urraúl Bajo y Lumbier.

SARDE

Horquilla de hierro. Del euskera **SARDE,** «horca, rastro, horquilla de púas muy larga».

SAIN

Grasa. «La saín de la gallina». Iribarren dice que es voz vasca que se usa en la Zona Media y, más raramente, en la Ribera.

SINSORGO

Dícese de la persona insustancial o de poca formalidad. Del euskera **ZINTZORKA** «hablador, poco juicioso».

T

TANTARRO

Poco juicioso, sin fundamento. Probable del euskera **TANTAR** «gandul».

TORDANCHA

Estornino, pájaro. Según Sainz Pezonaga, en la Zona Media se denomina así al mirlo común hembra y a la calandria. De tordo y vasco **ANTZA** «parecido, semejante, tirando a».

TURUTA

Corneta pequeña. Del euskera **TURUTA** «corneta pequeña».

U

UGARRO

Nombre de pájaro.

USÍN

Del euskera **OSIN** «ventisca de nieve». En Lumbier cuando ha nevado y el viento levanta la nieve, se dice que «anda usín».

Z

ZABORRA

Suciedad, porquería, residuo, desecho. Del euskera **ZABOR** «suciedad, escombro, residuo». Procedente del latín *saburra* y relacionado con el castellano «zahorra»

ZABORRERÍA

Conjunto de zaborras. En euskera **ZABORRERIA** «desperdicios, basura, restos».

ZABORRO

Individuo desaliñado, flojo, desastroso.

ZACARRO

Torpe, zafio, incorrecto. Del euskera **ZAKAR** «rudo, tosco, brusco, torpe, bruto».

ZACUTO

Bolso, saco pequeño. En euskera **ZAKUTO** «alforja, saquito, bolsa», diminutivo de **ZAKU** «saco» procedente del latín *saccus.*

ZAMARRA

En el Diccionario de la Lengua española como prenda de vestir, rústica, hecha de piel con su lana o pelo, tiene su origen del vasco. De **ZAMAR(RA)** «chamarra, chaquetón tosco, lana esquilada, vellón».

ZAMPATACO

Bofetada, tortazo, golpe. Del euskera **ZUNPA** «golpe».

ZARRAPO

Iribarren señala en Lumbier sapo. En euskera **ZARRAPO** «sapo»

ZARTACO

Bofetada, sopapo, torta, golpe. Del euskera **ZARTAKO** «bofetada».

ZARRAPOS

José María Iribarren dice que en Lumbier «andar a zarrapos» es andar a cuatro manos, como los sapos o zarrapos. **ZARRAPO** es sapo.

ZOMPIAR

Zurrar, dar una paliza. De euskera **ZUNPATU** «golpear»

ZARRAMACALDA

Gancho de hierro fijado a un palo para cortar ramas. En euskera **ZARRAMAKALDA**, «gancho con que quitan las matas de un ribazo».

SABINO ARANA GOIRI:
EUSKARA ETA KULTURA

Sabino Arana Fundazioa - R.A.L.V. / Euskaltzaindia

Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza, 2003-XI-21



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



FUNDACIÓN
SABINO ARANA
KULTUR ELKARGOA

SABINO ARANAREN GOMUTAZ

Bilbo, egoitza, 2003-XI-21

Xabier Kintana

Jaun-andreok, agur guztioi:

Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren ezin etorriaz, niri dagokit gaur Euskaltzaindiaren ordezkari zuen aurrean izateko ohorea. Horregatik, beste ezerekin hasi baino lehen, gure egoitzara etorri zareten guztioi ongi etorri esan nahi dizuet bihotzez. Dakizuenez, Euskaltzaindia euskararen akademia da, eta beraz, gure zeregin nagusia hizkuntza aztertu eta bera gure gizarteko premia guztietarako egokitzea da. Hizkuntzak, ordea, ez dira berez bizi, hiztunek, erabiltzaileek ematen diete bizia, eta kasu honetan euskaldunok gara euskara bizi, prestatu, landu eta itsusten edo edertzen dugunok. Horrexegatik, euskara ez eze, baita gure mintzaira, nola edo hala, ikerketa edo literaturaren bidez landu duten pertsonak ere gogoan izan behar ditu Euskaltzaindiak nahitaez.

Gaur, hain zuzen, euskararen eta euskal kulturaren alde lan handia egin duten pertsona horietako bat dakargu zuen aurrean, eta ez nolanahikoa: Sabino Arana-Goiri, bizkaitarra. Aurten haren heriotzaren mendeurrena betetzen da, eta, beraz, bidezkoa da euskaldun guztiok harekin dugun zorra kitatzeko, beraren omenez oroitzapen-ekitaldi batzuk antolatzea. Gaurkoan, beraz, Euskaltzaindiak Sabino Arana Kultur Elkartearekin batera, Abandoko seme argiak Euskal Herriaren hizkuntza nazionalean eta gure kulturan izandako eragina eta ondoko belaunaldiei utziriko emaitzak gogoratu eta haren testuinguruan balioetsi nahi ditu.

Haren testuinguruan esan dut, eta horixe da Sabino Aranaren nortasuna aztertzean askok, zoritxarrez, ahanzten dutena. Bilboko udalak Aranaren alde estatua publiko bat eraikitzea erabaki du oraintsu, eta horrek, dakizuenez, lehen ere euskarari eta euskal intelektualei dien mespretxua aski garbi erakutsi duen zinegotzi ezagun baten haserrea biztu du, eta Sabinoren ideologia xenofoboa Europar foruetaraino eramateko prest omen dago, han epai eta kondena dezaten.

Litekeena da Sabino Arana aldizka bere idazkietan xenofobo xamar agertzea, baina kontua ez da hori, baizik eta ea, bere garaian eta orduko pentsaera politiko eta giro sozial nagusiaren ikuspegitik, aldamenekoak baino xeno-

foboagoa zen ala ez aztertzea. Eta hemen ere, dakusagunez, *zozoak beleari ipurbeltz*. Izan ere, aipaturiko zinegotzi horren ideologiakoek askoz ere geroago eta lasai aski *el Dia de la Raza* jarri zutela kontuan izanda, ez dirudi Sabinoren jarrera bereziki gaitzestekoa zenik, gure foru-legislazioa galtzean Bizkaiko erakundeetara *hable en cristiano* esaka zetozen administrazio eta irakaskuntzako funtzionario kanpotar eta inperialisten aurka, urteak pasa ahala, orduko testuingurua aldatzean, haren hitzak, lekuz eta tokiz kanpoan, maiz gogorregi irudi dakizkigukeen arren. Edonola ere, ez ziren gozoagoak izan, dakigunetik, Rizal filipinarrak edo Marti kubatarrak espainol okupatzaileen kontra esandakoak. Alde horretatik, ez legoke gaizki Aranaren esanak eta orduko politikarienak, frantses eta espainolenak bereziki, bildu eta liburu batean argitaratzea, elkarren konparagarri.

Gogora dezadan, bidenabar, Sabinorentzat estatua publikoa eskatu zuen lehenengoa, hain zuzen, Resurrección Maria Azkue izan genuela, Euskaltzaindiaren fundatzaile eta hil arteko burua, Aranak «euskararentzat hainbat interes sortarazi eta hainbat irakurle berri lortzeagatik». Eta Azkue, apaiza izateaz gainera, karlista izana zen, eta ideietan askotan ez zetorren bat Sabinorekin, baina halere, haren merezimenduak ezagutu eta aitortzen zituen zintzoki, hark Eta ez zen eskandalizatu giro eta testuinguru berean bizi zirelako, hain zuzen. Eta orain, desorduan, haren aurka jo eta ke ari diren baskofobo batzuek hori hobeki jakin beharko lukete.

Izan ere, ez dugu behin ere ahantzi behar, guztiok bezala, bere argi eta itzalekin, bere garaiko semea genuela Sabino ere, eta horrexegatik, bera zuzen epaitzeko orduan, garai hartako egoera sozial, kultural eta ideologikoa nahitaez kontuan hartu beharra daukagula.

Nolanahi ere den, ez nuke neure aurkezpen hau amaitu gura Aranaren euskal ekarpen batzuk gogoratu barik: lehenengo eta behin, euskara ikasi zuen, geroagoko euskaldun berri askorentzat eredua izanik; euskarak gure nazioaren osaeran daukan garrantzia azpimarratu zuen; euskararen batasunerako lehen pausoak ezarri zituen, ipar eta hegoaldeko euskaldun guztientzat ortografia batzea planteatu zuenean; onomastika arloan frantses eta espainolaren azpian geneukan menpekotasunetik irten eta euskal santutegi berria eratu zuen, gaurko Iñaki, Jon, Miren edo Edurne ugarien sortzaile espirituala izanez, eta, azkenik, hizkuntza txukuntzeko kezkaz oroitu beharra dugu, euskarak kultur eta zientzi terminologia berria bere erroetatik sortzeko daukan ahalmena nabarmenduz.

Baina haren merezimendu berezia, funtsean, hauxe izan zen: gure hizkuntzak eta gure herriak zituzten hutsune eta beharrizanak azpimarratu eta horiei irtenbide egokia ematen saiatzea; jakina, bere informazio eta jakintza pertsonalaren arabera. Ardura gutxi du ukitu zituen arlo guztietan ondo asmatu zuen ala ez. Gauza guztiak, noski, ez zituen ongi burutu, gaur dakigunaren eta ordutik hona ikasi dugunaren argitan behintzat, baina orduan inork gutxik egin

zitzakeen gauzak berak baino hobeki. Ondokoei egokitu zaigu berak proposaturiko bidea arteztu, birmoldatu eta hobetzea, gure atzetik datozenek gurea zuzenduko duten bezalaxe, baina beti ere haren lana kontuan izanda, hark azpimarraturiko hutsuneak konpontzea helburu. Edonola ere, ene ustez, ez orduan, ez eta geroago ere euskaraz ezertarako arduratu ez zirenen jarraitzaile ideologikoak ez dira nor noiz eta orain, ehun urte geroago, Aranaren akatsak demagogikoki salatzen jarduteko.

Eta agian sarrera luzeegi honekin, hitza ematen diot orain Jose Luis Aurtenetxe, Sabino Arana kultur elkargoko ordezkariari. Eskerrik asko.

SABINO ARANA GOIRI

Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza, 2003-XI-21

Jose Luis Aurtenetxe,
Sabino Arana Fundazioaren buruordea

Oraindik orain, Sabino Arana hil zenetik mendeurrena bete denean, haren inguruko erreferentziak polemikoak suertatu ohi dira. Euskal abertzaleentzat Sabino euskal abertzaletasun politiko modernoaren sortzailea da; berak gainditu zuen ordura arteko foruzaletasuna eta bera izan zen joera politiko horren oinarrizko kontzeptuak ezarri zituena, aldaketa sozio-politikoaren eragile bihurtuz kontzeptuok. Guretzat, abertzaleontzat, aipatutako ezaugarri hori horren garrantzitsu da ze, askotan erabili izan dugula justifikazino nagusitzat eta nahikotzat, eta hori ezagutzearekin asetutzat sentitu garela, eta alde batera utzi dugu Sabinok landutako esparruetan egin zituen ekarpenak sakontze eta aztertzeak eskatzen zuen lana.

Beste batzuentzat, espainiazaleentzat, aspaldiko partez oso erasokor ari diren horientzat, Sabino Arana aipatzerakoan badirudi euren aurkako zerbait esan dela, eta gaur eguneko testuinguru europearrean izan litezkeen adierazlerik ezezkorrenak egozten dizkiote, batez ere arrazakeriazale eta xenofobo hutsa izan zela. Horretarako, bada, Aranaren mezuak eta lanak berezko duten testuinguru historikotik atara besterik ez dute egiten behin eta berriz.

Lerrookin ez dut inor iritziz aldaerazi nahi. Eztabaida antzu horren ikuspegi estua gainditzeko modurik zintzoena zein den, nire ustez, azpimarratzea besterik ez dut gura: Sabinoren lanaren azterketan sakontzen ahalegintzea; landutako esparruetan egin zituen ekarpenetan sakontzen ahalegintzea. Horrexegatik, hain zuzen ere, oso erakargarri eta garrantzitsu deritzot mintegiaren helburuari: euskararen iraunerazpenerako, berreskuraketarako eta normalkuntzarako Sabino Aranaren ekarpena analitikoki berrikustea.

Argitalpen honetan zehar ikusi daitekeenez, honako ekarpen hau ere ez da polemikatatik at geratu. Ezin daiteke beste modu batera izan, gure sortzaile izan zenaren bizitzaren ezaugarri nagusi ziren sentikera agonikoa eta izakera berriztatzailea aintzat hartzen baditugu. Baina nire iritzian benetan garrantzitsua dena, gure geure hizkuntzaren gaur eguneko egoerearen ikuspegitik abiatuta, garai hartako euskararen inguruko eztabaidetan Sabinok eragin zuen astintze-lana da, hizkuntza biziberrituko zuen osteragoko mugimentuetarako

ezinbesteko eragin bultzagarri izango zuelako horrek. Eta ekarpen hori, edozelan ere, ez dugu behar bestean eskertuko euskararekiko zaletasuna dugunok eta euskara maite dugunok.

Amaitzeko, nire esker onik zintzoena adierazo gura diot Euskaltzaindiari, mintegia antolatzerakoan izan duen parte hartzeagatik. Zer erakunde hoberik gauzatzeko, bidezkotasunez eta zuzentasunez, Sabino Aranak zeregin horretan egindako lanaren benetako nondik-norakoak, egindakook aztertzeko eta neurtzeko. Beste alde batetik, berton dauden hitzaldien aberastasunak berez eta besterik gabe adierazten du egileek pertsonaiaren beraren eta alor honetan egindako lanaren azterketa egiterakoan jarritako adorea eta ahalegina. Euroi ere gure Fundazioaren esker ona.

* * *

Oharra: honako lerro hauek mintegiaren hitzaldiak hartuko dituen argitalpenaren sarrera, hitzaurre edo dena delakotzat sartu beharrekotzat direla aintzat izanda ere, ez ditut izendatu, argitalpenaren arduradunek eurek zehaztuko baitute zuzenago zein toki edo ataletan joango diren.

EUSKARA, EGITASMO POLITIKOA BIHURTU: SABINO ARANAREN ASMOAK DENBORAREN GURPILEAN, EUSKALTZALETASUNAREN ILDOAN

Bilbo, 2003-XI-21

Joseba Agirreazkuenaga
Euskaltzaindiko urgazle eta EHUko gaurregungo historiazko katedraduna

Aitzin solasa

Sabino edo Sabin Aranaren heriotzaren mendeurrenean, gaurko hitzaldi honetan, zera gogoratu nahi nuke: Sabino Aranak, beste gauza askoren artean, euskara, euskal hizkuntza egitasmo politikoa bihurtu zuela, politikaren bidez berregituratu eta euskararen bizitza sendotu nahi zuen. Eta nire ustez honetan datza bere ekintzabide nagusienetariko bat. Horregatik, euskaltzaleen mugimenduaren baitan ere kokatu beharko genuke pertsonaia, bere ideiak eta ekintzabidea. Ikusi besterik ez dugu, Euskal Abertzaletasunaren agiritegian Sabino Arana Goiriren ondarea hain ederki eta ikerlariontzat erabilgarri eta mesedegarri eratua, oraingoz behintzat artxibategian erdara txukunean sailkaturik egon arren. Euskara, euskal zibilizazioa geroa haren kezken muina dugu. Nire ekarpena une honetan, behin behinekoa dela adierazten dut eta etorkizunean sakonago beharko litzateke burutu.

Abiapuntua eta helburua harturik, zera dakusagu: haren bizitza laburrean, hamar urteren buruan euskararekiko bi aldi nabarmen bereizten direla eta, gutxi gora behera zer nolako bilakaera izan zuen adierazten saiatuko naiz: lehena 1893ko adierazpenetan kokatzen dugu eta bigarrena 1901ean.

Baina bera ez zen lehena izan euskal hizkuntzaren geroaz kezkati gogoetak egin zituena. Nire ustez, katea luze bateko katebegi garrantzitsua bai agian. Euskal Herriko eta Europako historiaren gurpilean kokatzea litzateke nire asmoa. Horregatik, honako galdera dugu bidezko: Noiz eta nortzuk sartu dute euskara egitasmo politikoaren arloan eta zergatik eta zertarako?

Bibliografiari dagokionez, lehendabizi aipatu nahi nuke, 2001eko urriaren 25ean eta 26an, Sabino Arana kultur elkargoak jardunaldi trinkoa eratu zuela «Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrenean» izenburupean. Bertan, Mi-

kel Zalbidek 1901ean Sabino Aranak Euskaltzaleen Biltzarrean eginiko hitzaldiaren harian, gogoeta eta ekarpen jakingarria egin zigun, S. Aranaren ikuspegia, euskaltzaleen mugimenduen baitan ulertarazteko bidea erraztuz. Eta pentsamendu politikoa bera ere, beharbada, ulergarriago egingo zaigu, euskaltzaleen etorrian aztertu ezkero. Euskarari buruzko ideologiei buruzko txostena aurkeztu nuen aipaturiko jardunaldietan eta gaurkoa esandakoaren berrikuspena litzateke.

Joseba Intxaustik idatzi ditu, bestalde, hainbat saiakera eta liburua ere euskal hizkuntzaren historiaz. Mikel Atxagak Sabino Arana eta haren jarraitzaileen eragina euskararen berbizkundean. Eta ildo horretan gure ekarpen xumea kokatu nahi genuke, epe luzean, aurrekariak, eta ondorenak aipatuaz, mendebaleko Europaren historiaren nondik norako nagusien baitan, S. Aranaren ekarpena euskararen biziberritzeari buruz gogoeta gai hartzen dugularik.

* * *

1. Euskal hizkuntza eta nortasun politiko eta kulturalaren bilakaera, iraultza liberalaren abiadan, lege zaharreko «konstituzio politiko» foralaren garaian

XVII.mendez geroztik, Batzar Nagusietan ordezkari izateko gaztelaniaz irakurtzen eta idazten premiazkoa izan arren, XIX.mendean oraindik, hainbat ordezkari euskaldun hutsak ziren. Eliza Katolikoaren Administrazioan, euskarak bere halabeharrezko eremua irabazi zuen, bereziki ahozko predikuetan.

1789ko Frantziako Iraultza Liberalaren dinamika politikoan, nazio politiko berriaren konstituzioan, hizkuntza bat eta bakarra onartu zen, besteak baztertuz eta ezarritako hierarkia berezkoa, naturala balitz bezala aldarrikatu zuten. Agintea irabazi zutenek Pariseko hizkuntza frantsesa, hizkuntza eredu bakartzat ezarri zuten.

Arrazoizko eta kulturadun hizkuntzak zeintzuk ziren aukeratzea aginte politikoen esku gelditzen eta gaineratikoak, balizko berezko lege unibertsalen eraginez, halabeharrez itzaliko zirelakotan zeuden, eta beraz sekuentzi bakarreko ikuspegi historikoan erabat sinisturik, Biblian irakurritako ikuspegi historikoaren ondorioz, hizkuntza bakarreko etorkizuna aurreikusten zuten eta beraz hizkuntzen galera, halabeharrezko berezko ondoriotzat hartzen zen. Beraz, iraultzaileen erabakien ondorioz, aurrerantzean, hizkuntza Estatu-nazio berriaren baitako egitasmo politikoa bihurtu zuten. Konstituzio politiko berriak horren isla dugu eta konstituzio liberalak hizkuntza, eta bidebatez, euskara, egitasmo politiko berria sortu zuten. Iraultzaileak, hasieran bere paskinak euskaraz eta frantsesez argitaratzen zituzten, euskararen erabilpen funtzionala onartuz. Baina ondoren, frantsesa nagusitu zen.

Euskararen kezka, jakitunen artean modu ezberdinez landu zen. Dinamika horretan, ez da harritzekoa, euskararen politizazioa berehala sortaraztea, ikuspegi defentsiboa areagotuz. Kontrairaultzaileen ikuspegitik, euskal hizkuntza, iraultzaren aurkako hesia izan zitekeen. Horregatik «Antzinako euskaldunen alabantzetan» euskara goraipatu egingo da. J.A. Mogelen paradigma ideologiko kontrairaultzailean bete-betean, berezko balioa izango du eta tresna modukoa ere izango da. XIX.mendeko lehenengo 30 urteotan, euskararen geroa, ideologia politikoen arabera begiratu zen: Kontrairaultzaren moldetan, J.A.Mogel, B.Mogel, J.M.Zabala, J.P.Uribarri, A.Abbadie. Bestalde, berrikuntza liberalaren diskurtsoan, A. Iturriaga eta A.Txaho.

1.1. Euskara lege zaharraren kinkan: «Antxinako euskaldunen alabantzak»

XVIII. mendearen bigarren erdian, kostaldeko Euskal Herrian eta bereziki Bilbo, Donostia eta bestelako hiriguneetan aberastasun ekonomikoaren isla nabarmendu zen. Eta ondorioz, bizimailaren hobetzeak beste kezka batzutan murgiltzeko aukera emanez, kulturgintzarako giro berria agiri zen, Adiskideen Batzarrea/Sociedad Bascongada de Amigos del País «dugu adibidea. Hego Euskal Herrian euskarazko narratibak ere begirunea irabazi zuen, eliztarren baitan misioetako mezuak zabaltzeko euskal hizkuntza landu zen».

Baina oraingoan Antxinako euskaldunen alabantzen inguruko iruzkina premiazko dela deritzot garaiko agiri eta pentsamolde baten isla zuzena delako.

Oraingoz behintzat ez dakigu jakin ziurtasunez noizkoak diren zehatz-mehatz, baina adierazten dituen arazoak eta mezua, guda giroan burutuak direla dirudi. Horregatik, nire ustez, Konbentzioko 1793-1795eko giroan burutuak edo eta Napoleonen aurkako gerratean (1808-1813) pentsatuak izan zirela, uste dut. Gerra bietako esperientzia laburbildu egiten du eta iraultza/kontrairaultzaren dinamikan kokatzen da gai nagusia.

Bertsook Juan Mateo Zabalak bildu zituen, frantziskotar bilbotarra berau. *Fabulas en dialecto vizcaino* haren bilduman sartu zituen eta «Berba aurrekoan « adierazten du «ez takit nik norenak» zirela aipaturiko Antxinako euskaldun alabantzak. Baina garrantzizkoak dira haren ustez, zeren liburu hasieran ezarri zituen, sarrera gisa J. A. Mogelen ipuinen aurretik. Beraz, pentsa daiteke, J.A. Mogelen garaikoak ote zirela. Mogeldarrek, bai Bizentak eta Juan Josek antzeko bertso motak argitaratu zituzten 1814 eta 1823 urte tartean. Beraz giro bereko idazle batenak ditugu.

A. Zelaietak, adierazi zuen, I. Astarloak 1817an argitaratu zuen *Urteko Domeka* izeneko liburuaren sarrera eta bertsoetan agiri diren edukiak, antzekoak zirela. I. Astarloa Bilboko frantzizkotarren komentuaren buru izan zen eta bertso paperak sarritan argitaratzen zirenez gero, haren eskukoak edo komentuko bes-

te kide baten batenak izan daitezke, beharbada. Gerora, 1833an, karlisten altxamentuan ere, komentuko frantzizkotarrak eragile zuzenak izan ziren.

Egile zuzena aurkitu ez arren, koplek zentzu korala hartzen dute, Bilboko «San Fraiskuko» komentuan ohikoak zirelako. Koru horretako nortasun nabarmeneko pertsonak mogeltar edo astarloatarrak ditugu Eta baita ere Antonio Zabala «Gabonetako otsaldiak» izeneko koplen egile eta argitaratzailea zena 1814an. Konbentzioko gerraren garaiko kopletan, «erregea, Fedea eta Herriak» aipatzen dira. Euskaldunen alabantzetan aldiz, euskaltzaletasuna sendoagoa eta agerikoa dugu.

Baina nire ustez, data zehatza bezain garrantzitsua, adierazten den edukia azpimarratzea dut helburu: mezua, euskaraz burutua dago, herri mailako hizkeran idatziak dira, kosmogonia baten arketipo gisara pentsatuak. Eta pentsamolde horrek gaurregunerarte iraun du Euskal Herrian. Guzti horregatik deritzot, «Antzinako euskaldunen alabantzak» Euskal Herria modernitatean sartzen ari zeneko garaiko testu ideologiko fundatzailetarikoa dela. Iraultzaren proposamen berritzaileak bezain besteko garrantzia dituzte iraultzaren harian sortzen direnak eta beraz kontrairaultzaileenak. Kontrairaultzaren moldetan formulatu eta gihartu zen pentsamoldea eta kultura politiko berriaren adierazpena agiri da, tradizio berri baterekiko leiala izan omen nahi zuena. Tradizioaren lotura aldarrikatzen zuen baina berez iraultzaren formulazioen arabera adierazten ditu bere ezaugarriak. Eta euskararen aldeko diskurtsoa, ez da, bazterreko ikuspegia, erdi-erdigunekoa baizik.

Bestalde, pentsamoldea bere koordenadan sartzeko, gogoratu besterik ez, 1775.ean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal agintarien arteko bilkurak berriz indarberritzen hasi zirela, Adiskideen Batzarrearen egoitzan, Bergaran, «Conferencias» izenarekin ezagunagoak ziren eta aurrerantzean, 1936.arte bilkura hauek ohizkoak bihurtu zirela. Bilkurak, legezkoak bihurtu ziren 1800an erret aginduaren onespena lortu zutelako. Bilkuren ondorioz, euskal aginte politikoa landu eta bistakoa izan zen. Eta 1793ko azaroan, «konstituzio político foralaren» aldeko aldarria egin zuten. Bestalde, Espainiako Historiazko Erret Akademiak, Hego Euskal Herriko hiztegi historiko-geografikoa argitaratu zuen 1802an, eta Nafarroako atalean, Traggiak esan zuen euskara ez dela antzinako hizkuntza, VIII.mendean asmaturikoa baizik, desberdintasunaren bidez aginte politikoari auspoa emateko. Iritzia eta ekimena kokatu behar da Godoy Carlos IV.erregearen agintariaren asmoan: 1793-1795 garaiko Konbentzioko gerran euskal agintariek erakutsi zuten beren kabuzko erabakien gaitasuna, foru legedian oinarriturik, erresumako agintariek, foruen bidezko egituraketa politikoaren legitimitatea desegiteko bidea hasi zuten. Euskara, euskal hizkuntza, jomuga bihurtu zuten. Hau da, hizkuntza apartatu behar zen eta gizartetik aldentzeko ahalegina antolatu. Alderantziz, Pablo Astarloa eta euskararen apologisten ekimenak ezagunak bihurtu ziren aurrerantzean, eta euskararen aldeko ideologia indarberritu zen.

Aldi berean, 1766an, herri matxinada gogorra bizi izan zuela euskal gizarteak, handiki eta populuaren arteko borroka zuzena.

1789ko iraultzaren ondorioak ikusi ondoren, iraultza liberalaren mundu berriaren beldurpean, euskal nortasunari buruz gogoetak berrausnartu ziren eta tradizionalismoaren paradigmak indartu egin ziren edo indarberrituz, elizgizonen eraginez, azaleratu bai behintzat.

Poeman agiri diren galderak eta erantzunak, 200 urte iraun dute. Euskaldunen aintzinatea izango da usterik zabalena eta aldaketen aurrean «menditarren» «goi-herritarren» ohizko bizimodua bilakatzen da benetako jatortasunaren iturburu. Ikuspegi jatorraren moldea nagusitzen doa. Berau, 1634eko matxinadan, formulatu zen honezkero. Gatzaren gaineko zerga edo monopolio ezarri behar zuenaren aurka altxatu zen Bilboko herria eta beste batzuk. Gernikan bildu zirelarik matxinoek aldarrikatu zuten benetako bizkaitarrak menditarrak zirela, mendiko biztanleak eta ez hiriko kapa beltzadunak. Ikuspegi hau ondoko mendeetan errepikatu egin zen.

Tokian tokikoa, propiotzat eta bereizgarri definitzen dena, benetako jatortasunaren erakusle bihurtuko da. Beraz, ondoko edo bestaldekoena, erbestekoa, arrotza izango da. Pentsamolde honetan, fedea, geure legeak, euskara, dira euskal nortasun jatorraren abiapuntu eta eduki nagusiak.

Historiaren ikuspegia Bibliak ezartzen zituen mugetan kokatzen da eta beraz gertakizun guztiak Bibliaren kontakizunaren kronologian eta gertakizunetan kokatzen zen.

Bilbo inguruan, garai horretan, hainbat gabon kanta argitaratu ziren, goian gogoratu izan dugun legez. Mogel eta astarloatarren artean, ideiak behin eta berriz errepikatzen dira eta formula jakin batzuk egile desberdinen kopletan agiri zaizkigu: Adibidez borrokarako deialdia egiten den unean, euskaldunak «emetu» ohi direla salatuz.

«Antxinako euskaldunen alabantzak» horrela hasten dira:

«Jaunaren lege ona
euskeran da sendo,
Adan-eganik ona
garbi eta ondo.
Gorde izan da beti
garbiro fedea,
baita geure legeak
eta berbeitea.
Erbestear gaistoak
nai eukezan galdu
euskaldunak ez tabe
bururik makurtu.

Beste herri askotan
jaretxi arren au,
eztau-iñoz guretan
kanpokoak agintau».

Bertso hauetan, Euskal Herriaren historia laburtzen da. Azpimarratzekoa dugu euskaldunak direla sujeto politikoak. Garai berberean, Bixenta Mogelek Abandon argitaratu zituen kopletan, aldiz, bizkaitarrak dira: *Gabonetako kantia Bizkaitar guztientzat, euskaldun emakume batek ateria, 1819.garren urtian Abandoko elixatian*

Euskararen garrantzia goratzeko, Jaungoikoaren lege onaren zati bezala agiri da. Beraz, hizkuntza berezia eta sakratua izango da aurrerantzean, modu horretan bere nortasun bereziz babesteko. Bertsoetan, euskal erakundeetako legelariek aldarrikatzen zituzten ohizko mitologia politikoaren dogma nagusiak inon baino hobeto azalduta eta laburturik ditugu: jatorrizko independentzia, hau da, euskaldunak inoiz ere ez dira makurtuak izan, horregatik iraun du beraien legea eta gorde fedea eta euskara. Euskararren iraupena etorkizuneko askatasunaren garantia da. Euskarak hesia sortzeko hainako gaitasuna zuelako. Kristautu aurretik jadanik, Adanengandik lotura izanik, monoteista izan omen ziren, euskaldun jatorren berezko senaren ondorio zuzena, alegia. Beraz, egilea, pertsona aditua zen.

Erbestetarrak eta barrukoak: elkarren aurkako dinamika hori, bizi-bizi agiri da adierazita. Beraz, bertso asmatzaileak izan ditu gerraren bidezko inbazioen berri: Konbentzioko gerran gertaturikoa agian edo gero Napoleonek eragindakoa agian, Bibliaren eta historiaren kontakizunean kokatzen du. Etsaiak, erbestetik datozenez gero, euskaldunak beti borrokan egon ohi dira eta sekuentzia historikoa deskribatzen du: Anibal, Erromako Augusto eta erromatarrak, godoak eta mairuak. Horra euskal historiaren sekuentzia kronologikoa. Baina giro latzean idatzirik zeuden bertsoak, liberal iraultzaren ondorioak begi bistakoak zirelako, batez ere fede katolikoaren nagusitasuna ere kolokan jartzen zuten. Horregatik galdera esistentziala eta metafisikoa egiten du:

«Zergatik deritxazu
hainbeste neke lan
euskaldunen artean
beti hartu joian(ohi zuen)?
Gordetarren zintzoro
jaunaren fedea
geure lege garbiak
geure euskerea».

Inork ere ez du lortu aginterik ezartzea eta azpiratzea euskaldunen borondatea. Baina XVIII.mende bukaeran eta XIX.mende hasieran burrukak daude Euskal Herrian eta zergatia aurkitu beharra zegoen, aukera bat lejitimatzeko hiru helburu nagusiren arabera: Fedea, lege garbiak eta euskara. Borroken eskema interpretatibo hori gaur arte iraungo du, arerio/adiskide paradigma-

pean. Baina oraingoan arerioa barruan ere dagoen ezkero, gaztelaniaz bakarrik egitea ez da nahiko, apologista legelariak egiten zuten antzera. Oraingoan gizarte barrura ere begiratzen da eta etorkizuna euskal gizarte barruan ere irabazteko adierazpenak euskaraz egin behar dira.

Bertsoek helburu mobilizatzailea ere badute eta badirudi gerra giroan burutuak izan zirela. Kasu horretan Konbentzioko gerraren garaian edo Napoleonen aurkakoan. Horregatik aurreko azterketa historiko eta politikoaren ondoren, arbasoen portaeretan oinarriturik esaten du:

«Alkar ondo harturik
diñoe: Lehenago
ondatu ta hil danok
azpiratu baino»
Eztauko, euskaldunak
lehengoen fedea?
haen euskara laua
et'aren legea?
Zer: emetu aldira
gutarren bihotzak?
baita askok berbetan
dirudie motzak?
(..)
Ea ba euskaldunak
azkortu gaitean:
gabiltzan beti zuzen
ta sendo fedean.
Geure bizierera
arteztu bagarik
ez dogu ikusiko
iñoz egun onik.
Ez aldean guk galdu
herriko legea,
eta antxinatik, dogun
geure euskerea.
Gogoan beti euki
lehenengotik oná
sartu ez dala arrotzik
agin(t)etan oná».

Azken bertsoek borrokalari berrientzat ikuspegi ideologiko garbia adierazten dute. Helburuak jartzen ditu eta etsaiak nortzuk diren ere bai. Aurreratzean beraz, foru legeak eta euskara ikuspegi teokratikoaren baitako atalak baino ez dira izango. Etsaiak, arrotzak, erbestekoak izango dira baina herriaren barruan ere agiriko dira. Bertso hauen bidez, seinalatzen da zertan zetzan jatortasuna eta gainerako guzti guztia erbestetar gaiztotzat hartu beharko litza-

teke. Antzinako euskaldunen alabantzak euskal doktrina politikoaren laburpen ideologikoa genuke.

1.2. Euskara, Euskal Herriko liberalen moldeetan

Euskal liberal euskaltzaleak ere agiri zaizkigu garai berberean. Adiskideen batzarretan alde batetik eta XIX.mendean zehar bestetik. Eta guztien artean beste apaiz bat aipatu behar dugu: Agustin Pascual Iturriaga. Berau dugu euskararen alde bestelako ideologia baten sortzaile eta eragile. Gipuzkoako Batzar Nagusiak 1830ean Diputazioari laguntzeko, batzorde berezia antolatu zuen, industria, merkataritza eta euskararen egoera aztertu eta alde berean berriztapenak burutzeko. Euskarari dagokion txostena A. Pascualek idatzi zuen: «Memoria sobre el decreto de las últimas Juntas Generales de Mondragón relativo a la conservación de la lengua Bascongada».

Azterketa zehatza egin zuen euskararen gainbehararen zergatiak arakatzerakoan eta zera adierazten du, aginte politikoaren hizkuntza azken batean nagusitu egiten da, ondokoak baztertuz:

> «Si los paises o provincias, en que las lenguas son diferentes, pasan a ser partes integrantes de un estado o una nación, la lengua que adopta por suya el gobierno será la dominante porque todos los intereses y ventajas se reunirán para cultivarla y generalizarla. Prevalecerá pues sobre todas las demás, enriqueciéndose cada día y... acabará por eclipsarlas hasta hacerlas desaparecer totalmente».

Guzti honek gaztelaniaren nagusitza Euskal Herrian adierazteko balio du. Horregatik hizkuntzaren metafisika apologistari kritika zorrotza eginez, eskolan, irakaskuntzan eta hizkuntzaren prestijioan zetzala hizkuntzaren berbizkundearen koska esan zuen. Liburuak behar ziren, euskara kultua asmatu, landu eta zabaldu:

> «Ya hemos probado que las lenguas dominantes prevalecen sobre las que no lo son porque se cultivan con preferencia a ellas. Cultivemos el vascuence».

Gaztelania hizkuntza zabaldu gisa lantzearen aldekoa zen baina euskaratik abiatuz. Gehiketaren teoria proposatu zuen: Gaztelaniak edo euskarak bere kasuan, gehitu egiten zuen pertsonaren hezkuntza eta berez ez dira kontrajarriak. Agustin Pascual Iturriagak, 1833ko Gerra Karlista eta euskaldunen artekoa ere izan zena, Muñagorriren Foruak eta bakearen bertso famatuak idatzi zituen.

Giro eta eztabaida hauek ezagutu zituen W. von Humboldtek, Parisen Joseph Dominique Garaten bidez euskara eta euskaldunei buruzko informazioa jaso ondoren, besteak beste. Euskarari buruzko ardura gutxi zela euskal buruzagi politiko argien artean, salatu zuen eta euskarak ez zuela etorkizunik iragarri. Baina bere begirada zorrotzaren bidez zera ikusi zuen: hemen bazegoela nazio kulturala, Iparraldekoa batez ere nabarmen nabarmena izanik. Eta bestalde, mendebaldeko hiru probintzietan, euskal nazio politikoaren arrasto-

ak ere agirikoak zirela. Arduratsuagoak zeuden politikan, foru sistemaren etorkizunaz eta autogobernuaz, euskal hizkuntzaz baino.

Hala ere, euskarararen erabilpena gero eta arruntagoa bihurtzen ari zen XIX.mendean barrena, euskaldunei begira mezuak eta ideiak burutzeko. Euskaraz pentsatu beharra zegoen, euskaldunen atxikimentua lortzeko. Eta datu hau berria zen hegoaldean. Iparraldean aldiz XVI. eta XVII.mendeetan euskararen funtzionalitatea eta kontzientzia linguistikoa ezagunagoa eta nabarmenagoa izan zen. Horra ba, aldi berrian iraultza liberalaren dinamikan, Frantziako hiritarren Asamblea politikoak frantsesa aldarrikatu zuenean hizkuntza nagusi eta ofizial bakartzat konstituzio berrian, hizkuntzen arazoa politizatzen hasi zirela, beste hizkuntza asko alboratzen zituztelako.

Humboldtek aldiz, berezitasunaren eta aniztasunaren alde onak aldarrikatu zituen, oztopo baino aberasgarria gertatzen zelako etorkizuneko gizarteetan.

Laburbilduz, XIX.mendean zehar hizkuntzak konstituzio politiko berrietan arautu ziren. Eta Euskal Herrian, euskal hizkuntzak ez zuen ofizialtasun politikoa irabazten, ez Estatu-nazio berrien baitako konstituzioetan ez eta konstituzio foraletan. Hala ere, urteak igaro ahala, kontituzio foral berriztatuetan, arautegien bidez, euskararen erabilpena arautzen hasi zen.

Giro horretan alde batetik Abandoko euskaltzaletasun teokratikoa(xuria) Bilbo inguru guztian ekimen publiko nabaria izan zuen eta ildo horretan kokatzen ditugu honako idazle eta pentsalariak: J. P. Uribarri, Bixenta Mogel, P. Novia de Salcedo, A. Artiñano, S. Arana. Bartzelonan egon zenean, A. Artiñanorekin harreman zuzena izan zuen S. Aranak, bertan erbesteraturik bizi zelako A. Artiñano buruzagi karlista zena.

Bestetik, euskaltzaletasun liberala (gorria, beltza): XVIII.etan mendeetan Adiskideen Batzarrea (1764) A. Pascual Iturriaga, (1830) Foru erakundeetako agintari asko, ez guztiak. Manuel Barandika, Batzar Nagusietan itzultzailea, parlamenaria eta Banco de Bilbao erakundeko zuzendaria izan zen. Barroeta Aldamar eta beste aipa genitzake. Hala ere, Foruen lege moldaketetan aipamenik ez da agiri hizkuntza arazoari buruz, baina bai ordea Batzar Nagusietako arautegietan eta administrazio publiko foraleko zerbitzaria izateko.

2. 1876eko legea, Foru egituren deusestapena: euskara euskalerritarren aberria

Foru administrazioaren garaian, 1877.arte, Batzar Nagusietan eztabaidak euskaraz eta gaztelaniaz egiten ziren. Bat bateko itzultzaileen bidez guztien arteko ulermena lortzen zen. Eta buruzagiren batek bere mezua era zabalean hedatu nahi zuenean, euskaraz eta gaztelaniaz hitzaldia egiten saiatzen zen. XIX.mendean zehar horren froga ugari dago eta bildu dira honezkero Bizkaiko Batzar Nagusietako euskarazko testuak A. Irigoien eta A. Urrutiaren lanetan. Euskarak hizkuntza bizia zen eta hainbat eremutan hizkuntza bakarra. Bai-

na, ekintzabide publikoan gaztelaniaren premia gero eta nabarmenagoa zen eta administrazio publikoaren idazkiak gaztelaniaz argitaratzen ziren.

Foru administrazioak desegin zirenean, Espainiako Parlamentuan onartu zuen 1876ko uztaileko 21eko legearen harian, Batzar Nagusiak legea aplikatzera ukatu ondoren, Espainiako Gobernuak Konstituzioak aintzat hartzen zituen Diputazio probintzialak ezarri zituen. Foru erakundetzearen azken esparrua galdu ondoren, euskal zibilizazio historikoaren aztarna bakarra euskara bihurtu zen. Nafarroako euskaroek eta Felipe Arrese Beitiak euskara eta euskararen geroa, euskal erakundetze politikoaren azken ondasuntzat hartu zuten. Une horretan, euskara aldi batean, ikur bihurtu zen, komunitate jakin baten adierazpen sinboloa eta beraz iragan eta geroaren arteko zubi. Aginte politikorik ezean, euskal gizartearen nortasunaren habia euskarak gordetzen zuen. Etena, gogorra izan zen, ez baitugu ahaztu behar, euskal liberalek, lau urteren buruan gogor eta irmo borrokatu zutela karlisten kontra eta azkenean Espainiako Parlamentuak garaituen pareko pagua eman zien. Foru erakundeak eta euskal agintea ez zela karlisten egitasmoa soil-soilik, bereziki liberalena baizik. Baina mezu honek ez zuen arrakastarik izan eta horrek mesfindantza eta frustrazio handia sortu zuen. Euskara eta euskalerritarrek, antolaketa politiko berria eratzea erabaki zuten, Espainiako alderdieetatik at, tokian tokikoa eta euskarak berebiziko garrantzia zuen. Hau da, Espainiko alderdien zati barik, Espainiako erresuman partaide baizik. Euskara bandera bihurtzen hasi ziren. Horrela, Bilbon Euskalerritakoek argitaratzen zuten *La Union Vasco-navarra* egunkarian euskararen aldeko diskurtsua eta artikuluak nabarmen handikoak ziren. Euskalerriakoek (Sagarminaga, Sota, Epalza, Galarza) euskara ikurtzat hartu zuten eta beraien ekimenez, Bizkaiko Diputazioak 1888an indarrean ezarri zuen euskararen katedra.

Zibilizazio politikoaren gainbeherak, nabarmenki euskara bihurtu zuen euskaldunon aberrian, Victor Hugok 1840ko hamarkadan ikusi zuena berriz ere nabarmenago beharbada zabaldu zela. Katolikotasuna eta euskararen inguruan, jatorri ideologiko desberdineko euskal herritarren senidetzea berriz berpiztu zen. Baina aurrerantzean banderak eta sinboloak bestelakoak behar izan halabeharrez, ez karlista ez eta liberala, Pedro Egañak 1844an aldarrikatu zuen antzera. Euskara elkartea Iruñean, Iturralde Suit eta Arturo Campion batetik eta F. Arrese Beitia. Euskalerria elkartea (1879) bestetik, aldian aldiko Euskal Lore Jaiak, ideia berrietarako sozializazio gune izan ziren.

3. Euskararen etorkizuna hiritarren gizarte modernoan: hizkuntza gorpuztu eta esparru publikoan hedatu

1888an euskararen katedra lortu ondoren, R.M. Azkuek Bilbon bere programa indarrean ezarri zuen. Euskararen gorpuztea hiriko eta gizarte berrian erabilgarria izan zedin: izkindea, hiztegia, ortografia bateratua, Akademiaren

premia. Bestetik, euskararen bizi iraupenerako neurriak, plangintza eta atmosfera berria sortu beharra: komunikabideak, (*Euskaltzale*, *Ibaizabal*). Hezkuntzaren sarean sartu.

Parisen, unibertsitarien giroan, 1900an Congrés d'Etudes Basques antolatu zen Vinsonen ekimenez eta bertan T. Aranzadik parte hartze nabarmena izan zuen. 1901an Bilbon el Sitio elkarteko Lore Jokoak. Eta Unamunoren hitzaldiak euskararen etorkizunari buruz, Bilboko gizarteko hautsak harrotu zituen. Eta 1901ean, Hendaian. Herriko Etxean Euskal Herriko zazpi herrialdeetako euskaltzale eta aditu bildu ziren, hizkuntzaren gorpuztea finkatzeko, erakunde publikoek bere gain egiteko hori ez baitzuten hartzen. Ortografiaren bateratasuna alde batetik eta euskararen zabalkundea bestetik.

Aurrekari eta ingurugiro horretan Sabino Aranaren ekintzabidea kokatu behar dugu.

4. Euskarari buruzko Sabin Aranaren diskurtsoak

Sabino Arana Abandon jaio zen. Oraindik bere herrian euskara tokian tokiko hizkuntza bizia zen eta XIX.mendean zehar goian aipatu ditugun euskaltzale sutsuen bizilekua. Baina Bilboaldeko merkatal eta industri giroko burgesiaren mordo handi batek, gaztelania zuen etxeko hizkuntza, etxe bereko neskamearena euskara izan arren. Gaztelaniaz hasi eta hezi zen baina gazte gazterik, bere Abandoko Euskal Herriaren ikuspegi zabalagoa lortu zuen. Gurasoen familia erbesteraturik zegoela, Iparraldeko Euskal Herria ere ezagutu zuen. Urduñan burgeseria mailako beste lagunekin ikaskide. Ondoren, Bartzelonan izan zen ikasle eta pentsa daiteke bertan katalan hizkuntzaren bizitasuna eta pizkundeak eraginik izango zukeela. Euskara ikasi egin zuen eta berehala arduratu zen bere jakinduria zabaltzen. 1888an aurkeztu zen euskarazko katedrara eta 1890an «Programa del primer Curso de Euskera Bizkaino» prestatu zuen. 1896an «Academia del Euskera Bizkaino» antolatu zuen.

4.1. Euskara, leinuaren eta jeltzaletasunaren zerbitzari: «si nuestros invasores aprendieran el Euzkera, tendríamos que abandonar este» (1894)

Euskal abertzaletasunaren doktrina berritzailea asmatzen zegoelarik, euskararen defentsan ere arduratu zen, baina premia handiagoa zuen, politikagintza jeltzale berria aurreratzea, Bizkaia herbestetarren menpeko herrialdea bihurtu zelako. Konturatu zen honezkero, gaztelania hizkuntza nagusia zela Bilbo eta Abandoko gizartean. Iraultza ekonomiko-industriala gertatzen ari zen unean, euskara neskame eta populuaren hizkuntza arrunta, behe mailako klaseetako hizkuntza izanik, bigarren mailako tokian zegoen. Desagertzeko abia-

dan murgildu zen gizartearen ispilu argia agian. Euskara, gizarte tradizional eta zaharreko azken agiria zen eta zibilizazio baten erakusle eta bilbotar ikuspegitik defentsa aldarrikatzen bazuen, politikagintza abertzalearen ikur berria zen, idealizazio paseistaren ikuspegi hiritarretik begiratzen zuela. Horregatik, bere lehen diskurtso abertzalean oinarriturik, euskara, aberriaren armarrian kokatzen zen. Funtzio komunikatiboa barik, erakusle bereizgarritzat hartzen zuen. Eta hizkuntza izan beharko lukeen bezala berpentsaturik berrasmatzen saiatu zen, balizko printzipio batzuen arabera, hizkuntzaren komunikazioaren funtzioa bigarren mailan alboratuz. 1893ko Larrazabaleko hitzaldian, helburu garbia erakusten du: Bizkaiko berregituratzea burutu beharko litzateke bere kabuzko asmaturiko paradigmapean. Euskara eta Bizkaiko historia berrasmatu beharra zegoen, printzipio jakin batzuen arabera, aurretiaz eta aurreiritziz erbestekotzat definitzen zena desagertarazteko eta beraz gizarte mota berria eraikitzeko, pentsamolde guztiari ikuspegi teokratikoan oinarriturik.

1888an «Pliegos histórico-políticos» argitaratzen hasi zen eta bigarrenean idatzi zuen:

> «...la lengua como lazo de unión euskeriana, si bien en rigor no pasa de ser un auxiliar del verdadero lazo de unión, a saber, el patriotismo, el amor a las doctrinas patrias. La lengua es, en efecto, mucho más importante que la Poesía (...) Euskeria pudo sostenerse, y se sostuvo independiente e integérrima sin Literatura alguna; no se sostiene así en estos tiempos de irrupción erdérica. Donde avanza el idioma castellano (que es el español más próximo a Euskelerria), avanza también el españolismo y con él arraiga y se desarrolla».

Haren pentsamoldea, ikuspegi politikoan garatu zuen eta bere printzipio berrien ildotik, 1894an, idatzi zuen:

> «si nuestros invasores aprendieran el Euskera, tendríamos que abandonar este, archivando, cuidadosamente su gramática y su diccionario y dedicarnos a hablar el ruso, el noruego o cualquier otro idioma desconocido para ellos» «Para nosotros sería la ruina el que los maketos residentes en nuestro territorio hablasen euskera».

Guztion euskarak guztion beharra du esaten du 2001ko martxoaren 27an Euskararen Aholku Batzordeak, baina hau ez da hasierako S. Arananaren pentsamentua. Hipotesi mailan honelakoa ere idatzi zuen:

> «Si nos dieran a elegir entre una Bizkaya poblada de maketos que solo hablase el euskera y una Bizkaya poblada de bizkainos que solo hablasen el castellano, escogeríamos sin dubitar esta segunda, porque es preferible la sustancia bizkaina con accidentes exóticos que pueden eliminarse y sustituirse por los naturales, a una sustancia exótica con propiedades bizkainas que nunca podrían cambiarla».

Eta jakina, armarritzat harturik kontserba behar zen hizkuntza, egunerokо bizi iraupenak eragiten zion bilakaera bizkorrik ez balu bezala. Horregatik:

> «Si nuestros invasores aprendieran el euskera, tendríamos que abandonar este, archivando, cuidadosamente su gramática y su diccionario y dedicarnos a hablar el ruso, el noruego o cualquier otro idioma desconocido para ello».

Beraz, azken ondorioa oraindik harrigarriagoa egin zuen, printzipio nagusia leinuaren garbitasuna iraunaraztea zelako, gizakiok biologia oinarrian bere jatorrizko zena gorderik balute bezala:

> «Tanto estan obligados los bizkainos a hablar su lengua nacional como a no enseñarsela a los maquetos o españoles. No el hablar este o el otro idioma sino la diferencia de lenguaje es el gran medio de preservarnos del contagio de los españoles y evitar el cruzamiento de las dos razas».

Dena dela, 1895an Euzko Alderdi Jeltzalea sortu bazuen, hurrengo urtean 1896ko abuztuaren 14an «Euskera Bizkaitarraren Bazkintxa Azterkarija-Academia del Euskera Bizkaino» sortzeko proiektua idatzi zun, akademikoen zerrenda izenak eta arautegia aurreikusten zituelarik. Baina erakunde honek, nik dakidalarik, ez zuen jarraipenik izan. 1896an editoriala sortu zuen: «Bizkayaren Edistija ta Izkerea Pizkundia –Renaissance de l'Historire et la Langue de Bizkaya– Renacimiento de la Historia y la Lengua de Bizkaya». Bulegoak Bilboko Calle Nueva, bigarren zenbakiko bigarren solairuan zeudela.

4.2. Berezko balioa euskal gizartean: «hagamos los vascos que el uso del euzkera sea necesario en nuestra tierra si queremos que el euzkera viva» (1901)

Bigarren aldia ere izan zuen. Euskal hizkuntzari bestelako balio eta nortasuna hobesten zion. *Euskaldun Batzokija* elkarte izatetik, eraginezko mugimendua bihurtzeko, alderdia sortu zuen eta hauteskundeen plaza publikora igarotzea erabaki zuen. Giro horretan, bi esperientzia azpimarratu nahi nituzke : alde batetik, bere mundu idealetik errealitate sozialaren benetako arragoan sartu zen eta beraz bestelako munduan ezagutu zituen. Hauteskundeetan sartzea, gizartearen ikuspegi zabalagoa hartu zuen. Bestetik, herri euskaldunean murgildu eta bizitzen hasi zen, beste euskaldun bat balitz bezala, Bilboko hiriguneko esperientziatik at.

1898an hauteskundeetan arrakasta lortu zuen, V. Txabarrik bultzatzen zuen kandidaturaren aurka joanez, aberats berrien kazikismoaren aurkako kandidaturaren buru agiri zen. Bizkaiko Diputazioko diputatu probintziala bihurtu zen, Bilboko barrutian aukeratua.

Aurrerantzean, euskara ez da bitarteko tresna edo sinbolo hutsa izango, helburu jeltzalea lortzeko edo justifikatzeko, bere baitako berezko balio duen zerbait baizik. Hizkuntza batek funtzionalitatea lortu ezean, alperrik du bizi-raupena, galdu egin da eta; baina bestalde, bigarren mailako hizkuntza baten indartzea lortzeko, beste izpiritu edo indarra beharrezkoa izango dela aldarri-

katzen jarraitu zuen, hots, abertzaletasunak eransten diona. Horregatik euskararen biziraupenerako honako hau idatzi zuen 1901an, Euskal Herri osoko Euskaltzaleen aurrean:

> «No habiendo patriotismo es logico no amar el euzkera» (...) hagamos los vascos que el uso del euzkera sea necesario en nuestra tierra si queremos que el euzkera viva».

Haren bizitza pribatuan aldaketak jazo ziren: hasierako aktibismo politiko publiko biziaren ostean, Sukarrietan bizitzen hasi zen. Itsasbazterrean, lurraren erosketa 1898ko martxoaren 31an hitzartu zuen, bertan etxea egiteko. Erosi ere, trenbideko geltoki ondoan, haren politikagintzaren zeregina Bilbon zegoelako.

Baina bertako emakumea ezagutu, Nikolasa Atxika-Allende eta ezkondu egin zen. Esperientzia horretan, bera euskalduna bihurtzen ari zen aldian, herri euskaldunean, haren emaztegaia euskalduna Bilboko moldeetako burgeseriaren erdaran hezteko saiatu zen. S. Aranak gizarte modernoan, euskaldun legez bizitzea zein zaila zen barneratu zuen. Haren garaiko eta kideko zuen burgesia, honezkero, erdaldundurik zegoen. Eta horrez gainera, populu eta hiriko burgesiaren arteko klase desberdintasuna, ohiko bizimoduan eta ohituretan nabarmen desberdina zen. Ezkondu aurretik, emaztegaia Bilbora bidali zuen, hilabete batzuetarako mojen kolejiora, garaiko burgesiaren manerak eta usadioak hartzeko eta bereziki gaztelaniaz ikasteko. Beraz, euskara, baserritar populuarentzat baino ez ote zen baliagarria? Horra berebiziko biziko kontraesana. Abando-bilbotar giroan hezi eta hazi zenarentzat. Ez da ahaztu behar bilbotar peto-petoentzat Txorrierriko euskaldunak, beste «kasta» bateko herritarrak zirela. Eta Sabin Aranarentzat Sukarrieta «aldea» baino ez zen, zentzu hertsian, Bilboren parean, bere gutunean adierazten zuen legez.

Baina, bestalde hau guztiau bizitzako esperientzian oinarriturik, pixkana bere larrutik ikasarazten zion, nolabait jabetu arazteko, euskalduna, bere herrian, bigarren mailako hiritarra bihurturik zegoela, Bilbotar baten idealizaziotik aparte. Eta esperientzia berri honek, herri euskaldunean murgildurik zegoela, euskaldunagoa bihurtu zuen eta beharbada horrek lagundu zion bereizten euskararen aldeko jarrerak, ez zuela halabeharrez abertzaletasun politikoaren enblema soila izan behar. Euskal gizartean bazuen izan berezko balio euskaldun ugari oraindik bizi zirelako. Beraz, Bizkaia edo Euskadiren independentzia lortu arte ez zen itxaron behar, euskararen zabalkundea eta geroa ziurtatzeko, batez ere euskara hizkuntza bizia zegoen tokietan. Hala ere, euskaltzaletasunaren aldeko grina pizteko, euskal abertzaletasuna premiazko politika zen, euskararen aldeko irmotasuna sendotzeko.

1902an Busturiko maisua zenaren, Victor Bilbaoren aurka idatzi zuen, eraztuna erabiltzen zuelako, mutikoeak erdaraz egin zezaten kalean ere. Mutikoari eraztuna kendu eta zigorraren ordez dirua eman zien bere gurasoei opa-

riren bat erosteko. Maisuak, gaztelaniaz eta euskaraz idatziriko gutunean erantzun zion, 1902ko urtarrilaren 20an, besteak beste honela:

> «nik obeto adituko neban erdera baño ezan deuztazun guztia euzkaras ipiñi bazendu atso zure otzañak emon euztan papelian. Bizi bedi gueure euzkal erri maitea eta bizi bdedi Españia, señen satia dan gure erria» (jatorrizko ortografia).

Beraz, aurrerantzean, ekimen publikoa egon ezean, pribatua indartu behar zela, ohartu zen. Horrela adierazi zuen 1901ko diskurtsoan Hendaian Euskaltzaleen biltzarrean:

> «solo de la iniciativa e influencia particular puede esperar el euzkera hacerse necesario en extensión realtiva, y apto, en absoluto, de llnear eleuso a que se aplican las otras lenguas en la vida moderna. No está pues la muerte del euzkera en manos del... sino que en las manos del vasco su vida Si muerre, culpémenos a nosotros mismos» (Hendaia 1901ko iraila).

* * *

Euskararen etorkizunari buruz, zalantza handiak zituen, desagertzeko bidean ikusten zuelako. 1901ko urtarrilaren 5an E. Aranzadi adiskide donostiarrari honako hau idatzi zion:

> «cuando me pongo pensar, asi sobre esto como sobre la raza, comprendo claramente que esto se va: se va antes que termine el siglo que acaba de empezar. El único remedio está en el dinero: y éste no se encuentra. El aldeano sabe de sobra que el euzkera de nada le sirve al hijo. El remedio está pues en fundar industrias, adquirir caserios, sostener compañias navieras..nacionalizando todas esas esferas de la vida, de suerte que el euzkera sirva de algo, porque sea obligatorio para tener parte en ellas»

Ildo berean, irakaskintza euskaraz bideratzeko, Hermanos de las Escuelas Cristianas delako Kongregazioak bildu euskaldundu ondoren euskaraz irakas ditzaten edo maisu-anderenoentzat irakasle eskola euskalduna sortu, proposatzen zuen. Jakina, diru baliabideak behar ziren eta azkenik idatzi zuen:

> «las cátedras para enseñar el euzkera, no en euzkera, resultan poco prácticas. Es lujo aprender una lengua que no es útil; siempre es útil aprender las cosas en cualquier lengua que sea. Se pretende conseguir algo del Gobierno central: inutilmente».

Miguel Unamunok, 1901ko abuztuaren 26an, Bilboko Lore Jokoetako azken hitzaldian zera adierazi zuen:

> «El vascuence se extingue sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción; muere por ley de vida. No nos apesadumbre que perezca su cuerpo, pues es para que mejor sobreviva su alma.
>
> La mejor lengua es la propia, como es la mejor piel la que con uno se se ha hecho, pero hay para muchos pueblos, como para otros organismos, épocas de

muda. En ella estamos. En el milenario eusquera no cabe el pensamiento moderno; Bilbao hablando vascuence es un contrasentido.»

1901ko irailaren 16an Hendaian eginiko hitzaldian, Unamunoren iritzien zantzua agirikoa da:

«No hemos venido a hacer la autopsia de un cadaver antes de que se descomponga, para dejar descrito su admirale organismo a los que hayan causado su muerte y en la esfera de la vida pretendan sustituirlo».

Baina beranduago, Euzkadi izeneko aldizkarian horrela erantzun zion:

«Hablole de su lengua, de la lengua que para uno de los tres principales temas se había fijado como precisa y para otros varios como adminisible, de la lengua en que el orfeón Bilbaino cantaba música vasca en los mismos Juegos y dijole de ella: esa lengua que hablas, pueblo vasco, ese euzkera desaparece contigo; no importa, porque como tú debe desaparecer; apresúrate a darle muerte y enterrarle con hora y habla en español... Quienquiera que conociera el carácter del señor Unamuno, compredia perfectamente que su desfogue no merecia la pena de ser contestado ni de provocar protesta alguna. ...lo contrario de lo que entonces dijo pudo muy bien decirlo al día siguiente seguramente lo ha dicho en alguna ocasión y es probable lo vuelva aún a decir».

Beraz, bere bizitzaren azken aldian, euskararen aldeko ekintzan burubelarri sartu zen, ez bakarrik hizkuntzaren gorpuzte modernoan (ortografia, gramatika eta abar) baita ere bere zabalkundea gizartean bideratzeko. Eta ekintza honen iturburua, euskal abertzaletasunean kokatzen zuen.

Gizartean eraginkorrago izateko, bere ekintzabide politikoa ere aldatzeko prest zegoen. 1902ko abuztuaren 15ean Bilboko presondegian zegoela, etsiturik, besterik barik preso zutelako bere ekintza oztopatzeko asmoz, emazteari idatzi zion:

«Además, después de esto ya nunca más en toda mi vida me veré en estas cosas, porque el partido nacionalista morirá este mismo año y los nacionalistas se harán españolistas... (ezin da irakurri) ¿no? habrá más carceles y juicios para ellos.Yo me retiraré a casa, a descansar y ya no habrá peligro ninguno para mí».

Gutunerian agiri da, emazteak ez duela gogoko gartzelaldiko egoera, preso politiko zenez gero, beste presoetatik aparte egon arren».

Bere ekintzabide politikoan garaian garaiko legeak aintzat hartzen jokatzeko asmoa zuen aurrerantzean, gizartean eragin sakonago gihartzeko, zeregin handiak ikusten baitzituen, helburu politiko nagusiak lortzeko bidean.

Ondokoak eta jarraitzaileak 1901-1919

Sabino Aranaren jarraitzaileak euskararen aldeko ekimenak eta portaerak bultzatzen saiatu ziren. Bizkaitarrak edo «jeltzale» joerakoek, euskara bere ajenda politikoan sartu zuten. Baina sarritan , oraindik tokian tokiko soziologiari atxikiturik edo, euskararen alde bai baina gaztelania zen komunikazio hizkuntza na-

gusia. Adibidez, hara katalan hizkuntzaren normalizazioan aitzindaria izan zena, Pompeu Fabrak, Bilboko goi mailako injinadore industrialen eskolan irakasle zegoela 1906an, Lluis Duran I Ventosa adiskideari besteak beste idatzi ziona:

> «Bilbao es una cituat de llengua castellana; San Sebastian-me dieune-s'está castellanisant rapidament. Els bilbains, a casa llur, volen managars-s'ho tot ells sols. Fora ingerencies de gent estrany! els maquetos que no a fiquin alli aoun no'ls demanen! Vet-aquí l llur regionalisme...! enamorats de Bilbao, satisfets hiperbolicament del seu engrandiment, en el design de fer-se ls superiors s'arrapen adhuc a la llengua : l'euskara es antiquissim, no ve de capt altra llengua, es més llengua que l castellá que al cap de vall no es més que un dialecte llatí (i aquí está la cosa: l'euskar per damunt dels castellá..!) però no l parlen!. ni l'entenen! Un dia he estat al Centro Vasco, vaig veure-hi retorls en Bascuense, no hi vaig sentir enraonar sinó en castellá. Molts que es deixen dir biscaitarres ignoren completament el Bascuense; es tant difícil! La seva gran dificultat (?): Una altra prova de superioritat». (Bilbao, 1906.IV.15).

Hala ere, R. Maria Azkuek berak onartu zuen moduan, euskal abertzaletasunaren aldeko mugimentuak, euskararekiko begirune berria ekarri zion. Euskarak prestijio soziala irabazi baitzuen. M. Atxagak liburu batean, izenik izen argitaratu ditu jeltzale izenekoen ekimenak euskararen alde.

Bukatzeko, zera azpimarratuko nuke, jarraitzaileen ekimeneri buruz: komunikabideetan adibidez, 1913an, *Euzkadi* izeneko egunkaria sortu zutenean Bilbon, lehen orrialdean, egunero euskaraz, Kirikiñoren zutabea argitaratu zen. Euskara, eguneroko komunikabidean agirikoa bihurtzen hasi zen. Ondoren 1917an, Bizkaiko Diputazioan gehiengoa lortu zutenean, R. Sota Aburto presidente zela, F. Landaburu eta K. Elgezabaltzi diputatu probinzial jeltzaleen ekimenez, berehala bultzatu zuten Eusko Ikaskuntzen bilkura eta ondorengo Euskal Akademiaren aldeko erakundetzea harik eta lortu arte 1919ko urrian Euskal Akademia, Euskaltzaindiaren erakundetzea. Beronen lehengo egoitza Indautxuko eskoletan izan zen Bilboko Udalaren ardurapeko egoitzan. Jeltzaleek Bilboko Udalean gehiengoa zuten ezkero karlisten laguntzarekin, euskararen irakaskuntza publikoa Bilboko udal eskoletan arrakastaz antolatu zuten. Beraz, XX.mendearen bigarren hamarkadan Bilbon eta Bizkaian, agintari jeltzaleen politikaren eraginez, euskararen egoera publikoa aldatzen hasi zen.

* * *

Sorburuak eta Bibliografia

Abertzaletasunaren Agiritegia-Archivo del Nacionalismo. Fundación Sabino Arana-Kultur elkargoa. Artea. Sabino Aranari buruzko ondarea. Fondo Sabino Arana Goiri.

Mari Karmen Aizpururen *artxiboa*, S.Arana-N. Atxika-allenderen oinordekoa.

AGIRREAZKUENAGA J. (ed.) *La articulación político institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias entre los representantes de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente Navarra. 1775-1936).* Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia, 1995, 2 liburuki.

AGIRREAZKUENAGA J. *Euskal gizartean barrena euskaltzaletasun politikoaren sorrera garaian: zaldunak, matxinoak, enpresariak, langileen eraketa (1789-1876).* Bilbao, Beitia Ed., 1994.

AGIRREAZKUENAGA J. *Gerra eta Bakea Euskal Herrian. Politagintza lege zaharraren krisialdian.* Donostia, Gaiak, 1993.

AKESOLO L. «Arana-Goiri, euskalari», in *obras completas de Arana Goiritar Sabino.* Donostia, Sendoa, 1980, lehen liburukia.

ALTZIBAR X. *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, astarloatarrak, Frai Bartolome. Nortasuna, idazlanak, grafiak.* Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia, 1992.

ASTARLOA Pedro, *Urteko Domeka gustijetarako verbaldi ikasbidekuak, zeintzubetan azalduten dan Erromako katesismua. Euretan aurkituko dabe Armina-zain euskaldunak, eure elextar edo feligresari predikadu bihar deutzen ikasbidia: Baita bere kristinau euskaldunak, zer jakin eta egin bihar dabeeen.* Bilbo, Pedro Apraiz, 1818.

ATXAGA M. *EAJ eta euskara. Ehun urteko bide malkartsua.* Bilbo, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1996.

CORCUERA J., *Origenes, ideología y organización del nacionalimo vasco (1876-1904)* Madrid, s. XXI, 1979.

DE PABLO S., MEES L., RODRIGUEZ J.A., *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco.* Barcelona, critica, 1999.

ELIZONDO M., *Sabino Arana padre de las nacionalidades. Correspondencia inédita de los hermanos Arana. Legajo Aranzadi.* Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 2 libuki.

INTXAUSTI J., *Euskara, euskaldunon hizkuntza.* Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 1990

KINTANA J., «Euskarazko historiografia(I): aurrekariak eta lehen pausoak (XVI-XIX mendeak). www.kondaira.com, 1, 2003,

LARRAÑAGA K. «W.von Humboldt y el proceso de definición de Euskal Herria como sujeto del discurso historiográfico» en W.von Humboldt: «Un

puente entre dos pueblos». (ed. J. Agirreazkuenaga & J.Azurmendi) in, *Revista Internacional de Estudios Vascos* nº 41, San Sebastián, 1996, 477-509.orr.

— *Obras Completas de Arana-Goiritar Sabin, Sabino de Arana-Goiri.* Buenos Aires, Editorial Sabindar Batza (Beyris, Baiona), 1965. 404.or., 1331.or.

RIQUER B., «El primer nacionalisme basc segons Pompeu Fabra», *L'Avenc,* Barcelona, 2001. zenb. 258, 53.or.

URRUTIA A., (Zuz.) *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara. 1833-1877. Euskarazko testuen bilduma eta azterketa.* Bilbo, Bizkaiko Batzar Nagusiak, 2003.

ZABALA J.M. *Fabulas en dialecto vizcaino.* Bilbo, Euskal Editoreen Elkartea, 1986. Sarrera eta prestaketa: A. Zelaieta.

ZALBIDE M., *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrenean. Hendai-Hondarribietako biltzarra:* «Ortografía aitzaki, Eskualzaleen Biltzarra sortu zenekoa». Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo, 2001.

ZAVALA A. *Frantzesteko bertsoak*, II, Tolosa, Auspoa, 1991

ZAVALA A., *Frantziako iraultza eta konbentzioko gerra bertsotan (bertsoak).* Donostia, Etor, 1989.

SABINO ARANA ETA BERE ERAGINA EUSKAL PIZKUNDEAN

Bilbon emana, 2003-XI-21

Paulo Iztueta Armendariz

Sarrera

Luis Mitxelenak, *Euskal literaturaren historia* idaztean, Aranaren itzala bere sorkuntzazko lana baino harago doala esan zuen: «La actividad de su contemporáneo Sabino de Arana-Goiri (1865-1903) fue principalmente política (...) No obstante, sería injusto medir su influencia en la literatura vasca por la huella de su obra original. El alcance de aquélla es mucho mayor, y se manifiesta no sólo en sus seguidores incondicionales (Luis de Eleizalde, el padre Arriandiaga, en la poesía el padre Ramón de Rentería) que llegaron a veces a extremar sus tendencias, sino también en los que no lo eran e incluso en los que proclamaron abiertamente su oposición. De Arana-Goiri más que de nadie procede en último término el mayor empuje y ambición de los escritores posteriores. El poema que como a maestro le dedicó Lizardi, por ejemplo, no es una simple fórmula de cortesía, sino el escueto reconocimiento de una deuda» (1). Geroago egile berari egindako beste elkarrizketa-liburu batean, oraindik areago doa Escalera Maidaganen esaldi hura bere egitean: «...él sólo ganó para el euskera un número mayor de lectores que todos los que había tenido hasta entonces...» (2).

Lino Akesolok esana da Aranak alderdi bi dituela, euskararen aztertzailearena bata eta eragilearena bestea: «Asko izan da alderdi biotan berak egiña; baiña bigarrenean, euskerari emon eutsan bultzadaren aldetik, Aranak ez dauala bardiñik izan esanaz ez dogu, ez, alaz ez danik esango. Arrezkero Euskal-Bizkundeak Aranari zor deutso geien geien. Aitor au egin ez dautsanik gitxi dago, eta dagozenak, ez jakiñez, edo jakin nai ez-ta. Aranarenik gitxi edo bape irakurri ez dabelako edo arenik irakurtzea bere, nonbait, gitxitzat edo alpertzat daukelako» (3).

---

(1) *Historia de la literatura vasca*, Erein, 1988, Donostia, 145-146 orr.
(2) Ibartzabal, Eugenio, *Koldo Mitxelena*, Erein, Donostia, 1977, 26-27 orr.
(3) Arana Goiri, Sabino, *Obras Completas*, I, Sendoa, 1980, IX.

Geroztik Aranak Euskal Pizkundean izan zuen eraginaz mintzatzean, gehienek iritzi bera ematen dute. Itziar Lakak hasiera-hasieratik aitortzen du ukaezina dela Aranak euskalari eta euskaltzale –batez ere, eragile– gisa bizkaieraren erabilera idatzian izan duen eragina, eta hori, bere ustez, politikari abertzalea izatetik datorkio: «Arana hiperbizkaieraren garaiko euskaltzalea dugu, hain zuzen ere botererik eragingarriena lortu zuen euskaltzalea. Hala izaki, abandotarraren eginetan politikak izan zuen lekurik nagusiena. Honela, bada, bizkaiera idatzian bere izenak duen garrantziaren mamia, abertzaletasunaren aintzindaria izatean legoke gehien bat; bere egitasmoaren barnean euskara indartzea eta garatzea asmo zuen alderdi politikoaren sortzailea izatean, alegia» (4).

I. SABINO ARANAREN HERENTZIA

Asko dira jada Sabino Aranaren lanaz aritu direnak. Bibliografia zabala da berari buruzkoa. Ez gara horretaz luzatuko. Harenean, batez ere, hizkuntzarena ukituko dugu, baina honena ulertzeko beste puntu batzuk ere bai: arrazarena, zehazki. Arana euskalariaz diharduten gehienek azpimarratzen duten tesia baita haren baitan hertsiki loturik datozela ideia politikoak eta teoria linguistikoak, Euskal Pizkundean izan zuen eraginaz hitz egitera goazen honetan, behartuak gaude Sabino abertzaleaz, euskalariaz eta euskaltzaleaz jardutera.

Bestalde, kritikari batek baino gehiagok salatu bezala, zentzuz eta tentuz bereizi beharra dago berari zor zaiona eta besteek hari egotzi diotena. Mitxelenari jarraiki, hala dio Akesolok ere: «Aranaren euskal-lana ondo aztertu barik dago. Bereak ez dituen eritxiak ezarten ei jakoz askotan. Aranazale batzuen eritxiak alboratu eta bereak dituenak aztertzea lan onuragarria izango ei genduke» (5). Laburki esanda, batean Arana eta bestean aranazaleak kokatzeko garaia heldu da.

1. EUSKAL NAZIOA ETA ARRAZA

Sabino Arana ez zen kolpetik iritsi euskal nazioa mugatzera. Lehenik, «¿Somos españoles?» artikuluan (1893), bizkaitarrak ez direla espainolak azaltzera iritsi zen: «Los bizkainos no somos españoles ni por la raza, ni por el idioma, ni por las leyes, ni por la historia» (6). Elementu objektibo hauetako bakoitzaren edukia banan-banan azaltzen du galdera-erantzunen bidez. Haste-

(4) Ibid., 14 or.
(5) «Arana goiri, euskalari», OC, I, XI.
(6) *Bizkaitarra*, 4, 1893-12-17; OC, I, 181 or.

ko, euskal arrazak ez nongorik ez noizkorik ez bide du: «Todas las demás razas se han clasificado en grupos primitivos, ramas originadas y ulteriores derivaciones; la nuestra permanece siendo una selva virgen, para la investigación científica, una verdadera isla en medio de la humanidad. La raza española es, en cambio, un producto latino-gótico-arábigo con tenues toques de fenicio, griego y cartaginés, que no conserva ni rastro de la raza primitiva de la península, que fue la nuestra» (7). Arraza zer den hobeto zehazten du geroagoko beste pasarte honetan: «Hablamos de raza en el sentido de conjunto de familias que proceden directamente de un mismo origen más o menos remoto. En este sentido concreto, *raza* es lo mismo que *nación*, *gente* o *pueblo*; designa a una gran familia, y expresa un objeto natural, que existe independientemente de la voluntad de los hombres» (8). Izate hau berezkoa zaion batasun honek osatzen du *aberria*, zeina ikuspegi nazionalistatik begiratuta izendatzeko *Euzkadi* hitza asmatuko baitu, *euzko* + *di* hitz eta atzizkiz osatua, euzkoen multzoa adierazten duena (9).

Geroago piztuko den eztabaidan agertuko den bezala, alderdi linguistiko zein historikotik begiratuta, berak adierazi nahi zuen herri-errealitatea adierazteko desegoki asmatutako hitza izango da *Euzkadi*-rena; baina arreta jarri, hitz horren bidez azaldu nahi zuen kontzeptuaren edukian ezarri behar da, hor batez ere, honek baitu garrantzirik gehien, eta ez hainbeste, agian, kategoria politiko hura adierazteko berak erabilitako hitzaren desegokitasunean. *Euzkadi* hitzak, lehenik eta funtsean, bere lurralde historikoan zein diasporan bizi den euskal jatorriko guztien komunitate etnikoa esan nahi du. Noski, inmigrazio-populazioa ez da sartzen hor, egungo estatu moderno batzuetan, Alemaniakoan bezala, sartzen ez den bezala.

Beraz, arraza edo nazioa esan, gauza bera da Aranarenean, esanahi bera dute eta. Oinarri fisikoa dute, naturala. Desberdintasun biologikoa tartekatzen delako, bizkaitarrak ezin dira espainolak izan, ezta espainolak euskaldunak ere, ezta nahi izanda ere (10). *Umiaren Lenengo Aizkidia* liburutxoan, elkarrizketa gisa eratutako «Bizkatarra» atalean, dakarrenez, Euzkadi ez da lurralde grografiko bati atxikirik dagoen giza komunitatea, mundu zabalean barreiaturik dauden edo egon daitezkeen euskotarrak oro biltzen dituen familia baizik. Lotura egiten duena ez da hizkuntza, arraza baizik, euskal abizenak dituena. Euskotar guztiak euskaldun direnetz galderari, honela erantzuten dio: «Ez gustijak: bai-dira euzkerea eztakijen euzkotar asko» (11).

(7) Ibid., 182 or.

(8) «Fe de erratas de *La Gaceta del Norte*», *La Patria*, 81, 1903-05-10; OC, III, 2264-2265 orr.

(9) Hau iruditzen zaio egokiena: «el más natural, más castizo y más adecuado para significar al Pueblo Vasko en conjunto» («Euzko», *Euzkadi*, 1, 1901, Marzo; OC, III, 1828 or.).

(10) Ikus «Efectos de la invasión» artikuluko 1. oin-oharra (*Baserritarra*, 10, 1897-07-4; OC, II, 1326 or.).

(11) Op. cit., OC, II, 1059 or.

Bizkaitarrak, bada, egitez Espainiaren azpian badaude ere, izatez ez dira espainolak, eta beren nazioa berreraikitzeko eskubide osoa dute, bere egunean, 1839. urtera arte, independentea izan baitzen: «Podrán los vascos actuales desear volver o no a su independencia pasada: que cada hombre y cada pueblo es dueño de su propia voluntad, y no el extraño (...) Pero (...) nadie que en la materia de puros hechos se crea versado, desconoce que Vizcaya (como Guipúzcoa, y Alaba y Nabarra) fue hasta 1839 un estado de nacionalidad vasca que gozaba de perfecta independencia política; que esta independencia fue en ella natural y no adquirida ni por otros Estados otorgada; que el origen de esa independencia se remonta, por lo tanto, hasta el origen de la misma raza vasca; y que no hay hombre, entre los sabios, que sea capaz de señalar en la historia ni en la protohistoria la existencia de una raza anterior a la raza vasca» (12). Pasarte honetan ageri denez, alde batera utzita, noski, egungo euskal historiografian sostengaezina den Euskal Herri foralari egozten dion ustezko independentziarena, lehen aipatutako elementu objektiboei subjektikoa eransten die, independentzia erdiesteko borondadea, alegia, baldin herritarrek hala erabaki balezate. Xede honekin sortuko ditu, hain zuzen, *Euskeldun Batzokija* (1894), EAJ (1895), eta sustaketa politikorako tresnarik eraginkorrenak, bereziki, prentsa-organoak, hala nola *Bizkaitarra* (1893), *Baserritarra* (1897), *El Correo Vasco* (1899), *Euzkadi* (1901), *La Patria (1901)* eta *Patria* (1903), *Bizkaya'ren Edestija* eta *Izkerea Pizkundea* argitaletxea (1896), azken hau Luis bere anaiarekin batera bideratua. Horrela gauzatzen da sabindar nazionalismoa hamarkada estu baino biziko ibilaldian. Mugimendua ibiliz frogatzen baita, Sabino Aranak mugimendu nazionalista abian jarriz frogatzen du badela euskal nazioa, ez egitez, bere estatua falta zaiolako, baina bai egitez eta borondatez, menpekoa izateari utzi eta burujabe izan nahi duelako.

Euskaldunak zergatik ez diren espainolak azaldu eta gero, euskaldunen berezitasunak zehaztera pasatzen da eta, ondorioz, euskal nazioaren definizioa ematen du. Honela, Aranak «¿Qué somos?» artikulu-sortan (1896) mugatzen du euskal nazioari buruzkoa. Bost elementu dira euskal nazioa definitzen dutenak: arraza, hizkuntza, gobernua eta legeak, izaera eta ohiturak, eta nortasun historikoa (13). Azken batean, bi lan horiek osagarriak dira.

Arraza da harentzat oinarrizko elementua. Bada euskal arraza bat, garbitzat hartzen dena, eta garbi izanez jarrai dezan, atzerritarren kontra babestu beharrekoa. Aranak euskal arraza eta espainola bereizten ditu. Hauena arraza nahasia da, XVI. mendera arte arraza askok okupatu baitzuten penintsula, «de suerte que la raza es un producto de todas las invasiones que han ocurrido en la península desde hace más de cuarenta siglos: celta, fenicia, griega, romana,

(12) «Fe de erratas de *La Gaceta del Norte*», op. cit., 2360 or.

(13) «¿Qué somos?», *Bizkaitarra*, 28, 1896-06-16; OC, I, 606 or.; 29, 1895-06-30; OC, I, 625-628 orr.; 30, 1895-07-7; OC, I, 637-641orr.).

germana, árabe, dominando el elemento latino» (14). Bertan mintzatzen diren hizkuntzak ere latinetik eratorriak dira, hala nola gaztelania, katalana, valentziera, galiziera, asturiera, berdin portuguesa. Aldiz, euskara, euskal arrazaren antzera, zein hizkuntza familiatan sailkatu ez dakite (15).

Sabino Aranak ez du esaten euskal arraza espainolena baino garaiagoa denik, hura ez bezala garbia dela baizik; ezta ere ez du esaten euskal arraza txit garbia denik, mestizoak ere aipatzen baititu. Beraz, Euskal Herrian, hiru motatako jendea bizi da, hots: euskaldun garbia, lehen lau abizenak euskaldunak dituena, mestizoa, gurasoren bat euskalduna duena, eta matekoa, arras arrotza dena. *Euskeldun Batzokija* elkarteko arautegia egiterakoan (1894), 59. artikuluan (16), hiru motatako bazkideak bereizten dira: bertakoak, lehen lau abizenak euskaldunak dituztenak; adoptatuak, abizenen bat edo beste euskalduna dutenak eta beren aiton-amonak euskal lurraldean jaioak direnak; azkenik, adiktuak, nahiz lehen lau abizenak erdaldunak izan, beren aiton-amonak euskal lurraldean jaiotakoak dituztenak. Beraz, garbi dago, abizenak dira, hain zuzen, arrazaren zigilua berekin daramatenak. Berdin dio non jaioa izan, euskara jakin ala ez, baldin abizenak euskaldunak baditu: «Porque el nacer en éste o en el otro punto nada significa, como es claro, respecto a la raza. Un hijo de bizkainos nacido en Madagascar o el Dahomey será tan bizkaino de raza como el que hubiese nacido en Olakueta: al paso que un descendiente de españoles nacido en Vizcaya nunca será bizkaino de raza» (17).

Bizkaitarren etsaiak zein diren ere garbi asko zehazten du. «Ellos y nosotros» artikuluan dakarrenez, euskal politika bi bandotan zatituta aurkitzen da: batean «besteak» daude, etsai españolistak, alegia, eta bestean «gutarrak», bizkaitarrak edo nazionalistak, hots, «los que queremos para nuestra Patria la perfecta realización de su derecho político, y tanto como a ella amamos, odiamos a sus opresores» (18). Besteen sailean, hasteko maketoak aurkitzen dira, inbaditzaile espainolak oro, hala deituak bizkaitarrak menpean hartuak dauzkatelako: «Y no me refiero a una clase determinada de *maketos*, sino a todas en general: todos los *maketos*, aristócratas y plebeyos, burgueses y proletarios, sabios e ignorantes, buenos y malos, todos son enemigos de nuestra Patria, más o menos francos, pero siempre encarnizados» (19).

Sabino izututa dago maketoak Bizkaian hartzen ari diren indarra ikusita. Maketismoa edo espainolismoa Bizkaiko gizarte-bizitza osoan zehar barreia-

(14) «¿Qué somos?», *Bizkaitarra*, 28, 1896-06-16; OC, I, 607 or.

(15) «Es bien sabido que el origen de la raza euskeriana desconócese hasta hoy por completo: su lengua carece de hermanas y de madre conocida»(*Pliegos histórico-políticos*, OC, I, 72 or.).

(16) *Bizkaitarra*, 10, 1894-05-1894; OC, I, 281 or.

(17) «¿Somos españoles?», *Bizkaitarra*, 4, 1893-12-17; OC, I, 182 or.

(18) *Bizkaitarra*, 26, 1895-05-12; OC, I, 578 or.

(19) «Nuestros moros», *Bizkaitarra*, 4, 1893-12-17; OC, I, 196 or.

tua aurkitzen da, zibilean bezala elizakoan, soziopolitiko eta ekonomikoan bezala administraziokoan, eta bereziki familietan (20). Garaiko datu estatistikoen arabera, Bilbaoko hiritaren artean euskaldunak halako bi dira abizena espainola dutenak, 3.537 erdaldun 1.724 euskaldunen aurkez (21). Orobat, eskola nazionaletako maisu-maistrak gero eta gehiago dira Bizkaian, 1894ko datu estastitikoen arabera, euskal abizenekoak 154 eta erdal abizenekoak, aldiz, 129. Baina euskal abizenekoen kopuru hori oraindik areago murriztu behar da, baldin kontuan hartzen bada, horietako batzuek, Espainian jaiotakoak izaki, Euskal Herria mespresatu egiten dutela, euskara ez dakitela, edo, jakinda ere, gorrotoa diotela: «Total, que son muy contados los que (...) son bizkainos de naturaleza y en ideas, y los únicos en rigor que Bizcaya debiera sostener para educar a sus hijos» (22).

Bestalde, bertakoak dira inmigrazia aldezten dutenak eta atzerritarrei leku egiten dietenak. Horregatik, ez atzerriko inbaditzaileak bakarrik, bertako espainolistak ere, euskal abizenak eraman arren, maketoen parekotzat hartu beharrekoak dira: «Pues ¿quiénes son *ellos* aquí en Bizkaya? Los malos bizkainos; los que forman en los distintos partidos de España y fraternizan con los *maketos*; los que han olvidado la tradición bizkaina y hacen causa común con los enemigos de nuestros antepasados; los que han despreciado, en todo o en parte, la Ley Vieja de nuestra raza, para adoptar la extranjera; los que reniegan de la nacionalidad bizkaina, para hacerse españoles... (...); en una palabra, los bizkainos espurios que nosotros llamamos *maketófilos* o españolistas; esto es, amigos de los españoles; ésos son *ellos*. Ésos son con quienes nosotros tenemos que luchar principalmente: no los maketos. Ésos son los que, llevando indignamente hermosos apellidos de nuestra lengua dignos de mejor suerte, y aparentando fuerismo, u honradez administrativa, o protección para la industria y el comercio, engañan a los bizkainos sanos, y compran por unas pesetas a los que están ya maketizados y envilecidos» (23). Espainolisten zakuan sartzen ditu euskal nazionalista ez diren guztiak: «carlistas, integristas, euskalerriacos, liberales, sagastinos, chavarristas, republicanos..., de toda casta de españoles y españolistas; pero buen bizkaino, ninguno» (24). Bestalde, «La ceguera de los bizkainos» artikuluan (25) jadanik aurreko urtean banan-banan aztertuak zituen alderdi es-

(20) «Hay *maketismo* o españolismo en todas las esferas de la sociedad vizcaina: le hay en las autoridades eclesiásticas y civiles, en la prensa periódica y no periódica, en las sociedades políticas y de recreo, en las asociaciones religiosas y profesionales, en las órdenes y congregaciones religiosas, en el clero, en la industria, en el comercio, en la propiedad, en el trato social, y por último, en el matrimonio, que, como generador de la familia, que lo es de la sociedad, es la llave de las posiciones y el elemento más trascendental» («Los invasores», *Bizkaitarra*, 4, 1893-12-17; OC, I, 197 or.).

(21) «La invasión maketa» , *Bizkaitarra*, 7, 1894-03-31; OC, I, 262 or.

(22) «Estadística etnográfica del magisterio de Bizkaya», *Bizkaitarra*, 22, 1895-02-24; OC, I, 523 or.

(23) «Ellos y nosotros», *Bizkaitarra*, 25, 1895-04-24; OC, I, 560-561 orr.

(24) Ibid., 563 or.

(25) *Bizkaitarra*, 15, 1894-09-30; OC, I, 363-378 orr.

painolista horiek guztiak, hala nola liberalismoa, karlismoa, integrismoa, erregionalismoa, horiei guztiei politika bizkaitarra kontrajarriz. EAJk hauteskundeetan artean parte hartzeke zirauen garaiko diskurtsoa da hau, abstentzioa aldarrikatzen baitzuen orduan. Ez da aurkezten, ez baitu aski indar horretarako (26).

Esandako arrazoi hauengatik guztiengatik, euskal gizarteak bizi duen ustelkeriaren ondorioz, euskal arrazaren garbitasuna arriskuan dagoela iruditzen baitzaio, haren defentsarako, neurri jakin batzuk hartzea proposatzen du, inmigratuentzat murriztaile izango direnak, horien artean bat, beti ere Euskadi independente hipotetiko batean, atzerritarrei sarrera debekatzea (27), eta bi, bertan kokatuak daudenak atzerritar gisa hartuak izatea, hots, gizarte-bizitzan isolatuak edukitzea (28). Maketoen inbasioari gain hartzeko aterabide bakarra, erabateko isolamenduarena da (29). Izan ere, Aberriak edo Euskeriak (hau erdaraz esanda) jasaten duen desgraziarik larriena euskaldunak espainolekin –arrotzekin, alegia– harremanak izanez bizitzea eta, ondorioz, bere izatean endekatuz joatea da.

Atal honetakoa bukatu aurretik, ohar-pare bat egin beharrean gaude. Bata da Sabino Aranak etnia hitza ezagutu bai, baina behin edo beste bakarrik erabiltzen duela, eta orduan adjektibo-eran. Eta erabiltzen duenean, ez zentzu juridikoan, fisikoan baizik erabiltzen du (30). Eta bestea da, Katalunia, latindar arrazatik datorrenez gero, Espainiako erregio bat besterik ez dela, bere sorreraz, izaera politikoaz, arrazaz, hizkuntzaz, historiaz eta izaeraz espainola delako. Iritzi hori sostengatuko du beti (31). Nazionalista katalanen helburu politikoa, Espainiako estatu-boterea lortzea da, deszentralizatzea (32); euskal nazionalistena, aldiz, Espainiarekin etetea. Katalan nazionalismoan orokorrean ikuspegi hau nagusitu izan bada ere, badirudi egun independentziaren aldeko aukera indartzen hasia dela.

2. EUSKAL NAZIOA ETA EUSKARA

XX. mende-hasieran gainbehera hasia zen euskararen aldeko sustaketari serio heldu zion Aranak. Ez da zalantzarik garrantzi handia eman ziola euskarari, adin helduan ikasi eta, segidan zehaztuko dugun bezala, haren azterketari eskaini baitzizkion saiorik sendoenak.

---

(26) «Ellos y nosotros», op. cit., 580 or.

(27) «La pureza de raza», *Bizkaitarra*, 24, 1895-03-31; OC, I, 546 or.

(28) «Efectos de la invasión», *Baserritarra*, 11, 1897-07-11; OC, II, 1331 or.

(29) «Extranjerización», *Diario de la Mañana*, 67, 1899-08-10; OC, III, 1761 or.

(30) «Efectos de la invasión», 1. oin-oharra, *Baserritarra*, 10, 1897-07-4; OC, II, 1326 or.

(31) «El catalanismo», *Jaun-Goikua Eta Lagi-Zarra*, 18, 1897-08-29; OC, II, 1391-1392 orr.

(32) «Ni es uno mismo el enemigo de los catalanes y el de los bizkainos. El enemigo de Cataluña es el poder central de la nación a que naturalmente pertenece, influido por una región hermana, Castilla, que ha sabido imponerse a las demás; el enemigo de Bizkaya es la nación extranjera que la ha avasallado» («Minuta: Errores catalanistas», *Jaun-Goikua Eta Lagi-Zarra*, 16, 1894-10-31; OC, I, 405 or.).

Haren garrantzia handia delarik ere, bigarren mailakoa da arrazaren aldean. Honen arrazoia da, hizkuntza, galduz gero ere, berreskura daitekeela, hiztegi on bat eta gramatika on bat lagun; arraza, ordea, behin endekatuz gero, ezin da lehengo egoera garbia lortu.

Euskarak Aranarentzat hiru ezaugari nagusi ditu. Lehenengoa da, hizkuntza izan, komunikatzeko tresna bat besterik ez dela, ideiak eta gogoetak besteekin trukatzeko zeinu-multzo bat besterik ez. Zeregin fisiologikoa betetzen du, ez gehiago. Horregatik, hizkuntzaz aldatuta ere, ez luke nazio batek bere izatea galduko (33). Beraz, harentzat hizkuntzak ez bide du zerikusirik ez pentsamenduaren antolaketan eta ez eraginik mundu-ikuskeran, hizkuntzalari batzuek aitortzen dioten bezala. Bigarren ezaugarria da, euskara, literaturarako ez ezik, herritarrak irrelijiositatea eta inmoralitatea dakartzaten atzerritarren kontra defendatzeko ere erabili behar dela, hura «babes» eta «kontrahorma» gisa hartuz, alegia (34). Hirugarrena da –agian, oinarrizkoena eta horregatixe, beharbada, kritikak ere gehien aipatu izan duena–, euskaltzaletasuna hertsiki Aberriaren kausari loturik dagoela eta euskaltzeltasuna, funtsean, abertzaletasuna zor zaiola. Hizkuntza –kasu honetan euskara– deus ez da abertzaletasunik gabe. Horregatik, euskaltzeltasuna indartzen joan dadin, abertzaletasunari eragin behar zaio, hau gabe hura kamutsa baita. «Aberrija eztau gaizkatuko euzkereak; bai ta bakarrik abertzaletasunak» (35), zioen. Beste esaldi hau ere berea da: «Zabaldu egixu abertzaletasuna, ta berarekin euzkerea be zabalduko da» (36).

Azken batean, derragun garbiki, arraza da euskal nazioa funtsatzen duen elementu nagusia eta beste guztiak, garrantzitsuak izan arren, elementu gehigarriak besterik ez dira. Zentzu honetan, guztiz adierazgarria dira «Errores catalanistas» artikulu aipatuan jaulkitzen dituen gogoetak, non esaten baitu nahiago duela atzerritarrez kutsatutako Bizkaia euskalduna eta independentea baino kutsatu gabekoa, nahiz ez izan independentea eta euskararik ez egin (37). Arra-

(33) «¿Qué es el idioma patrio, en sí mismo considerado, más que un simple signo con que los miembros de una nación se comunican entre sí sus ideas y sus afectos? Suprimido él y reemplazado por otro, puede en absoluto esa nación encaminarse a su fin» («Efectos de la invasión», *Bizkaitarra*, 11, op. cit., 1327 or.).

(34) «No vale considerar al Euskera meramente como una hermosa lengua, digna de ser cultivada en la literatura: es el broquel de nuestra raza, y contrafuerte además de la religiosidad y moralidad de nuestro pueblo» («Epílogo», *Bizkaitarra*, 18, 1894-12-31; OC, I, 432 or.).

(35) «Euzkeltzale bateri», *Baserritarra*, 6, 1897-06-6; OC, II, 1296 or.

(36)[3] Ibid.

(37) «Asimismo: si nos pusieran de un lado la muerte total y absoluta de Bizkaya, esto es, la extinción de su raza y su lengua y la desaparición de todo escrito y toda memoria referente a sus leyes e historia y hasta su mismo nombre, y del otro una Bizkaya maketa, independiente y regida por las leyes de nuestros padres, poseedora de nuestra lengua y heredera de nuestra historia, optaríamos por lo primero; y aun entre esta segunda Bizkaya y una Bizkaya esclava, pero euskariana de raza y amante de su independencia y del restablecimiento íntegro de sus leyes y su lengua, nos quedaríamos con esta última: porque si es preferible la muerte a la esclavitud, lo es también la esclavitud a toda vida aparente» (*Bizkaitarra*, 16, 1894-10-31; OC, I, 404 or.).

zoia? Lehen aipatua: arraza, behin galduz gero, berreskuraezina dela; hizkuntza, aldiz, bai.

3. SABINO ARANA, EUSKARAREN ERAGILE

Gehienek onartzen dutena da Sabino Arana izan dela euskararen eragile nagusia bere garaian (38). Aranak euskara galtzen ari dela egiaztatzen du, euskara egiten denetan ere ez dela aintzakotzat hartua, hainbesteraino, ezen euskalduna arrotz sentitzen baita bere herrian, kasurako Gernikan (39). Eta galera horretan, ez atzerritarrak (40), etxekoak dira errudunak, Euskeria independentea izan zen garaian ere gaztelania izan baitzen beren hizkuntza ofiziala (41). Goi-klasekoek ez baitute erabiltzen gizarteko beren harremanetan, gizarte-mugikortasunean aurrera egin nahi duten euskaldunentzat oztopo bat besterik ez da (42). Horregatik dago bere erabilera baserritarren mundura mugatua, eta hauek ere amorratzen daude gaztelaniaz egiteko, arrotz bilakatu zaien etxean sarbidea izan dezaten. Bistan da euskara berreskuratzen ahaleginak egin behar direla eta, horretarako, plangintza bat egiteari beharrezkoa deritzo. Nabarmentzekoa da Hendaia eta Hondarribiako Batzar Ortografikoen inguruan izandako protagonismoa, zenbaitek modu negatibo batez epaitu izan dutena, baina bidegabeki, oraindik zer argiturik badelako hor, geroago zehatzago ikusiko dugun bezala. Oraingoz aski bekigu iradokitzea Sabino Arana azken urteetan, agian politika instituzionalean sartuta dabilelako eta euskal munduan murgilduago, euskararen kausari –orokorrean diogu hau–, hasieran baino garrantzi handiagoa ematen diola, nahiz eta –alderdi hau ere zehaztu beharrekoa da–, euskal naziotasunari buruzko ikuspegian jarrera-aldaketarik edo eboluzioantzekorik ez dugun sumatzen. Euskaltzaleago izatea baliteke, bai, baina ez horregatik arrazari gutxiago atxikia.

(38) Hala dio Akesolok: «Aranaren asmoak eta jokabidea argi eta garbi dagoz. Euskera euskal-seme guztien izkuntza izatera eroan nai dau, eskubide guztien jabe eta guztien legezko eta egitezko izkuntza izatera. Lenengo, euskaldunak euren lozorrotik itxartu, euskeraren alderako zabarkeritik eta jaramonik-ezetik atera, eta ortik aurrerako ekintza jarri. Euskalerri edo eskualde bakotxetik asiko da lana, lenago euren jabe izan ziran eta egunen baten barriro izateko ustea dauken eskualde bakotxetik. Eskualde bakotxean nagusi dan euskera alik eta batuena egin, osotu eta indartu, guztien arteko izkuntza egin arte, bai literaturan eta bai goikoen eta bekoen, ikasien eta ikasibakoen agotan, kalean eta etxean. Euskera ori jarri bearko da nagusi eskola guztietan, berengoetarik gorenoetarañokoetan, erri-batzar eta batzarretako eta gizarteko agiri guztietan. Olantxe euskalki bakotxean batasuna lortuaz...» (Op. cit.; OC, I, XVII).

(39) «Extranjero en Bizkaya», *Bizkaitarra*, 12, 1894-07-21; OC, I, 327 or.

(40) «No lo mata el extraño. Los mismos vascos le están dando la muerte. Ha mucho tiempo que empezaron a negarle el sustento y hasta el aire» («Conócete a ti mismo», *Euzkadi*, 3, 1901-09; OC, III, 1998.or.).

(41) Ibid.

(42) «El euzkera, hoy de nada vale. Al contrario, es un obstáculo, un estorbo para todo: para educarse, para estudiar, para el comercio, para la vida. Los ricos y los ilustrados habéis llegado a esa posición hablando el español» (Ibid.).

Aranak, euskararen gizarte-eragile gisa, hainbat ekintzatan parte hartzen du. Erakunde-mailan, Bizkaiko Diputazioari Euskarazko Katedrari laguntza emateko eskaria egiten dion aldi berean (43), haren bizitza indartzeko bitarteko eragingarri batzuk ezartzea proposatzen du, hala nola ikasle saiatuenentzako sariak ezartzea, bertako ikasleen artean euskarazko lehiaketa publiko bat antolatzea literatura eta euskalaritzan, eta euskarazko liburu literario eta zientifikoak idazteko laguntzak ematea (44). Izan ere, pozgarria da adineko jendea euskara ikasten ikustea. Eta hau guztia, berak hamaika bider esana daukanez, abertzaletasunaren ondorio da: «Es cosa que inunda el alma de grata emoción el ver estos días asistir a Cátedra de Euskera a un buen número de bizkainos, ávidos de aprender su lengua patria los que han tenido la inmensa desgracia de ignorarla desde la cuna, y de perfeccionarse en su posesión los que tuvieron la dicha de balbucearla en el regazo de sus madres. Allá van los que hace muchos años dejaron los colegios y las aulas: allá van, demostrando con las barbas que pueblan sus rostros el patriotismo que respiran sus pechos. Pero si con ello demuestran individualmente el patriotismo que les anima, vienen colectivamente a demostrar también el que distingue a *Euskeldun Batzokija*, puesto que de los dieciséis alumnos, quince pertenecen a este círculo nacionalista» (45).

Herri-mailan, aupatu zituen, halaber, eskoletan (46) eta elizetan (47) euskaraz ari ziren maisu-maistra eta elizgizonak. Era berean, euskararen ortografia arautzeko Hendaian 1901eko irailaren 16an egindako Batzarrean

(43) Beste pasarte batean: «Después de los brillantes exámenes verificados el 31 de Mayo, donde dieron notables muestras de aplicación y aprovechamiento veintitantos alumnos, ya barbados la mayor parte, parece posible llegue al fin a comprender nuestra diputación, cómo la Cátedra de Euskera, no sólo no es inútil, como algún Diputado se atrevió a decir en plena sesión en época no lejana, sino que llena satisfactoria y cumplidamente el patriótico fin para que está fundada» («La Cátedra de Euskera», *Bizkaitarra*, 28, 1895-06-16; OC, I, 621 or.).

(44) «Conviene, en primer lugar, que se señalen dos clases de premios para los alumnos.... En segundo lugar sería muy provechoso que la Diputación, después de los exámenes, señalase un día para celebrar un pequeño certamen público de Euskera en el que tomasen parte únicamente los que en algún curso hubiesen sido alumnos de la Cátedra (...) Por último, creemos también sería un excelente estímulo para los que puedan escribir en euskera libros científicos u obras literarias, y que por falta de medios quedan retraídos en el silencio... (...) Un poco de patriotismo en los Diputados de Vizcaya, y el Euskera será conservado, desarrollado y difundido» («La Cátedra de Euskera», op. cit., 621-622 or.).

(45) «Patriotismo», *Bizkaitarra*, 24, 1895-03-31; OC, I, 559 or.

(46) «De preciosísima joya nuestra puede calificarse una escuela verdaderamente patria que tenemos en una de nuestras anteiglesias. A sus aulas sólo acuden chicos de nuestra raza, y en sus paredes no resuena más que la lengua de nuestros padres, el incomparable Euskera» («Joya bizkaina», *Bizkaitarra*, 1894-08-31; OC, I, 346 or.).

(47) Gautegiz-Arteagako parrokiako apaizez ari da, beren elizkizunetan, lehen ez bezala, euskaraz ari baitira: «Así lo ha entendido el virtuoso Clero de Gautegiz-Arteaga y así ha empezado a practicarlo; por lo cual le juzgamos merecedor de mil plácemes sinceros y entusiastas, no sólo de nosotros los euskerianos, sino de los católicos de cualquier nación extraña que quieran llevar dignamente ese nombre de hijos de la Iglesia» («Parroquia ejemplar», *Baserritarra*, 2, 1897-05-9; OC, II, 1260 or.).

parte hartu zuen, baita 1902ko irailaren 11n sortutako *Eskualzaleen Biltzarra*-ren eraketan ere.

4. ARANA ARANA, EUSKALARI

Sabino Aranak (48), Hendaiako Batzarraz ari dela, euskeralogoa, euskeragrafoa eta euskerafiloa bereizten ditu, horietako bakoitzaren ezaugarriak honela zehaztuz: lehenengoa euskarari buruzko zientziaz ari da, bigarrena euskaraz idazten duena da, eta hirugarrena euskara maite duena. Hiruei dagokie zentzu hertsian euskaltzalearen kategoria. Euskalduna, euskararen jabe dena da. Baskologoa eta baskofiloa, aldiz, ez euskarari, baizik Euskal Herriari dagokion kontzeptua da, berari buruzko jakintzaz ari denari edota bera maite duenari aplikatzen zaiona. Euskoaren eta baskoaren erro etimologikoa desberdintzat hartzean oinarritzen du bereizketa hori. Euskaltzalea euskara maite duena den bezala, baskofiloa aberria maite duena da, abertzalea alegia, euskara jakin ala ez.

Sabino Aranak erabiltzen duen terminologia gogoan izatea behar-beharrezkoa da, egun erabiltzen diren euskalaritza, euskalari eta euskaltzale hitzekin nahas ez ditzagun. Gaurko egunetan, euskalaritza euskararen inguruko ikerketaz ari den diziplinari deitzen zaio, horren barruan sartuz euskararen jatorriari nahiz gramatika eta hiztegiari buruzkoak. Aspaldiko «vascología» edo «euskerología» hitzen ordaina izango litzateke (49). *Elhuyar* hiztegian, zeinetan «euskalaritza» ez baitator baina bai euskalari, hau baskologoren baliokidetzat hartzen da, euskaralogoarekin berdinduz. Eta baskoa, hiztegi berean, euskaldunari deitzen zaio, adiera zabalean, Euskal Herriko biztanleari, eta hertsian, euskaraz dakienari. Hemen baskologoa eta euskaralogoa baliokidetzat hartzen dira.

Sabino Aranarentzat, esan bezala, euskalduna euskararen jabe dena da bakarrik; baina euskaltzale, hots, euskarafilo izan daiteke euskara jakin gabe ere, baldin maite badu. Guk hemen, euskalari diogunean, euskaran adituari deitzen diogu eta euskalaritza, euskarari buruzko jakintza jasotzen duenari.

Hamazazpi urte zituela hasi zen euskara ikasten, bere kabuz, Van Eys-en *Diccionario*-a aurrean eta Astarloa erakusle zituela. Hauengadik jasoko du, batez ere, etimologian murgiltzeko joera. Euskalari gisa, berriz, Kanpionen *Gramática*-ren irakurketak irekiko dizkio beste euskalkiak ezagutzeko bideak. Ho-

(48) «Los Congresos Ortográficos. Una protesta», *La Patria*, 17, 1902-02-16; OC, III, 2123 or., 1. oin-oharra.

(49) Gómez, Ricardo, «Euskalaritzaren historia eta historiografia: ikerketa-arloaren egoeraz», ASJU, XXXI-2, 1997, 363-364 orr. *Elhuyar* hiztegian ez dator hitz hau, baina bai «euskalari», erdarazko «vascólogo» itzuliz.

nela, bada, urte gutxiren buruan sekulako idazlanak argitaratuko ditu, hala nola gaztelaniaz, *Etimologías Euskéricas* (1887), *Pliegos Euskeráfilos I* (1888), *Pliegos Euskeralógicos* (1892), *Tratado Etimológico de los Apellidos Euskéricos* (1895), *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino* (1896), eta euskaraz, *Egutegi Bizkaitarra* (1897), *Umiaren Lenengo Aizkidia* (1897), *Lenengo Egutegi Bizkaitarra 1898*. Hauek guztiak –zortzi titulu– hamaika urteko epe estuan burutu eta argitaratuak dira. Urteko ia liburu bat. Harrigarria lanerako agertzen duen gaitasuna!

Guztien gainetik, agian, *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino* liburua da Aranaren lanik meritagarriena euskalaritzaren sailean, zeinetan soinuez eta letren zeinuez ari baita, ortografiaz eta fonetikaz, ordurarte euskaraz erabili izan diren sistema grafikoez eta euskeralogoek egin dituzten erroreez. Zehatz-mehatz aztertzen du euskalkien batasun-arazoa, 62 neologismo sortzen ditu, eta euskarazko 123 eta gaztelaniazko 36 hitzen etimologia azaltzen du. Liburu honen bidez sortzen da, azken batean, «sabindar eskola euskeralogikoa» deitu izan zaiona. *Euzkel Bazkuna*-koek ere horixe berrargitaratuko dute zatika beren aldizkarian. Zerbaitegatik izango da. Urrezkoa iruditzen zaielako. Halakotzat zeukan Luis Eleizaldek ere, horri buruz honako hau idatzi baitzuen 1906an: «A bien que se sentirían molestados si se les supusiera ignorantes de que ha existido un Cervantes y que ese tal ha compuesto un *Quijote*; pues cierto es que para el Euskera vale más un Arana-Goiri que cien Cervantes, y valen más las *Lecciones de Ortografía* que diez mil *Quijotes*» (50)

Gaurko hizkuntzalariek ez daukate Arana gramatikalaritzat, ez bederen honi eman ohi zaion adiera zabalean hartuta, nahiz eta hilondoko eskuizkribu batean agertu izan haren bizkaierazko aditzaren sailkapen bat, «clasificación del verbo bizkaino» izenekoa (51). Izan ere, gutxitan –eta orduan zeharka eta lan desberdinetan–, aipatzen ditu sintaxi eta morfologi arazoak. Sail horretan besteek esanera mugatzen bada ere, beste gaietan, hala nola ortografian eta fonetikan, etimologian, izendegian, hiztegian eta, oso bere bidetik ibiltzen da. Alderdi hauek, eztabaidagarrienak hain zuzen, aztertuko ditugu segidan, Euskal Pizkundearen bilakabidean beren arrastoa –handia ala txikia– utziko dutenak.

4.1. Ortografiaz

Ortografiari buruzko lehen saioa *Pliegos Euskeráfilos* (1988) lanean egiten du, horko lehen lanean hain zuzen, zeinetan, Miguel Unamunoren «De Or-

(50) «Nuevos apuntes acerca de las conjugaciones simples», *Euzkadi*, 2, 1902, Uztaila.

(51) Burutu gabeko lan bat da, Luis Eleizaldek lehenik eta gero Manuel Arriandiagak argitaratu zutena. Lan honetan biltzen dira Aranak bizkaierazko aditzaz idatzitakoak eta, oro har, euskarazkoak (Laka, op. cit., 31 or.).

tografía» artikuluari erantzunez, Astarloa eta Mogelen tradizioari jarraiki, *c* eta *q*-ren ordez, *k* erabiltzea errebindikatzen baitu. Baina bere lan-maisua, esan bezala, *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino* (1896) da. Lan honen gorputzean sartzen du *Gramática Elemental del Euskera Bizkaino* izeneko lanaren zati bat ere. Lan hau 1885ean hasi zen idazten, baina 200 orrialde Bartzelonan argitaratu eta gero, 1888an argitaratzeari utzi ziola dio berak, zergatik esan gabe. Baina, hau ere berak dio, gaztetan idatzitako Gramatika horretako sei ikasgai –letren soinuez eta zeinuez dihardutenak, hain zuzen- *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*-n jasotzen omen dira. Ordurako, beraz, finkatua zeukan bere sistema grafikoa. Denbora luzez desagertutzat joa izan da Gramatika hori eta, Itziar Lakaren ustez (52), ez da inoiz argitaratua izan; geroztik, ordea, Blanca Urgell-ek jakitera eman du, baietz, hala izan zela, eta berrikitan argitaratua duela J. M. Aldayk (53).

Erabili dituen arau-iturriez ari dela, *Apéndices* izeneko atalean, lau aipatzen ditu, hiru izen (aita Arana jesuita, Kanpion eta Azkue) eta aldizkari bat (Donostiako *Euskal-erria*), osorik transkribatuko duguna, bertan bakoitza zergatik aupatzen duen baitakar: «Traeré a examen al Padre Arana, guipuzcoano, porque es el tratadista que más ha escrito sobre ortografía y el primero, si no me equivoco, que generalizó el empleo de la tilde; a la revista *Euskal-erria*, de San Sebastián, no porque sea autoridad en Euskeralogía, sino porque es su sistema gráfico en el que aparecen las producciones de Arrese eta Beitia (pues en ella casi exclusivamente escribe), poeta bizkaino y el más inspirado y de menos incorrecta dicción entre todos los poetas *euskeldunes* de nuestros días; al señor Campión, nabarro, porque es el euskerálogo moderno que ha traido en junto de varios dialectos del Euskera y entre ellos del bizkaino, y el más fiel en la exposición gramatical; y al señor Azkue, porque es tratadista moderno del Euskera Bizkaino y ha presentado un proyecto de sistema gráfico después de haber aparecido el mío. En el *Apéndice* II expondré en sumario los errores e inexactitudes en que ha incurrido este último tratadista en su *Proyecto de Ortografía*, hace poco dado a luz» (54).

Azkuerekin ari dela, hain zuzen, Aranak bere hitzaurrean dioenez, bere liburu honetan proposatzen duen sistema grafikoa ez bide du inork ezeztatu ez metodoaren ez logikaren aldetik (55). Azkuek bi aukera paregabe izan zituen horretarako, baina ez zuen egin. Hasteko, Aldundiaren Katedran hiru urtez lanean aritu ondoren, horko maisutza-lanaren emaitza gisa 1891n argitaratutako

(52) «... ausartuko nintzateke esatera agian Gramatika hori ez zela zinez argitaratu inoiz, eta argitaratu bazen galeradatan izan zela: eta urteen buruan *Lecciones de Ortografía bizkaino* idazlanean eman zuela Aranak argitara gramatika asmo hortatik buruturik zuen atala» («Sabino Arana Goiri eta Hiperbizkaiera (Hiperbizkaieraren historiaz. III)», *Annuario del Seminario de Filología Vasca 'Juio de Urquijo'»*, XXI-1, Donostia, 1987, 20 or., 15. oin-oharrean).

(53) *Historia del nacionalismo vasco en sus documentos*, IV, 1991, Eguzki, Bilbao.

(54) Op. cit., OC, II, 931 or.

(55) Ibid., 813 or.

bere *Euzko-Izkindea o Gramática Eúskera*-n egin zezakeen, ordurako ezagutzen baitzuen bere sistema, berak *Pliegos Euskeráfilos*-en 1886an argitatu zuena. Horregatik eskaini zion, seguru asko, *Izkindea*-ren ale bat opari gisa argitaratu bezain laster (56). Bere sistema grafikoa proposatu baino lehen, bada, hor zegokion bere aurreko beste guztiekin egiten duen bezala, berea ere ezeztatzea, zergatik ezeztatzen duen arrazonatuz; baina aipatu ere ez bide du egiten, nahiz zenbait puntutan irizkide diren (57). Bigarren parada bere *Proyecto de Ortografía* (1896) argitaratu zuenean izan zuen, Aranak bere liburu hau argitara eman baino hilabete bat lehenago atera baitzen, eranskinean esaten duen bezala. Zalantzarik ez da Azkuek azken hau ere oso ongi ezagutzen zuela, baina hemen ere haren aipurik ez. Horregatik, Sabino Aranak ez du onartzen Azkuek ezar dezan bere iritzia beste guztien gainetik eta, ondorioz, berea izan dadin azken hitza. Izan ere, hauxe zioen bere *Proyecto* hartan: «Ya que hasta ahora no se ha podido constituir la Academia de nuestra lengua, suplan los bascófilos dispersos la falta de su congregación. A este fin ruego muy encarecidamente a todos, se sirvan estudiar detenidamente y censurar este folleto, y fallar en la forma que les pareciese más conveniente los diversos puntos que en él se tratan» (58). Ez dio aitortzen inoren epaile izateko aginpiderik: «Pero lo más extraño del caso es que el Sr. Azkue, al dirigir aquella convocatoria a los euskerálogos, se haya erigido a sí mismo en juez arbitrador de todos, arrogándose atribuciones plenas para examinar y juzgar las observaciones que hagan a su *Proyecto* (admitiéndolas o desechándolas según su criterio particular). Y para decidir y fijar en definitiva la ortografía euskérica» (59). *Proyecto* horretan aurkitzen dituen hutsegiteez azterketa luzea egiten du I. eranskinean (60).

Eztabaida honetan aztertzekoa dena da zein neurritan onartzen edo jasotzen duten elkarrena, guk adituen eskuetan uzten duguna. Nolanahi ere, garbi ageri da, gramatika-arazoetan eta, Arana garai honetan ez dela Azkueren jarraitzailea, honen irizpideak ondo baino hobeto ezagutzen dituen arren (61). Besterik da, arrazoi politikoengatik ere, haren izena parentesi artean jarri izana. Ezaguna den bezala, *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino* liburu hau argitaratu baino lehen, Kanpioni bezala, honi ere alderdiz alderdi jauzika dabilela esaten dio «La bandera fenicia» artikuluan (1895), noiz nazionalistekin noiz espainolistekin: «¿Qué me cuenta usted del Sr. Azkue? –Verá usted: que primeramente fue carlista; luego integrista; después, sin decir oste ni moste, volvió las espaldas a Nocedal y se declaró nacionalista bizkaino; en el nacionalismo estuvo seis meses; y al cabo de este tiempo se ha hecho regionalista indefinido, esto es, de los euskalerriacos, etc., siendo ya

(56) Irigoyen, A., «Del epistolario de Azkue», *Euskera*, II, 1957, 325 or.
(57) *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*, op. cit., OC, II, 813 or.
(58) Ibid., 815 or.
(59) Ibid.
(60) Ibid., 942-953 orr.
(61) Laka, Itziar, op. cit., 13-40 orr.

hoy Capellán electo del partido, por nombramiento otorgado verbalmente por el Sr. Sota el día 21. –Querá pertenecer a la vez a todos los partidos... por amor al prójimo, se entiende» (62). Ordurako, antza, Azkuek hautsiak zituen nazionalistekiko loturak. Noski, Aranak bazuen kexatzeko arrazoirik ere, zeren Arana abertzaleari aldizkariak ixten zizkioten bitartean, Euskalerriako Ramon Sota y Llano industrilariarengandik eta Banco Bilbaoko kontseilari zen Tomas Epaltzarengandik jasotako finantz laguntzari esker, Azkuek orduantxe bideratu berriak baitzituen euskarazko aldizkari bat, *Euskaltzale (1987),* eta antzoki bat, *Euskaldun Bizkaitarra* (Almacén Vasko), izenekoak. Urte berean, uztailean, lekeitiarrak sortu eta zuzendutako *Euskal-Ikastetsea*-ari, Bilbao erdaldunean eraikitzen den bakarrari, «antipatriótica» deituko dio, han nazionalismoa gorrotatzen irakasten omen delako. Datua? Dirudienez, bertako irakasle karlista batek ikasle nazionalista batek jakako botoi-zuloan zeraman ikurrina kendu omen ziola. Euskal irakaskuntzaren gerraurreko historian hain goitik aipatzen den ikastola honi berak ez dio fama ederra ematen: «Afortunadamente, los niños que acuden a dicha escuela no pasan de ocho, y sus familias están sumamente disgustadas porque en esa escuela ni aprenden los niños a hablar en euskera, ni siquiera el Catecismo, ni cosa alguna de fundamento» (63). Ikastetxe hau 1896-1897 ikasturtean abiatu zen Bilbaoko Jardines kalean eta bertan euskaraz ematen ziren ikasgai guztiak, hala nola kristau dotrina, aritmetika, geografia, irakurketa, idazketa, elkarrizketa-praktikak. Euskalerriako dirudunen laguntzaz bideratutako kultur proiektu horiek, ordea, ez bide dute lortzen aurrera egitea eta urte-pare baten buruan desagertu egingo dira.

Berriro Kanpionengana etorrita, esan dezagun *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino* liburu honetan bertan berarekin ari dela, haren *Gramática de los Cuatro Dialectos Literatos de la Lengua Euskera*-ri (1884) aitortzen dion autoritateaz baliatzen dela Azkueren aurrean *lagi* hitza ere erabiltzen dela baieztatzeko orduan, hauxe dioelarik: «autor veracísimo que, al tratar del cambio de *a* en *e* cita este ejemplo» (64). Berak herrian aita-seme batzuei entzuna, Kanpionek ez ezik, aita Uriarteren bertsoetan ere badatorrela gaineratzen du aita Akesolok (65). Hain anarkia handia aurkitzen den ortografiaren gainean, ordea, ez dira irizkideak. Kanpionek bere sistema grafikoa ondoko bi printzipio hauetan oinarritzen du, Abandokoak ondoko formula honetan laburbiltzen duena: «no dar a un solo sonido dos signos diferentes y rechazar los caracteres mudos» (66). Printzipio bikoitz hau aski ez izaki, kamutsa da ateratzen zaion alfabeto grafikoaren eredua, I. eranskinean frogatzen ahalegintzen den bezala (67).

(62) *Bizkaitarra*, 31, 28-07-1895; OC, I, 668 or.
(63) «Una escuela antipatriótica», *Baserritarra*, 10, 4-07-1897; OC, II, 1322 or.
(64) *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*, op. cit., 957 or.
(65) Op. cit., XII.
(66) *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*, op. cit., 817 or.
(67) Ibid.

Aranaren araua da, aldiz, ahozkoa nagusitzen zaiola idatzizkoari. Aranaren ustez, akatsa fonetika ortografiarekin nahastean datza. Hitzaren zatirik oinarrizkoena, hotsa da; hitzaren alderdi grafikoa, bigarren mailako zerbait da. Hemendik dator bere arauaren formulazioa: «De un signo gráfico se debe, pues, decir, que *representa* a un sonido, pero no que se *pronuncia* de tal o cual manera: sólo los sonidos se pronuncian, y ellos son los representados por los signos» (68). Ortografiarena bigarren mailako zerbait delako, hain zuzen, hizkuntza askok ez bide dute sistema grafiko berezi eta bererik, euskarak ez duen bezala: «El Euskera carece, pues, de alfabeto gráfico peculiar. Posible es que exista, vivo o muerto, en alguna parte; pero hoy por hoy nadie le conoce» (69).

Horregatik, ondorio gisa esan dezakegu, Aranak ez duela onartzen lege fonetikora biltzen ez den eredu ortografikorik. Aldez aurretik finkatutako lege fonetikoen arabera aplikatu behar dira arau ortografikoak, irakurketa unibokoa izan dadin: «... la fonética, que es el sistema de leyes que rige los choques de los sonidos, es, por esta razón, anterior a la ortografía, que es el sistema gráfico con que se representan los sonidos que se pronuncian; que la ortografía tiene que transcribir exactamente las voces para ser tal *ortografía*, y que, por consiguiente, primero se debe fijar el sistema fónico, y después viene el representarlo gráficamente tal como resulte» (70). Beraz, Aranak proposatzen duen sistema ortografikoan, prozesua hirukoitza da: lehenik, fonetika finkatu behar da, hotsen jatorrizko iturriak aztertuz eta, honela, fonetika eta etimologiareren arteko lotura ezinbesteko bihurtuz; lehen urrats hori burutu eta gero, ez lehenago, letorke bigarren unea, arau ortografikoak alfabetoan eta hiztegian zehaztearena; azkenik, hotsa zintzoki transkribatuko da ezarritako arau ortografikoaren arabera. Azkenean, prozesuaren bukaeran, Aranak hizkietara mugatzen du balio fonetikoa (71). Horrela jokatzean, ez bide zituela behar bezala bereizi ortografia eta fonetika kritikatu izan zaio oraindik orain (72). Arazoa ez datza hainbeste bi alor horiek ez zituela zinez bereizten jakin izan azpimarratzean, alderdi hau garrantzitsua den arren, harentzat ahozko euskara idatzizkoa baino lehenagokoa izan zela nabarmentzean baizik (73).

Sabino Aranak aipatutako eranskin horretan euskal alfabetoaren berrikuntzarako hobesten dituen formak, *x, tx* eta *r* dira, azken hau gainean tilet bat duela, gaurko bikoiztuaren ordez. Lehenengoak beste lauek darabiltzaten *ch, s, s* eta *z* (azken bi hauek gainean marra daramatenak) ordezkatzen ditu; bigarrenak, *ch, z,*

(68) Ibid.

(69) Ibid., 820 or.

(70) Ibid., 818 or.

(71) «La fonética no tiene razón de realizarse más que dentro de cada vocablo, cuyos elementos son los únicos que en rigor se emiten ligada y sucesivamente» (Ibid., 903 or.).

(72) «Esan daiteke Aranak ez zituela zinez ortografia eta fonetika garbi berezi» (Laka, I., op. cit., 17 or.).

(73) «Aranarentzat agozko izkuntza lenago da idatzia baiño, eta ez bestera. Nor dabil zentzubidetik eta jakintza-bidetik urrago?» (Akesolo, op. cit., XIV).

ts eta *tz* (azken hiru hauek gainean marra bana daramate) eta *ts* (honek marra bikoitza daramana); hirugarrenak, *r/rr* eta *r* (honek gainean marra bat du).

4.2. Etimologiaz

Arestian esandakoaren harian, guztiz ulergarri gertatzen da Aranak berebiziko garantzia eman izana etimologiaren alorrari, idatzizko literaturatik harago finkatzen baitu bere abiapuntua, beti ere, hainbat kasutan ezin egiazta daitekeen hitzen jatorri hipotetiko batean. Lehen premisa hori ontzat emanez gero, ondorioa logikaren emaitza hutsa da. Batasun ortografikoaren finkapena, bada, etimologiari zein fonetikari hertsiki loturik dator Aranarenean, euskal hitzen jatorriaz, hitzen alkarren arteko joskeraz, eta joskera hau egitean gertatzen diren hots-aldaketak aztertzen dituenean.

Etimologías Euskéricas (1887) da Aranak euskararen gainean idatzitako lehen lana. Egileak berak esaten duen bezala, bi artikulu dira saio hau osatzen dutenak, *Gramática Elemental del Euskera Bizkaino* deituaren sarrera gisa eginak, hogei urte zituela (74). Hor *Vasco, España, Huesca, Hispali, Bilbao* eta *Villaro* izenen jatorriaz dihardu. Hasiera-hasieratik pizten zaio, bada, etimologiarako zaletasuna eta hauxe du bere lehen saioa. *Pliegos Euskeralógicos* lanean (1892), errotzat hartutako 17 hizkitatik eratorritako hitzen azalpena ematen du, *ari, argi, agi, adi, ali, eri, egi, eli,* eta horrelakoena. Handik hiru urtera *Tratado Etimológico de los Apellidos Euskéricos* (1895) argitaratuko du, eta hemen, bai, bide berriak urratuko ditu. Bera baino lehen bi lan bakarrik zeuden argitaratuak gai honen inguruan. Bata Josef Francisco de Irigoyen-en *Colección Alfabética de los Apellidos Bascongados con sus Significados* da, 1.609 abizenen zerrenda zekarrena, eta bestea Augusto Federiko Pott-ek alemanieraz 1875ean idatzi eta gaztelaniara Eliano Ugarte-k 1887an itzulitako *Sobre los Apellidos Bascongados* liburuxka, azken hau, 43 orrialde besterik ez dituen arren, lehenengoa baino askoz ere hobea zena. Iturri gisa, Kanpionen *Datos Históricos referentes al Reino de Nabarra* ere erabiltzen du, harenean azterketa etimologokoa egiteko datu historikorik agertzen delako. Neurri handiko lana da, 5.000 hitzetik gorakoa baita, abizenak 33 espezietan sailkatuta ematen dituelarik. Amorrortu editoreak dioenez, 7.000ko zerrenda egitea pentsatuta omen zeukan. Orobat, *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino* lanean ere, bertan erabilitako euskarazko 122 hitzen jatorria ematen da, zerrendatuta, eta erdarazko beste 22rena, hala nola *vasco*-rena (lartinezko *uasco*-tik), *vascuence*-rena (gaztelerazko *vasconce*-tik), *osco*-rena (euskarazko *eusko*-tik) (75). Orobat, *Umiaren Lenengo Aizkidia*-n (76), *Euzkera*,

(74) *Etimologías Euskéricas*, OC, I., 31.or.
(75) *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*, op. cit., 972.or.
(76) OC, II, 1061.or.

Euzkelduna, *Bizkaya*, *Gipuzkoa*, *Orozko* eta *Amezkoa* hitzen etimologiak eskaintzen ditu.

4.3. Neologismoez

Lehen nazionalismoaz hitz egitean, euskara atzerritarrengandik defendatzeko ere erabiltzen zuela esanak baikara, honek ere, hein batean –bakarrik ez baina–, bere neologismorako joera ere esplika lezake.

Batzuek uste dute, hauen artean Akesolok (77), Arana euskarazko bere lanetan agertzen dela «barriztaria, eta aztertzaille eta kritikalari zorrotza», eta euskalariek horietara jo beharko luketela «zer irakatsi dauan eta nondik norako bideak artu eta urratu dituen jakiteko». Teorian proposatutakoak praktikan nola aplikatzen diren jakitea argibide izan ohi da eta saiatuko gara alderdi hori ere aztertzen. Euskaraz idatzitako liburu horietako bat da, hain zuzen, *Umiaren Lenengo Aizkidia*. Hemen haurrei irakurtzen irakasteko euskal alfabetoaz testu-liburu baten antzeko zerbait prestatu beharrean aurkitzen baita, bere azalpenetan gramatikan ohikoak diren hitz teknikoak erabili beste biderik ez zaio geratzen. Irakurleak jakin dezan bakoitzaren esanahia, azkenean 117 inguruko hitz berrien zerrenda dakar taula batean (78). *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino* liburuan ere badator bertan agertzen diren beste 73 hitz berriz osatutako beste zerrenda bat ere (79). Oraindik askoz luzeagoa da *Lenengo Egutegi Biskatarra*-n aurkitzen dugun neologismoen zerrenda, lehen bost hilabeteri buruzko azalpenetan datorrena, batezbeste, 30etik gorakoa baita.

Zerrenda horien edukiaz, ordea, ohar batzuk egin beharrean gaude: lehenik, zerrenda horietan agertzen diren zenbait hitz berri errepikaturik datozela; bigarrenik, zerrenda horietako hainbat hitz erro beretik eratorrita osaturikoak dituela egileak; hirugarrenik, berak euskara zaharretik hartutakotzat dauzkanak ere tartekatzen dituela, hala nola *arrotz* (extranjero), *uin* (ola), *itz* (palabra), *ler* (pino), *lats* (arroyo), baita euskara zaharretik hartutakaoak ere, hauen artean *andera* (señora), *gogo* (espíritu), *euzko* (cada pueblo vasko), *eskar* (merced, gracia), eta besterik.

Esan beharrik ez dago egileak euskarazko liburu hauetan darabilen hizkuntz ereduak idatzizko zein ahozko euskal literaturaren tradizioarekiko aldaketa errotikoa edo, agian hobeto, etena ekarri zuela. Aranari leporatu izan zaizkion hutsegite nabarmenen artean, hain zuzen, garbizalakeriarena izan da, hots, erdal jatorrizko hitzak onartzeari zion higuina. Nahiz badakiten hark asmatuko hitz asko onartuak izan direla, oraindik berekin darama joera hori er-

(77) Op. cit., X.
(78) Op. cit., 1061-1065.orr.
(79) Op. cit., 975-977.or.

tzeraino eraman izanaren fama txarra. Baina kontu honetan ere Aranaren jokabidea bere testuinguruan aztertu beharra dagoela iruditzen zaigu, orduko giroa kontuan izanda, alegia. Zalantzarik ez da bere aurreko idazle askok eta askok erdal iturritik hitz asko zurgatu zituztela, erdal giroan eskolatuak baitzioren. Egia den bezala, aita Larramendiren eraginez, batez ere, hark asmatutako hitz asko jatortzat hartuak izan zirela hala izan gabe, eta, alderantziz berdin, erdarazko hitz asko euskara garbitzat hartuak. Tradizio bikoitz honen kontra jaikitzen da Arana, euskararen sustraietara joan eta, euskararen eredu jatorragoa bilatzeko asmoz. Aranak zein neurritan asmatu zuen ala ez, beste kontu bat da, zenbait puntutan kritikatzekoa, beste batzuetan ez hainbeste, eta besteetan –uste den baino gehiagotan, agian–, txalotzekoa. Eta honen froga da Aranak asmatu edo eratutako hainbeste hitz txertatuta daudela, batzuk besteak baino gehiago, ez gaurko hiztegietan bakarrik, baita ahozko zein idatzizko erabileran ere. Hona hemen zerrenda horietatik jasotako hitz batzuk, berak berritzat dauzkanak: *abenda* (raza), *aberri* (patria), *abertzale* (patriota), *abeslari* (cantor), *abesti* (canto), *abixen* (apellido), *adimen* (inteligencia), *arpidedun* (suscriptor), *autetsi* (elegir), *batzoki* (círculo, sociedad), *bazkun* (sociedad), *bildegi* (depósito), *edesti* (historia), *erdeltzale* (erderáfilo), *ereslari* (músico), *eresti* (pieza musical), *euskeltzale* (euskeráfilo), *Euzkadi* (toda la nación vaska), *euzkelgi* (dialecto del Euskera), *garagardo* (cerveza), *gotzon* (ángel), *gudari* (soldado), *ikastola* (escuela), *ikur* (signo), *ikurrin* (bandera), *ikurton* (sacramento), *irarkola* (imprenta), *ixenorde* (seudónimo), *izki* (letra), *laurleko* (peseta), *ludi* (tierra), *margo* (color), *oben* (pecado), *opaldu* (dedicar), *orlei* (berde), *sendi* (familia), *ugaztun* (mamífero), *zenbaki* (número), etab., edota beste iturrietatik hartuak, Hervás-enetik, adibidez, *margo* (color) bezala.

Ibon Sarasolak bere *Euskal Hiztegia*-n ohartarazten duen bezala (80), hitz horietako batzuk *–abenda, batzoki, eresti, ereslari, ikurton, hizki, margo, oben*, eta horrelakoak–, egungo hiztegietan sartuta dauden arren, gutxi erabiltzen direla? Bego. Edota beste hitz batzuk, *garagardo* bezala, ez direla hiztegi horretan agertzen, baina bai *Elhuyar Hiztegia*-n (81)? Bego hau ere. Euskal idazleen aldetik onarpenik izan ez dutenak ere mordo bat direla, agian onartuak baino gehiago? Litekeena. Horrelako hitzen zerrenda begi-kliska batean eman daiteke: *gotuts* (espíritu puro, ángel), *Gogo Deuna* edo *Goteuna* (Espíritu Santo), *agaka* (abecedario), *agintz* (mandamiento), *gaizkatu* (salvar), *Donoki* (cielo de los santos), *Donabatz* (Iglesia), *deun* (santo-santa), *done* (justo, fiel), *txadon* (iglesia, templo), *txauno* (capilla), *Ziñeskitz* (Credo), *izkitegi* (alfabeto), *izkindegi* (silabario), *izpijakera* (fonética), *gedin* (vocal), *igidin* (consonante), *ingoski* (página), *ingurti* (folleto), *ingurrazti* (cuaderno), *ingi* (papel), *itxorkun* (etimología), *basatxono* (ermita), *gaudi* (universo), *ugutz* (bautismo),

(80) *Euskal Hiztegia*, Kutxa Gizarte- eta Kultur Fundazioa, Donostia, 1996.

(81) *Elhuyar Hiztegia*, Euskara-Gaztelania, Castellano-Vasco, Elhuyar, Usurbil, 2. arg., 2000.

kistar (cristiano), *doibazkatu* (excomulgar), *kulatz* (punto), *irazti* (libro), etab. Eta horrelakorik oraindik gehiago luzatu ezinik ez legoke.

Nolanahi ere, zehaztasunez ikertzekoa izanen litzateke Abandokoaren neologismoen erabilera zein mailatakoa izan den ordutik gaur eguneko hiztegi arauturako ibilaldian zehar. Susmoa baino gehiago dugu Aranaren hiztegiak uste izan den baino ukitu sakonagoa izan duela Euskal Pizkundearen arotik harago ere, eta egungo hiztegian ere ez daudela itzalita hark ateratako pindarrak. Hipotesi honek, ordea, hemen eskaintzen diren ohar barreiatu hauek baino azterketa sistematikoagoa eskatzen du. Iker-lerro honek mereziko luke saio berezi bat.

4.4. Izendegiaz

Aranaren izendegia egutegietan agertu zen, hasteko 1897ko *Lenengo Egutegi Bizkatarra*-n, eta hurrengo urtean *Lenengo Egutegi Biskaitarra 1898* izenekoan, zeina, egilea hil eta gero, *Ixendegi Euzkotarra* izenarekin argitaratu baitzen. Lehena sakelan eramateko eta bigarrena horman jarrita edukitzeko eginak zituen. Biak genituen, Aranaren ustez, Bizkaian argitaratzen ziren lehenak. Julio Urkijok (82), ordea, lehenagoko beste baten berri ematen du, zeina baita Josef Gorosabelek 1859an argitaratutako *Eusquerasco Pronosticua milla ta zorcireun ta iruco gueriraco Vizcaraco, Guipuzcoaraco ta Aravaraco* izenekoa, 32 orrialdekoa, Bilbaon Delmasen moldiztegian 1859an argitaratua. Lapurdin, Zuberoan, Gipuzkoan eta Nafarroan asko argitaratu ziren data hori baino lehenago, jada Lizarragaren 1572kotik hasita. Eta Urkijoren ustez, bazitezkeen Bizkaian bertan gehiago ere harenak baino lehen argitaratuak.

Lehenengo egutegiaren sarrerakoan, abertzale gisa aurkezten du bere burua Aranak, Euskal Herria bere osotasunean hartuz: «Abertzalia naz. Vizcaya da nire aberrija; eta bere anayak, Araba, Gipuzkoa, Laburdi, Nabarra, Zuberoa ta Benabarra. Eta bere Jauna, Goikoa» (83).

Sabino Aranaren asmoa egutegi horiek argitaratzean, erdal izenei euskal itxura ematea izango da, ez inola ere haiek euskaratzea, adibidez, gaztelaniazko Pedro-ri *Atxa* deituz, Pablo-ri *Txiki*, Justo-ri *Zuzen*, edo Florencio-ri *Loratsu*. Ez zuen hala egin nahi izan bere alderdi jeltzaleari zerion katolikotasun-izaeragatik. Horregatik, zuzeneko itzulpenen bidea utzi eta, santuen izendegiko erdal izenak oinarrizko euskal lege fonetikoetara moldatzeko erabakia hartu zuen, irizpidetzat ondoko bi arau hauek hartuz: a) izenak bere jatorrizko hizkuntzan duen forma edo itxura hartu eta honi euskal fonetikari dagozkion le-

(82) «¿El *Lenengo Egutegi Biskatarra* de Sabino Arana fue realmente el primer calendario impreso en vascuence vizcaino?», RIEV, año IV, Enero-Marzo, 1910, 148.or.

(83) OC, II, 1401.or.

geak aplikatzea, atzizki arrotzak kenduz, eta b) kontsonantez bukatzen diren gizonezkoen izenak *a* edo *i*-rekin, *Mirena, Gilerma, Andoni* eta gisakoen kasuan bezala eta, emakumezkoenak *e* edo *ne*-rekin (azken kasu honetan *n*-en bukatzen diren *Martin, Balendin* bezalako gizonezkoen izenetatik bereizteko), *Josune, Gilerme*-ren kasuan bezala (84), etab. Antza, *a*rra eta *e*mearen eredura asmatuak. Salbuespen bakarrak, *Josu* eta *Miren* izango lirateke, edota jatorrizko izenean kasuan, *Keperin* eta *Karla*, Zeperin (Zepherinus) eta Karol-en (Carolus) ordez. Bestalde, atzerriko izenei euskal itxura emateko, izenen jatorrizko iturburura jotzen baitu, bide horretatik mota askotako izenak ateratzen zaizkio, batzuk, *Koldobika* bezala, aski bitxiak, eta beste batzuk, *Kepa* bezala, onartuagoak izan direnak. Izenak itxuraz euskalduntzean, egiazko premia bati erantzuten ziolakoan zegoen, euskal idazleak gehienetan inguruko erderetatik –gaztelaniatik eta frantsesetik– hartuta ematen baitzituen izenak. Erdal izen hauek aski errotuak baitzeuden, beldur zen Arana bere proposamenaren arrakataz. Baina berrikuntza honi beharrezkoa deritzonez, argitara ematen ditu egutegi biak.

Aranak asmatu eta eraldatutako hainbat izen ez ote daude aski ondo errotuta euskal izendegian? Zerrenda zehatza emateko beste azterketa bat egin beharko litzateke, baina bihoaz batzuk: *Miren, Garbiñe, Koldo, Koldobika, Kepa, Joseba, Josebe, Miren, Mirena, Edorta, Josu, Josune, Eukeni, Gontzal, Julen, Julene, Andoni, Andone, Andoni, Lander, Gabirel, Bingen, Irene, Ixidor, Gorka, Jon, Jagoba, Ixaka, Balendin, Keperin, Elene, Gurutze, Markel*, eta gehiago (85).

4.5. Alfabetoaz

Pliegos Euskeráfilos-eko bigarren lanean planteatzen du lehen aldiz euskal alfabetoaren berrikuntza, horren eredu grafikoa aurkeztuz, zehazki kontsonanteetan. Bere euskal alfabeto berrituan bere aurreko tradiziotik zetozen hainbat kontsonante kentzen ditu, zehazki, *c, h, j, f, q, x*, baita beste hainbat zeinu ere (*oh, ph, nh, rh, th, w*), eta *r, l* eta *t* bikoiztuak tiletez ematen. *H* hizkia ere onartu zuen hori erabiltzen zuten euskalkien kasuan. Horrela jokatzean, batez ere, berak espreski dioen bezala (86), *Euskal-erria* aldizkariak eta Kanpionek bere *Gramática Elemental del Euskera Bizkaino*-n finkatutako arau eta praxiaren aurka jaiki zen.

(84) Dena den, -a bukaerako izenak erabili izan dituzte Iparraldeko idazleek. Akesolok dakarrenez (Op. cit., XV), *Ejerzizio* izeneko liburuan, 1857ko argitaraldian, honako izen-zerrenda aurkitzen da: *Tita, Satira, Salma, Kalista, Hipólita, Dominica...* Beste izen-mordo bat ere bai, XVIII. eta XIX. mendeetako liburuetan ere, hala nola *Moisa, Dositea, Anselma...*

(85) *Lenengo Egutegi Bizkatarra*, op. cit., 987-1009.orr.

(86) «Observaciones al último artículo 'A mis amados bascongados' publicado en *El Vasco* y suscrito por un bascongado» (*Pliegos Euskeráfilos*, op. cit., OC, I, 48-68.orr.).

Gai horri *Umiaren Lenengo Aizkidia* liburuxkan lantzen du berriro, baina oraingoan testu-liburu gisa irakaskuntzarako prestatuta, haurrek silabario honen arabera irakurtzen ikas dezaten. Ikasgaien edukiek xede hori dute. Sarrerakoan, euskara aintzat hartua izan dadin, dei sentikor bezain minberatia zabaltzen du herritar guztien artean. Baina bere deia, batez ere, haurren hezkuntzaz arduratzen direnei zuzentzen die. Lehenik gurasoen euskal kontzientzian jotzen du, erregutuz beren seme-alabei euskaraz irakas diezaien, jakin dezaten bera dela aberri-hizkuntza: «... zuben umioi ezpa-dautsezube irakasten zein dan euron Aberrija, ta euzkera, euron izkerea dalako, egin bihar dabela, zuben umiok eztabe matteko euron Aberrija, eztabe etsiko euron izkeratzat euzkerea, ta auxe itxiko dabe, Luditik ibiltzeko obia dana ikasteko. Olantxe galtzen dira euzkeldunak. Olantxe il doyaz errijak: euren semiak Aberrija ezautu ezagatik» (87). Bigarrenik, euskal apaizak ditu aurrean, hauek baitauzka euskararen salbatzailetzat: «Bai, euzkeldun Abadiak: zubek Josu-Kisto'ren ordekuak eta geure anayak batera zarela, zubek bakarrik gaizkatu edo *salbau* geinkezubez. Ondo ulertu egixuz onek: geure abendea, gaur, ixendau gura eztodazanak, betuta dagona, betiko galtzen eta iltzen ba-da, zubek zerorrek galdu ta il dozube; pizten ba-da, barriz, ta jagiten ba-da zorigeiztoko leiz barreneko betik zorundun ganerarte, zubek berorrek be, Abadiak, piztu, jagi ta gaizkatu dozube. Zuben eskubetan, ba, dago euzkeldun abendearen benetako zoruna. Egi au ain ikuskarrija da, edonok dakijala. Zubek mattetan ba-dozube Aberrija, zerorrek zainduriko bijotzak be matteko dabe» (88). Hirugarrenik, irakasleengana hurbilduz, liburutxo hau egin, beraientzat egin duela esango die: «Bizkaitar ona ba-zara, ta ez erdeltzailia, bai euzkeltzalia, abegi zabala emongo dautsozu ingurti (liburuxka) oneri: Bizkaya'ren aldez bakar-bakarrik iratzi dau bere egilliak eta argitaltzen dau Etxe edo bazkun Argitaldari onek. Irakatsi au egijoezu umioi, eurok ikasita, erraz irakurri ta ulertu dagikiezantzat argitalduko diran euzkerazko iraztijak, asko ixango diranak. Irakurtzen eztakijan errijak, laster aiztuko dau bere izkerea, ta baidakixu zenbat gaitz, gaxotasun eta zorigezto Bizkaya'ri euzkerea aizkunde orretatik atorkozan» (89). Euskaltzale sutsu baten dei barru-barrukoa da, euskararen transmisioa gehienbat gauzatzen den gizarte-sektoreei zuzentzen diena.

4.6. Literaturaz

Sabino Arana, politikari eta saiolaria, euskal poeten antologian ere sartuta geratu da. Santi Onaindiaren *Milla euskal-olerki eder* bilduman (1954) datoz haren poema batzuk. Baditu guztira 33 poema, gehienak txikitxoak. Unamunok poetatzat zeukan Arana politikaria. Koldo Eleizaidek artikulu luze bat

(87) *Umiaren Lenengo Aizkidea*, OC, II, 1017.or.
(88) Ibid., 1018.or.
(89) Ibid., 1019.or.

eskaini zion Sabino poetari *Euzkadi* aldizkariko 4. zenbakian, 1905eko urrian (90). Bestê zenbaitek izen hori ukatu egingo diote. Ezin esango da, halere, genero horretan ere bere aztarna utzi ez zuenik. Nork ez du ezagutzen haren «Euzko-Abendaren Ereserkija», euskal ereserki nazionaltzat hartua izan dena?

Arana poeta zenetz edota, halakotzat jota, zein mailatakoa zen hausnartzen ibiltzeak baino axola gehiago digu literaturaz eta, zehazki poesiaz, zer pentsatzen zuen jakiteak, alderdi hau, hura ez bezala, eskuragarri egiten baitzaigu.

Pliegos Histórico-políticos (II) izeneko lanean (1889), Kanpion eta Arzakekin eztabaidan ari dela (91), euskal poetei atzerriko alderdiek antolatutako lehiketetan parte ez hartzeko gomita egiten die Sabino Aranak, aberriari traizio egin ez diezaioten. Eta, aldi berean, parada horretaz baliatzen da egile horietako bakoitzaren literatur ikuspegia zorrozki kritikatzeko (92). Horretarako bi irizpide erabiltzen ditu, hots: politikoa –hau bereziki– eta literarioa. Politikaren aldetik begiratuta, biak dira fueristak, biak atzerrikoak, nahiz alderdi desberdinekoak diren (93). Irizpide soilki literarioaren arabera bakarrik desberdintzen dira, zeren Kanpionentzat, Elizondoko lehen Lore-Jokoetan Arrese-Beitia sari-irabazlearekin gertatu bezala, poesia euskaldunak elkartzeko bide eragingarria –euskaldunen baitan kontzientzia politikoa sortzeko bide

(90) Antxustegi, Esteban, *Luis de Eleizalde. Un vasco polifacético*, Fundación Sabino Arana, Bilbao, 1998, 97-107.orr.

(91) Eztabaida honen nondik norakoa jasotzeko, esan behar da, Karlos Borboikoak Gernikako Arbolapean egindako Foruen zin-egitea ospatzeko xedearekin, Roman Zubiaga tradizionalistak, Bizkaian erregearen ordezkaria zenak, Lehiaketa literario eta artistiko bat antolatu zuela 1889an. *La Unión Vasco-Navarra* egunkariak argitaratutako deialdi honen aurrean, Kanpion euskal poetak lehiaketa horretan parte ez hartzearen aldeko iritzia agertu zuen egunkarira 1889ko apirilaren 3an bidalitako gutun batean, bertan arrazoi politikoak emanez: «Era un nuevo signo del estrago que las pasiones políticas vienen causando en nuestro desdichado país, el cual, parece como que quiere perderse para siempre, perseverando en seguir los rumbos de la mortífera política ultra-ibérica» (*Pliegos histórico-políticos*, op. cit., OC, I, 79 or.). Gutun honi Antonio Arzakek 7an erantzuten dio, esanez, sentimendu erregionalistak alde batera utzita, poesia poesiagatik bakarrik ederretsi behar dela: «Yo diría, pues, a mis queridos paisanos: ¡Cantad, cantad cuanto queráis, con sujeción a los inmutables principios de lo bello, y en la lengua que os enseñaron vuestras madres!» (Ibid., 81.or.). Sabino Arana bi hauei erantzutera dator berean eta, bidenabar, poesiari buruzko bere ideiak jaulkitzen ditu.

(92) Ikuspegi politikotik begiratuta, honela mugatzen du bakoitzarena: «El Sr. Campión quiere los Fueros, la autonomía dentro de la nacionalidad española, mas lo quiere directamente y, en los medios de conseguirlos, excluye toda cooperación de partido político ultra-ibérico. El Sr. Arzac, a su vez, quiere también los Fueros, la autonomía de la región euskeriana dentro de la nacionalidad española, pero en el procedimiento que se ha de seguir para alcanzarlos, no excluye a ninguno de los partidos españoles, con tal de que transijan y cedan en punto a autonomía» (Ibid., 82.or.).

(93) «Como se desprende de las lucubraciones de los señores Arzac y Campión, ambos son partidarios de la política autonomista, regionalista, fuerista o como quiera llamarse, mas difieren entre sí en lo mismo que determina la distinción en dos grupos del partido extranjerista a que pertenecen» (Ibid.).

bikaina, alegia– den bitartean, Arzakentzat poesiak ez baitu gizateria eta Jainkoa beste aberririk, honentzat berez baita ederra, gizakiarentzat askatasun-bide. Aranaren ustez, ordea, biek gehiegizko garrantzia ematen diote poesiari. Aranak bazekien literaturak –kasu honetan poesiak– Euskal Herriko tradizio fueristan bere garrantzia izan zuela herri-kontzientziaren garapenean, Iparraldeko zein Hegoaldeko Lore-Jokoak hurbiletik ezagutzen zituelako; baina bere baitan konbikzio abertzalea –elementu politikoa– euskaltzalearen –elementu kulturalaren– gainetik ezarria zeukanez gero, literaturari orokorrean ez bide zion ematen haiek ematen zioten adinako garrantzia.

Bestalde, kasu jakin honetara etorrita, harentzat poesiak bere baitan ez du baliorik, hemen Arzaken kontra; hori batetik, eta, bestetik, oraingoan Kanpionen kontra, aberrigintzako ez da bide eragingarria (94). Poesiak aberrigintzan izan dezakeen zeregina goraipatzen dutenei ihardesten die esanez, horretan denbora eman ordez, hobe dela giza kapitala hezkuntzan inbertitzea, euskal historia, legeak eta hizkuntza irakasten saiatuz (95).

Garai hartan poesia bigarren mailako zerbait zen harentzat. Eta geroago? Baita ere. Literaturan, «Poesía útil» izeneko 1894ko pasarte honetan espreski aitortzen duen bezala, ez haren alderdi formala, praktikoa baizik lehenesten du. Aberri-sentimendua pizteko da on: «Nunca hemos sentido simpatía por la literatura. Nos ha parecido siempre algo así como postizo, como pura apariencia, pura forma, que carece de fin práctico y no sirve más que para recrear la imaginación en los ratos de ocio. Por eso hemos compadecido siempre a los que se afanan por los estudios literarios, y se desviven por conocer las bellezas de tal autor en cuál de sus obras y por compararlas con las que se encuentran en este otro libro de aquel otro autor, y se devanan los sesos y rompen mil plumas por imitar a uno u otro escritor o cifran todas sus ilusiones en crearse un estilo propio, original y esmerado. En una palabra, la literatura no nos parece digna de ocupar toda la atención y toda la vida de un hombre. Pero cuando la poesía, por ejemplo, no se emplea más que como un medio de otros fines más prácticos y positivos; cuando se le da, verbigracia, una aplicación patriótica, entonces ya es una cosa provechosa, laudable y digna de ser estimada por los hombres y los pueblos» (96). Horrelakoa da, adibidez, berak

(94) «Pero la poesía, Sr. Campión, es un medio muy accesorio y superficial de unión euskeriana; la poesía, Sr. Arzac, nada vale en sí misma y sólo tendrá alguna importancia cuando sirva como medio, en verdad siempre débil, de algún fin positivo, cuando se revista del carácter de utilidad verdadera. La Poesía, exaltando la imaginación y moviendo el sentimiento, puede llegar a persuadir, pero jamás a convencer, en cuanto poesía; porque no habla a la inteligencia, sino a la imaginación y al corazón» (Ibid., 87.or.).

(95) «A lo cual contestaré que no es necesario semejante preludio, que no estamos para perder tiempo y que vale más adoptar el medio directo de regeneración por la instrucción y enseñanza de la Historia, Leyes y Lengua patrias, sin que pretendamos negar por esto a la Poesía el papel, aunque accesorio, que en el patriótico movimiento le corresponde» (Ibid.).

(96) «Poesía útil», *Bizkaitarra*, 14, 1894-08-31; OC, I, 360.or.

hemen transkribatzen duen Hermilio Olorizen *Olast* poema. Horregatik aupatu zuen Azkueren *Vizcaya'tik Bizkai'ra* antzerki-emanaldia ere, espainolei min egin zielako, hain zuzen, «obra netamente bizkaina» zelako (97), alegia. Azken batean, itxura guztien arabera, abertzaletasunaren zerbitzurako bakarrik dauka on poesia. Horregatik dira haren poesiak oro abertzale-kutsukoak.

Sabino Aranaren literaturaren ikuspegi hori giltz politikoen argitan ulertu beharrekoa da, politikariak balio estetikoak adina –edo gehiago– arrazoi praktikoak eraginda jokatzen baitu. Zentzu honetan, Aranarenak badu gaurkotasunik, seriotan galdetzea baita, euskal kasura etorrita, literaturaren garapenak XX. mendeaz geroztik zer-nolako eragina izan duen nazio-askapenean. Euskal Pizkundeak, Aitzol buru zela, fede itsua ezarri zuen 1936ko gerraurreko literatur mugimenduan; posfrankismoko azken hamarkada hauetan bide zabala ireki izan zaio literaturari eta bere ugaritasunean lortu da, Madriletik pasata, euskal idazle batzuk atzerriko hizkuntza batzuetan ezagutzera ematea ere itzulpenen bidez. Baina zer suposatu du literaturaren loraldi honek aberrigintzaren gorakadan? Honetaz eztabaida publikorik ez da egin.

Literaturari buruzko eztabaida hau izan eta handik hiru urtera, 1891ko «Apuntes» artikuluan, Kanpion politikariari erasotzen dio, ezin garrazkiago erasotzen ere, hau ere, Azkue bezala, espainolen alderdietan batetik bestera dabilelako: «El señor Campión, en muchos años, ha sido liberal avanzado, fuerista, católico integrista, católico-fuerista-alfonsino, unionista de carlistas, integristas y fueristas... Pero ser nacionalista no se le ha ocurrido todavía, y eso que desde hace ocho años conoce nuestra doctrina. Y, en fin, si ha de salir después de nuestra casa, más vale que no entre» (98). Euskal nazionalismora hurbildu zen, baina Arana hil eta gero. Donostiako Euskal Etxean, 1906ko urtarrilaren 7an egindako hitzaldian, «desde hoy me llamo y llamaré *nacionalista*» (99), esango du. Kausa nazionalistaren alde asko egin zuen arren, ez zen, ordea, inoiz Alderdiko kidea izan. Gerratekoan, zahartuta eta Ategorrietako txatel baten gaixo, karlistak Gipuzkoako hiriburuan noiz sartuko antsiz egon omen zela kontatzen da (100).

Baina Sabino Aranak badu Kanpionen bihotza barruago zulatuko duen beste esaldi bat ere leku berean, arraza garbikoa ez dela iradokitzen dioneko hura, alegia: «Y de nuestra raza... de determinar sus límites físicos y de señalar el camino de su felicidad política, no es el señor Campión el más llamado a hablar y a ser oído. ¿Cómo, si el único apellido suyo que conocemos no tiene por madre a nuestra lengua nacional?» (101). Esandako guztia ez aski

(97) «Ir por lana y volver trasquilado», *Bizkaitarra*, 23, 1895-03-24; OC, I, 524 or.

(98) *La Patria*, 9, 1901-12-22; OC, III, 2081-2082.orr.

(99) «Nacionalismo, fuerismo y separatismo», in Arturo Campión: *Discursos políticos y literarios*, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, 1976, Bilbao, 256.or.

(100) Ibarzabal, Eugenio, op. cit., 53.or.

(101) «Apuntes», op. cit., OC, III, 2082.or.

izanda, zenbaki bereko «Los dos negociantes y el zapatero» alegian (102), politikan aritzeko gaitasunik ez duela aditzera emanez, «zapatero, a tus zapatos» esaerarekin ematen dio errematea.

Behin eta berriz ageri den bezala, oso estu hartzen du Kanpion. Euskaltzalea izateak ez du salbatzen, Unamuno eta Vinson-en antzera: «Ni crea el señor Campión que con estudiar el euzkera y conocerlo sea bastante para ser vasco patriota o extranjero amante de nuestro pueblo, ni que aquello sea para esto cosa que signifique mucho ni poco. Ahí están los señores Unamuno y Vinson que no desmentirán lo que digo» (103).

Kanpionek ez dio erantzuten, baina ondo gogoan izango ditu Aranarengandik jasoak, handik bi hilabetera, Hondarribiako Batzar Ortografikorako prestaketa-lanak direla bide, Guilbeau jaunari 1902ko otsailaren 27an idazten dion gutunean garbi agertzen baita suminduraz zein errea daukan barrunbea: «Arana me ha enviado el número de la *La Patria* en el que ha escrito contra nosotros. Es un insensato que cree ser, entre todos los baskos, el primero, el único que ama sinceramente a su país. Yo no sé que haya una sola persona, por poco distinguida que ella sea en la literatura, la lingüística, la política, etc., a la que no haya atacado de una manera acerba, bajo el menor pretexto. ¿No propaga así el microbio de la envidia? Hace cerca de un mes, me atacó muy groseramente en *La Patria*; me lanzó entre otros el reproche de llevar un nombre que no es basko. Yo me resignaré a no dirigirle la palabra, porque estimo que su conducta no merece otra corrección que la que consiste en romper toda relación con él» (104).

Hara hor bi nor, bi erraldoi, aurrez aurre: bata erasokorra, sua eta ura borrokan dabiltzanean bezala, eta bestea tenplatuagoa, hotza eta beroaren erdian.

5. SABINO, EUSKAL IDAZLE

Sabino idazle oparoa izan zela gauza jakina da. Euskaraz idatzi zuela ere bai. Baina zenbatek daki zein neurritan izan den euskal idazlea? Txit jakingarria dela uste dugu galdera honi erantzutea, Aranaren kasuan oraindik areago, euskaldunberri izanda.

Kontua da, etxeko zein kanpoko euskaltzale batzuek Aranari bere garaian leporatu ziotela *Bizkaitarra* aldizkarian euskarazko testu gutxi agertzen zela. Aranak bere erantzunean dioenez, hasierako asmoa osorik euskaraz argitaratzearena zen, baina hainbat arrazoirengatik, funtsean jarraiko hiru hauen-

(102) Ibid, 2084.or.
(103) Ibid., 2082.or.
(104) «Los Congresos Ortográficos», *La Patria*, 19, 1902-03-2; OC, III, 2135.or.

gatik, ezinezkoa gertatzen da: a) bizkaitar askok ez dakitelako euskaraz, b) beste askok, jakinda, nahiago dutelako erdaraz irakurri, eta c) zailtasun materialak dauzkatelako (105). Hauek gainditu bezain laster elebidun bilakatuko dela agintzen du. Zailtasunak, antza, ez zituen gainditu, euskaraz seiren bat titulu besterik ez baitziren agertu. Beste aldizkariekin ere antzeko zerbait gertatzen da, euskararen presentzia oso testimoniala dela. Dena den, ondoko tauletan zehaztuta datozen datuei begiratzen badiegu, Aranari euskal idazle deitzeko adina arrazoi badela iruditzen zaigu (106).

Gaztelania eta euskararen erabilera libururuetan, orrialdeka

Tituluak	Gaztelaniaz	Euskaraz
Etmologías Euskéricas	12	
Pliegos Euskeráfilos	24	
Pliegos Histórico-Políticos (I-II)	21	
Pliegos Euskeralógicos	16	
Vizcaya por su independencia	47	
El discurso de Larrázabal	7	
Tratado Etimológico de los Apellidos Euskéricos	108	
Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino	173	
Egutregi Bizkatarra		33
Umiaren Lenengo Aizkidea		51
El Partido Carlista y los Fueros Vasko-Nabarros	186	
Lenengo Egutegi Bizkatarra 1898		259
Libe	24	
Documentos Póstumos	80	
Labor desarrollada en la Diputación Provincial de Vizcaya	23	
Olerkijak		22
Kopuru absolutua	721	365
Ehunekotan		%33,60

(105) «Quedan contestados todos con hacerles saber: que, al fundar *Bizkaitarra*, sólo se pensó en publicar un periódico verdaderamente bizkaino; que, consiguientemente, *Bizkaitarra* sería exclusivamente euskérico, si no hubiese un gran número de bizkainos que desconocen la lengua nacional, y una multitud que, aunque la habla, prefiere leer en idioma extranjero; que, para atender a la vez a aquel deber y a esta exigencia, se convino en que *Bizkaitarra* fuese bilingüe tan pronto como fuera posible; que el 'primer número salió en esta forma; que el II y III fueron sólo erdéricos por razones de oportunidad, y el IV por exceso de original; que aun hoy no es posible sea rigurosamente bilingüe, por dificultades materiales que lo impiden; pero que desde este número contendrá siempre algún escrito euskérico, que corresponda como tal al título» («Advertencias», *Bizkaitarra*, 5, 1894-01-29; OC, I, 200.or.).

(106) Datuok indikatzaile hutsak dira, ikuspegi orokorra emateko bakarrik balio dezaketenak, guk oinarritzat egilearen *Obras Completas*-eko testu-masa orrialdez orrialde hartuta atera ditugunak.

Orotara 1.086 orrialde idazten dituela kontutan hartuta, % 33.60ko indizeak ez du hain leku txarrean uzten Aranaren euskal luma, liburu eta saioen mailan bederen. Aldizkarietan, ordea, euskara ia erabat arrotza dela esan dezakegu, ondoko taulan ikus daitekeenez, osta-osta % 1,30eko orrialde-masa besterik ez baitute osatzen euskaraz idatzitakoek. Erreferentziatzat hartzen bada orotara 2.386 orrialde idatzi zituela, eta horietatik 382 orrialde baino ez euskaraz, azkenean Aranaren euskal luma % 16ko sortarekin geratzen da, arestian emandakoaren erdira jaitsiz. Hemen ageri da Arana iritzi publikoari gaztelaniaz zuzentzen zaiola, esan bezala, arrazoi praktikoak medio.

Gaztelania eta euskararen erabilera aldizkarietan, orrialdeka

Aldizkariak	Zenbakiak	Tituluak	Gaztelaniaz	Euskaraz
Bizkaitarra (1893/1895)	30	85	532	9
Baserritarra (05-1897/08-1897)	18	52	143	6
El Correo Vasco (08-1899/09-1899)	101	69	122	
Euzkadi (03-1901/12-1901)	4	7	231	
La Patria (11-1901/6-1903)	86	49	249	2
Patria (06-1903/08-1903)	4	3	6	
Kopuru absolutua	243	265	1283	17
Ehunekotan				1,30

Ez goaz gutxi ala asko den edo antzeko baloraziorik egitera. Euskal Pizkundearen betean J.M. Barandiaranen euskarazko indizea % 3,11 eta Aitzolena % 8,84koa bada (107), Aranarenak azken honena bikoizteak asko esaten du bere alde, oraindik gehiago euskaldunberri izanda.

6. SABINO ARANA HENDAIA ETA HONDARRIBIAKO ORTOGRAFI BATZARRETAN (1901-1902)

Luis Villasantek bere *Historia de la literatura vasca*-n idatzitakoak soka luzea ekarriko du atzetik, Batzar haien erabateko porrota Aranari eta aranazaleei leporatzen baitie: «A principios del presente siglo hubo reiterados contactos entre vascófilos de la parte española y francesa con el fin de llegar a la unificación de la ortografía vasca, punto muy vital e importante para que los libros y publicaciones euskéricas de cualquier lado del país puedan difundirse en el otro. Por la parte vascofrancesa intervenían en estas reuniones y contactos Arbelbide, Daranatz, Guilbeau, Daricarrère, Adema, Hiriart-Urruty, Broussain, etcétera. Por la parte española: Campión, Azkue, Arana, Juan Car-

(107) Iztueta, Paulo, «Euskal kulturaren kontraesanak: teoria eta praxia», *Uztaro*, 9, 1993, 127.or.

los de Guerra, Serapio Múgica, etcétera. En el epistolario mantenido entre Azkue y Broussain por los años 1901-1902 (*), hay numerosos datos sobre los preparativos de un congreso que se celebraría en Fuenterrabía para la unificación de la ortografía. Tanto Azkue como Broussain y demás vascófilos ilustres temblaron ante la noticia de que Arana se iba a presentar allí con 320 partidarios suyos, gente indocumentada en su mayoría, pero ciegos e incondicionales seguidores de su maestro. Se celebró, en efecto, el congreso, y como ya se dijo en otra parte, constituyó un 'fiasco' completo, por la intransigencia de los aranistas y la actuación poco firme del presidente Adema, poco avezado a estas lides. Los vascofranceses se retiraron disgustados, y el desacuerdo ortográfico entre ellos y nosotros continúa hasta hoy» (108). Villasantek historia hori argitaratu zuenean, artean Aranaren *Obras Completas* bilduma argitaretzeke zegoen, *Sabindiar Batza*-k liburu bakarrean kaleratuak 1965eko data baitarama; eta Sendoa-k hiru liburutan argitaratuak, berriz, 1980koa. Beraz, argitalpen horietan datozen datu guztiak ez zituen izan Villasantek eta, neurri batean, ulertzekoa izan liteke Aranaz hain iritzi ezkorra ematea, zoritxar guztien errudun bakar bera bailitzan. Baina arazoa are larriagoa agertzen da, orduan baino datu historiko gehiago eskura izanda, Aranaren aktak ez ezagutzea edota aintzakotzat ez hartzea eta, ondorioz, antzeko aurreiritziekin segitzea. Horrelako zerbait gertatzen zaiolakoan gaude Xabier Kintanari, honek ere 1985ean aranazaleen setakeriari botatzen baitio errua (109). Berrikitan, Hendaia eta Hondarribiako Batzarren berri eman izan denean, J. Javier Granja Pascual-en lanean bezala, honek ere, ia hitzez hitz, Villasante eta Kintanaren bertsio bera ematen du (110). Azken honengan, gainera, geroago ikusi dugun bezala, Sabino Aranaren jarrera intelektuala politikeriaren aitzakiaz satanitzeko joera nabarmentzen da, haren hizkuntzari buruzko ikuspegi estu eta politizatuari Azkue edota Kanpionen jarrera zabal eta zientifikoa kontrajarriz.

Baina Batzar haien inguruan gertatuak ez dira hain sinpleak batzuen eta besteen iritzi zenbait puntutan kontrajarriak modu horretan polarizatuak eta sa-

(*) Esandakoaren frogatzat, Villasantek hor *Euskera* aldizkarian (1956) argitaratutako gutun-sorta aipatzen du.

(108) Editorial Sendo, 1 argitalpena, Bilbao, 1961, 288.or.

(109) «Euskal Herriko hizkuntza ofiziala ez izateaz gainera, euskerak bestelako problema asko ere zeuzkan bere barruan: dialektotan banaturik egotea, literatur eredu batuaren premia, ortografi araurik eza, hitz berrien arazoa, Frantzia eta Espainiako erakunde politikoen aurrean babesa lortu beharra etab. Guzti horretarako, XIX mendeko euskaltzaleek ongi zekusatenez, beharrezkoa zen Euskeraren Akademia sortzea. Asmo horrekin 1901ean Hendaian eta hurrengo urtean Hondarribian Bidasoaz haranzko eta honanzko idazle eta euskaltzaleak bildu ziren, baina aranisten setakeriagatik nonbait, ez zuten projektu hura mamitzerik izan» («Euskararen historia», in Intxausti, J. (zuz.): *Euskal Herria. Historia eta gizartea*, I, EFA/Jakin, 1985, 454-455.orr.).

(110) «El congreso se celebró y su fracaso, debido a la intransigencia de los aranistas, fue completo. Se produjo una ruptura entre los escritores de uno y otro lado de la muga al no conseguir ningún acuerdo sobre la unificación ortográfica» («Divergencias lingüísticas y literarias entre Arturo Campión y Sabino Arana», *Fontes Linguae Vasconum*, año XVI, 43, Enero-Junio, 1984, 161.or.).

koneko arrazoiak ezagutu eta eztabaidatu gabe desitxuratuak izan daitezen. Orduko eztabaida hartan argi pixka bat egin ahal izateko, iturriak berrikusi beharra dago Koldo Zuazok hasitako bidetik jarraituta (111), baina zintzotasunez eta bere osotasunean, ez komeni direnak bakarrik plazaratuz eta ez direnak ilunpean utziz. Izan ere, historiografia gezurtatzeko modu asko daude, eta horietako bat, datuak manipulatzea, edo aipatzeke uztea da. Gu ere ibiliak gara gai honen inguruan Orixeren lana aztertu genuenean, baina lehengo iturriak berrikusi eta berriak aztertzean, orduko balorazio batzuk findu beharrean aurkitu garela aitortzeko lotsarik ez dugu (112).

Lehenengo Ortografi Batzarra Hendaiako Udaletxean egin zen 1901eko irailaren 16an. Baina zeinek deituta, zergatik eta zertarako? Erantzunetan ez da adostasunik.

Lehenik, badirudi Batzarrerako deialdia egin zuena Guilbeau jauna izan zela, Arana Goiriri 1901eko ekainaren 28an igortzen dion gutunean hauxe irakurtzen baita: «Le rogamos honre V. con su presencia la reunión de Lingüistas y Literatos Vascos (Franceses y Españoles) que tendrá lugar en Hendaya, durante las fiestas vascas que se celebran a mediados del més próximo en dicha villa, para estudiar la unificación de la ortografía vasca, y establecer, si posible fuera, las reglas filológicas basadas en la eufonía euskariana» (113). Gutun honetan datorrenez, badirudi Batzarraren xedea ere garbi finkatua zegoela, zeina baitzen euskal ortografiaren batasuna aztertzea eta, ahal izanez gero, euskal eufonian oinarritutako arau filologikoak finkatzea. *L'Hendayais*ek 1901eko irailaren 22ko kronikan zekarrenez, batzartu zirenak eta beren atxikipena agertu zutenak batera hartuta, 30 izan ziren, hauetatik 22 Hegoaldekoak; joan ezin eta beren atxikipena gutun bidez agertu zutenen kopurua, berriz, 11koa izan zen (114).

Baina Batzar hartan zertaz hitz egin zen? Hemen hasten dira nahasketak. Batzuen ustez, Manuel Irujok 1954ko artikulu batean idazten zuen bezala (115), ez bat, baizik hiru gai hauek jorratu omen ziren bertan, hots: hizkuntzaren defentsarako bide egokiak hartzea, euskal kultura zabaltzea eta euskal ortografia batzea. Asmo hauek burutu ahal izateko, erakunde bat sortzea, *Eskualdun Biltzarra* (Association d'Euskeraphiles/Liga de Euzkeráfilos) deitu zitzaiona, eta lanerako Batzorde Iraunkor bat eratzea erabaki zuten, honela osa-

(111) *Euskararen batasuna*, Euskaltzaindia, Iker-5, Bilbao, 1988, 255-273.orr.

(112) Hitzaldi hau eman eta gero jakin dugu Mikel Zalbidek burutua duela gai honetaz lan bat arras argigarria dena. Ahalegindu garen arren, ez dugu eskuratzerik ahal izan.

(113) «Los Congresos Ortográficos de Hendaya», *La Patria*, 16, 1902-02-9; OC, III, 2108 or. Hala egiaztatzen du Pierre Charrittonek ere bere *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques (1895-1920)* lanean (CNRS, Editions du Centre National de la Recherche Scientifique, Paris, 1985, 109.or.).

(114) Ikus izenen zerrenda, in OC, III, 2109-2110.orr.

(115) *Alderdi*, 92, 1954, Iraila; aipatua in OC, I, XLII.

tua geratu zena, antza, Estanislao Arantzadiren proposamenez: Adema kalonjea, lehendakari; Kanpion eta Arana-Goiri, lehendakariorde; Guilbeau, idazkari nagusi, eta Hiriart, diruzain. Irujorenean, batzartuen artean Isaak Lopez Mendizabalen izena ere aipatzen da, ez horrela *L'Hendayais*-ek emandakoan.

Batzar hartan hartutako erabakiez argien mintzatzen dena –eta, agian, kontakizunean fidagarriena–, Sabino Arana bera da. Honi Batzar Iraunkorrekoek gutun bat igorri zioten 1901eko urriaren 11ko datarekin, urte bereko azaroaren 18an Hondarribian egin beharrekoa zen bilkurara deituz. Joan ezina agertuz, gutun-txosten bat igortzen die 1901eko azaroaren 17an, bere oharrak eta proposamenak eginez. Hor puntuz puztu zehazten ditu Hendaiako Batzarrean zer erabaki eta zer egin zen. Funtsean puntu hauetara biltzen da hangoa: a) goizez batzarkideak hiru taldetan banatu zirela, ortografiaren batasunari buruz Batzarrari proposamenak egiteko xedearekin; b) arratsaldez aho batez onartu zela batzordeetako batek, adostua izan zedin, gai horri buruz proposatutako plagintza; c) hurrengo urtean Hondarribian beste Batzar bat egitea aurrikusi zela; d) hiruko talde batek osatutako Batzorde bat izendatu zela, tartean Kanpion, Sabino eta Hazparneko Anaia bat zeudela, eta hauek, gela batean sartuta, presaka arautegi moduko bat prestatu zutela, baina Batzar-Aretora itzultzean, hutsik aurkitu zutela; e) *Eskualdun Biltzarra* elkartearen izenaz asko eztabaidatu zela, berdin bere xedeaz; f) Batzorde Iraunkorreko partaideen izendapenari dagokionez, Batzarraren berrespenik ez zuela eta, Kanpion eta Aranaren kasuan, presak eraginda, beren buruak aurkeztu zituztela lehendakariordetzarako (116). Beste nonbait ere esaten du Aranak, gauzak gaiztotzen hasi zirenean, hasiera-hasieratik lehendakariordea izaki, kargu horri uko egin nahi izan ziola (117), baina ez ziotela onartu eta, gainera, askotan idazkari-lanak ere egin behar izan zituela (118).

Geroztik, Pierre Charrittonek, Broussainen iturrietan oinarrituta, zehetasun batzuk eransten dizkio Sabino Aranaren testuari, hots: hiru batzorde hauetako buruak Adema-Zalduby, Kanpion eta Arana Goiri izan zirela eta Batzar Nagusian onartua izan zela Arana Goirik ortografi batasunerako proposatutako plangintza, esaten denez –aipu espliziturik eman gabe, ordea–, beste batzorkideak horretara behartu omen zituelako: «Arana Goiri avait fait admettre par sa comission» (119). Arratsaldean, hamabost lagunek osatutako behin-behineko batzorde bat osatu zela ere badio, *Eskualdun Biltzarra* (Fédération Littéraire Basque/Federación Literaria Vasca) elkartea eta hurrengo Batzar Ortografikoa prestatzeko xedearekin (120). Azpimarratu behar da Sabino Aranak

(116) «Los Congresos Ortográficos de Hendaya», op. cit., 2097-2098.orr.

(117) Sukarrietatik 1901eko abenduaren 25ean emandako erantzunenan, hauxe irakurtzen da: «Desde luego y *en todo caso*, yo renuncio al cargo de Vicepresidente con que se quiere honrarme (Questionnaire. A renvoyer garni au plus tard le 25 Décembre 1901», ibid., 2103.or).

(118) Ibid., 2095.or.

(119) Op. cit., 109.or.

(120) Ibid., 109-110.orr.

ez dakarrela berean horrelako zehaztasunik, elkarte horren izenaz eta xedeaz eztabaidatu zela besterik.

Azken batean, Hondarribiako batzarkideen aurrean garbi adierazita utzi nahi duen puntua, bere hitzez esanda, hauxe da: «El único objeto para el cual se convocó el Congreso de septiembre fue el de fijar una parte del euzkera: la ortografía, mejor dicho, el sistema gráfico (...) Debemos, pues suponer que sólo con este fin, y todo lo más con fines de la misma naturaleza, es decir, siempre *directamente euzkeralógicos*, acudieron los congresistas todos. Sólo a periódicos enemigos del Pueblo Vasco o mal informados se les ocurrió suponer que el Congreso se reunía para contrarrestar la campaña de los euzkeráfobos» (121). Proposamenen sailean, bada, garbiki gogorarazten die batzarkideei Hendaiako Batzarraren helburu bakarra euskararen sistema grafikoa arautzea izan zela, eta zela.

Goian esan bezala, *Eskualdun Biltzarra* elkarteko behin-behineko Batzordea batzartu zen Hondarribiako Udaletxean 1901eko azaroaren 18an. Zein xederekin? Deialdirako zirkularrak honela zioen: «La Asociación que nos proponemos crear no será, propiamente hablando, una Sociedad de Estudios Lingüísticos, ni una Sociedad literaria, y mucho menos una Asociación política. Será una amplia Liga patriótica abierta a todos los vascos de las siete provincias, cualesquiera que sean sus opiniones políticas o su categoría social, en la que entraría el euzkerálogo lo mismo que el aldeano iletrado, el rico armador de Bilbao lo mismo que el humilde pastor de las montañas de Zuberoa» (122). Eta gero ohar batean hauxe zetorren: «El Comité provisional que tiene el cuidado de ocuparse del estudio de la lingüística del vasco, incumbe más bien a un grupo muy restringido de euzkerálogos» (123). Deialdia zabala zen, beraz. Zer erabaki zen han? *La Patria*-k bere 5. zenbakian, han hartutako erabakien zerrenda zekarren. Lehenengoak honela zioen: «Que se lleve a debido efecto, sin pérdida de tiempo, en su totalidad el plan presentado por Dn Sabino Arana, en la reunión de septiembre, respecto al procedimiento que ha de seguirse para estudiar y determinar la unificación de la ortografía euzkera...». Eta zazpigarrenak beste hau: «Invitar al Sr. Arana a que redacte la circular que se menciona en el número 1º de su plan aprobado en Hendaya, y la remita al Sr. Presidente para que éste a la mayor brevedad le dé el curso correspondiente» (124). Baina bigarren puntuan sartuta zegoen *Eskualdun Biltzarra* elkartearena, honen izenaz eta xedeez erabakiak hartzeari zegokiona: «Dirigir una circular a todos los congresistas y adheridos al Congreso, para que manifiesten: a) si están o no conformes con la creación de una Sociedad, cuyo objeto es la conservación de la lengua euskera y que provisionalmente

(121) «Los Congresos Ortográficos de Hendaya», op. cit., 2099.or.
(122) Ibid., 2110.orr.
(123) Ibid.
(124) Ibid., 2113.or.

se denominará Federación Literaria Basca, según el acuerdo adoptado en la tercera sesión verificada en el expresado mes de septiembre; b) si aceptan la expresada denominación F.L.B, o proponen alguna otra en sustitución de ella» (125). Berriemaileak iruzkin hau egiten du gero: «Podrán observar nuestros lectores, por la lectura del acta, que se trata no ya sólo de organizar los Congresos euzkeralógicos, sino de fundar una Asociación Literaria, cosa ajena a los Congresos y cuyo fin no se ve claro» (126).

Arana berehala jabetu zen Batzarrak norabidez aldatu zuela. Haren xede bakarra ez zen ortografiarena eta, agian, ezta garrantzitsuena ere. Zer egin?

Arestian esan bezala, Arana ez zen joan Batzar horretara, gaixorik zegoelako, baina idatziz bidali zituen bere proposamenak, jadanik aipatuak, zeinetan zehatz-mehatz azaltzen baititu Hendaiako Batzarrekoan gertatuak eta esandakoak, orduko aktak jasoz. Helburuez zehaztasunik ez zela eman dio: «Se trató con mucho detenimiento del objeto de la Federación, no pudiendo yo tampoco entonces hacer prosperar mi opinión de que esos congresos sólo deben ocuparse en estudiar y perfeccionar el euzkera, dejando el conservarlo en el uso y propagarlo (que no es ya un objeto puramente científico, sino más bien social) a entitades políticas o corporaciones populares. No obstante, el objeto de la asociación no quedó claramente definido: ni aunque lo hubiese quedado, era acuerdo del Congreso, sino de aquella reunión privada» (127). Baina berak egiten duen proposamen berrian, ortografiarena xede bakarra izan dadila nahi du: «El único objeto de estos congresos debe ser el estudio y cultivo del euzkera...» (128).

Zer gertatu zen? Dirudienez, Aranari Hondarribiako Batzarrean euskal ortografiaren batasunari buruzko zirkularra idatz zezala eskatu baitzitzaion, hark, zirkularra idatzi eta inprimitegira bidali zuela argitaratzeko, bukaeran batzordekoen sinadurak jarriz. Testu-zuzenketa egin eta gero, Daranatz lehendakariari bidali zion 1902ko urtarrilaren 11n, frantsesez idatzitako gutun labur batekin batera (129). Txosten horretan, besteak beste, bi proposamen ziren kontuan hartzekoak. Lehenengoa zen Batzarrak ortografiaz bakarrik jardungo zuela: «Consiste la proposición en un plan que se ha de observar para llevar a feliz término, mediante un detenido estudio en el cual intervengan todos cuantos lo deseen, la unificación de la Ortografía Euzkérica, y de modo que el sistema gráfico que se adopte sea aceptado por el mayor número de euzkeristas». Bigarrena, bertako zein kanpoko euskalariek ez ezik, euskaltzaleek ere parte har

(125) Ibid., 2112.or.
(126) Ibid., 2113-2114.orr.
(127) Ibid., 2098.or.
(128) Ibid., 2099.or.
(129) «Mon cher sieur et ami: Je vous envoye ici la communication pour les journeaux, en priant MM. Adéma et Guilbeau de l'examiner pour voir si elle mérite son approbation» (Ibid., 2105.or.).

zezaketela: «En virtud del precedente plan, los que la presente suscriben tienen el honor de invitar: 1º A todos los vascos que estudien el euzkera, en él escriban o deseen su vida y perfeccionamiento y a todos los euzkerálogos extraños, a adherirse en la forma y plazo fijados a los acuerdos del Congreso Ortográfico de diciembre de 1901; y 2º A todos los euzkerálogos vascos y extraños, que tengan criterio propio y particular en materia ortográfica, a presentar sus proyectos en la forma y planos también expresados» (130). Beraz, bat, Batzarraren xede bakarra ortografiaren batasunarena izango zen, eta bi, bertara euskalariak bezala euskaltzaleak joan zitezkeen, bientzat egiten zen gomita.

Aranaren dei horrek izugarrizko katramila sortu zuen bere ingurukoen artean, Batzarrerako atxikipen asko hasi baitziren etortzen Guilbeau jaunaren idazkaritzara. Hemendik dator idazkariaren kezka: «Antes de continuar los trabajos en vista de la reunión de Fuenterrabia es urgente liquidar la cuestión de las 320 demandas de inscripción para el Congreso Vasco, dirigidas de Vizcaya (293), de Vergara (12) y de San Sebastián (15)» (131).

Jokabide horrekin Abandakoak bere sistema grafikoa ezarri nahi zuela aditzera emanez, Guilbeau idazkariak bere eta beste batzarkideen arteko gutun-gurutzaketa jarri zuen martxan haren uholdeari eutsi asmoz. Kontua Aranari bideak oro ixtea zen. Honela, batzordekoa zen Aranaren kontrako erasoari eman zioten hasiera, erabakiak hari bizkar hartuz. Idazkariaren txostenean, batez ere, euskaltzaleak ere gomitatuak izatea jartzen zen auzitan. Hala idazten zion Kanpionek Guilbeau-ri 1902ko urtarrilaren 22an:

> «El Sr. Arana se mueve con un objeto *preconcebido*, el de *imponer* su sistema ortográfico, no con los votos de la razón, sino con la razón de los votos» (132). Azkuek, orobat, bere desadostasuna azaltzen dio idazkariari 1902ko urtarrilaren 26an egindako gutunean: «Yo tendría vergüenza de ver reunidas a este objeto gentes que no serían verdaderos basquizantes (...) Los chiquillos que quieran hacer chiquilladas, que se unan con otros chiquillos» (133).

Ez zen erori behar inola ere Aranak jarritako zepoan. Zer egin? Kontraerasoaren beroan, hasieran Donostian 1902ko otsailaren 24an bilkura bat egitea bururatu zitzaien, baina gero atzera egingo dute; horren ordez, beren hariko batzarkideak bildu, orotara 72, eta erreferendum bat idaztea erabakitzen da, zeina Guilbeau idazkariak egin baitzuen 1902ko otsailaren 12an, besteak beste, zuzenean Aranaren proposamenaren kontra, oinarrizko bi punturen gainean argitasunak emateko. Lehenengoak dio, arazo batzuk tarteko, egiteko ortografikoa eta literarioa nahastu egin direla:

(130) Ibid., 2016-2108.orr.
(131) Ibid., 2119.or.
(132) Ibid., 2117.or.
(133) Ibid., 2118-2119.orr.

«Las 320 adhesiones recibidas de Vizcaya y de dos puntos de Guipúzcoa, *sin ninguna justificación de competencia*, me hacen presumir que la convocatoria de la Comisión Directiva (que siempre se ha dirigido a los lingüistas y literatos de euzkera), sancionada, como yo pensaba, por los que compusieron el Congreso de Hendaya, no ha sido comprendida, y que algunos euzkerálogos han confundido los Congresos Ortográficos con la Federación Literaria Vasca y su expansión» (134). Eta bigarrenak, ortografiari dagokionez, horretan adituek bakarrik dutela hitza eta erabakia: «Para mí y para mis amigos, al Congreso Ortográfico debían asistir, con voto, *sólo aquellos que en nuestro país se ocupan notoriamente en lingüística y en literatura euzkérica, y que son conocidos por sus escritos y sus trabajos, así como por su competencia especial*» (135).

Azkenean, zeharka baina, Hendaiakoa gaizki ulertu zuela aurpegiratzen dio Aranari. Honen 1092ko otsailaren 15eko erantzunean (136), puntu hauek zehazten dira: a) idazkariak ez dituela bete hitz emandako lanak, b) bera izan zela Ortografiaren eta Literaturaren sailak nahastu nahi izan zituena, lortu ez zuen arren, c) Hendaiako batzarkide guztiak ez zirela izan euskalariak (*euzkerálogos*), eta, alderantziz, euskalariak oro ere ez zirela deituak izan, d) arau ortografikoak, ez hitzez berehala, Adema eta Kanpionek nahi zuten bezala, baizik azkerketa sakon baten ondoren finkatu behar zirela, Aranak proposatu bezala, e) proiektu-egile bakoitzak izan zezala berea aurkeztu eta defendatzeko aukera eta, azkenik, f) beren atxikipena adierazitako 320ren gaitasuna gutxietsi eta horiek Batzarretik baztertzeko arrazoirik aski ez dela (137).

Ondoren Adema-Zalduby lehendakariaren beste proposamen bat dator, zeinetan bost puntutan zehazten baitu nolako baldintzak bete behar dituzten arazo ortografikoez aritu behar dutenak. Honi beste kontraproposamen batekin erantzuten dio Aranak. Azkenean ikusirik, batetik, Aranak ez duela amore ematen 320ko izenen arazoan eta, bestetik, 1902ko martxoaren 10ean Donostian egindako bileran Guilbeau ordu t'erdi batez amorru bizian jardun zuela Aranaren kontra (138), Hondarrabiako Batzarrera joateak egiazko zatiketa ekarriko zuela eta, denboraldi batez itxaroteko erabakia hartzen du talde batek –horien artean Arbelbide, Darricarrère, Broussain, Daranatz, Lassalle eta Hiriartek osatutakoak, eta, ondorioz, Hondarribiako Batzarrera ez direla joango jakinarazten diote Adema lehendakariari (139). Nolanahi ere, Batzorde-Zuzen-

(134) Ibid., 2121.or.

(135) Ibid.

(136) «Los Congresos Ortográficos. Una protesta», *La Patria*, 17, 1902-02-16; OC, III, 2121-2131.orr.

(137) Ibid., 2123-2127.orr.

(138) Hain zuzen ere, Daranatzek deituta, bi lehendakariordeak, Kanpion eta Arana, Guilbeau idazkaria eta bera lehendakaria bera elkartu ziren Donostian, laurak Batzorde-Zuzendaritzakoak. Hango berri Bilbaoko *La Patria*-ko erredakzioak eman zuen, 1902ko martxoaren 16ko datarekin. Ez zen adostasunik eman batzartuen artean, baina Aranak bere azalpenak ematerakoan, zenbait puntutan Kanpion eta bera bat etorri zirela esaten da («Los Congresos Ortográficos», *La Patria*, 21, 1902-03-16; OC, III, 2141.orr.).

(139) «Los Congresos Ortográficos. Una protesta», op. cit., 2136-2137.orr.

daritzak Aranaren esku utzi zuen txosten bat egitea Hendaiako batzarkideei galdetuz ea komeni zen Batzar berri bat egitea Hondarribian, 1902ko apirilaren hasieran edo. Txostena egin, egin zuen Aranak, baina txosten hori ez zitzaien batzarkideei heldu. Hendaiako Batzarreko kide garrantzitsu batzuek ortografiaren arazoa bizpahiru urtez atzeratzea komeni zela argudiatu baitzuen, Ademak txostenari ez zion segidarik eman. Sabino Aranak, noski, begi txarrez hartu zuen erabakia, salatzeko modukoa iruditzen zaiona:

> «Si esta patriótica empresa de unificar la ortografía euzkérica fracasa por falta de seriedad y formalidad, nosotros señalaremos a los responsables para que el pueblo vasco lo conozca. Cumpla cada cual su deber: pase el Presidente la circular; contesten a ella los congresistas» (140).

Arbelbide eta Daranatzek, Arana preso zeno (141), Batzarrrik ez egitea proposatu bazuten ere, azkenean, Hondarribiako Batzarra egin zen, 1902ko irailaren 11n, hain zuzen, baina Aranarik gabe. Ez zuen defendatzerik izan, beraz, hara bidalitako bere ikuspuntua.

Broussain jaunak Arbelbideri 1902ko irailaren 19an idatzitako gutunean dioenez, erabateko porrota suposatu zuen:

> «Finalmente, después de haber votado penosamente los Estatutos, nos separamos en medio de un tumulto y de un lodazal espantoso, sin poder constituir un Comité definitivo. Yo espero que después de una parecida prueba de su insuficiencia los señores Adéma y Guilbeau tendrán el pudor de retirarse definitivamente y dejarnos tranquilos» (142).

Geroago, Batzar biak gogoratuz, Piarres Lafittek «debaldetan» eginak izan zirela esango du (143). Baina guk, ez erabat, diogu, zeren hango giroan sortuak baitira *Eskual-Zaleen Biltzarra*, batik bat Iparraldean indartuko dena, eta Euskaltzaindiaren kimua, asmoetan bederen, 1918an loratuko dena. Azken Batzar honetan onartu ziren *Eskual-Zaleen Biltzarra*-ren estatutuak, Batzorde-Zuzendaritzakoak izaki: Adema, lehendakari; Arana eta Kanpion lehendakariorde; Guilbeau, idazkari; Hiriart, diruzain; Daranatz, idazkari laguntzaile; Arbelbide, Azkue, Broussain, Gerra, Legaz eta Mujika, bokalak. Eta erakundeko kideak, berriz, 115 izango dira (144).

Mota askotako balorazioak egin daitezke Batzar famatu haien inguruan gertatuez. Horretarako helburu amestuak eta eginak bereizi behar, talde-interesak eta norberarenak, arazo linguistikoak eta bestelakoak. Hendaiakoan ezer gutxi lortu zela? Baiki. Han adostasunik lortu ez zelako, erabaki zen, hain zu-

(140) «Los Congresos Ortográficos», *La Patria*, 21, 1902-03-16; OC, III, 2144.or.

(141) Roosevelt lehendakariari 1902ko maiatzaren 25ean egindako telegrama zela bide, preso emana zuten 1902ko maiatzaren 30ean eta azarora arte, bost hilabete eta zortzi egunez, barruan egon zen, gaixorik egon ere (OC, I, XLIII).

(142) «Los Congresos Ortográficos», op. cit., 2145.or.

(143) OC, I, V.

(144) «Los Congresos Ortográficos», op. cit., 2150.or.

zen, bigarrena Hondarribian egitea. Zergatik? Agian, Aranaren erruz? Ez dirudi. Seguru asko zalaparta gehiago sortu bide zuen hitzaldi-aretotik Guilbeau idazkariak Julien Vinson euskalaria bortizki uxatu izanak, sortzez euskalduna ez zelako. Honek bere amorru guztia:

> «Encore le Congrès basque de Hendaye» izeneko artikuluan agertu zuen, eta ez arrazoirik gabe: «... vis-à-vis de l'Europe, le Congrès en question ne peut faire que triste figure: une réunion purement scientifique, n'ayant pour sujet d'étude que la langue basque, et d'où sont exclus MM. Schuchardt, Van Eys et moi, et quelques autres linguistes qui s'intéressent au basque, mais où prennent part seulement des gens nés entre l'Adour et le Nervion, dont deux ou trois ne parlent même pas la langue du pays, dont plusieurs n'ont rien écrit dans cette langue, et dont la plupart sont tout à fait étrangers aux études linguistiques! C'est véritablement grotesque et ridicule...» (145).

Sabinok ere jokabide horrekiko bere ezadostasuna azaldu zuen *La Patria* aldizkarian eta bere txostenean atzerriko hizkuntzalariei ateak irekita uzten zizkien.

Bigarrengoan ere ez zela erabakirik hartu? Hau ere egia. Zerbait lortu zen, halere: euskararen aldeko elkarte bati hasiera ematea eta Euskaltzaindiaren sorrerari bide irekitzea. Gaur onartutzat ematen da, Euskaltzaindiaren asmoa gehien bultzatu zuena Arana izan zela eta, Euskaltzaindia sortuko denean, funtsean berak proposatutako ortografi sistema onartu zela (146).

Sabino Aranari egin izan zaion kritikarik zorrotzena, beharbada, Batzarrean bere kide ez-gaituen bidez gehiengoa lortu nahi izanarena da, Kanpionek Guilbeau-ri gutun batean planteatu ziona: «Esto es muy grave, pues dentro de esa forma elástica, caben no sólo los pescadores de Elanchove, sino hasta las gentes que sólo sepan hablar castellano o francés y no sepan ni leer ni escribir» (147). Baina galdera beste modu honetara ere egin zitekeen: hara joatekoak zirenen artean aranazale ez ziren beste guztiak zientifikoak edo adituak ote ziren, bada? Bere buruentzat zientifikotasuna gordetzen zutenentzat ere izan zuen erantzunik Aranak, Guilbeau idazkariari egiten dion erantzune-

(145) RLPhC, XXXVI (1902), (82-85), 83 or.; Koldo Zuazok aipatua, op. cit., 273.or.

(146) Idazlan hauei hitzaurrea gaztelaniaz egiten dien Martin Ugaldek dakarren bezala, Hondarrabiako Batzarrerako idatziz bidalitako sistema grafikoari buruzko lana, orduan hain eztabaidatua izan zena izango da, hain zuzen, Euskaltzaindiak Oñatin 1918an onartuko duena, Azkue, Bonaparte, Oihenart, Darrigol eta Duvoisinen lanekin batera. Eleizaldek, Sabinoren jarraitzale hurbilekoenak, honela jasotzen du Euskaltzaindiaren egitekoa bere 6. artikuluan: «Trabajará preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, sintaxis y grafía, que nutriéndose de la savia de todos los dialectos nos permita disfrutar de una literatura comun» («Sabino de Arana Goiri», OC, I, XLIV). Lerro beretik arituz, hitzaurrea euskaraz egiten duen Lino Akesolok azpimarratzen duenez, askok Arana euskararen batasunaren areriotzat jo izan dute, baina oso ezjakinean, zeren «Bidasoaz andiko eta emendikoak egindako batzar jakiñ arek ez euken euskera batuagaz ikustekorik, euskaldidazkera edo ortografiagaz baiño, eta Arana tartean zala. Batzar aretan lortu ez zana, ortografi-batasuna, geroago lortu zan, Euskaltzaindia sortu zenean, eta Aranak erakutsitako bidetik» (Op. cit., I, XVII).). Biek, bada, gauza bera diote: Sabinoren lanetan ere oinarrituta egin zela, alegia.

(147) Gutuna Kanpionek Guilbeau-ri 1902-01-22an; OC, III, 2117.or.

an. Gertatzen dena da, Granja-ri bezala beste askori ahaztu egiten zaiela puntu honetaz Aranak ematen dituen argitasunak eta zehaztasunak irakurleari eskaintzea, gutxienik historiografiaren amorez zor zaion informazioa izan dezan: «1º. No todos los miembros del Congreso de Hendaya eran euzkerálogos o euzkerágrafos (*lingüistas y literatos de euzkera*, que dice M. Guilbeau). Entre los asistentes con voto a dicha reunión hay no pocos que ni se ocupan en estudiar el euzkera, ni han publicado una palabra euzkérica. No precisa citar nombres: todos los congresistas los conocemos (...) 2º. Ni todos los euzkerágrafos y euzkerálogos fueron convocados al Congreso de Hendaya. Tampoco citaré nombres, por no callarme alguno por olvido. Pero puedo asegurar que sólo en Bizkaya, podrían contarse más de media docena de individuos que estudian asiduamente el organismo del euzkera, y más de una que han publicado en esta lengua escritos de importancia. Y a los de Bizkaya habría que sumar los de otras regiones. 3º) Efectivamente: según mi plan, aprobado por el Congreso de Hendaya, la reforma ortográfica debía acordarse previo un estudio concienzudo: profundo, que dice el señor Guilbeau. No así según éste y los señores Adema y Campión, por acuerdo de quienes el Congreso se dividió en tres comisiones ponentes, pretendiendo que éstas, en el acto, aquel mismo día, en discusión oral, decidieran la unificación ortográfica, para que el Congreso en pleno, entonces mismo, lo acordase» (148).

Pasarte luze horrek gauzak asko argitzen ditu, historiografiaren aldetik bederen, gauzak nola gertatu ziren, gertakarien prozesua nola izan zen esaten baita. Eztabaida-maila honetan, alde batera utzita aranazaleek euskalaritzan izan zezaketen gaitasuna, jokabidearen gardentasunean datza arazoaren muina. Sabino Aranari ezingo zaio leporatu azpikeriaz jokatu nahi izan zuela, pasarte horretan agerian baitago ortografiaren arazoa Hendaiakoan, azken finean, lagun gutxiren artean trenkatu nahi izan zutela, aldez aurretik azterketalanik aurkeztu gabe, erabakiak ahoz hartuz.

Bestalde, ezin ukatuko da, ezta ere, Aranak bere irizpide ortografikoak zeuzkala, arras bereak, eta askotan –esan izan denez, argudio logikoaren indarrari zion fede itsuagatik–, ez zuela amore ematen jakin izan erabaki adostu batzuetara heltzeko testuinguruak zalutasun gehiago eskatzen zuen uneetan. Aranak ortografia eta fonetika garbiki ez bereiztean huts egin zuen eta badirudi, Azkuerekin izandako gutunezko harremanetan azaltzen den bezala (149), Hendaia eta Hondarrabiako Batzarretan sortutako kalapita horretan zetzala. Arana euskalariaren alderdi amoregaitz hori da, lehen emandako aipuetan ikusi bezala, geroztiko kritikak gehien azpimarratzen duena, Aranak bere irizpide linguistikoak bere itzal politikoarengatik ezarri nahi izan balitu bezala, eta hura ez beste guztiek, soilki euskal ortografian jantziak izaki, linguistikoa ez beste interesik izan ez balute bezala.

(148) «Los Congresos Ortográficos», op. cit., 2123-2124.orr.
(149) Irigoyen, Alfonso, «Del epistolario de Azkue», op. cit., 261-393.orr.

Batzar hauetako gorabeherak arras ilun eta nahasiak izan baziren ere eta horren errudun nagusi Arana Goiri egin bazuten ere, dena nazionalismoarekin nahasten omen zuelako, historiak erakutsi du bere jokabidea, zeuzkan iritzi ortografikoak onartzekoak izan ala ez, asmoetan bederen zuzenak zirela, garbiak. Izan ziren azpijokoan zikin asko jokatu zutenak, batean gauza bat esan eta bestean bestea egin, eta setakerian maisu izandakoak.

Batzar horiek zirela eta, esandakoek argi erakusten digute Iparraldeko zenbait euskaltzalerekin ez zuela harreman onik izan, bereziki Martin Guilbeau eta honen lagunekin. Ulertzekoa hau ere, Lafittek baitio horiek «Euskal Herriaz eta euskeraz bezain axolatuak zirela Frantses errepublikaren politikaz» (150). Baina baziren estimu handitan zeukatenak ere, horien artean Arbelbide kalonjea, Daranatz apaiza eta Manex Hiriart-Urruty bera. Arbelbidek Broussain-i 1902ko abuztuaren 21ean egindako gutunetik jasoa da pasarte hau: «Heldu den irailaren 11-ko biltzarrari buruz, erran dut joan den asteko bilkuran, demendreneko jendetasunak debekatzen daukula biltzar hori egitea, gure lehendakari-ordea eta Arana bezalako gizona preso deno. Daranatz ere gogo bereko agertu da» (151). Areago oraindik. Beste aurreko hori bezala, Piarres Lafitteri jasotzen diogu, beti «euskal teoriatik» urrun egondako Manex Hiriart-Urrutyk P. Broussain-i 1902ko ekainaren 12an egindako gutun-zati hau, Sabino preso zegoela egina: «Eta gure Arana!... Zer gizon harrigarria!... Berriz harekin has baledi gure Biltzarra (Hendaiako biltzar famatua) eta haren presondegian harekin elharetara baginte, gure Herriarentzat, gure mintzairarentzat, gure gizonentzat, euskal-ortografiarentzat, zer loria!... Bai ospe eta indar berri aurki lezakeela katakunba berri horietan, hain gaitzetsia ta hain bizitorea den gure mintzaira maiteak» (152). Beraz, Euskal Pizkundearen hastapen haietan Sabino bizkaitarrak mugaz haraindi ere izan zuen bere eragina, nahiz eta hango euskaltzale gehienak ez izan abertzaleak. Ordukoetan Aranak bi abertzale zintzo bederen aurkitu zituela dio Lafittek: bata Zuberoan, Albert Konstantin (1873-1957), eta bestea Pierre Broussain (1859-1920), biak medikuak, lehenengoa Aterratzekoa eta bigarrena Hazparnekoa.

Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Batzarraren ondotik Euskaltzaindia sortuko denean (1918), orobat, mende-hasierako arazo beretsuak –aldez politikoak aldez linguistikoak– berrituko dira aranazaleen eta besteen artean eta horiek euskaltzainak izendatzeko orduan islatuko dira, batez ere. Euzko Gaztediko istilu-sortzaileek prestatuta omen daukaten Hizkuntz Akademia baten eraketa-proiektuaz mintzatzaen zaio Azkue Julian Elortzari Oñatiko Batzarrekoan. Eleizaldek Broussaini 1918ko azaroan egindako gutunean, Erraimun Olabide ez onartzekotan, honen hutsunea betetzeko Ebaristo Bustintza eta Amantzi Urriolabeitia abertzaleak euskaltzainen zerrendan sartzea proposatzen dio:

(150) OC, I, op. cit., VII.
(151) Ibid.
(152) Ibid.

«Orain, gauza bat da egi garbia: gaur, Bidaso'tik aunantzeko Euzkadizatian behintzat, ez dago euzkelzaletasunik abertzale-artean baño, ez du iñork deusik egiten abertzaleak baño, ez dago iñon itxadopenik abertzaleengan baño. Beraz, Azkue'ri jarraitzearren, abertzaleak uzatzen ba'ditugu, ez degu gauza onurakorrik egingo. Ta abertzaleak ez dute Azkue maite» (153). Baina Jurgi Kintanak argitzen duenez (154), Azkue »Olabide bezalako sabindarrak akademian sartzeko prest» omen zegoen. Azkenean, guztira, hamabi euskaltzain izan ziren hautatuak, baina gehienak, Eguzkitza, Olabide eta Eleizalde salbu, Azkue lehendakariaren harikoak.

II. ARANA ETA ARANAZALEAK

Hona hemen Orixeren pasartea, aranazaleak indarrean zeuden garaian, 1927an, idatzia:

> «Sortu zen Arana ta esnatu da euskera ta inarrosi du burua bizkor. Politikaz txintit eztizut aterako, ezpaitagokit: euskeraren esnatzeari nagozu. Mintzatu zen Bizkaia, ta itzetik ortzera 'inbido' otsegin zigun beste euskaldunei. Gogonduri ta buru-ernari gelditu zen alditxoz Gipuzkoa, ta atzenik 'ordago' iardetsi. Yokua 'euskera' izaki, alegia, ta Laphurdi'k 'iduki', eskua zedukalakoan. Arana gabe edo Arana'z leku ari izanak eta ari direnak badituzu, baino Arana-kukuak, ua dute eragile nola edo ala» (155).

Artean mende-laurdena betetzekoa zen Orixek pasarte hori idatzi zuenean 1927an. Aranaren enbidoa Euskal Herri osora zabaltzen da Bilbaoko zulotik, baita Iparraldera ere. Eta han euskara kultur hizkuntza izatea nahi duten aranazaleen euskara-ereduari Lapurdik, herri-literaturari atxikirik segitzen duenak, eduki egiten dio, mus-jokoan eskutik izateak ematen duen ziurtasunarekin. Orixek, hori idaztean, seguru asko, gogoan du Hendaia eta Hondarribiako Batzar sonatu haietan gertatua. Jokoan zegoena zerbait serioa zen, euskararen historian epealdi berri bati eragingo ziona, Larramendirena baino areago joango zena, euskara, artean baserritar eta arrantzaleen hizkuntza zena, hizkuntza modernoa, zernahitarako gaitua, egitea baitzen azken xedea. Elias Agirrek gerraurean idatzitako:

> «El Euzkera, idioma de cultura» artikuluan espreski formulatua dator ideia nagusi hori: «Desde que Arana-Goiri comenzó a neologizar conforme al genio del euzkera, éste es vehículo apto para toda clase de ideas, ya sean científicas, ya artísticas. Si el euzkera hasta hoy no ha servido de vehículo científico no es porque no valga para ello, sino simplemente porque no se le ha usado» (156).

---

(153) Jurgi Kintana Goirienak aipatua, in *Bizkaytik Bizkaira? R. M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)*, Euskaltzaindia, BBK fundazioa, Bilbao, 2002, 151.or.

(154) Ibid.

(155) Orixe, *Euskal literaturaren historia laburra*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2002, 73.or.

(156) *Euzkerea*, IX, 1935, Orrila-Bagila, 575.or.

Mugimendua ibiliz frogatzen den bezala, euskarak edozein adierazpenmotatarako baduela berezko gaitasuna frogatzeko, Sabino Aranarekin aupatzen den Euskal Pizkundean lortzen diren emaitzak aipatzen ditu, nola literaturan hala prosa zientifikoan, bereziki irakaskuntzarako egindako testuliburuetan. Desberdintasunak hizkuntzaren berrikuntzari dagokion puntuan sortuko dira, eta maila honetan, euskara garbiaren nolakoa izango da aranazale garbiak eta besteak bereiziko dituena.

Testuinguru honetan kokatu behar da, batetik, *Euskaltzaleak* elkartea, Primo de Riveraren diktaduraren garaian sortua, 1926an, Arrasaten egindako Euskal Egunaren ondotik. Elkarte hau, beste leku batean aztertua dugunez (157), Abadiak Lapurdin 1853an abiatutako Lore-Jokoen tradizioari segida ematera zetorren eta 1920ko hamarkadan indartsuen Gipuzkoan ageri zen. Bizkaian, EAJ-Aberrikoen bidetik, beste elkarte bat sortuko da, *Euzkeltzale-Bazkuna* deitua, eta Aranaren jarratzaile hertsienak izango dira hor kokatuko direnak. Guk, batez ere, elkarte horrek argitaratzen duen *Euzkerea* aldizkariaren eta egiten dituen beste lanen berri ematera mugatuko gara eta, bide batez, RIEV ere aipatuko dugu, Aranak Kanpionekin hasitako eztabaida hor luzatzen baita, baina oraingoan beren buruak Aranaren oinordekotzat dauzkatenekin. Kanpionek badaki nortzuekin ari den teke-mekean. Aranaren eskola euskaralogikoaren arrakasta funtsean berak sortutako Alderdiari zor zitzaiola esaten baitzen han eta hemen, haren euskalaritza arrazoi zientifikoetan baino gehiago politikoetan oinarritzen zela, alegia, aranazale hauek beren maisuaren euskarari buruzko iritzi nagusiak gizarteratzeari gogor ekingo diote, abertzaletasuna eta euskaletasuna elkarri lotuz.

1. EZTABAIDAK ARANAZALEEKIN

1.1. Oraingoan lastabalari sua Kanpionek ematen dio, Azkain-ek 1907ko otsailaren 19ko *El Pueblo Vasco*-n «Euzkadi» hitza errebindikatzen duela eta, haren esaldi bat hizpidetzat hartuz, ez inori erantzunez, Kanpion (158) bost orrialde t'erdiko artikuluarekin ateratzen da *Euskal Herria* hitz zaharraren alde, haren erabilera behetitzen doalako. Baina behetitzen batere arrazoirik gabe. Kanpionen ustez, herriek beren izena beraiei dagokien ezaugarri berezi batetik hartzen dute eta belaunez belaun eusten diote, nahiz elementu bereizgarri hori ez bat etorri adierazten duen errealitatearekin. *Ingalaterrari*, adibidez, «angloen lurra» izatetik datorkio izen hori, orobat, «frankoena» izatetik *Frantziari*, nahiz horien hizkuntzatik frantsesak ez dituen ehun hitz baino gehiago hartu. *Nafarroa*, era berean, Euskal Herriko beste herri gehienen antzera, hitz topografiko bat da, horixe soilki, etimologiaren aldetik honela zatitzen dena: *naba* = mendien ondoko lautada, eta *erri* = pueblo. Noski, mendien ondoko lautadez

(157) Iztueta, Paulo, *Orixe era bere garaia*, Etor-Eusko Jaurlaritza, Donostia, 1991.
(158) «Sobre el nuevo bautizo del País Vasco», RIEV, I, 2, 1907, 148-153.orr.

gain, Nafarroako lurraldeak baditu mendi garaiak ere, haran meharrak ez gutxiago. Izan liteke Euskal Herriaren kasuan ere, hitz hori, «euskararen herria», alegia, hitz egokia ez izatea, zeren, zentzu hertsian, hizkuntza hori mintzatzen den herriari bakarrik aplikatu beharko bailitzaioke. Baina horrelako hitzak zentzu zabalagoan ere hartu ezinik ez dago eta, Euskal Herriaren kasuan, hitz honek euskaraz egiten den eta egin zen herria adieraziko luke.

Honaino *Euskal Herria* hitzari buruzkoa. Eta *Euzkadi*, zer? Hitz berri hau, berez, ez da *Euskal Herria* bezain garbia, eta ez da garbia, zeren azken hau euskaldun guztiek ezagutu eta erabiltzen duten bitartean, hark azalpen bat eskatzen baitu. Beraz, ondo asmatua denetz arazoa alde batera utzita, ez dago berri bat asmatzen ibili beharrik lehendik daukagunak gure izatearen berri ematen digunean (159). Euskal Herria hitzak ez duela euskal lurralde osoa besarkatzen, euskaldunena bakarrik, eta, ondorioz, hitz desegokia dela euskal nazioa adierazteko? Galdera honentzat ere badu erantzuna, eta da, adibide bat jarriz, Olite eta Lizarrako jendeari Euzkadi Euskal Herria bezain arrotz egingo zaiola.

Aldizkari bereko hurrengo zenbakian (160), *euzkera* hitzak «euzkoen hizkuntza» esan nahi omen duelako, *s*-rekin ez, baizik *z*-rekin idatzi behar dela dioten aranazaleen kontra ateratzen da, eta hauen artean espreski Jose Arriandiagaren kontra (161), eta, aldi berean, baita haren erabilera asmatu zuen Aranaren kontra ere. Hemen Aranak 1901eko martxoko *Euzkadi*-n argitaratutako «Euzko» artikuluan (162) dakartzan atalak banan-banan aztertzen ditu. Funtsean, eztabaida *euzko* eta *era* etimologien gainean da, zeinetatik eratortzen baitira *euzkera* eta *erdera*, hitzak honela elkartuta: *euzko* = vasko eta *era* = lengua o palabra, etimologiaren aldetik, *euzko* hitza *eguzki*-tik letorkeelarik eta *era*, berriz, *ele*-tik. Ondorioz, *euzkera* hitzak «lengua de la nación vaska», edo «lengua del vasko», adieraziko luke, eta *erdera* hitza, berriz, «lengua extranjera» izango litzateke (163). *Euzko* erroan oinarrituta, dedukzioz ateratzen ditu besteok ere: *Vizcaya, Orozko, Amezkoa* eta *Gipuzkoa*.

Kanpionek, irizpidetzat literatura idatzia hartuta, esango du *euskara* hitza *s*-rekin idatzi izan dela: *heskuara, eskuara, heuskara, euskara, euskera, eskoara, uskara*, etab. Hala izan bada, honek esan nahiko luke entzule guztiek hitz hori hots horrekin entzun zutela. *Euzkera* hitza ez da agertzen euskal literaturan. Datu hau konstatatzetik hasi behar da. Eta bigarrenik, etimologia azken

(159) «Con el nombre de Euskal-Erria desaparece, a una, el nombre de euskaldun; a pretexto de restaurar nuestra personalidad vamos borrando la huella que el gigante dejó sobre el suelo sangriento de la historia» (Ibid., 151-152.orr.).

(160) «Defensa del nombre antiguo, castizo y legítimo de la lengua de los Baskos contra el soñado Euzkera», RIEV, 3, 1907, 217-241.orr.

(161) Egile honek *La Gaceta del Norte*-n idatzitako «De Euzkarología» lana aipatzen du, 1906-01-1ekoa, non euskaraz fonetika eta ortografia finkatzeko etimologiara jo behar dela sostengatzen baitu.

(162) *Euzkadi*, 1, 1901- Marzo; OC, III, 1783-1785.orr.

(163) Ibid., 1784.or.

oinarritzat hartzeari dagokionez, bide horrek indarrean dauden ohiko hitzak utzi eta egiazta ezin daitezkeen osin hipotetikoetan murgiltzera garamazke. Ate hori irekiz gero, irudimenak zernahi asma dezake. Hirugarrenik, Aranaren arrazoiketa logikoak balio lezake dedukzio bidez, *euzko + era* etimologiaren kasuan bezala, baldin lehen premisa –induzioaren unea– egiaztatua balitz. Nola frogatzen da *euzko*-ren jatorria *eguzki* dela? Kanpionen ustez, etimologien gaian zientifikotasunez jokatzeko, asko jakin behar da, garai hartan horretan zihardutenek zekitena baino gehiago: «El etimólogo basko realmente científico, sólo será posible mediante un conocimiento más completo del euskara que el que hoy nos es dable alcanzar; hasta entonces, las etimologías serán tanteos, sugestiones, avances, desbrozamiento de terreno» (164). Jakintsuena da umilak izaten jakitea. Bestalde, *–era* atzizkiari dagokionez, Azkueren hiztegian oinarritzen da, modua, usantza (*manera, modalidad, usantza*) adierazten duela esateko (165). Kasu honetan, euskaldunen hitz egiteko modua, ohitura, izango litzateke. Gainera, hizkuntza adierazteko, hortxe daude «izkera» eta «mintzara» hitzak ere.

Kanpionen artikulu luze honi beste luzeago batekin eman zion arrapostua aita Manuel Arriandiagak aldizkari bereko iraileko zenbakian (166), eta ez, berak espero bezala, Jose Arriandiaga laikoak, hau baitzen berarekin eztabaidan sartu zena eta berak bere aurreko artikuluan espreski aipatzen zuena. Klaretiarra puntuz puntu ezeztatzen ahalegintzen da nafarrak azaldutako argudioak. Onartzen du, ukaezina baita, literatura idatzian eta ahozkoan, euskara *s* fonema txistukariarekin idatzi eta ahoskatu izan dela. Aranak berak ere, hori bazekielako, hasieran hala*x*e ahoskatu eta transkribatu zuen. Baina forma hori egiazkoa ala itxurazkoa den, hots, bere jatorrian hala zenetz jakitea da kontua. Eta hau etimologiak erakus dezake. Arazo hauxe da, hain zuzen, Aranak argitu nahi izan zuena eta aranazaleek berretsiz segitzen dutena. Bat: Manuel Arriandiagarentzat, *era* hitz substantiboak hizkuntza esan nahi du eta bera da *euzk + era* eta *erd + era* hitz konposatuek batera duten elementu morfologikoa, edota bere hiztegia erabiliz, bera da elementu espezifikoa zehazten duen hitz generikoa. Bestalde, *euzko*-ren etimologiaz, Aranaren argudioa errepikatzera mugatzen da, *Amezkoa, Orozco, Guipúzcoa* eta *Vizcaya*-ren kasuan ere erro bera aurkitzen dela esanez, baina bere arrazoiketan behin eta berriz «probable», «verosímil» eta horrelako terminoak erabiltzen ditu (167), datu histo-

(164) «Minuta», *Bizkaitarra*, 6, 1894-02-28; OC, I, 241.or.

(165) «Mi objeto es otro. Poner fuera de duda que la demostración de significar *era* lengua es deficientísima y que tanto *era* como *ara* son índices de modalidad, o simples terminaciones formativas» (Ibid., 223).

(166) «¿Euzkera ala euskera?», RIEV, 6, 1907, Noviembre, 642-672.orr.

(167) Esaldi asko datoz horrela formulatuta: «Es difícil averiguar la etimología cierta de *euzko*. Con todo, no deja de ser probable la presencia del elemento radical de *egun* y *eguzki* en dicho vocablo» (Ibid., 660 or.). Beste batean: «El pueblo vasco es probable que vino del oriente tal como es, vasco. Luego es muy verosímil la etimología de *euzko, eguzki* = el de la luz o región de la luz, el de oriente» (Ibid., 661.or.).

riko berri eta fidagarriak ekarri gabe. Bi: ez da egia Aranak aldez aurretik frogatu gabeko printzipio orokorra formulatuz gero ateratzen dituela bere ondorioak, *a priori* arrazonatuz, alegia, zeren bere lanetan azterketa analitiko-deskriptiboak egin eta gero iristen baita azalpen sintetiko-deduktiboa egitera. Baina Aranak bere une deskribatzailean erabilitako argudioak argitu eta indartzeko balio zezaketen froga historiko berririk ez dakar, eta hori zen Kanpionek eskatzen zuena. Hiru: *–era* edo *–ara* atzizkiari dagokionez, dio, Azkuek esanahi bat baino gehiago eman dizkiola, lau bederen bai; hori batetik, eta bestetik, Aranaren defentsan *euzk-era* hitz konposatua edo elkartua dela frogatzeko, baieztatuko du *–era* hitzak, *ele*-tik datorrenez gero, berez duela esanahia, ez baita bere esanahia ez duen hitz osatzailerik. Eta nola *–era* hitza *ele*-tik datorrela frogatu ezinik ez dagoen metatesi-fenomenoaren bidez, zeinaren arabera euskaraz sarritan gertatzen baita *l* hizkia *r* bihurtzea, zuzena –logikoa– da, horri lege etimologikoa aplikatuz, *era* (ele) kasu honetan hizkuntza dela ondorioztatzea.

Laburbilduz, galdera euzkera ala euskera baita, ateratzen duen azken ondorio nagusia, hauxe da:

> «La forma *Euskera* es legítima y no engendra confusión: luego es admisible. Pero es preferible la forma *Euzkera*: a) porque conviene conservar el sonido silbante dental en todos los casos reales o primitivos y restaurarlo en los perdidos, ya que, en Bizcaya al menos, tiende a desaparecer: g) porque en sonidos afines, como lo son la *s* y la z, el vulgo indiscreto no es nuestro maestro, sino el instruído debe adoctrinar y guiar a aquél. Luego la forma *Euzkera*, además de ser real y primera, no soñada ni fantástica, es preferible a la forma *Euskera*» (168).

Aita Arriandiagaren kontraerantzunak berriz luma hartzera behartzen du Kanpion, eta zenbaki berean egiten du euskera formaren aldeko bigarren defentsa, artikuluaren izenburua errepikatuz (169). Hemen, aranismoak proposatzen duen irizpide etimologikoa hizkuntzaren erabilera arruntean aplikaezina dela frogatzeko, beste kontzeptu bat sartzen du tartean, esanez hizkuntzen berezko eboluzioan gertatzen diren hitzen aldaketak jatorrizkoak bezain legezkoak direla eta, beraz, onartu beharrekoak. Jatorrizko formak lehenestearen printzipioak, logikaz, gaztelania, frantsesa, portuguesa, italiera, katalana, etab. utzi eta, latina berreskuratzea suposatuko luke, jokabide absurdoa litzatekeena (170). Gainera, Aranaren eskolan egin ohi den hitzen egiazko formen eta itxurazkoen arteko bereizketa horrek, urrunenik ere, ustezko ondorioak atera-

(168) Ibid., 671-672.orr.

(169) «Segunda defensa del nombre antiguo, castizo y legítimo de la lengua de los Baskos, contra el soñado Euzkera», *RIEV*, 6, 1907, Noviembre, 673-698.orr.

(170) «Una cosa es la erudición, y otra el uso. La noticia de que *euskera* proviene de *euzkera*, tendrá su puesto adecuado en el diccionario histórico y etimológico del baskuenze; pero sacarla de allí, e ingerir el vocablo *euzkera* en el lenguaje corriente y moliente, delata cierta mentalidad de visionarismo y fantasía que Dios haga no penetre en otras esferas del nacionalismo, distintas de la lingüística» (Ibid., 675.or.).

tzera eraman gaitzake (171). Eta halaxe egiten du Manuel Arriandiagak, bere maisuak esana errepikatuz, ez baitu frogatzen «nazio-hizkuntzako izen guztiak *hizkuntza* substantiboaz osatuak daudela» dioen proposizio unibertsala legezkoa dela. Horregatik, lehen premisa onartezina denez gero, egia ez delako, haren arrazoiketa hankaz gora doa bere osotasunean (172).

Aranazaleek zirikatu egiten baitute, erantzun beharrean aurkitzen da Kanpion, baina irakurleak jakinaren gainean jartzen ditu, min ematen diola Aranaren iritziak ezeztatzen ibili beharrak, nahiago bailuke haren izena aupatzea, ez bakarrik euskalari bezala, baita, eta batez ere, nazionalismoaren sustatzaile bezala ere. Euskalaritzan, adinarekin azterbidean eredu zientifikoaren arabera jokatzeak kenduko zion hipotesi ausartegiak egiteko zeukan joera. Irakurtzekoa da, bizitzan hainbeste borrokatu eta gero, Kanpionek *post mortem* Aranaz idazten duena:

> «Mas la importancia y la gloria del Sr. Arana y Goiri no fluyen de haber inventado a *Euzkera, Euzkadi* y los *Euzkos*, sino de haber suscitado el nacionalismo, no ciertamente porque crease *exnihilo* la doctrina nacionalista, ni porque ésta, tal y como formuló, sea invulnerable en todas sus partes, sino porque a esta doctrina, que es un alma, la encarnó en un cuerpo vivo, y esto lo consiguen sólo los que recibieron del cielo el don del apostolado, es decir, el don de irradiar, fuera de sí, las grandes ideas de la mente y los nobles sentimientos del corazón» (173).

Egia esateko, eta oso barrutik, esaldi batean Aranaz esan eta idatzitakoetatik ez dugu beste ezer hoberik inon kausitu. Sekulakoa da. Euskalaritzarako gaitasun handia zuela erakutsi zuen bere lanetan.

1.2. RIEV aldizkarian zetista eta seisten arteko liskarra pizten den urte berean, Sabino Aranaren izendegia dela eta, beste eztabaida bat kaleratzen da, bere garaian izan zuen garrantziarengatik gaurko bibliografiak ere jasotzen duena (174). Kontu jakina da 1906an Gasteizko gotzain izendatua izan zen Cadena y Eleta-k, Pitillas-ko nafarrak, beren haurrentzat hala eskatzen zuten haurrei euskal izenak ipintea debekatu zuela eta jokabide honek euskal nazionalisten hasarrea piztu zuela. Luis Eleizalde izango da eliz hierarkiari aurpegi emango diona, gurasoek beren haurrei euskal izenak ipinteko eskubidea dutela errebindikatuz. Azkue sartzen da eztabaidan, Aranaren izendegia erabat berritu behar zela esanez eta, ondorioz, sorreran arazo politikoa zena linguistiko bihurtuz, ze-

(171) «Ese sistema es un castillo de naipe; presupone el conocimiento de las formas etimológicas y primitivas» (Ibid., 678.or.).

(172) «De donde saco la consecuencia que cuantos, y singularmente hablando en baskuenze, dicen *Euzkadi, euzkotar, euzkera*, en vez de *Euskal-Erria, euskeldun, euskera* o sus formas equivalentes comunes, cometen un atentado gravísimo contra la lengua que dicen amar y reverenciar» (Ibid., 697.or.).

(173) Ibid.

(174) Lopez Anton, Jose Javier, «El debate sobre el *izendegi* sabiniano. Una visión retrospectiva de la cultura vasca en 1907», *Sancho el Sabio*, 6, Gasteiz, 1996, 137-154.orr.

ren hori aldarrikatzean, Kanpionek Serapio Mujikari 1912ko abenduaren 4an egindako gutunean idazten dion bezala (175), Azkue Gotzainaren esanera jokatzen ari baitzen. Izendegiaren berrikuntzarako, bada, eliz agintariek batzorde bat izendatu zuten, parrokietan erretore jaunek «behar bezala eratutako euskal izenen zerrenda izan zezaten». Eleizaldek ez zuen begi onez ikusi jokabide hori eta joku horretan Azkueren eta honen lagunen eskua ezkutatzen zela iruditu zitzaion. Hiru dira hor saltseatzen dabiltzanak, Txomin Agirre, Karmelo Etxegarai eta Julio Urkijo, hurrenez hurren, honela deskribatzen dituenak: «Uno de ellos que habla y escribe bastante bien euzkera, pero es un carlista furibundísimo, otro que no es carlista y habla y escribe el euzkera, pero no bien y que debiendo escribir crónicas no las escribe, y el tercero que ni habla ni escribe el euzkera, pero habla y escribe acerca del euzkera» (176). Eleizalderentzat horietatik inork ez bide du autoritate linguistikorik Alderdiak (177) proposatutako euskal izenak «mote» batzuk besterik ez direla esateko. Urkijori ez dio inork eman euskalari-patenterik, Karmelo Etxegaraik ez du gai horretan ezagutzarik, Txomin Agirrek euskarazko bi nobela ditu. Autore hauek, azken batean, Aranaren euskara-eredua, garbizalekeria, alegia, zen auzitan jartzen zutena, zeina islatzen baitzen, ez bakarrik izendegian, baita hiztegian bertan ere.

Egia esan, Sabino Arana hil ondoko lehen urte haietan ez ziren gozoak izan abertzale eta euskaltzaleen arteko harremanak. Jose Arriandiaga (Joala) jeltzaleak sabindar eredura makurtzen ez ziren euskaltzaleen kontrako kanpainari ekin omen zion 1906an, Azkueren hiztegia kritikatzeraino ekin ere (178). Julio Urkixok RIEV sortu zuenean 1907an, Karmelo Etxegaraik Azkueri 1907ko martxoan egindako gutunean kontatzen dioenez, egile hori bera aldizkari horren kontra oldartu omen zen berehala. Azpeitiarrak «poseido», «ensabinado» eta horrelako perlak botatzen dizkio, ironiaz baino gehiago trufaz, literatur pieza batean haren kontura irri egiteko beta hartuko duela iragartzen baitu (179).

(175) Tellechea Idigoras, José Ignacio, «Cartas inéditas de Arturo Campión a Serapio Múgica (1899-1921)», *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'*, XVIII-1, 1984, 27 or.

(176) Lopez Antonek aipatua, op. cit., 144.or.

(177) Luis Eleizaldek sarrera bat eginez berrargitaratzen du Sabino Aranaren *Deun-ixendegi euzkatarra. Santoral vasco o sea lista de nombres euskerizados de los Santos. Comisión Bizkaína de Euzkera del Partido Nacionalista Vasco* (Imprenta y Encuad. Bilbao Marítimo y Comercial, Bilbao, 1910).

(178) Hala jakinarazten dio Azkuek berak Toursetik Antonio Arrizubieta adiskide karlistari 1906an egindako gutunean: «Vamos a Joalear un poco. Te agradezco tus cariñosas frases al tratar de los ataques de que soy objeto. ¿Quién sabe si el Señor me proporciona el sabinismo o joalismo como de purgatorio? Si es así, bien venidos sean los Joalas y atáquenme y échenme por los suelos. (...) verás que has tenido razón al creer que no es otra cosa sino la envidia lo que les mueve a los chicos del nacionalismo a hablar contra mí» (Jurgi Kintanak aipatua, op. cit., 111.or.).

(179) «Dejaré pasar tiempo, pues tarea más árdua me absorbe en estos momentos; y entonces, si los *euzkos* y *euzkadis* no hubieran caido por el peso de su ridiculez como cayeron los *euskerias*, *vaskos* y *jelas*, desenfundaré mi sátira en *Esteban Zoro* y creo que tendrán ocasión de reirse hasta aquellas graves matronas que noche y día hacen oficio de porteras en el Ayuntamiento de Bilbao» (Ibid.).

Erasoa, ordea, alde bietakoa da. Koldo Eleizalde, *Euzkadi* egunkariko zuzendaria, biziki hasarretzen da Julio Urkixoren RIEV aldizkarian Arturo Kanpionen «Un bautizo» artikulua argitaratzen duelako, «Uchin de Mendaur» ezizenpean ezkutatuta, zeinetan, orokorrean sistema aranistaren irizpide etimologikoak eta neologismoak kritikatzearekin batera, Urkixok proposatutako *eliza* erabiltzearen aldekoa agertzen baita (180). Eleizaldek *txadon*-en aldeko aukera egina zuenez, salatua sentitzen da eta, ondorioz, elkarren arteko harremanak etenda geratzen dira. Eztabaidaren espiralean, honako hau aurpegiratu zion, antza, bilbaotarrak bergararrari:

«¡Cuando Vd. firme Txadonalde'tar Koldobika yo aceptaré txadon!» (181).

Denboraz, Eleizalde joeraz aldatzen joango da neologismoen kontuan:

«Cuando escribí el *Euzkotarren ixendegia* estaba de acuerdo con Sabino Arana, pero luego lo rectifiqué» (182).

Zergatik ote euskaltzaleen artean horrelako kalapitak? Azkueren ustez, esan bezala, bekaizkeriagatik dena, ez beste ezergatik. Txomin Agirrek ere hitz berbera erabiltzen du Azkueri 1907an egindako gutun batean: «envidioso» (183).

Tartean bekaizkeria egongo zela, seguru. Baina hau bezain segurua da, halaber, norberaren zipozkeriaz gain, arrazoi linguistikoen ondoan politikoak ere aurkitzen zirela, azken hauek ez nolanahikoak ere, elkar-guruzatzen zituzten gutunetan garbiki islatzen den bezala. Okerrena da, azken maila hauetan ere, setakeria, dogmakeria, politikeria eta gisakoak, gehienetan, ia beti ez esatearren, alde batean bakarrik egoten direla.

Euskal izendegiaren arazora itzulita, orduko eztabaidaz egun egiten den irakurketen artean bat, hauxe da: euskaltzetasuna politikarekin nahastu zela edo, bestela esanda, jeltzaleek –kasu honetan Eleizaldek– arrazoi politikoez baliatu nahi izan zutela sabindar izendegiaren defentsan. Besteek, aldiz, hizkuntza arrazoiek zituzten gidari bakar. Horrela, berez linguistikoa zen arazoa politizatzen ahalengintzen diren gotzain nazionalista espainolistaren eta nazionalista jeltzaleen erdian, esaten da bi ertz politizatu horiek –politikoa eta kulturala– gainditzera zetorrela, hain zuzen, euskalari-sektore hori. Euskaltzale-mulzo hau biderdian kokatuko da, beraz: batetik, Gotzainaren kontra euskal kulturaren

(180) RIEV, IV, 1910, 324-326.orr.

(181) *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Literatura*, II, Auñamendi, Donostia; Esteban Antxustegik aipatua, op. cit., 38.or.

(182) «Odon Apraiz jaunaren hitzak», Revista *Euskera*, XXIV, 1978-2, 878.or., Esteban Antxustegik aipatua, op. cit., 39.or.

(183) «¿Hay tanto envidioso! Sábete, querido, que no hay ni un sólo carlista que no te ensalce, pero en cambio los *bizkaitarras*... Mucho ¡*Gora Euzkadi*! Y luego a reventar a los que más hacen en favor del País. El grito ¡*gora Euzkadi*!, en último término, no es otra cosa que un ¡viva yo! en boca de todos los que lo profieren» (Jurgi Kintanak aipatua, op. cit., 112.or.).

berezitasunak onartzen ez dituelako, baina, bestaldetik baita euskal nazionalisten kontra ere, hauek Aranaren izendegian oinarritzen zirelako. Batzuetan horrela tipifikatzen da eztabaidaren gunea, alde batean leudekelarik ertzeko bi nazionalistak –Eleizalde jeltzalea eta Gotzain espainola– eta bestean beren arrazoiak euskalaritzan bakarrik oinarritzen dituzten euskaltzaleak. Ertzeko bi jarrera horiek euskara eta euskal kultura instrumentalizatu besterik ez dute egiten, agian ohargabean, baina egiazki. Nolanahi ere, hitzaldiaz geroztik Jurgi Kintana historialariak gutun baten bidez jakinarazi digunez, izendegiaren kasu honetan, badirudi eztabaidan parte hartu zutenek beren iritzia *motu propio* eman zutela, alderdi jakin baten agindura jokatu gabe. Kanpion nahastu egin zen, antza, Azkuek apezpikuaren esanetara ziharduela esatean (184).

Irakurketa hau egiten dutenentzat garbi dago zein den bide zuzena: euskararena despolitizatzea, alegia. Politika norberaren ideologiari dagokion zerbait da, zerbait partikularra; kultura, aldiz, komunitate baten ondarea, zerbait kolektiboa (185). Zentzu honetan, kulturaren eta politikaren arteko bereizketa hori egin zutelako, hain zuzen, eredutzat jartzen dira euskal kulturan nor izan diren batzuk, hala nola Julian Elorza, Azkue, Pierre Lhande, Juan de Iturralde y Suit, Wentworth Webster, edo berriagotan, Julio Caro Baroja, edo Jose Migel Barandiaran bera. Fundamentalismorik ez da behar: hau da mezua. Euskal kultura salbatuko bada, pragmatismo hutsaren eskabidez, euskalgintza despolizatu beste biderik ez da, J. J. Lopez Antonen ustez:

> «Desvisceralizar la cultura vasca y despolizarla era un deber» (186). Gure aurreko euskaltzaleek, antza, hala jokatu omen zuten.

2. EUZKELTZALE BAZKUNA ETA *EUZKEREA*

2.1. Euzkeltzale-Bazkuna

Euzko-Gaztedija, EAJko gazteen adar nazionalista, Bilbon sortzen da 1904ko urtarrilaren 3an, eta handik laster, batez ere 1908tik aurrera, Euskal Pizkundearen eragile bilakatzen da, *Euzkeltzale-Bazkuna* elkartearen inguruan

(184) García Trujillo, Sebastián, *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre*, Instituto Diocesano de Teología Pastoral, Bilbao, 1993, 127-129.orr.

(185) Hala irakurtzen da J.J. Lopez Antonen pasarte honetan: «Y entre los dos fuegos, como siempre, los que defienden la cultura autóctona, sin manipulación alguna, frente a los fundamentalismos en liza, procedan de los adversarios encubiertos de objetividad o los apologistas excesivamente entusiastas. Pero es que el folklore, la historia, las costumbres, las leyendas o canciones legadas por los antepasados, nada tienen que ver con la política, que afecta a la esfera particular de cada individuo, mientras que el acervo de una comunidad pertenece a todos los miembros de la misma» (Op. cit., 149.or.).

(186) Ibid., 154.or.

hainbat kultur ekintza antolatuz: hitzaldiak, antzerkiak, ikerketa-guneak, euskarazko eskolak, mitinak, mendigoizaleen txangoak, etab. Sabino Aranaren –batez ere, lehen garaikoaren– herentzia abertzale eta euskaltzaleak eraginik sakon eta iraunkorrena gazte hauen gogo-bihotzetan izango du. Horiek izango ditu jarraitzalerik sutsuenak, eta zenbait puntutan baita itsuenak ere. Bilbaoko gazte abertzale hauek izen bereko aldizkari bat sortu zuten 1913an, kirolleku bat ere eraiki zuten, «Kirolokieta» izenekoa, erakundeko gazteek beren kirola egin zezaten. Orobat, *Euzko Deya* aldizkariaren sorrera ere elkartearen emaitza da, bi epealditan zehar luzatzen dena, lehenengoan 1916tik 1918ra, eta bigarrenean 1921etik 1922ra. Bi aro hauen bukaerak gobernu-zapalkuntza dute mugarri.

Baina 1918an, lehen mundu-gerraren ondotik sortzen den errepresiogiroan, erakundeari beren egoitzak itxi zizkioten, berriro handik urte t'erdira irekitzeko. Familia nazionalistaren barruan jadanik desadostasunak agertzen hasiak baziren ere Gasteizen 1917ko abenduan egindako Batzarrean, erabateko etena 1921etik aurrera gertatuko da, beste arrazoien artean, gazte hauek Comunión-ekoak baino jarrera abertzaleagoak eta sozialistagoak sostengatzen dituztelako, garbiki euskal independentzia aldarrikatuz eta atzerriko mugimendu antikolonialisten lerroan kokatuz. Primo de Rivera gobernu-buruaren diktadurak EAJ-Aberrikoen egoitzak 1923ko irailean itxiko ditu berriro eta harrezkero, Comunión Nacionalista-koek *Euzkadi* egunkari elebiduna orain gaztelaniaz argitaratzen segituko duten bitartean –euskaraz egitea debekatua zegoelako, hain zuzen–, EAJ-Aberrikoen kultur jarduerak zein politika-ekintzak itzalera kondenatuak izango dira eta gidarietako batzuek erbesterako bidea hartu beharra izango dute. Testuinguru honetan kokatu behar da *Euzkaltzale-Bazkuna* elkartearen berpiztea eta honen gerizpean sortu eta gorpuzten den *Euzkerea* aldizkariko idazle-taldea 1929ko urte-hasieran. Euskal Pizkundearen abiada bizkorrean, 1920ko hamarkadan, ondo zehaztu beharreko argilunez pintatua da familia nazionalistaren koadroa, batez ere, Bizkaiko partean. Hemen arras presente dago orokorrean Aranaren gogoa, hark ereindako nazionalismoaren hazia. Baina, askotan esaten bada ere, gaur ozenki esan dezakegu, orduko ez Arana bat, baizik bat baino gehiago errebindikatzen dituztela: batzuek lehen aroko Arana independentista eta garbizalea, beste batzuek azken aroko Arana autonomista eta ez hain garbizalea. *Euzkerea*-koek, hain zuzen, lehen Sabino erasokor hura, politikagintzan sartu aurreko teorilari ausart hura, bereganatuko dute, ez presodengiak eta politikagintzan nozitutako sofrikarioek –eta, agian, emaitzen eskasiek– legalitate espainolera makurrarazten duten Sabino eraldatu hura, «Liga de Vascos Españolistas» harekin zehazki zer eraiki nahi izan zuen argitzeke joan zen hura, zeinaren interpretatzaile nagusi, ez Luis bere anaia, baizik Kizkitza izango baita, gehiengo nazionalista autonomismoaren bidetik gidatuko duena, beti ere legalismoak ahalbidetzen duen neurrian. Biziki argigarriak dira aita Mauro beneditarrak, Kizkitzaren omenez, *Sabino Arana. Padre de las nacionalidades* izenarekin 1981ean argitaratu-

tako bi tomoak (187). Hauetan datorren guztia ez da azken hitza, zerutik ez ditu hodei guztiak ezabatzen, baina asko laguntzen du garai ilun hura argitzen.

Euzko-Gaztedija-k zazpi urteko tunela pasatu ondoren kaleratzen du *Euzkerea* aldizkaria, justu Primo de Riverak gobernua utzi aurreko urtean, 1929an. Hurrengo urtean, 1930eko ekainaren 8an, hertsirik zeuden Bilbako egoitzak irekiko dira berriro eta, honela, *Euzkeltzale-Bazkuna* elkarteak bere lehengo biderari, aurreko hamarkadan bideratua zuenari emango dio segida. Orain, batik bat, hiru eginkizun izango dituzte helburu, hots: euskara irakasteko eskolak ematea, iritzi publikoan eragina izan eta euskal pentsamendua euskaraz lantzeko aldizkari bat sortzea –jadanik aurreko urtean bideratua– eta, azkenik, abertzaletasuna zein euskaltzaletasuna pizteko liburuak argitaratzea. Azken asmo hau betetzeko, *Euzkerea* aldizkariaren jabetzakoa den *Pizkundea* argitaletxea daukate eta honek hainbat liburu kaleratzen ditu, horietako batzuk, bere garaian izan zuten arrakastarengatik berehala agortu zirelako, berralgitapenak direnak, hala nola *Método gradual para aprender el Euzkera*, *Egutegi Euzkotarra*, aldizkariak berak bizkaieraz eta gipuzkeraz prestatua, eta Aranaren *Tratado Etimológico de los Apellidos Euzkéricos*, eta besterik (188). Beste liburu batzuk ere argitaratzeko prest zeudela iragartzen zen, hauek zehazki: aita Zabala-Aranaren *Otoidi kistarra*, Goyaldek itzulitako *Ipuñak* (Sienkevicz poloniarraren ipuinak), *Hamaika gabetako ipuñak*, Nabarriztarrak itzuliak, *Zenbakiztija* (Aritmética), *Daneurtiztija* (Geometría), *Goizparra* (Ebanjelioak), Joseba Altunaren *Ume euzkaldunaren laguna*, eta Amandarroren *Azijerea ta osasun-bidia* (Urbanidad e higiene) (189). Urtean bizpahiru liburu argiratzea agintzen zuen.

Euskarazko eskolak 1930ean hasi zituzten (190), 270 ikaslerekin, eta badirudi, Jadarkak dakarrenez, euskal eskola hauetako ikasleen kopurua handitzen joan zela (191). Euskarazko antzerki-talde bat ere bazuen, *Oldargi* izenekoa, eta honek ere bere agerraldi sonatuak egin zituen, horietako bat Bilbaoko «Teatro de los Campos»en Aranaren omenez (192), eta Bizkaitik kanpora, Bergaran 1930ean, hau ere berebiziko arrakastarekin (193).

(187) Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

(188) *Euzkerea*, XXII, 1930, Urria, 472.or.

(189) «Libros para el euzkera!», *Euzkerea*, VI, 1929, Bagilak 15.

(190) «El estudio del idioma. Hay que hacerse euzkeldun», *Euzkerea*, XX, 1930, Dagonilak 15, 465.or.

(191) «Viendo la enorme concurrencia de jóvenes entusiastas y genorosos que acuden a las clases de Euzkera de Juventud, bien se puede afirmar que el número de euzkaldunes ha de acrecer notablemente en este Bilbao-Abando donde si es cierto que el Euzkera halló en otros tiempos frialdad e inconsciencia, no es menos exacto que de algún tiempo a esta parte es donde más calor ha encontrado para su desenvolvimiento» («El Euzkera por la Patria», *Euzkerea*, XXXIII, 1931, Iralak 15, 3-4.orr.).

(192) «Pizkundia», *Euzkerea*, XV, 1930, Epalak 15.

(193) «*Oldargi* en Bergara», *Euzkerea*, XX, 1930, Dagonilak 15, 465.or.

Elkartearen txinpartak erbesteraino ere iristen dira. Une hartan Amerikan aurkitzen den EAJ-Aberriko Eli Gallastegi errefuxiatu politikoak *Cultura Vasca* izeneko elkarte bat sortzen du, Amerika osoan zehar barreiaturik dauden euskal erbestetuen artean Aberriaren aldeko atxikipenari eusteko, batez ere euskal gaiez diharduten liburuak irakurriz eta bide hori bultzatuz (194).

Euzkerea-k, urtebeteko ibilaldia egin eta gero, Euskal Pizkundeak Aranaren irudiari zor dion itzala berresten du, maila guztietan jarraitu behar zaiona: «Figura genial y única, del Maestro de los maestros en ese y en todos los aspectos de nuestro resurgimiento nacional» (195). Eta hau esatean, *Euzkerea*-koek diote ez direla elkartuko sekula santan Sabino Aranaren eskola ezezten dutenekin, berdin hauek jeltzaleak badira ere (196). Maisuaren pentsamendua zuzen interpretatzen duten bakarrak beraiek direla uste baitute, haren izena «fetitxe» edo «idolotzat» hartzen dutela edo horrelako zerbait irakurri orduko, salatuak sentituko dira. Onartuko dute badela oraindik euskalaritzan ikertzekorik, baina oinarrizko printzipioak jadanik Sabinok finkatuta utzi zituela, diote. Horregatik, ikertzear dagoena zimentu teoriko horien gainean eraikitzea proposatzen dute eta horretarako, 1933an, ikerketa-elkarte bat sortzea (197). Mintegi horietan Ekonomia, Soziologia, Historia eta Filologiako gaiak harrotzen dira. Beraz, ikusten gatozenez, kultur mugimendu trinko eta antolatu bat dago hor lanean ari dena, Sabino Aranaren gerizpean Euskal Pizkundiari bere ekarpena egiten ari zaiona. Noski, beren bidetik.

Sabino Aranari jarraiki (198), honen eskolakoek aldarrikatzen duten oinarrizko beste printzipio bat da, euskaltzaletasunak abertzaletasunari atxikirik joan behar duela. Abertzaletasunaren surik gabe hila da euskara, esango du Jadarkak (199). Txori-Errekak, Ondarrutik, gauza bera esaten dio Zeletari: «Euzkeltzaletasunaren gañetik abertaletasuna daukagu, ta ori olan ixanik, gure biarkuna abertzaletasunari jarraitzia da» (200).

---

(194) «Cultura Vasca», *Euzkerea*, XXV, 1931, Urtarrilak 15, 552.or.

(195) «De momento actual», *Euzkerea*, XIV, 1930, Otsailak 15, 283.or.

(196) «Por ello, y siguiendo estas enseñanzas del Maestro, tan sanas y razonables, como todas las suyas, *Euzkerea* tiene que rechazar la unión con todos aquellos que directa o indirectamente se opongan a la escuela sabiniana que nosotros defendemos. Esto no quiere decir que nosotros rechazamos sistemáticamente la unión. Son, por el contrario, nuestros enemigos los que la rechazan» (Ibid.).

(197) «Sobre la necesidad de un 'Círculo de estudios euzkeralógicos'», *Euzkerea*, XX, 1933, Dagonila.

(198) Honela dio aldizkariak transkribatzen duen Aranaren esaldi honek: «El patriota, que ama al Euzkera porque es la lengua de su raza, sabe perfectamente que salvada la Patria, está salvado el Euzkera» (*Euzkerea*, XIII, 1936, Urtarrila-Otsaila).

(199) «Aquella idea que movió a nuestro Maestro a proclamar la nacionalidad y los derechos de los vascos, es la que anima el renacimiento de todas nuestras características, es la que preside todos nuestros actos. Si no por Sabin, el Euzkera hubiera muerto para estas fechas» (Op. cit., 5.or.).

(200) «Zeleta'ri», *Euzkerea*, XIV, 1930, Otsalak 15, 299.or.

2.2. *Euzkerea* aldizkaria

Aldizkari honen lehen zenbakia 1929ko urtarrilaren 15ean kaleratzen da, Bilbaon, euskaraz eta gaztelaniaz, azalean «Pizkundea» ikurra dakarrela. Esan beharrik ez dago lehen aipatutako *Euzko Deya* duela aurrekari. Sarreran, Euskal Pizkundearen eragile eta gidari teorikotzat Astarloa eta Aranaren izenak aipatzen dira (201). Eta lehen zenbakiko 10. orrialdean azken honen argazkia dator, oinean honako hau dioena:

> «Pues entonces, ¿qué no podría decir Astarloa de tí, Sabin, mago de la investigación euzkeralógica; genio que asimiló, hasta depurar el manantial, todo el genio fecundísimo del habla misteriosa; creador de la nueva vida del idioma racial imperecedera; fruto maduro de todas las sabidurías, arrancado al árbol de tus treinta y ocho años de juventud, plena de merecimientos?».

Ez da ezer esaten, alajaina! Jainkoari ere horrelako gurtzarik! Aranari bakarrik deitzen zaio «Maisua», maiuskulaz, eta haren izena sakralizaturik bezala agertzen da, hark esanak edo idatziak betiko egiak bailiran transkribatuz. Aldizkariak ia zenbakiro ekartzen ditu Aranaren pasarteak «Páginas del maestro» sailean, edo haren lanei buruzko iruzkinak, gehienetan hitz berrien inguruan. San Andres egunarekin, 1930eko azaroaren 30ean, *Euzkerea*-koek omenaldi hunkigarri bat egin zioten Arana maisuari Bilbon. Han izan ziren haren izena aupatzen Jose Antonio Agirre, Jemein (Jadarka), Orueta, Egileor eta Amantzi Urriolabeitia. Hau izan baitzen Arana euskalariaz mintzatu zena, merezi du pasarte hau irakurtzeak, hemen ageri baita nondik zetozen maisuaren kontrako erasoak:

> «Lo que no puedo pasar sin protesta –por ser manifiesta injusticia– es la afirmación que en alguna ocasión he oído de labios... *no importa quien*, y es que la aceptación de la escuela euzkeralógica de Arana-Goiri, se debe a que éste dispuso de un partido político que en un todo e incondicionalmente seguía y sigue los postulados doctrinales del Maestro, como se admiten y profesan las verdades dogmáticas» (202).

---

(201) Gaztelaniaz dator hauen aurkezpena: «Entre los precursores del actual renacimiento lingüístico, fue Astarloa quien con mayor profundidad de juicio asentó los fundamentos para la investigación euzkeralógica. Y después Arana-Goiri, sincero admirador de aquél, vino con la intuición inigualada de su privilegiado cerebro a abrir el ciclo vivificador de la restauración, creando una escuela invulnerable que agrupó rápidamente en la labor renancentista a las inteligencias más capacitadas del país. En pocos años, la escuela euzkeralógica de Arana-Goiri adquirió el sabor y el prestigio inconfundibles de las obras clásicas imperecederas. Hoy, sin embargo, necesita, para la más rápida eficacia de su influencia restauradora del idioma, que cuantos euzkeralogos, euzkeragrafos y euzkaltzales ven en ella la segura vivificación del habla de nuestros asabas, posean en el terreno de la acción un punto de convergencia, un lazo de unión amable y confortador, que facilite y dulcifique el rendimiento y acelere la madurez del fruto jugoso, dorado, sano, obtenido por el esfuerzo y por el amor. A esto viene *Euzkerea*. A sostener la escuela euzkeralógica moderna, única e invulnerable, que Arana-Goiri, con el nombre de Renacimiento del idioma, firmísimamente estatuyó» (Ikasle, «Agur», *Euzkerea*, 1, 1929, Urtarrilak 15, 2 or.).

(202) «El día de San Andrés en honor del maestro», *Euzkerea*, XXIV, 1930, Lotazila, 525 or.

Hizlariak, Arana «maisuari» ezaugarriren bat jartzeko eskatuko baliote, hauxe jarriko omen lioke: «Ni naiz euzkeraren pìzkundea» (203). Ebanjelioko pasartetik hartua dirudi.

Hizkuntz azturak aldatzeko deia ere sarritan egiten da, euskarak, mintzatzen ez bada, ez baitu behar adinako eraginik izango gizartean: «Euzkera mintzatzen dan errietan, oitura garbi ederrak, ekandu onak ikusten dira; erdera gure euzkerearekin nastu dan errietan ostera, oiturak ere nastu xamarrak ikusten dira. Euzkerea alde batera utzi eta erdera bakarrik mintzatzen diranetan barriz, euzkel-usai gutxiko oiturak, ekandu gaiztuak ikusten dira. Orregatik euzkeraz mintzatu bihar degu, beti euzkeraz! (...) Gure izkuntza maitia galtzen ba'da, Euzkel-erria ere galduko da. Beraz Euzkeraz mintzatu gaitezan, beti Euzkeraz» (204). Horrelako sloganak sarritan agertzen dira aldizkarian. Hizkuntzaren erabileraz kezka bizia dago, eta horretaz jabetzea garrantzitsua da, haren gizarteratzea, baldin nonbaitetik, azken buruan hortik baitatorke.

Euskal Pizkundearen historian *Euzkerea*-koak zokoratuegiak izan direlakoan baikaude, besteak beste, haien euskara-ereduak bide laburra egin zuelako, ordua da, halere, dagokien lekua aitortzea, eta ez bakarrik Aranaren eragina horiengan garbiki islatzen delako, baita –eta batik bat–, aldizkari horretako talaitatik eztabaida interesgarriak pizten direlako ere. Eztabaidak, errespetuz eginak direnean, gehienetan argigarri izaten dira.

Euzkerea aldizkarian, 1929ko III. zenbakitik aurrera, atal berezi bat irekitzen da, «Los contradictores del maestro» izenburuarekin, non Abandokoaren iritziren bat edo beste ezbaian jartzera ausartzen zirenak errotarrian xehatzen baitira kupidarik gabe. Konbentzituta zeuden Sabino Arana euskalariaren lana gutxiestea zutela xede haren kontraesale horiek (205). Kontraerasoa, gainera, gaztelaniaz egitea erabakitzen da, eztabaidaren berri jende gehiagok izan dezan.

2.2.1. Maisuaren kontraesale horiek, *Euzkadi*, *Euskera* eta horrelako aldizkarietan idazten dutenak dira. «Errolegi» ezizena daraman egilea da errotarriaren zapadura ezagutzen lehena, *Euzkadi* aldizkarian, 5.067. zenbakian, Sabino Aranaren *Lecciones de Ortografia del Euzkera Bizkaino* liburuan agertzen diren iritzi batzuk kritikatzen edo zuzentzen omen dituelako, hala nola «Ingland» ordez, «England» beharko lukeela, gipuzkeraz «berringi» erabiltzen dela eta ez «izparringi» (*periódico*), «bitxabala» (*carretera*) eta «orlegi» (*ver-*

(203) Ibid., 524.or.

(204) Garbine ta Edurne, «Euzkeraz, beti Euzkeraz», *Euzkerea*, XXXVI, 1931, Otsailak 15, 572.or.

(205) «Tenemos mucho interés en que se sepa por todos –euzkeldunes y erdeldunes- que hay interés, donde sea, en restar méritos a la labor euzkeralógica de Arana-Goiri, inigualada de cerca ni de lejos, hasta hoy, en el campo del renacimiento del idioma vasco. Tenemos mucho interés en que se vea palpablemente, por todos, la penuria científica, la falta de razón y sobra de ligereza con que la escuela del maestro indiscutible quiere socavarse» («Los contradictores del maestro», *Euzkerea*, III, 1929, Epalak 15, 54.or.).

de) hitzak asmatzean, ez zela zuzen ibili, eta abar. Hau guztia euskara berria iruditzen zaio. Ez hala, ordea, *Euzkerea*-koentzat, hauentzat, «orlegi», adibidez, «belegi»ren (*amarillo*) antzera, oso egoki asmatua baita herri-senaren eredura, edo herri soilaren ahotik zuzen jasoak, Kirikiñok, adibidez, «zirijol» (*fideo*) eta «txirringuts» (*bicicleta*) bezala.

Azken batean, ongi asmatutako edo herritik jasotako hitzen egokitasunkontua erabilerak erabakitzen baitu, beude hor auzi horiek. Elorregi kritikaria, hau ere esan beharra dago, ez zebilen beti zuzen, zeren, Bizkaian erabiltzen diren «bier», «bijar» eta «bijer» forma ortografikoak direla eta, Aranaren testuan kontraesan batzuk ikusi bide baitzituen ez zeuden lekuan eta, lege fonetiko eta ortografikoen arteko bereizketaz egiten dituen zehaztapenez ez ohartzean, ondorio faltsuak ateratzen baititu (206). Sabino Aranak, hain zuzen, hiru forma horietatik Lekeitioko «bijar» hobesten du eta, beraz, horrela ahoskatu eta idaztearen aldekoa agertuko da. Beraz, euskalki baten baitako batasunari eusteko orduan, lehenik fonetika dator eta gero ortografia.

Eztabaidak aurrera egingo zuela espero zen unean, Errolegik uztea erabakitzen du, Sabino Aranaren erroreak ezin direla argitaratu eta, *Euzkerea*-koen presioz *Euzkadi*-ko aholkulariek hala eskatu omen diotelako (207). Egunkari honetako batzuk maisuaren izena gutxiesten ari zirelakoan zeuden *Euzkerea*-koak eta horregatik kexatu ziren hango zuzendaritzaren aurrean (208). Une horretan *Euzkadi*-ko «Euzkel-atala» saileko arduraduna Orixe baitzen, Kirikiñoren lekukoa hartu zuena, hain zuzen, honek bere sailetik Errolegi lankidea arrazoi ez-linguistikoengatik isilarazi zutela idatzi zuelako (209), antisabinisten buruzagi deklaratu zuten eta, harrezkero, gerra pertsonala egingo diote. Jarraian adierazia dator arrazoia:

> «Es, pues, 'Orixe' juez y parte en ese pleito, en el que nosotros no hemos hecho más que estar a la defensiva» (210).

---

(206) Zuzen esana, beraz, kasu honetan honako hau: «Ha interpretado caprichosa y erróneamente algunas palabras del citado párrafo y ha sacado de éllas, sin lógica de ninguna clase, una consecuencia falsísima» (Ibid., 57.or.).

(207) Hala irakurtzen da *Euzkerea*-ko iturri berean, 58. orrialdean: «Escrito lo que precede, leemos en el diario *Euzkadi*, nº 5.095, del 1 del actual, que 'Elorregi' abandona la tarea que se había propuesto de dar a conocer –por considerarlas dignas de ello ('jakingarriak diralako'), son sus palabras)- las faltas del Maestro. La razón de su retirada la da él mismo, con estas palabras que traducimos: 'A petición de los de *Euzkerea*, me han llamado los consejeros de *Euzkadi*, para pedirme que no niegue las palabras de Sabino. Por eso termino hoy este tema. Puesto que no se pueden publicar las faltas de Sabino, la discusión no tiene razón de continuar».

(208) «Y si es cierto que algunos señores se acercaron a aquéllos particularmente, tampoco fué, nos consta, a pedir que 'no se negasen en *Euzkadi* las palabras de Sabino' –cosa de por si ya improcedente en dicho diario-, sino a hacerles ver a sus consejeros la fea labor emprendida por algunos de sus colaboradores de desprestigio a nuestro maestro, llegando, para ello, hasta a tergiversar sus textos» (ibid., 58.or.).

(209) *Euzkadi*, 1929-03-8.

(210) Ibid., 58.or.

Bera da, *Euzkerea*-koen aburuz, bi argitalpen horietako lankideen artean gertatzen ari den zatiketaren errudun nagusia. Mingarria bada Errolegiri ateak ixtea *Euzkerea*-n, ez du min gutxiago ematen «Euskaldun berri bat», «Norbait», «Elexalde», «Euzkeldun barri zar bijok» eta, *Euzkadi*-tik at geratu izanak. Orixek (211) dioenez, ordea, lehen esandakoez gain deus berririk ez zekartelako utzi omen zituen bazterrean.

2.2.2. *Euzkerea*-koen Orixerenganako zapuzkeria lehenagotik zetorrena zen, genitiboko «aren» eta «bere» erakusle eta izenordainen inguruan sortzen den eztabaidan (212) zehazten dena. Aranazaleek Orixeri aurpegiratzen diote, besteak beste, «bera» formaren jatorrian «beu» forma aurkitzen dela esaten lehena Sabino Arana izanda (213), zergatik saiatzen den hari merituak kentzen. Orixerentzat kontua ez da meritua ematea ala ez ematea, dagokionean dagokiona ematea baizik. Horregatik, «Euskaldun barri zar bat» ezizenekoari ematen dion erantzunean irakur daitekeen bezala, ez du onartuko euskalaritzan azken hitza harena izatea:

> «Quizás hemos leído más veces que usted a Sabino, estimándole en su justo precio, y sentimos que casi nos tache de contrarios a él ni a nadie. El tono que adopta es ese. Respeto la opinión de Sabino pero no la comparto, aunque yo sea don Nadie. Si mi razón no vale, combátala, y por si valiese, no se fije en la firma. No tenga el mal gusto de hacerme apología de uno a quien no he combatido. Conténtese con citarle y con exponer claro su pensamiento. Tanto vale una firma, aunque sea la de Santo Tomás, cuanto valgan sus razones (...) No, pues, todo lo que dice un autor, por grande que sea, es infalible, y menos en lingüística. El discutirle no es hacerle deshonor» (214).

Ez inoren esanean, arrazoiaren sendotasunean baizik oinarritu nahiko lukeen Orixeren aburu desmifikatzaile honi honako beste sententzia honekin ematen diote bukaera *Euzkerea*-koek eskuartean darabilten eztabaida honi:

> «Orixe y varios Orixes son y seguirán siendo irreductiblemente antisabinianos en Euzkeralogía. Cuando, gracias a la labor magistral de Arana-Goiri, se había alzanzado una fuerte unidad de criterio, de método y de orientación en aquella ciencia; cuando todos –salvo contadísimas excepciones que ninguna eficaz labor disidente podían realizar– todos los euzkerálogos, *euzkelidazles* y *euskeltzales* seguían en santa paz y unión una escuela euzkeralógica medulosa, científica, fructífera, la de Arana-Goiri'tar Sabin, han conseguido los disidentes,

(211) Hala adierazten dio «Beste euzkeldun barri zar bat»i ematen dion hirugarren erantzuneko oharrean: «Si yo retirando su anterior escrito le dejé en la estacada, fue porque nada aducía usted de nuevo y lo hacía en forma violenta. Entre los otro cuatro que el mismo día dejé en la estacada, había un escrito en vasco, modelo de mesura, pero que tampoco añadía nada de nuevo, y no era cosa de seguir indefinidamente» («Ura», *Euzkadi*, 1928-10-31).

(212) Honetaz ez goaz luzatzera jadanik arituak baikara *Orixe eta bere garaia* liburukian, 590-595 orrialdeetan.

(213) «Demostró el maestro la existencia, en algún tiempo, del pronombre personal de tercera, BEU, no conocido en el uso actual» («... Y los contradictorcillos», *Euzkerea*, VI, 1929, Bagilak 15, 127.or.).

(214) En defensa de *bere*. Euskaldun barri zar bat-i erantzuna», *Euzkadi*, 1928-10-19.

por simple debilidad nuestra, o de algunos de los nuestros, posiciones más ventajosas para combatir sin razones a la escuela euzkeralógica de Sabin. Si entonces no surgieron las lamentaciones, menos deben surgir ahora; cuando nosotros, estando donde estábamos –porque ni sombra de razón se ha expuesto por nadie para hacernos cambiar de pensamiento, ni para que haya podido debilitarse ¡al contrario! nuestra fé en la gran autoridad del maestro–, nos mantenemos firmes en sus enseñanzas; en las que los Orixes de ayer y de hoy, con harta superficialidad de pensamiento pretenden arrinconar. Y con esto damos por terminada la discusión que con Orixe se ha sostenido en esta Revista por varios colaboradores, dejando de publicar algunos artículos más que se habían recibido» (215).

Orixek arrazoiaren indarrean sinesten zuen; *Euzkerea*-koek autoritateari zor zaion fedean. Nolanahi ere, «y los contradictorcillos» izenburuak berak ondo asko adierazten duen bezala, Orixe, euskalaritzaren esparruan, kontraesale txikien artean, bat gehiago besterik ez zen. Orduko eztabaida hari neurria hartzeko, hots, orduko irizpide aldez nahasi eta aldez kontrajarriak egun zertan zehaztuak geratu diren jakiteko aski da Euskaltzaindiaren arauak begiratzea. Ordukoaz ari baikara, ez gaurkoaz, eztabaida, aipu horietan ageri den bezala, gehienbat Orixeren inguruan pertsonalizatzen bada ere, jokoan dagoen arazoa askoz sakonagoa delakoan gaude, zeren, azken batean, Sabino Arana euskalariari dioten mirespena eta, agian zuzenado esanda, haren eskolakoak autoizendatzen direnen dogmakeria baitago auzitan. Hori dela eta, egoera asko ozpintzen da bi aldizkarietako euskaltzale jeltzaleen artean, hots, aranazale ertzekoen eta aranazale zuhurren artean. Biderdira, euskal giro sumindua otzantzeko asmoz edo, «Basanaitz» (J. M. Leizaola) ateratzen da Sabino Arana euskalari eta euskaltzalearen itzala errebindikatuz (216).

Susmopean dagoen bakarra ez da Orixe. Jeltzaleen familiatik harago, R. M. Azkue bera ere kate motzean hartuko dute aranazaleek, nahiz eta hark aitortua duen Arana eta Broussain direla berak ezagutzen dituen bi neologista onenak. Zergatik hau ere susmopean? Euskaltzaindiko *Euskera* agerkariko artikulu batean, bat, aditz faktibiboen aurrizkia ez *ir*, Sabinok esan bezala, baizik *ra* dela sostengatzen duelako; bi, prozedura desegokia iruditzen zaiolako bataio-izenak generoaren eredura euskalduntzea, horrela jokatzean, *Marte* (Marta) eta *Lazar* (Lazaro) bezalako anakronismoak sortuz; hiru, Abandokoak asmatutako hainbat hitz gaitzesten dituelako, hala nola *guren, deun, done, eresi, semakar* (unigénito), *ikurton* (sacramento), *zorun* (felicidad), *bitxain* , *ingi* (papel), *ingurri* (cuartilla), eta gisakoak. Aranaren eskolakoek erantzuten diote esanez, objekzioak edo zuzenketak Euskaltzaindiko buruarengandik etorri arren, haren euskalari-ekarria gero eta zientifikoago, argiago eta sendoagotzat daukatela. Azkuek, haren zenbait iritzi arbuiatzean, arrazoirik gabe eta

(215) «... Y los contradictorcillos», op. cit., 129.or.

(216) «Arana-Goiri, como fomentador del euzkera, y como euzkerálogo, siempre continuará en primera fila» (*Euzkadi*, 1929-03-7).

arinki jokatzen omen du (217). Arrazoi berririk ekarri gabe, berriro fedea tartekatzen da aranazaleen diskurtsoan (218).

Sabino Arana euskalariaz horrelako ziurtasunez eta autoritatez idazten dutenak, Abandokoaren eskolakoak autoizendatzen dira, baina seguru asko ez dira «maisuaren» jarraitzaile bakarrak eta, agian, ezta, letra hutsetik harago, haren espiritutik hurbilen dabiltzanak ere. Hauek, Orixerekin esateko, «Arana baino Aranagoak» dituzue (219).

2.2.3. «Kepa» ezizeneko batek, gaztelania Bizkaian gero eta arinago ari zela nagusitzen eta, sos larria bota zuen *Euzkerea* aldizkaritik (220). «Arnoperena»k ere salakuntza bera zekarren *Argia*-n (221). Kalean zegoen kezka hori bere eginda, euskalaritzan itzal handikoa zen Sebero Altubek, gai horren inguruan hitzaldi sonatu bat eman zuen 1933an, Eusko Ikaskuntzak antolatutako Udako Ikastaroetan. Hurrengo urtean liburu gisa argitaratu zen *La vida del euskera* izenarekin, eta oihartzun zabala izan baitzuen euskaltzaleen artean, hainbatek agertu zituzten beren iritziak gai minbera horren gainean, horien artean Orixek ere bai (222). Altubek, Aitzolen antzeko bidetik joanez, garbizalekerian ezartzen zuen euskarak azken 40 urte haietan atzera egitearen arrazoietako bat, zioenez herriak ez baitu irakurtzen euskara-mota hori. Hark eredutzat herri-mintzairan oinarritutako Kirikiñoren euskara zeukan.

Euzkerea-tik lehen erantzuna «Nabarriztarra»k (223) eman zion Arrasateko euskaltzainari. Euskararen gainbehera gertatu dela azken berrogei urte haietan zenbait herritan? Egia da, baina ez, haren ustez, Altubek dioen bezala euskal idazle garbizaleen erruz, beste arrazoi batzuk ere tartekatu izan direlako baizik, batik bat hauek: bat, Errioxa, Araba eta Nafarroan, adibidez, euskal idazlerik ez zen garaian gertatu zen euskararen hondamendia; bi, hizkuntza, familian ez ezik, kalean eta eskolan ere erabiltzen baita, Nafarroan azken horiek izan dira euskara baztertzeko bide nagusi; hiru, komunikabide idatziek ere beren eragina dute, eta hor *Euzkadi* eta *El Día* egunkariak, adibidez, gehienbat gaztelaniaz ari baitira, horiek ere «euzkera baztertu eta atzerazoteko biderik zabalenak» gertatu dira; lau, herriari artez eragiteko, ahalik eta euskara gar-

(217) «Los contradictores del maestro», *Euzkerea*, IV, 1929, Jorralak 15, 79-82.orr.

(218) Pasarte honek erakusten du hor adierazia: «Hace por lo tanto muy poco honor a la autoridad de aquel euzkerálogo al rechazar por incorrectísimos, y sin prueba alguna (...) Pero los que saben cuánto vale la autoridad de aquel Maestro, y cuántas verdades euzkéricas se descubren siguiendo sus huellas, pueden ampliarnos sobre este tema el pensamiento sabiniano» («Los contradictores del maestro», *Euzkerea*, V, 1929, Orrilak 15, 93.or.).

(219) *Euskal literaturaren historia laburra*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2002, 75.or.

(220) *Euzkerea*, IV, 1933, 215.or.

(221) *Argia*, 1932-10-9.

(222) Iztueta, Paulo, *Orixe eta bere garaia*, op. cit., 710-711.orr.

(223) «*La vida del euskera.* Altuber'tar Seber Jaunari idazki agirija», *Euzkerea*, II, 1934, Epala-Jorrala, 89-93.orr.

bi eta txukunenean eman behar zaio, erdal hitzez beteta, sendotu ordez, ahuldu besterik ez baita egingo. Hogeita bat ohar egin eta gero, honentzat garbi dago Sabino Aranarena dela euskara salbatzeko biderik egokiena: «¡Tamala, danok bide orretaz ez ibiltia!», esango du (224). Zenbaki berean, Luis de Garairen beste erantzun bat ere badator, hau are luzeagoa (225). Honen ustez, aspaldikoak dira euskarak mendez mende atzera egitearen zergatikoak, idazleak euskaraz idazten hasi aurretikoak (226) eta ez, inola ere, Euskal Pizkundeko belaunaldiari dagozkionak. Euskara Araba eta Nafarroan 1800-1850 urte bitartean joan zen desagertzen, inoiz baino bizkorrago joan ere, noiz eta, idazle «garbizaleak» idazten ez zuten garaian, hain zuzen. Horregatik, «barkaezina» da euskararen hondamendia azken berrogei urte haietan gertatu zela esatea.

Altuberen okerra, funtsean, euskararen arazoa hizkuntzalaritzatik begiratura bakarrik planteatzean datza, ez baitu kontuan hartzen, horrekin batera, beste indar soziopolitikoek ere badutela beren eragina. Hizkuntzen bizitza ez da jokatzen bakarrik familian eta herritar soilen artean, hor bereziki, nazio batek bestea zapaltzen duen testuinguru historikoan baizik, are gehiago, gure kasuan bezala, hizkuntzaren izaera politikoak duen garrantziaz inor guxi jabetu izan ez denean (227). Borroka ez da ematen hizkuntzen artean, herrien artean baizik, eta hor herri menpetuaren hizkuntzak bere garaipena kulturaren bidez lortu behar du. Horixe da, hain zuzen, Altuberen planteamenduari falta zaiona (228), hots, arrazonamendu soziolinguistikoa. Nabarriztarra kritikaria dugu aldizkari honetan hizkuntzaren boterearekiko lotura esplizitua egiten duenetako bat, sabindar tradizioan Eleizaldek (229), edo Nafarroan Kanpionek (230) egiten du-

(224) Op. cit., 93.or.

(225) «La vida del euzkera», ibid., 132-144.orr.

(226) «Esas causas provienen de tiempos remotos que no conocieron escritores que intentaton sustituir las *formas del lenguaje popular* por otras *artificiales* ni existía una literatura excesivamente impopular» (Ibid., 132.or.).

(227) «En el caso concreto del euzkera, la lucha no está entablada entre las familias y las gentes de un pueblo, sino entre dos nacionalidades. La una con toda clase de medios y leyes; la otra sin ayuda de ningún género. Más aún: sin conciencia de su personalidad como pueblo (...) El pueblo vasco, en general, hasta hace 40 años, usaba el euzkera como un mal que había que desterrar. Hoy lo usa como un bien inmenso, como algo que lo caracteriza y ennoblece» (Ibid., 134.or.).

(228) «Los que sueñan que cuando se trata de estudios idiomáticos no se debe aducir para nada la política, están equivocados. En la vida del euzkera o en su muerte influyen poderosamente las razones exteriores» (Ibid.).

(229) Hala idazten zuen *Bizkaitarra* aldizkarian (1911-08-26) argitaratutako «Raza, lengua, nación» artikuluan: «El Euzkera, frente a prepotentes idiomas, por todas partes acosado, atacado a la vez por las corrosivas ideas utilitarias y por la acción niveladora y populicida de los gobiernos, subsiste aún y hasta parece bien decidido a no morir» (Antxustegi, Esteban, op. cit., 20.or.).

(230) Irungo Euskal Jaietan 1903ko irailaren 27an «El peor enemigo del baskuenze» gaiaren inguruan egindako hitzaldian, irakasle erdaldunek herriaren deseuskalduntzean izandako eraginaz luze jardun ondoren, horien atzean zegoen Euskal Herriko irakaskuntzaren estatu-boterearekiko menpekotasuna aipatzen zuen: «El Estado docente requiere la transformación del maestro, delegado y suplente técnico del padre de familia, en funcionario público; o sea, la completa su

ten bezala. Orduan hain ebidentea ez zena, egun Soziolinguistikak zein Hizkuntzaren Soziologiak berretsi besterik ez dute egiten, nahiz, interes desberdinengatik, hizkuntzarena despolitizatzen ahaleginak egiten diren. Egile honentzat, bada, euskararen aldeko borrokak eta nazioarenak batera joan beharko lukete. Egilearentzat ukaezina da euskararen berpizkundea euskal nazionalismoari zor zaiola eta horren eragile nagusia eta ia bakarra Sabino Arana izan zela, Bizkaian bederen, mugimendu hori gero Gipuzkoara zabalduko bada ere.

Onartezina da, bestalde, euskararen galera –herriak euskaraz ez irakurtzeari dagokiona, alegia– Sabino Aranaren eta honen jarratzaileen garbizalekeriari egoztea, esanez, euskara hori ulergaitza delako, horregatik ez duela irakurtzen herriak. Arrazoi honek ez du balio, zeren nola esplikatzen da Azkueren *Euskelzale* bezalako aldizkariak hain agudo desagertzea? Kirikiñoren adibideak ere ez bide du askoz gehiago balio, honen lanak ere, garaiko beste idazle gehienen antzera, gutxi irakurriak baitira. Haren *Bigarren Abarrak* liburutik ale bakar batzuk bakarrik saldu zirelako kexu omen ziren argitaratzaileak. Kirikiño, gainera, hainbat hitz berriren sortzaile izan zen, «fué uno de los más *puristas* que han existido» (231), eta neologismoak erabiltzeari ere ez zion ukorik egin, hala nola *auteskunde, itz-egin, aots, bentasun, abesti, gudate, osalari, guda, izpar, garazki, laterri-batza, irakurle, irakurri, izparringi, idatzi, ingi, ele, andrakila, orraztontzi, deun, endore...* Kontua da, euskara garbia ala mordoiloa (*motrollo*) gorabehera, prosa landua erabiltzen denean, herriak ez duela ulertzen. Baina hau herri guztietako hizkuntzekin gertatzen den zerbait da.

Orokorrean euskaldunberriak direla hitz berriak sortu eta erabiltzen amorratuenak? Hau ere ez da egia. Hala al dira aita Arriandiaga, Zabala-Arana, Urrutia, Urriolabeitia, edo Eleizalde, edo Kirikiño? Hauek guztiak Sabino Aranaren jarraitzaileak dira. Neologismoen kontuan zenbat eta gehiago aldendu euskara erderen kutsutik, orduan eta onuragarriagoa gertatuko da harentzat, asimilazioari aurre egiteko modurik eragingarriena desberdintasuna delakoan baitago.

Azken batean, eta berriro hasierara gatoz, euskaltzaletasuna abertzaletasunari loturik dator eta hor jokatzen du euskarak bere etorkizuna: «Sin éste (el patriotismo) no hay euzkera ni vida propia. Con el patriotismo existirá el idi-

---

bordinación del maestro al Poder; o en otros términos, a la política: abstracción que el Ministro, el Gobernador, el Inspector, el cacique cuidan de concretar» (Arturo Campión, *Discursos políticos y literarios*, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976, 201 or.). Geroago, 1910eko abenduaren 21ean «El euskera en Sarasaitzu» gaiaren gainean Gipuzkoako Diputazioan emandako hitzaldian, euskarak atzera egitearen arrazoiak aipatzerakoan, barrukoak eta kanpokoak bereizi zituen, eta azken hauen artean, besteak beste, Espainiako estatuaren erantzukizuna nabarmentzen zuen: «El estado español comete el delito contra el derecho y la historia, de favorecer a una sola en detrimento de todos los idiomas peninsulares. El castellano disfruta de una posición privilegiada y única» (*Euskal-Esnalea*, I, 2-6, 1911, 21.or.; Xabier Erize Etxegaraik aipatua, in *Nafarroako euskeraren historia soziolinguistikoa (1863-1936)*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua, Iruña, 1997, 54.or.).

(231) Ibid., 136.or.

oma. Sin él, esa cantidad, pequeña ciertamente, que hoy dedica sus esfuerzos y entusiasmos a nuestra lengua, no existiría. Sin patriotismo no hubiéramos tenido a un Kirikiño ni a la masa que le leía» (232). Antzeko ideia dator beste pasarte honetan ere: «Dentro de la libertad de la patria está la vida del euzkera, pero esclava la patria el idioma no podrá vivir» (233). Azken puntu honetan laurbiltzen da bere tesia.

Beste hirugarren erantzun bat ere jaso zuen Altubek aldizkari beretik, «Misibus» delakoak bi zenbakitan emana (234). Bere aurrekoek modu batera edo bestera esana ez duten gutxi dator honen 26 orrialdeko lanean. Neologismoen arazoan, berak dioenez, hiru jarrera-mota eman daitezke: a) hitz arrotzak nolanahi eta mugarik gabe onartzea; b) erabat baztertzea; c) herri-hiztegian txertatuta daudenak ontzat ematea. Hizkuntza gehienetan hirugarrena da ohikoena, alemana eta ingelesaren kasuan bezala. Euskaraz ere erdal kutsua duten esaldiak eta hitzak baztertu eta, euskal harrobitik sortutakoak erabiltzea izanen litzateke irizpide zuzena. Maileguen gainetik garbitasuna lehenesten da:

> «La solución purista euzkéricamente es la ideal; siempre las voces derivadas de raíces propias son más euzkéricas y hablan más al alma euzkeldun que las erdéricas» (235).

Honela, euskaragoa da esatea, adibidez, *txindi*, dirua baino, *margo* kolorea baino, *oben* pekatu baino, *bijotz-miña* doloria baino. Hitzak sortzeko orduan, jatorrizko formaren bila joan behar baita, eboluzio-metodo historikoa erabiltzea proposatzen da, bere garaian Astarloak eta Sabino Aranak beren azterbide etimologikoetan egin bezala (236). Bestalde, orokorrean, ikuspegi negatiboegia, aurreiritzi sobera, agertzen du Altubek euskararen egoerari buruz, noiz eta Euskal Pizkundearen gailurrean, euskara berpizten ari den unean (237). Euskara salbatuko bada, ez da nahikoa jende ikasiek erabiltzea, ezinbestekoa da bizitzeko beharrezkoa egitea ere. Euskarak biok behar ditu: ohorea bereganatzea eta herri xumeak bizitzeko beharrezkoa izatea:

> «Es deber del patriotismo hacer el Euzkera necesario para la vida» (238). Euskara batua eta horrelakoak, hori ziurtatuta eta gero etorriko dira, herria euskaraz kulturizatuko denean, alegia (239).

---

(232) Ibid., 138.or.

(233) Ibid., 144.or.

(234) «La vida del euskera por Altube'tar Seber», *Euzkerea*, VII, 1935, Urtarrila-Otsala, 432-447; VIII, 1935, Epala-Jorrala, 489-500.orr.

(235) *Euzkerea*, VII, op. cit., 439.or.

(236) «Quede, pues, anotado que admitimos y creemos ciertos los principios de Astarloa sobre las raíces de las palabras primitivas, principios explicados y desarrollados por Arana-Goiri, a pesar de la oposición de los científicos a dichos principios» (*Euzkerea*, VIII, 1935. op. cit., 499.or.).

(237) Ibid., 500.or.

(238) Ibid., 499.or.

(239) «La unificación literaria del idioma es muy apetecible para los literatos; pero mientras el pueblo no tenga más cultura euzkérica, será tan contraproducente o más que el lenguaje literario renacentista, contra el que tanto clama el Sr. Altube» (Ibid., 500.or.).

2.2.4. Arana Goiri euskalariak Euskal Pizkundearen ondoren ere bere itzala eginez segitzen du mugaz bestaldean ere. Dirudienez, batasun ortografikoaren inguruan XX. mende-hasieran goritutako txingarrek itzaltzeke jarraitzen dute. Oraingoan A. Tournier jauna da *Gure Herria* aldizkaritik mintzatzen dena, zuzendaria bera. Garbizalekeria errotik kondenatzen du, uste baitu euskararen bizitzarekin bukatzeko zepo bat besterik ez dela (240). Hala gertatzen da herriak fitsik ulertzen ez dituen hainbat hitz berrirekin. Eta horrelakoak horrenbeste ugaritu dira, euskararentzat egiazko arrisku bihurtu direla (241).

Horrelako neologismoak ez onartzearen arrazoia da euskal hitzetatik lautik hiru maileguz eratorriak direla, hizkuntza desberdinetatik jasoak, gehienak latinetik. Beraz, *xadon* bezalako hitzak lekuz kanpo daude euskal hiztegian. Sabino Aranak ere, ezjakintasunaren ondorioz, hanka sartu zuen Lapurdiko *errienta* euskal hitz jatortzat hartzean, izanik den bezala, gaskoinetik hartua, kasurako berak baztertu nahi zuen *maestu* bezain arrotza (242). Nolanahi ere, ez dira asmatutako hitz guztiak baztertzekoak, hala nola *burdin bidea, lur sagarra, beribila, pirripitta*, nahiz eta erabiliagoak diren *treina, patata, otoa, otobuza, bizikleta*. Euskal hitzak nondik datozen jakitea baino lehenagoakoa da –garrantzitsuagoa, alegia–, aspaldidanik euskaldunduta dauden eta zazpi probintzietan erabiltzen diren hitz horiek, nahiz jatorriz erdarazkoak izan, gorde eta zaintzea. Hizkuntzaren osasunak eskatzen du mintzatua eta idatzia elkarren ondoan orpoz orpo joatea, beti ere herriak erabiltzen dituenari lehentasuna emanez, *teatru, phesta* eta *erlijione*-ren lekuan *antzoki, jai* eta *urkutz* jartzen ibili gabe. Ez dago Gernikako Arbolan datozen hitzak *–arbola, bedeinkatua, mundua, fruitua, adoratu* eta– aldatzen ibili beharrik.

Kontraerantzuna hurrengo zenbakian dator, erbesteturik dauden Hegoaldeko bosteko idazle-talde batek izenpetua, zehazki Sebero Altube, Jesus Maria Leizaola, Zeferino Jemein, Telesforo Monzon eta Doroteo Ziaurritzek (243). Mindura agertzen dute Sabino Arana euskalariaren jakintza auzitan jarri duelako, lehen transkribatu dugun hari buruzko esaldian erdi-trufazko hitzak erabiltzen baititu, hala nola «la bébue», «faire une trouvaille», «son ignorance». Ohar batzuk egiten dizkiote: bat, Bidasoaz hemendik ez dela inoiz *maestu* esan, *maisu* baizik, eta bera dela txirrist egiten duena; bi, Arana Goirik jendearen aurrean ez duela sekula *errienta* hitza erabili izan; hiru, Hego-

(240) «Le purisme absolu est non seulement une utopie, une leurre, mais encore un véritable suicide» («Quelques réflexions sur le purisme et le néologisme en basque», 1951, Ephaila-Ostaila, Ustaritz, 120.or.).

(241) «Cette floraison de composés qui ne veulent être qu'euzkariens et qui ne sont souvent qu'abracadalabrants constitue un réel danger» (Ibid., 123.or.).

(242) Hauxe dakar berari buruz: «Cela rappelle la bévue de Sabin Arana qui, dégoûté d'entendre outre-monts le maître affublé du titre de *maestu*, avait cru faire une trouvaille dans le labourdin *errienta* dans son ignorance du gascon *rigent* et du français *régent* que l'on trouve très employé dans les anciens textes, dans les fables du La Fontaine par exemple» (Ibid., 121.or.).

(243) «Un procès linguistique autour de Sabino Arana Goiri», *Gure Herria*, 1951, Maiatz-Ekhaina, 188-189.orr.

aldeko euskalkietan, bi hitz erabili zituela, bata *irakaslari* irakasle profesionala izendatzeko, eta *irakasle*, pedagogo profesionala ez den maisua izendatzeko. Bi hitz horiek, Pierre Lhanderen hiztegian oharrarazten den bezala, Harriet kalonjea 1878an egiten hasitako eskuizkribuzko hiztegian baitatoz, litekeena da Arana Goiriren lanak ezagutzea eta hortik hartuak izatea. Odolkiak ordainetan izaten direnez, Oxobiren esaera honekin ematen diote bukaera beren orri biko idazkiari:

«Un ikasle n'a pas l'outrecuidance de vouloir donner des leçons 'à l'irakasle'».

Oraindik ere Sabino Arana maisutzat daukate jeltzaleek, eta oraingoan ez bakarrik Keperin Jemeinek, baita hain garbizaleak ez diren beste lau horiek ere, lehen aranazaleek antiaranazaletzat jotako Altube bera barne dela.

Noski, Tournier jaunak ez du gogo onez irensten «ikasle eta ezjakintzat» (*d'apprenti et d'ignorant*) hartua izatea (244), desenkusatzen da esanez 1899an utzi zuela Euskal Herria eta Ipar Afrikan hogei urtetik gora egin ondoren itzuli zela 1945ean, eta etxeratzean minez ikusi zuela euskara nola ari zen galtzen eta mugak zenbat bereizten zituen Iparraldekoak eta Hegoaldekoak, zenbait kasutan Sabino Aranaren izena ez ezagutzeraino. Honek, bere azken arrapostuan, hasieran botatzen die bere ziztakoa: «Pauvre ikhasle, qu'allais-je faire parmi tant de savants irakasle?» (245).

Estabaida, musean bezala, enbido eta ordagoka bukatzen da, noizbehinka zirtoak tartekatuz eta, jakina, bakoitzak bereari eutsiz.

2.2.5. Euskal Pizkundearen luze-zabalean ez ziren *Euzkel Bazkuna*-koak bakarrik izan beren buruak Sabino Arana euskalariaren ondorengotzaren aitorletzat zeuzkatenak. Gerraurrean, Aitzolen gizaldiko hainbatek, Lizardi eta Lauaxetak tarteko, men handia zioten Arana Goiriri. Gerraostean, *Euzko-Gogoa* aldizkariko zuzendariak, «Etxetxo» ezizenez izenpetzen duen Jokin Zaitegik, lehen zenbakian Sabino Aranaren izena ezartzen du Euskal Pizkundearen ardatz gisa Guatemalan: «Arana-Goiri'k beraren idatziz, esanez ta eriotzez abertzaletasuna ereiñik zun Euzkadi osoan. 'Euzkadi dugu euskotarren aberria'. Asmo orren bidez euskaldun geientsuenen biotz-gogoak bestelakotu zitun Arana Goiri'k. Onek piztu zuen argi berriaren izpietara, Euzkadi euskotar egin zuten Irakaslearen ikasle purrukatuak» (246). Aldizkari hau izango da, jeltzaleen artean bederen bai, Arana Goiri euskaltzalea baino harago joango direnak, errebindikatzean euskararik gabe ez dela Euskal Herririk, euskararik gabeko euskal kultura ez dela benetakoa eta, azkenik, Euskal Herria euskarak salbatuko duela. Honetaz beste nonbait ari baikara (247), esana bego horretantxe. Dena den, ez genuke gure mintzaldi hau bukatu nahi

(244) «Réponse à un Groupe de Basques», *Gure Herria*, 1951, Buruil-Urrieta, 225-298.orr.
(245) Ibid., 295.or.
(246) «Aitzol'en Gizaldia», *Euzko-Gogoa*, I, 1950, Ilbeltza, 5.or.
(247) Iztueta, Paulo, *Erbesteko euskal pentsamendua*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2001, 81-96.orr.

oraintsu arte indarrean egon den uste oker bat zuzendu gabe, pentsatu izan baita Fernando Sarrailh de Ihartza izan dela bere *Vasconia* famatuan Sabino Aranaren errore arrazista salatzen eta euskara euskal nazionalitatearen osagai oinarrizkotzat ezartzen lehena (248). Euskarari Euskal Herriaren eraikuntzan ematen zaion lehentasunari dagokionez bederen, bera baino lehenago esnatu ziren, arestian esan bezala, *Euzko-Gogoa*-ko zuzendari eta lankideak. Horretaz ez da zalantzarik.

III. Arana Goiriren ekarria bere mendeurrenean

Aranazaleak izan ez diren beste hainbatek ere aho batez onartu izan dute Arana Goiri izan dela Euskal Pizkundearen eragile nagusia, zeruan gaindi ibili zen arrano galanta. Azkuek guztien gainetik jartzen du haren izena, nahiz elkarren artean lehiakide amorratuak izango diren (249); Kirikiño hark ereindako landareaz ari da, bereziki bigarren aroan (250); Orixeren ustez ere, aldekoak nahiz kontrakoak izan, hura daukate eragile nagusitzat (251). Halere, autore handienekin bezala, harekin ere kritikak bere galbahea pasatzen du xehe eta mehe. Beraz, gogoetak eta balorazioak egiteko unea da azkeneko hau, haren inguruan galdera anitz eta mota askotako salakuntzak egin baitira.

---

(248) Ediciones Norbait, Buenos Aires, 1962, 21-30.or.

(249) Zehaztuz etorri garen bezala, Azkue eta Sabino Aranaren arteko desadostasunak bistakoak izan ziren, ez bakarrik politikagintza eta hizkuntzalaritzan, baita euskal kulturgintzan ere, azken esparru honetan nor nori aurrea hartuko ibili baitziren: Sabinok *Euskeldun Batzokija* sortuko du 1894an eta Azkuek *Euskeldun Biltokia* 1895ean; 1896an, bakoitzak bere aldetik bere ortografi proiektua aurkeztuko du; Azkuek *Euskelzale* aldizkaria kaleratuko du 1897an, eta Sabinok, berriz, *Euzkadi* 1901ean (Jurgi Kintana, op. cit., 25.or.). Bakoitzak bere bidea egiten du euskararen esparruan, elkarrena errespetatuz zenbaitetan amorrazioz bada ere. Bietako inork, maila desberdinetan bada ere, ez dio ukorik egingo bere ikuspegi politikoari. Azkuek ere bazekien politikari indartsuekin negoziatzen, ezkutuko politika –arras pragmatikoa, gainera–, egiten, horretarako jende aurrean politika-gizon gisa agertu beharrik izan gabe. Errazagoa da agerikoa ikustea, ez eta ezkutukoa baino. Zientziaren egitekoa da, hain zuzen, ezkutukoa agerian jartzea.

(250) Ebaristo Bustintza idazlearen ibilbidea ere ez zen guztiz lerrobakarrekoa izan. Mañarian 1886an jaioa, Almansa-ra (Cáceres) joan zen bizitzera bere familiarekin 1878an, baina euskarari ondo eutsi zion. Madrilen matematika eta fisikan lizentziatura lortu ondoren, Guadalajaran irakasle zegoela, Azkuek deiari erantzunez, Euskal Herrira 1899an itzuli eta, berehala, *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkarietan hasi zen idazten eta geroago, Azkuek Europan egiten duen epealdian (1904-1909), Bizkaiko Diputazioko Euskarako Katedran Azkueren lekua hartu zuen. Azkuek laurogei inguruko ikasle-kopurua utzi zion. Aurretik hirurehundik gora ikasle eskolatuak izan ziren han, horien artean Kirikiño bera eta Isaak Lopez Mendizabal (Jurgi Kintana, op. cit., 67.or.). Lehen aroan, bada, jarrera moderatua erakutsi zuen ortografian bezala politikan Azkueren gerizpean. Harenean aldaketa nabarmena EAJko kide bihurtzean ematen da, 1909an *Bizkaitarra* astekariko euskal sailaren ardura eta 1913an *Euzkadi* egunkariarena hartzen duenean, hain zuzen, bigarren arotzat jo daitekeen honetan hasten baita sabindar eredura hurbiltzen, batez ere, fonetika eta ortografian, tarteka neologismo batzuk ere sartzen dituelarik (Ibid., 138.or.). Garbizalea bada, bai, baina neurri dosifikatuan. Horregatik aupatuko du hainbeste Sebero Altubek.

(251) Akesolo, Lino, op. cit., XVIII-XIX.

1. Arana, politikari ala/eta euskalari?

Aranak bere zigilua uzten du jorratutako arlo guztietan. Hain da autonomoa bere iritzi eta jokabideetan, politikoetan bezala bestelakoetan, hurbilekoenak zaizkionekin edota, Azkue zein Kanpionen kasuan bezala, fonetikan maisutzat dauzkanekin ere ez baitu amore emango eta eztabaida garratzak izango baititu. Ideologia politikoan ez eze, euskalaritzaren alorrean ere iritzi kontrajarriak zituztela, jada kontu zaharra da, pasarte askotan egiaztatzen dena. Aranak argudio politikoetan babestuz arrazonatzen zuela arazo espezifikoki linguistikoetan edo literarioetan? Harenean alderdi hau azpimarratzen gogotik saiatzen denik bada (252). Interpretazio honekin aditzera eman nahi bada Arana politikariak argudio soilki politikoak erabiltzen dituela Kanpion politikaria, euskalaria eta literatoa gutxietsi eta deskalifikatzeko, ez bide da erabat zuzena, ez bederen uste bezain ebidentea, zeren, polemika-giroan arma politikoak ere erakutsi zituela egia bada ere, jakin baitzuen militantzia politikoa eta akademikoa garbiki bereizten ere, baita eztabaidaren sua euskaltzaleen komunitatera zabaltzen zenean ere, ortografi batasunaz Hendaia eta Hondarribian egindako Batzarren inguruan bezala.

Orokorrean esanda, euskaltzale eta euskalari zen Arana abertzaleak itzal gehiegitxo egiten ote zuen errezeloa geneukan, eta, orain, Broussainen 1902ko abuztuaren 11ko gutun batetik hartutako esaldi hau transkribatzean, pentsatzen genuenari eusteko arrazoi bat gehiago atzematen dugu:

> «Vds. no ignoran de qué prestigio goza Arana-Goiri ante muchos de sus compatriotas de Vizcaya. Gracias a esta popularidad y a su calidad de jefe de partido, puede dar un gran vuelo a la obra que nos es querida, como de igual manera puede aportarle un perjuicio enorme» (253).

Noski, haren nortasunari mirespena zioten, eta, aldi berean, zehazki euskal ortografiaren arazoan beldurra ere bai, haren iritziak, bere esanekoen laguntzarekin, erabakien balantzari alde batera eragin baitziezaiokeen. Hemendik etorriko dira beste taldekoen erreserbak eta kontraerasoak. Dena den, ulertzekoa hau ere.

Azkenik, Arana euskalariaz jardun baikara, galdetzekoa da zein neurritan zen aditua harrotu zituen gaietan, izan baitira, Akesolok bere garaian salatu

(252) J. Javier Granja Pascual-en tesia da Aranak Kanpionen kontra egindako erasoak irizpide hertsiki linguistikoak ez ezik, askotan politikoak erabiliz egindakoak direla: «Creemos que en la relación Arturo Campión-Sabino Arana (ya también después de la muerte de éste, con sus discípulos) se dan ambos factores a la vez y en todo caso existe, con diferencia de trato por parte de ambos escritores: mientras que Arturo Campión dirige sus ataques a Sabino Arana y los aranistas sin aportar criterios políticos, Sabino Arana ataca, en muchas ocasiones con dureza, con hechos políticos que arroja contra Campión» («Divergencias lingüísticas y literarias entre Arturo Campión y Sabino Arana», *Fontes Linguae Vasconum*, año XVI, 43, Enero-Junio, 1984, 156 or.). Beste pasarte batean, berriz, hauxe dio Granja-k: «Aunque lo que hasta ahora hemos observado, las relaciones en cuanto a temas literarios y gramaticales no fueron muy buenas, la constante de los ataques aranistas viene marcada por la crítica política y en menor grado por la lingüística» (Op. cit., 161.or.).

(253) OC, III, 2144.or.

bezala, gaitasuna ukatu diotenak (254). Baina berak, beti hala jokatu zuen ala ez alde batera utzita, esparru zientifikoan arrazoiaren autoritatea besterik ez zuen onartzen» (255). Bestalde, Aranari berari irakurria diogu, bi lekutan bederen bai, oso alferra zela irakurtzeko. Gutxi irakurtzeak bere desabantaila handiak ditu, batez ere, ikerketa-mailan, beste iturrriak ere ezagutu beharrekoak izaten baitira aurrera egin ahal izateko. Norbera bere kabuz ibiltzeak, intuizio handikoa izanda ere, beti arriskutsua da, diskurtsoa arras arrazonatua izanda ere, gerta bailiteke desbideratua izatea.

Galdetu izan da, orobat, Aranak zenbateraino ezagutzen zituen autore klasikoak. Batzuen ustez, idazle zahar asko irakurri zituen. Bizkaikoak seguru asko bai, hala nola Astarloa, Zabala, Kapanaga, Añibarro, Fray Bartolomé, Elgezabal, Uriarte (256), eta, bereziki, Mogelen *Peru Abarka*, oso zehatz (257); Hernaniko Agustin Kardaberaz ere bai. Bonaparte, Van Eys, Intxauspe eta, aipatzen dituen arren, ez bide zituen irakurri Iparraldeko klasikoak, ez Etxepare, ez Leizarraga, ez Azular. Baina «Paster Noster»en euskal itzulepenez ari delarik, Zuberoa eta Nafarroa Beheko idazleak bazter uzten ditu, baina Diharassaryren *Giristino Legea* (1887) oinarritzat harturik, lapurdierazko itzulpena zuzentzen du (258). Nolanahi ere, esan behar da ez dela harritzekoa Aranak autore klasikoen bibliografian hutsuneak izatea, horien argitalpenak artean urri baitziren (259).

Nolanahi ere, Arana euskalariaren alderdi hau aztertzerik ez dagokigu, ez baita hau gure oraingo asmoa. Ikerketa monografikoek dute hemen hitza. Honi buruz esan dezakeguna da, euskalaritzaren sailean egin diren ekarpenen bibliografía espezializatua irakurtzean, gaurko euskal hizkuntzalari profesionalek apenas aipatzen dutela Arana Goiriren izena. Hala ere, ugalduz doaz Aranari buruzko lan monografikoak (260) eta horietako batzuen edukia aztertzera pasatuko gara.

1.1. Euskalarien sailetik begiratuta, Ricardo Gómez (261) da Aranaz aritu denetako bat. Honek, euskalaritzan egindako ekarpenen historiografia burutze-

(254) «Oker bardinean jausten da Aranari kritikalari izateko gaitasuna ukatzen deutsana, edo jakintza-bideen usainik artzen ez dakienetako garbitzat daukana» (Op. cit., XI).

(255) «No hay más autoridad que la razón en materia científica, ni más juez que falle en esta contienda ortográfica que el sentido público. Aquel sistema gráfico que al público *euskeldun* le parezca más conveniente, ése será el que prospere sobre todos los demás» (*Lecciones de Ortografía del Euzkera Bizkaino*, op. cit., 814-815.orr.).

(256) Lafitte, Pierre, op. cit., V.

(257) Akesolo, Lino, op. cit., XVI.

(258) Lafitte, Pierre, op. cit., V.

(259) Ibid.

(260) Itziar Lakak, 16. orrialdeko 5. oharrean, Ines Pagolak aztertutako «Sabino Aranaren zenbait neologismo» hitzaldiaren berri ematen du, baina ezin eskuratu ahal izan dugu lan hori.

(261) «Euskalaritzaren historia eta historiografia: ikerketa-arloaren egoeraz», ASJU, XXXI-2, 1997, 363-391.orr.

an, hiru aro bereizten ditu: a) Errenazimentua (1660-1790), b) Larramendirena XVIII. mendean (1880. urtea arte), eta c) XIX. mendekoa. Azken mende honen bukaerako testuinguru historiko honetan kokatzen du egileak, hain zuzen, Aranaren ekarpena. Garai honetan lekuko euskalariak –hauen artean Astarloa, Azkue, Kanpion, Arana eta–, dira atzerriko hizkuntzalarien –bereziki Humboldt, Bonaparte printzea, Vinson, van Eys, Hervás-en eta–, argitasunak eta ekarpenak jasotzen dituztenak, orduan sortzen baita Europan, buru Humboldt dela, hizkuntzalaritza modernoa. XX. mendean sartuko ginateke euskararen normalizazioaren bidean. Eta eginkizun honetan, jadanik mendearen goiznabarretik hasita, bi joera nagusitu izan dira: bata aprioristikoa, eta bestea zientifikoa.

Lehenengo jarrera sostengatzen dutenen ezaugarria da, euskara aztertzeko metodo aprioristiko eta logikazaleak erabiltzen dituztela. Korronte honetan kokatuko lirateke, zehazki, Astarloa eta honen jarraitzaletzat jotzen den Sabino Arana. Mitxelenak esana da Aranaren hizkuntza arauak printzipio logikoetan oinarrituta daudela eta, aspaldiko hitz mailegatu euskaldunduak baztertu eta horien euskal ordaina garbizalekerian bilatzeko joera, hain zuzen, azterbide horretan zehazten dela (262). Hortik sortzen den euskara-ereduari «hiperbizkaiera» deituko dio berak (263). Berrikitan Itziar Lakak (264) azaldua du bere doktoretesian Aranaren hiperbizkaierak Azkue gaztearen *Euskal Izkindea*-n eta bertan proposatutako aditz-sistema berrian duela bere jatorria, nagusiki –eta bereziki– aditz teoriari dagokionez, eta lan hori Astarloaren lanean oinarrituta burutua duela. Era berean, Sabino Aranak Azkueren hainbat proposamen bere egiten ditu, hasierako lanetan ez hainbeste, azken lanetan gero eta nabariago (265), eta geroztik aranazaleen eskolakoak izango dira –hauek bereziki eta bakarrik horiek–

(262) «Tenía además una ciega admiración, muy vasca, por la lógica: en nombre de la consecuencia nunca vacilaba en aceptar una conclusión, por extraña que resultara, si ésta parecía seguirse de los principios que se había fijado. Por esto es él el responsable principal, aunque no el único, de un cierto ideal de pureza que ha tenido larga vigencia entre nosotros. Ha consistido éste en rechazar los términos vascos de origen extraño, que como se sabe no son escasos, aunque estuvieran ya avencidados en la lengua desde fechas muy antiguas. Todavía resulta más grave su tendencia, acentuada en algunos de sus discípulos, a innovar en la gramática siempre que la 'lógica' parecía exigirlo» (*Historia de la literatura vasca*, op. cit., 146.or.).

(263) Mitxelena, Koldo, «Lengua común y dialectos vascos», ASJU, XV, 1981, 300.or.

(264) «Sabino Arana Goiri eta Hiperbizkaiera (Hiperbizkaieraren historiaz. III)», *Anuario del Seminario de Filología Vasca, Julio de Urquijo*, XXI-1, 1987, 13-39.orr.

(265) «Erakusten saiatu garenez, Aranaren eredua eta Azkuerena, urte beretsuetan sortzen dira biak, eta darabilgun gaian eta garaian behintzat, Azkue askozaz berrizaleago ageri zaigu, tradizio idatziari dagokionez. Ondorioz, uste dugu berezi beharreko sailak direla, mende bukaeran jaio eta XX.aren hasieratik aurrera zabaltzen den bizkaiera idatzi berrian, Aranak irekiriko bidea, hots, ortografia sistema eta neologismo sorta bat -edo agian hobe litzateke esatea, neologismo hoiek baino garrantzitsuago bait da, erdal kutsuko hitz guzti guztiekiko jarrera garbizalea, bere jarraitzaileek hitz berrigintzan hasirikoa jarraitu bait zuten-, eta bestetik eredu horrek biltzen duen aditz laguntzailearen sistima eta joskerari buruzko zenbait berezitasun, Azkueren eskutik sorturikoak gehien bat, hau maizegi azpimarratu ez bada ere. Urteen buruan, haatik, Azkuek sorturiko ereduaren eragina gero eta nabariago egingo da Aranaren lanetan, bakanka aurki daitezkeen adibideetan lehenik, ugarituz gero, azken lanetan osoro makurtzeraino bere hizkuntza hiperbizkaieraren sistimara» (Laka, op. cit., 24 or.).

hiperbizkaieraren eredu hori onartu eta zabalduko dutenak. Horietako batzuk, hala nola Arriandiaga, Etxaide, Soloeta-Dima eta, bizkaierazko joera garbizalea beste euskalkietara hedatzen ahaleginduko dira (266).

Jarrera zientifikoa erakutsi dutenen artean gehienak hizkuntzalari atzerritarrak ziren, hala nola Schuchardt, Uhlenbeck, Saroïhandy, Gavel, etab.; eta bertakoen artean, Azkue heldua, Altube eta Urkijo bera. Hauen lanak Urkijok zuzendutako RIEV aldizkarian emango dira argitara eta, orobat, hauek izango dira euskalaritza berriaren zimentarriak botako dituztenak Eusko Ikaskuntzako I. eta III. Batzarretan, Oñatin (1981) eta Donostian (1923) egindakoetan, Menéndez Pelayo, Amado Alonso eta Navarro Tomás espainolekin batera (267). Lekuko euskalarien zerrenda honetan, berriro diogu, Sabino Arana ez da agertzen. Ezta Kanpion ere. Antza, ez dira euskalaritzat hartzen. Ez ote du hor lekurik?

1.2. Garrantzitsua da, arestian esan bezala, euskalaritzaren alorrean egindako ikerketak testuinguru historikoan kokatzea eta horren barruan aroak bereiztea. Baina, aldi berean, ez da garrantzi gutxiagokoa hizkuntzalaritzaren historian, orokorrean eta gurean, maila teorikoan nolako eboluzioa eman den eta ikerketetan nolako norabideak nagusitu diren, edota hizkuntzaz kanpoko faktoreen eragina zenbaterainokoa izan den jakitea. Puntu hauek guztiak argitzera dator egile bera beste artikulu batean (268), eta hemen, besteak beste, euskalaritzaren historiografiak planteatzen dituen zenbait arazoz jardutean, historialariaren gainetik hizkuntzalariak izan behar duen perspektiba subjektiboaz ari da. Aranaren kasuan, hain zuzen, alderdi horixe da berak nabarmentzen duena (269). Bestalde, hasieran esan bezala, onartutzat ematen da ukaezinezkoa dela, «begien bistakoa» egilearekin esateko (270), Arana-Goiri politikariaren eta euskalariaren arteko lotura. Beste euskalarien kasuan ez? Non daude mugak? Nork finkatzen ditu?

2. Euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna

Egia da, euskara Aberriaren esanera jarri zuela, haren zerbitzura. Kanpion eta Azkuerekin izandako eztabaidetan, edo ortografi batasunaz izandako

(266) Gómez, op. cit., 1997, 378.or.

(267) Ibid., 378.or.

(268) «Euskalaritzaren historiaren ikerketa-norabideak: zenbait proposamendu», *ASJU*, XXXI-2, 1997, 393-409.orr.

(269) «Historia(lariaren)ren subjektibotasuna eta askotariko interes eta ikuspegiak euskalaritzaren historiaren esparruan ere antzeman daitezke: Esate baterako, ikerlari batzuk Arana Goiriren lanetan hitz berri ugari sortzea, beste hainbaten asmakizunerako iturri izatea eta, horren bitartez, euskaran tradizio aski luzea zuten mailegu latin-erromaniko asko ezabatzen saiatzea azpimarratu dute; beste zenbaitek, aldiz, Larramendiren eraginarekiko haustura nabarmendu dute, horrela euskaldunen jatorri iberikoa eta, ondorioz, euskaldunen Espainiarekiko lotura deuseztu asmoz» (Ibid., 400.or.).

(270) Ibid., 406.or.

Batzar haietan, Sabino Arana bere itzal politikoaz baliatzen zela esaten zen, eta da. Argudio bera erabiliz, galde liteke beste euskaltzaleen atzean ere ez ote zegoen alderdi jakinen bat, inplizituki edo zeharka bederen.

Euskaltzaletasuna abertzaletasunaren barruan sartzean, euskara Euzkadi deitzen dion nazio-proiektuaren baitan kokatzen du Sabinok, eta horrela egitean, jakina, Espainiako edota Frantziako politikari atxikirik segitzen duten Euskal Pizkundeko beste euskaltzaleek ez bezala jokatzen du. Horregatik kritikatzen ditu abertzaleak ez diren euskaltzaleak, hauek frantses eta espainol nazionalistatzat dauzkalako, hain zuzen. Puntu hau argitu beharra dago, orduko nahasketak oraindik ere indarrean segitzen baitu. Beste maila bateko arazoa da, arras desberdina, nazio-proiektu horren barruan euskarari nolako garrantzia eman zion, boterearekiko harramenean hizkuntzari nolako autonomia aitortu zion eta, azkenik, euskalari gisa aritu zenean bere irudi politikoak zenbaterainoko eragina izan zuen jakitea. Horregatik, Arana politikari abertzaleaz, euskaltzaleaz eta euskalariaz jardutean, lau maila bederen bereizi beharra dago, hots: a) euskaltzaletasunaren eta abertzaletasunaren –zein nazionalismoaren– arteko harremana, b) nazioaren eta hizkuntzaren arteko harremana, c) hizkuntzari –euskarari– ematen zaion trataera autonomoaren norainokoa, eta d) euskalariaren gizarte-inplikazioa, Soziolinguistikak argitzen duena.

Sarritan ahazten den baieztapen bat ere egin beharra dago hemen, eta da, Aranaren garaian eta geroztik, abertzaletasuna izan dela euskaltzaletasunari gehien eragin diona, eta euskara eta euskal kulturaren aldeko bultzada horrek ez daukala deus fundamentalismotik, eta alderantziz bai asko estatu-zentralismotik jariotzen den asimilazio fundamentalistaren kontrako erresistentziatik. Zorioneko eguna euskarak euskal nazionalismoaren beharrik izango ez duen hura, zorionekoa hizkuntza politika instituzionala noizbait Euskal Herria euskalduntzeko bidean jarri eta euskaldun bihurtuko duen hura, zorionekoa beharrik sentitu gabe euskaraz mintzatuko den hura. Baina datuek aspaldion besterik erakusten dute, euskarak herrialdeka izan duen erabilera orokorrean apala izateaz gain, 1989-2001eko epealdian, Gipuzkoan bakarrik egiten baitu aski nabarmen gorantz, % 23tik %30era, 7 puntuko igoerarekin; Bizkaian ere egoera zerbait hobetzen da hiru puntu irabaziz, hots, % 8tik % 11ra igaroz; Nafarroan % 7an mantentu egiten da osta-osta, eta beste bietan, berriz, puntu bat egiten du behera, Araban % 4tik %3ra, eta Ipar Euskal Herrian % 7tik % 6ra (271).

Politikaren eta hizkuntzaren arteko harremanaz, orobat, bada zer eztabaidaturik. Izan ere, euskararena despolitizatu beharra dagoela esan eta esanka ari zaizkigu, ez dela inor susmopean hartu behar arrazoi ideologikoengatik. Baina susmagarri gertatzen da despolitizazioaren defentsa hori, nondik eta, asko-

(271) Martinez de Luna, Iñaki, «Euskeraren kale-erabileraren azken emaitzak», *Jakin*, 130-131, Donostia, 2002, 229.or.

tan euskalgintzan garbiki kontrakoak edo zeharo epelak direnen aldetik datorrenean eta, batez ere, konturatzen garenean beren iritzietan arrazoi soilki akademikoak –linguistikoak– erabiltzen dituztela dioten horiek, hauek ere, ohargabean edo ohartuta, beren ideologia politikoa ezkutatzen dutela. Noiz egingo da alde bateko edo besteko nazionalistak ez diren euskaltzale horien zerrenda? Edo, non dago beren buruak apolitikotzat dauzkaten euskaltzaleen erresuma? Non, arrazoi akademiko huts-hutsa? Sabinoren eskolari zuzenketa asko egin zaizkiola geroztik? Baiki. Baita bere garaikide Kanpion eta Azkueri ere, eta beste hainbati. J.M. Barandiaran ere ez da salbatzen.

Egiazko arazoa, ordea, ez da hori, kritikak aberasten baitu jakintzaren kutxa. Arazoa, eta benetan larria, euskal nazionalismoaren familia ideologikoan lerrokatzen diren euskaltzaleen lana –akademikoa nahiz bestelakoa– sistemaz deskalifikatzearena da. Badirudi horrelako salatzaileak –hauek bai oso eruditо eta intelektualak– inungo nazio eta estaturi atxikirik gabeko hiritar unibertsalak direla, egungo izaki globalizatuak. Aranaren garaian, eta ondoren, ez al ziren alderdi politiko jakin batekoak izan lehen aipatu diren horiek guztiak? Hizkuntza, estatu-boteretik hasi eta botere autonomikoetaraino, superpolizatua dago eta horien bitartekari instituzionalak, orobat, erabat politizatuak aurkitzen dira hizkuntza politika jakinen erantzule diren neurrian. Berdin klase politikoa. Kontua da, euskararen sustapenari buruz zer-nolako jarrera izan duten, eta duten, Euskal Herriko alderdi estatalek eta nazionalistek. Jakin beharrekoa da, era berean, gurean integrazioaz hain gora hitz egiten den interkulturalismoaren euforia honetan, nolako jarrera agertzen duen lekuko jendeak eta nolakoa kanpotik etorriak. Ez baitugu gaurkorik, 1986ko datuen arabera, % 69,91 ziren erdaldun elebakarrak, eta hauetatik % 40 etorkinak ziren eta % 39, berriz, bertakoak. Nahiz eta erdaldun-multzo horretako % 52k beren burua euskalduntzat hartu, euskarari dagokionez, ordea, ageri da gehienek ez dutela inolako interesik, beste % 25ek aurkakoa duela, eta aldekoa, berriz, % 24k bakarrik (272). Hau zen orduko erradiografia. Bistan da, bertako jendeaz ari garenean, jende hori zein alderditan kokatzen den.

Beraz, gure ikuspuntua nolabait laburtuz esango duguna da, gauza bat dela hizkuntzarena elkarte pribatu batek, alderdi politiko batek edo erakunde publiko batek monopolizatzea eta beste bat erabat despolitizatzea. Hizkuntza ezin da despolizatu, hizkuntzarenean botere-arazoa tartekatzen delako eta, segun eta nolako hizkuntza politikak finkatzen eta ezartzen diren, alternatiba kontrajarriak egon daitezkeelako. Besterik da herritar guztien ondarea den aldetik, guztiena dena alderdi jakin batek, edo botere administratiboak monopolizatzea. Maila honetan, bada, zentzu osoa du abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren esparru autonomoak garbiki bereizteak nola teorian hala praktikan.

(272) Aizpurua, Xabier, «Euskal Herriko biztanleen hizkuntza gaitasuna», *Jakin*, 77-78, Donostia, 1993, 91-106.orr.

Boterearen eta hizkuntzaren arteko lotura etenezina den neurri berean da alboraezina euskalariaren inplikazio soziopolitikoa, hiztunok ez baikara neutroak hizkuntzen aurrean. Hizkuntz ordezkapenaren errealitatea hor dago, gizarte-gatazka baten ondorio gisa. Gurea bezalako herri txiki eta deuseztu batean entzuten da preseski ez dela inor behartu behar euskara ikastera, politika horrek, maitagarri ordez, gorrotagarri bihur dezakeelako. Ederki esana. Musika hori oso ezaguna da, egun asko saltzen dena klase politikoan eta ez gutxi literatura akademikoan. Zalantzarik ez entzungarria ere badela, maila teorikoan kultura eta politika bi esparru automo diren neurrian. Abertzale izan beharrik ez dago euskaltzale izateko. Euskaltzale izan daitekeela euskal nazionalista izan gabe, gaurgero, ebidentzia bat da. Ebidentzia bat den bezala, euskal nazionalismoaren historian abertzaleak oro ez direla izan, ez lehen ez orain, euskaltzaleak. Ebidentzia bat da, halaber, arrazoi guztiak, akademikoenak izanda ere, ez direla maila berekoak izaten, eta azkenean, denborarekin, egiaztepenen froga gainditzen dutenek egiten dutela aurrera. Eta zentzu honetan esan beharra dago intelektualen komunitatean aurkitzen dituela zientziak desarrazoirik nabarienak, batez ere boterearen esaneko bihurtzen denean.

Sabino Aranak, euskaltzaletasuna abertzaletasunaren zerbitzura jartzean, morrontza-lanetan jarri zuen euskara, baina fede onez, uste baitzuen abertzaletasuna zela euskara sustatzeko biderik behinen eta eragingarriena. Baina badu Abandakoak hori baino oker handiagorik egina, euskarari ez baitzion aitortu nazioaren eraikuntzan zegokion lekua. Lehen esandako arrazoiengatik, elementu kulturaren gainetik, bere sustraiak biologian zeuzkan arrazaren kontzeptuan aurkitu uste izan zuen Euskal Herri historikoaren iraupenerako bermerik sendoena. Ikuspegi hau, esan bezala, *Euzko-Gogoa*-k gainditzen du, Euskal Herri berreuskaldundu baten aldarrikapena eginez.

3. Sabino Arana arrazista?

Hainbaten ustez, Aranak euskararen sailean egindako berrikuntzak oro, euskaldunak erdaldunengangik bereiztearren egin bide zituen, arrazakeriak eraginda edo. Hemendik zetorkiokeen, antza, ortografia, nahiz izendegia, nahiz lexikoa berritzeko grina. Bereizkeriaren zama astuna bota izan zaio gainera.

Arraza gauza bat da, arrazakeria deitu ohi zaiona, jokabide politiko eta ideologikoengatik bereizkeriaren praxia islatzen duenean, eta beste gauza bat, oso desberdina, arrazaren kontzeptua zentzu genetikoan erabiltzen denean, maila akademikoan, alegia. Azken adiera honen harira, L. F. Cavalli-Sforza Stanford-eko genetista ospetsuari jarraiki (273), arrazaren kontzeptuak «dirau-

(273) *Quiénes somos. Historia de la diversidad humana*, Crítica-Grijalbo, Barcelona, 1994, 243-267.orr.

ten eta transmitigarriak» diren, hots, genetikoki determinagarriak diren ezaugarriak barne hartzen ditu. Euskal Herriaren kasuan, ezaguna denez, esparru zientifikoan deigarria gertatzen den datu serologikoa da nabarmentzen dena, Rh negatiboaren presentzia garaia, alegia. Odol-mota hori aztertzean, ohartu ziren Rh negatiboaren maiztasunik garaienak europar jatorriko herrialdeetan ematen zirela, % 15eko portzentajearekin, eta horien artean garaiena, berriz, euskaldunengan aurkitzen zela % 30ekoarekin. Indizea bikoizteak zerbait adierazten du, noski. Bestalde, Afrikan gutxi dira Rh negatiboa dutenak; asiar eta amerindiarren artean, berriz, ez da ezagutzen. Europara kanpotik etorritakoen artean, orobat, guztiak edo ia guztiak Rh positiboa dutenak dira. L. F. Cavalli-Sforzak kontuan hartu beharreko datu genetiko bitxitzat dauka bere azterketan agertzen den fenomeno hau, jadanik M. A. Etcheverry medikuak bere garaian egindako aurkikuntza egiaztatzera datorrena. Eman ohi den azalpena da, aro neolitikoan Europan zehar eman ziren inbasio-gune desberdinen uhinek eta zehazki ekialdetik (Anatoliatik) abiatutako populazio-mugimenduek ez zutela erabat harrapatu euskal lurraldea (274). Badirudi, beraz, adituen artean hedatuena den isolamendu erlatibo horri zor zaiola odol-mota horren maiztasun-tasa garaia, genetistentzat berezia gertatzen dena. Fenomeno hau egiaztatzeak, berez, ez du deus arrazakeriatik.

Aipatu berri dugun bezalako bitxikeriak salbu, orokorrean oso zaila da giza talde desberdinetan denboran zehar dirauten ezaugarriak zein diren jakitea. Hautemandako herentziazko ezaugarri guztietan ageri dena da, gizabanakoen arteko desberdintasunak garrantzitsuagoak direla arraza-taldeen artekoak baino. Zaila da arraza definitzea, zaila den bezala arrazak bereiztea, estatistiken maiztasunean kontuan hartu beharreko ezaugarriak asko direlako. Ez gara gauza munduan zenbat arraza-mota dauden jakiteko. Ikertzaile batzuek hiruko sailkapena egiten dute, arraza handien artean beltzak, horiak eta zuriak aipatuz; beste batzuek, berriz, hirurogeikoa. Denak dira arbitrarioak. Eta sakonean, oinarritzat erreferentzia genetikoa hartzen bada, klimak eragindako pigmentazio-desberdintasuna at utzita, egiaztatzen da arrazen arteko beste desberdintasun guztiak kuantitatiboak direla. Praktikan ez baitira sekula aurkitzen gene bateko bi tipo erabat desberdinak direnak arraza desberdinetan. Beraz, arestian aipatutako egileak ateratzen duen ondorioa da, desberdinak bagarela, bai, baina azalez bakarrik, gorputzaren kolorean, alegia:

> «No puede haber demasiada variación individual en los caracteres que controlan nuestra capacidad para vivir en nuestro medio. También debemos tener en cuenta otra necesidad: los genes que responden al clima influyen sobre *caracteres externos del cuerpo*, porque la adaptación al clima requiere sobre todo que haya modificaciones en la superficie del cuerpo (que es nuestra interfase con el

(274) Cavalli-Sforzaren mapa genetikoan beltzez markatuta dator euskal gune hori, alboan azalpen hipotetiko hau duela: «En este caso el área dibujada en negro no es el origen de una expansión (...), sino que más bien indica las poblaciones preneolíticas residuales que no fueron completamente absorbidas por los neolíticos llegados del este» (Ibid., 175.or.).

mundo exterior). *Al ser exteriores, estas diferencias raciales saltan a la vista, y automáticamente pensamos que en el resto de la constitución genética debe haber diferencias de la misma envergadura. Pero no es así: en el resto de nuestra constitución genética nos diferenciamos poco»* (275). Azpimarratuak bereak dira.

Gaur egun ziur gaude, mendez mendeko odol-gurutzaketen ondorioz, ez dela egon, ez dagoela, ez arraza erabat garbirik, ez arraza bat bestea baino garaiagorik, nahiz eta horrelako usteak XIX. mende-bukaeran –eta geroago ere– indarrean egon diren.

Arrazaren inguruko gogoeta orokor honen ondotik, gatozen Sabino Aranarengana, honen arrazari buruzkoa urratsez urrats mugatzera, harenari arrazakeri usaina dariola eta, haren heriotzaren mendeurrenean gainera datozkion kondenak ez baitira makalak eta, bidenabar, haren defentsan egindako ahaleginak ez alferrak (276).

Egia da, bai, XIX. mendeko beste zientzilari askoren antzera, arrazaren kontzeptua erabili zuela, oinarrizko elementutzat zuela, baina hori egitean Europako joerak jaso besterik ez zuen egin. Euskal Herrian bertan, Kanpionek ere arraza erabiltzen zuen barra-barra bere idatzietan. Baita J.M. Barandiaran antropologoak ere «euskal gizakia» deitu ohi zaionaren jatorriaz jardutean, zeinaren eboluzio-abiapuntua 7.000 urte-inguruan finkatzen baitu (277). Honekin adierazi nahi duguna da, bat, arrazaren kontzeptua Sabino Aranaren garaian, eta oraindik geroago ere, diskurtso zientifikoan erabiltzen zen ohiko terminoa zela, eta bi, lan honen hasieran esan bezala, komunitate etnikoaren edo nazioaren edukia eman ziola Sabinok arrazari.

Oso besterik da, Euskal Herritik at, termino horren inguruan Vacer Lapouge-k, edo Gumplowicz-ek, edo Houston Stewart Chamberlain-ek, Joseph Arthur Gobineau-k, eta beste hainbatek egiten duten irakurketa garbiki arrazista, batez ere, hitlerismoarekin politikan ondorio genozida izugarriak ekarriko dituena. Lekuz kanpokoa baino askoz harago, guztiz deitoragarria iruditzen zaigu nazismoa eta aranismoa ez direla berdintzekoak esatea hutsa (278), agerpen publikoetan esan izan den bezala, zeren Euskal Herria, orduko Alemaniarekin konparatuta, oso bestelako egoera soziopolitiko batean aurkitzen baitzen, zapaldua eta inmigrazio masibo baten pean.

---

(275) Ibid., 140.or.

(276) Anasagasti, Iñaki; Apalategi, Jokin; Guezala, Luis, «Sabino Aranaren itzala bere heriotzaren mendeurrenean», Mahai-ingurua, *Larrun*, 69. 2003, Urria, 1-24.orr.; Olabarri Basauri, Andoni, «Sabino Arana Goiriri egotzitako arrazakeriaz», *Berria*, 2003-11-25, 6.or.

(277) Ugalde, Martin, *Nueva síntesis de la historia del País Vasco*, I, Elkar, 1983, 28.or.

(278) Ludger Mees historialariak prentsan esana: «Nahiz eta espainiarrekiko gorrotoa arrazista izan zen, inoiz ez zuen izan Hittlerrek judutarren aurka hartutako jarrera bortitzaren antzik. Euskal arrazaren handitasunaren usteak ez zuen jarrera kolonizatzailerik, Teoria Nagusirik eta antzekorik sortu» (*Berria*, 2003-09-10, 6.or.).

Hori argituta, bidenabar, beste bigarren ohar bat ere egin beharra gaude, eta da, Sabino Arana arraza garbiaz ari denean, euskal tradizioan oinarritutako kaparetasuna zuela gogoan, eta ez inola ere euskaldunen odol-garbitasuna, hau zentzu fisiologikoan ulertuta. Hau diogu badirelako oraindik Abandokoa inozotzat jotzen dutenak, mestizajearen fenomenoaz ohartu ez balitz bezala.

Horiek guztiek zerikusirik ez daukate Sabinoren arrazari buruzko ikuspegiarekin, eta, agian, bai gehiago hispanofobiarekin. Eta negatibotzat jo daitekeen sabindar erreakzio honek ere badu bere nondikoa –hau ere arrazonatua, jakina–, funtsik gabeko konplexuengatik edo, azaltzen ez dena.

Lehen arrazoia da, Sabinok maketismoaz hitz egiten duenean, euskal nazio ukatu eta menperatu baten burujabetasuna aldarrikatzen duela eta, bere politikagintza zapalkuntza-egoera batetik abiatzen denez gero, ondorioz datorren jokabide normala dela politikagintzan nazio-proiektu horren kontra daudenak oro –etxekoak nahiz kanpokoak– etsaitzat hartzea edo, bestela esanda, gizarteko harremanak gatazka-zentzuan ulertzea. Maketoaren kontzeptua, bada, ez du mugatzen soilki inmigratuen mundura, arras arinki esan izan den bezala, baizik eta kanpoko okupatzaileekin batera kolaboratzen duten bertakoak ere –euskaldunak izan ala ez– kategoria berean sartzen ditu. «Ellos y nosotros» artikuluan oso garbi adierazia datorren bezala, «maketofiloak», azken batean, politikoki eta ideologikoki «espainolistak» direnak dira, euskal nazioaren kontra nazio espainolaren legea ezartzen dutenak. Nazioen arteko oposizioa da hor tartekatzen dena, baina diferentzia handi honekin: bata –nazionalismo espainola– estatu baten babesean zapaltzailea den bitartean, bestea –euskal nazionalismoa–, estaturik gabekoa izaki, hark zapaldurik daukala. Nazio-arazo guztietan presente dagoen antagonismo-mota da hau.

Bigarren arrazoiak, zentzu hertsian, inmigrazioarekin du zerikusia eta aurrean esandakoaren ondorio zuzena da. Garai hartako industrigintza indartsuaren ondorioz Bilbaoko ezkerraldean ugaltzen den inmigrazio-populazioa, berak «Efectos de la invasión» artikulu aipatuan behin eta berriz errepikatzen duen bezala, beste nazio batetik –kasu honetan Espainiatik– datorrena delako kontsideratzen du arrotza, ez bertakoa, alegia:

> «La material inmigración del pueblo español en Euskeria ningún daño moral o muy poco considerable acarrearía, en efecto, si el español no fuera recibido acá como conciudadano y hermano sino como extranjero» (279).

Ez ordukoetan bakarrik, gaurko estatu demokratikoenetan ere inmigratuek arrotzak izanez segitzen dute eta, hiritartasunari dagokionez, estatus berezia aitortzen zaie. Oraintsu arte, haienganako estatu-hartzaileen jarrera

(279) «Efectos de la invasión», op. cit., 1331.or.

arras asimilazionista izan da, zekarten kulturari uko eginarazi eta bertan integratzera behartuz. Gaur, interkulturalismoaren haize-bolada dela eta, integrazioaren edukia aniztasunaren ikuspegitik planteatzen da, teorian bederen. Praktikan, ordea, demokratiko eta modernoak autoizendatzen diren estatu gehienek errentagarriak ez diren inmigrazio-boltsak baztertzeko edota kanpora uxatzeko joera erakusten dute. Begiratu besterik ez dago Erdialdeko Europara eta auzo-estatuetara zer gertatzen ari den ikusteko. Horregatik, gure inguruko politikari profesionalen eta intelektual organikoen diskurtsoak akademikotik baino askoz gehiago du hipokresia eta maltzurkeriatik, estatu-botererik ez duen nazio bati inmigratuak bertakotzat hartzea eskatzen baitzaio, datozela Espainiatik edo nonahitik, inolako baldintzarik jarri gabe, hots, eskubide guztien jabe eginez, baina ez betebeharren erantzule. Diskurtso hori magrebtarrak itsasoan itotzen uzten dituen Espainiatik datorrenean, duintasun etikoari zor zaion begiruneak oinarrizkoenean huts egiten du. Eta hau larria da!

Sabino Aranaren garaian bezala, gaur egun ere estatu-nazioek beren inmigratuekin betetzen ez dituzten eskakizunak betetzea eskatzen zaio Euskal Herriari, dakigunean, praktikan eta objektiboki –datu estatistikoak lekuko–, euskal kulturari eta euskarari dagokienez bederen, inmigrazioarena gurean fenomeno asimilatzailea izan dela, eta egun ere, beste testuinguru batean bada ere, arazoak erabakitzeke segitzen duela. Ederra da integrazioaren aldeko predikua, gizarte-berdintasunaren izenean eraikia, Euskal Herrian ezkerrekoek bezain indartsu eskuinekoek errebindikatzen dutena. Baina nola betetzen da hori euskal edukiz asimilatzailea izanez segi ez dezan? Hau da oinarrizko galdera, bere garaian Sabino Aranak bere modura planteatu zuena.

Eta bitartean diskurtso postmodernoak aurrera segitzen du estatu-nazio ahaltsuen galtzadan gastatutako gurpilean. Ez da oztoporik jarriko Wagner edo Nietzsche bezalako izen handiak, arrazista garbiak, aiputan hartzeko orduan, baina sabindar nazionalismoa errebindikatu orduko, berehala agertuko dira handik eta hemendik adjektibo deitoragarriak, tartean, azalduz gatozenez, arrazistarena. Sabino ez zen arrazista izan. Hispanofoboa? Baiki. Baina zertan du lotsatzekorik Abandokoak, bere hirikide Unamuno baskofobo deklaratua izanda? Gure oroimen historikoa hain ahula al da, ez gogoan izateko, oraindik atzo, alderdi estatalistek –ezkerrekoek zein eskuinekoek–, euskal munduari beti bizkar eman izan diotela, 1936ko gerratekoan nahiago izan zutela Espainia gorria zatitua baino, eskubide demokratikoak aldarrikatzen diren une honetan, eskubide oinarrizkoenetako bat –autoderminazioarena– ez dela onartzen? Eta abar.

Espainia zatiezinaren aurrean aurkitzen gara. Eta hemen berriro Sabino Aranarekin egiten dugu topo. Horrela ulertzen da zergatik ez duen gogoko José Luis de la Granja Sainz-ek lehen aroko Sabino Arana hura, ez prezeski jeltzale kontserbadorea delako –hau ere bada, jakina–, edo arrazista –hau ez da, hala badio ere–, abertzale sutsua delako baizik. Nahiago du,

Sabinoren herentzia politikoa bere osotasunean alde batera utzi eta, haren oinordekoak sentitzen direnak, Landeta, edo Jose Antonio Agirre, edo Manuel Irujo baten bidetik joan daitezen, horiek, bai, hura ez bezala egiazko demokristauak eta europazaleak izan baitziren. Hori da EAJri luzatzen dion proposamena: «Al cumplirse el centenario de la muerte de su fundador, cabría preguntarse por qué el PNV continúa teniendo como referente histórico fundamental a una personalidad tan integrista y antiliberal como Sabino Arana, en lugar de sus dirigentes democristianos y europeístas, José Antonio Aguirre, el primer lehendakari, y Manuel Irujo, el ministro de la República española, a mi juicio sus líderes más relevantes del siglo XX y de los pocos que ha tenido con talla de estadistas» (280). Estatista horien harikoak lirateke, antza, Espainia zatiezinean kabituko liratekenak edo, azkenaldion modan jarri den bezala, Espainia handian eroso sentiaraziko gintuzketenak. Baina hori erabakitzea, ez Espainiari, baizik Euskal Herriari tokatzen zaio.

Beraz, Aranak Euskal Herriaren eta euskararen berezitasunaz hitz egiten zuenean, funtsean zuzen ari zen, geroztiko ikerketa linguistiko, arkeologiko eta genetikoek –Sabinok orduan eskura zeuzkan baino askoz datu gehiagorekin, jakina–, berak zioena baieztatu besterik ez baitute egin, hots: Euskal Herria, bere ingurukoen ondoan, oraindik bizi den herri zahar bat dela, historiaurrekoa, alegia, hizkuntzaren aldetik ez eze, alderdi seriologikotik ere desberdina dena. Hau horrela baieztatzeak, arrazakeriaren salaketa maltzurrak alde batera utzita, asko esaten du herri honek bere nortasunaren lorbidean daraman borrokaren alde.

Sabino Aranak, halere, badu zer zuzendurik. Arbuiagarria da euskara arrotzekin ez kutsatzearren defentsazko tresna gisa ere erabili izana; eztabaidagarria da, halaber, hizkuntza elkarrekin komunikatzeko tresna huts gisa hartu izana; eta, batez ere, garai hartan ulergarriagoa izan arren, ez da horregatik onartzekoa naziotasunaren funtsa, ez hizkuntzan, baizik arrazan jarri izana, areago oraindik Humboldten tradizioa atarian izanda. Aranak puntu horietan egiten du garbiki erren.

Modu batera edo bestera, Sabino Arana, mende bat pasa eta gero ere, oso bizirik dago. Eta hala dago, batik bat, beste testuinguru batean aurkitzen bagara ere, oraindik ere berak harrotutako gaien inguruan gabiltzalako itzuli-mitzuli eta funtsezko arazo horien muina ulertu eta aterabidea bilatzeko kriseilua eskuetan utzita joan zelako. Egin diezaiokegun omenaldirik onena, haren espiritu berritzailea berreskuratzea izango da, hark idatziak eta eginak bere testuinguruan kokatzen ahaleginduz. Izan ere, hitzak, esaldiak, fosildu egiten dira ez badira espirituz janzten, eta hala gertatu ohi da letrez harago ikusteko miopia interesatua tartekatzen denean. Gauden erne!

(280) «El retorno de Sabino Arana», *Diario Vasco*, 2003-11-25, 23.or.

ERABILITAKO ITURRIAK

AGIRRE, Elias (1935), «El Euzkera, idioma de cultura», *Euzkerea*, IX, 570-576.orr.

AIZPURUA, Xabier (1993), «Euskal Herriko biztanleen hizkuntza gaitasuna», *Jakin*, 77-78, Donostia, 91-106.orr.

AKESOLO, Lino (1980), «Arana Goiri, euskalari»; OC, I, IX-XIX.

ALDAY, J. M. (1991), *Historia del nacionalismo vasco en sus documentos*, IV, Eguzki, Bilbao.

ANASAGASTI, I.; APALATEGI, J.; GUEZALA, L. (2003), «Sabino Aranaren itzala bere heriotzaren mendeurrenean», Mahai-ingurua, *Larrun*, 69, Urria, 1-24.orr.

OLABARRI BASAURI, A., «Sabino Arana Goiriri egotzitako arrazakeriaz», *Berria*, 2003-11-25, 6.or

ANTXUSTEGI, Esteban (1998), *Luis de Eleizalde. Un vasco polifacético*, Fundación Sabino Arana, Bilbao.

ARANA GOIRI, Sabino (1887), *Etimologías Euskéricas*, OC, I, 31-42.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1888), *Pliegos Euskeráfilos*, OC, I, 43-68.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1888), *Pliegos Histórico-Políticos* (I), OC, I, 70-77.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1889), *Pliegos Histórico-Políticos* (II), OC, I, 78-90.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1892), *Bizkaya por su Independencia*, OC, I, 107-153.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1892), *Pliegos Euskeralógicos*, OC, I, 91-107.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1893), «Los invasores», *Bizkaitarra*, 4, 1893-12-17; OC, I, 197-199.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1893),«¿Somos españoles?», *Bizkaitarra*, 4, 1893-12-17; OC, I, 182-186.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1893),«Nuestros moros», *Bizkaitarra*, 4, 1893-12-17; OC, I, 196-197.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1894) «Epílogo», *Bizkaitarra*, 1894-12-31; OC, I, 429-432.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1894), «Advertencias», *Bizkaitarra*, 5, 1894-01-29; OC, I, 200-201.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1894), «Errores catalanistas», *Bizkaitarra*, 16, 1894-10-31; OC, I, 401-407.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1894), «Extranjero en Bizkaya», *Bizkaitarra*, 12, 1894-07-21; OC, I, 327.or.

ARANA GOIRI, Sabino (1894), «Joya bizkaina», *Bizkaitarra*, 1894-08-31; OC, I, 346-347.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1894), «La ceguera de los bizkainos», *Bizkaitarra*, 15, 1894-09-30; OC, I, 363-373.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1894), «La invasión maketa» , *Bizkaitarra*, 7, 1894-03-31; OC, I, 261-262.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1894), «Minuta: Errores catalanistas», *Bizkaitarra*, 16, 1894-10-31; OC, I, 401-407.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1894),«Euskeldun Batzokija», *Bizkaitarra*, 1894-05-24; OC, I, 279-291.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1894),«Extranjero en Bizkaya», *Bizkaitarra*, 12, 1894-07-21; OC, I, 327-327.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1894),«Poesía útil», *Bizkaitarra*, 14, 1894-08-31; OC, I, 360-362.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1895), «Ellos y nosotros», *Bizkaitarra*, 26, 1895-05-12; OC, I, 578-586.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1895), «La bandera fenicia», *Bizkaitarra*, 31, 28-07-1895; OC, I, 654-665.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1895), «La Cátedra de Euskera», *Bizkaitarra*, 28, 1895-06-16; OC, I, 621-622.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1895), «La pureza de raza», *Bizkaitarra*, 24, 1895-03-31; OC, I, 545-551.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1895), «Patriotismo», *Bizkaitarra*, 24, 1895-03-31; OC, I, 559.or.

ARANA GOIRI, Sabino (1895), *Tratado Etimológico de los Apellidos Euskéricos*, OC, I, 702-809.or.

ARANA GOIRI, Sabino (1895),«Ir por lana y volver trasquilado», *Bizkaitarra*, 23, 1895-03-24; OC, I, 524-535.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1896), *Egutegi Bizkatarra*, OC, II, 983-1015.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1896), *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*, OC, II, 810-982.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1896),«¿Qué somos?», *Bizkaitarra*, 28, 1896-06-16; OC, I, 606-608.orr.; 29, 1895-06-30; OC, I, 625-628.orr.; 30, 1895-07-7; OC, I, 637-641.orr.).

ARANA GOIRI, Sabino (1897), «Efectos de la invasión», *Baserritarra*, 10, 1897-07-4; OC, II, 1326-1337.orr.; 11, 1897-07-11; OC, II, 1326-1337.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1897), «Euzkeltzale bateri», *Baserritarra*, 6, 1897-06-6; OC, II, 1296-1297.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1897), «Parroquia ejemplar», *Baserritarra*, 2, 1897-05-9; OC, II, 1259-1260.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1897), *Umiaren Lenengo Aizkidea*, OC, II, 1016-1066.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1897),«El catalanismo», *Baserritarra*, 18, 1897-08-29; OC, II, 1391-1392.orr

ARANA GOIRI, Sabino (1897),«Una escuela antipatriótica», *Baserritarra*, 10, 4-07-1897; OC, II, 1322-1322.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1898), *Lenengo Egutegi Bizkatarra 1898*, OC, II, 1401-1659.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1899), «Extranjerización», *Diario de la Mañana*, 67, 1899-08-10; OC, III, 1760-1761.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1901), «Conócete a ti mismo», *Euzkadi*, 3, 1901-09-; OC, III, 1993-2001.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1901), «Euzko», *Euzkadi*, 1, Martxoa; OC, III, 1783-1828.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1901),«Apuntes», *La Patria*, 1901-12-22, OC, III, 2081-2082.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1902), «Los Congresos Ortográficos de Hendaya», *La Patria*, 16, 1902-02-9; OC, III, 2095-2120.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1902), «Los Congresos Ortográficos», *La Patria*, 17, 1902-02-9; OC, III, 2121-2150.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1902), «Nuevos apuntes acerca de las conjugaciones simples», *Euzkadi*, 2, 1902-uztaila.

ARANA GOIRI, Sabino (1903), «Fe de erratas de *La Gaceta del Norte*», *La Patria*, 81, 1903-05-10; OC, III, 2264-2268.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1914), «Documentos póstumos. La semana vasca», *Euzkadi*, 26, 1914; OC, III, 2360-2371.orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1980), *Obras Completas*, Sendoa, I-III, 2. edizioa, Donostia.

ARRIANDIAGA, Manuel (1907), «¿Euzkera ala euskera?», *RIEV*, 6, Paris, 642-672.orr.

CAMPIÓN, Arturo (1907), «Defensa del nombre, castizo y legítimo de la lengua de los Baskos contra el soñado Euzkera», RIEV, 3, 217-241.orr.

CAMPIÓN, Arturo (1907), «Segunda defensa del nombre antiguo, castizo y legítimo de la lengua de los Baskos, contra el soñado Euzkera», *RIEV*, 6, 673-698.orr.

CAMPIÓN, Arturo (1907), «Sobre el nuevo bautizo del País Vasco», RIEV, I, 2, 148-153.orr.

CAMPIÓN, Arturo («Uchin de Mendaur» izezinez) (1910), «Un bautizo», RIEV, IV, 324-326.orr.

CAMPION, Arturo (1976), «Nacionalismo, fuerismo y separatismo», in *Discursos políticos y literarios*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

CHARRITTON, Piarres (1985), *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques (1895-1920)*, Editions du Centre National de la Rercherche Scientifique, Paris.

ELEIZALDE, Luis (1910), *Deun-ixendegi euzkotarra. Santoral vasco o sea lista de nombres euskerizados de los Santos. Comisión Bizkaína de Euzkera del Partido Nacionalista Vasco* (Imprenta y Encuad. Bilbao Marítimo y Comercial, Bilbao, 1910).

ELEIZALDE, Luis 1902), «Nuevos apuntes acerca de las conjugaciones simples», *Euzkadi*, 2, 1902, Uztaila.

ELIZONDO, Mauro (1981), *Sabino Arana. Padre de las nacionalidades*, I-II, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

ERIZE, Xabier (1997), *Nafarroako euskeraren historia soziolinguistikoa (1863-1936). Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua, Iruñea.

ETXETXO (ZAITEGI, Jokin) (1950), «Aitzol'en Gizaldia», *Euzko-Gogoa*, I, Ilbeltza, 5-7.orr.

GARAI, Luis (1934), «La vida del euzkera», *Euzkerea*, II, 132-144.orr.

GARBIÑE ETA EDURNE (1931), «Euzkeraz, beti Euzkeraz», *Euzkerea*, XXXVI, 1931-02-15.

GARCIA TRUJILLO, Sebastian (1993), *La novela costumbirsta de Domingo de Aguirre*, Instituto de Teología Pastoral, Bilbao.

GÓMEZ, Ricardo (1997), «Euskalaritzaren historia eta historiografia: ikerketa-arloaren egoeraz», *ASJU*, XXXI-2, 363-391.orr.

GÓMEZ, Ricardo (1997), «Euskalaritzaren historiaren ikerketa-norabideak: zenbait proposamendu», *ASJU*, XXXI-2, 393-409.orr.

GRANJA PASCUAL, J. Javier (1984), «Divergencias lingüísticas y literarias entre Arturo Campión y Sabino Arana, *Fontes Linguae Vasconum*, 43, 155-179.orr.

GRANJA SAINZ, José Luis, «El retorno de Sabino Arana», *Diario Vasco*, 2003-11-25, 23.or.

GROUPE DE BASQUES: ALTUBE, S.; LEIZAOLA, J. M.; JEMEIN, K.; MONZON, T.; ZIAURRITZ, T. (1951), «Un procès linguistique autour de Sabino Arana Goiri», *Gure Herria*, Maiatz-Ekhaina, Ustaritz, 188-189.orr.

IBARTZABAL, Eugenio (1977), *Koldo Mitxelena,* Erein, Donostia.

IKASLE (1929), «Agur», *Euzkerea*, 1, 1929-01-15.

IRIGOYEN, Alfonso (1957), «Del epistolario de Azkue», *Euskera*, II, 261-393.orr.

IZENIK GABE (1929), «Los contradictores del Maestro», *Euzkerea*, III, 54-58 orr.; IV, 79-82 orr.; V, 92-93.orr.

IZTUETA, Paulo (1991), *Orixe eta bere garaia*, Etor-Eusko Jaurlaritza, Donostia

IZTUETA, Paulo (1993), «Euskal kulturaren kontraesanak: teoria eta praxia», *Uztaro*, 9, Bilbao,119-152.orr.

IZTUETA. Paulo (2001), *Erbesteko euskal pentsamendua*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 81-96.orr.

KINTANA, Jurgi (2002), *Vizcaytik Bizkaira? R. M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)*, Euskaltzaindia-Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbao.

KINTANA, Xabier (1985), «Euskararen historia», in Intxausti, J. (zuz.): *Euskal Herria. Historia eta gizartea*, I, EFA-*Jakin*, 449-455.orr.

LAFITTE, Piarres (1980), «Sabin Arana-Goiri eta Iparraladea», OC, I, III-VIII.

LAKA, Itziar (1987), «Sabino Arana Goiri eta Hiperbizkaiera (Hiperbizkaieraren historiaz. III)», *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'»*, XXI-1, Donostia, 13-40.orr.

LOPEZ ANTON, Jose Javier (1996), «El debate sobre el 'izendegi' sabiniano. Una visión retrospectiva de la cultura vasca en 1907», *Sancho el Sabio*, 2, 137-154.orr.

MARTINEZ DE LUNA, Iñaki (2002), «Euskeraren kale-erabileraren azken emaitzak», *Jakin*, 130-131, Donostia, 228-229.orr.

MISIBUS (1929), «... Y los contradictorcillos», *Euzkerea*, VI, 112.or; VI, 128-129.orr.

MISIBUS (1935), «La vida del euskera por Altube'tar Seber», *Euzkerea*, VII, 432-447 orr.; VIII, 489-500.orr.

NABARRIZTARRA (1934), «*La vida del euzkera.* Altube'tar Seber Jaunari idazki agirija», *Euzkerea*, II, 899-93.orr.

ORIXE (1928), «En defensa de *bere*. Euskaldun barri zar bat-i erantzuna», *Euzkadi*, 1928-10-19.

ORIXE (1928), «Ura», *Euzkadi*, 1928-10-31.

ORIXE (2002), *Euskal literaturaren historia laburra*, Utriusque Vasconiae, Donostia.

SABINDIAR BATZA (1980), «Prólogo», OC, I, 9-27.orr.

SARRAILH DE IHARTZA, Fernando (1962), *Vasconia*, Ediciones Norbait, Buenos Aires.

TELLECHEA IDIGORAS, J. I. (1984), «Cartas inéditas de Arturo Campión a Serapio Múgica (1899-1921)», *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'»*, XVIII-1.

TOURNIER, A. (1951), «Quelques réflexios sur le purisme et le néologisme en basque», *Gure Herria*, Ephaila-Ostaila, Ustaritz, 120-125.orr.

TOURNIER, A. (1951), «Réponse à un Groupe de Basques», *Gure Herria*, Buruil-Urrieta, Ustaritz, 295-298.orr.

UGALDE, Martin (1974), *Nueva síntesis de la historia del País Vasco*, I, Elkar, Donostia, 28.or.

UGALDE, Martin (1980), «Sabino de Arana Goiri», OC, I, XXI-LVIII.

URGELL, Blanca (1997), «Estudios en torno a la historia de la lexicografía vasca», *ASJU*, XXXI-2, 643-685.orr.

URKIJO, Julio (1910), «¿El *Lenengo Egutegi Biskatarra* de Sabino Arana, fué realmente el primer calendario impreso en Vascuence vizcaino?», *RIEV*, año IV, Enero-Marzo, 1910, 148.or.

VILLASANTE, Luis (1961), *Historia de la literatura vasca*, Editorial Sendo, Bilbao.

ZUAZO, Koldo (1988), *Euskararen batasuna*, Euskaltzaindia-EHU, Iker-5, Bilbao.

SABINO ARANA ETA EUSKAL ERAKUNDETZEA

Bilbo, 2003-XI-20

Jose Luis Lizundia,
Euskaltzain osoa

Sabino Aranaren heriotza mendeurrenkari bildu gara, gaur, hemen. Sabinoren ideologia politikoa aztertu da gehienbat, askotan, gaur egun «trasladuta» bere alderdirik okerrenak, orduan, Europan zehar korritzen zutenak parekatu gabe. Euskararekikoekin antzera gertatu da, baina, gai hau, nik baino hobeki, Agirreazkuenaga, Iztueta, Laka, Pellen eta Urrutiak, jorratuko dute.

EUSKAL AKADEMIAZ.–Sabino Aranak 1886ko uztailaren 27an *Euskal Erria* aldizkarian, hots, Durangoko Euskal Jai ospetsuak igaro eta hilabetera idatzitako artikuluaz baliatuko naiz Aranak gure Nazioaren hizkuntza eta historia erakundetzeari ematen zion garantiza adierazteko:

> «¡Dichoso el pueblo que conoce su historia!... En los naturales de las regiones que, como las del norte de Laburdi (oraintsu ETBk zerbait esan digu horretaz, baina Sabinok, jadanik, bazekien) y Suberoa, Este de Nabarra, Oeste de Bizkaya y Sur de Alaba y Nabarra, han perdido su idioma, el carácter euskariano ha desaparecido en la mayoría, y desfallece y casi muere en los que han conservado pura la sangre de su raza»... «El euskara es, pues, elemento esencial de la nación *euskalduna*; sin él, las *instituciones* de ésta son imposibles. La desaparición del euskara causaría irremediablemente la ruina de aquella nación...». Mas para llevar a feliz término el estudio de la lengua e historia euskarianas, precisa la uniformidad de ideales, *la unidad y simplificación de métodos y la unificación de teorías.* Esto sólo será posible cuando las personas que en nuestro suelo se consagran con más o menos interés a los estudios históricos y filológicos, reuniéndose en *sociedad,* constituyan una *Academia..., una Academia,* en fin, que estudiando seriamente la *historia e idioma...* atienda por esta doble manera el bienestar de su patria directamente, e indirectamente en bewneficio del saber humano».... «Teniendo en cuenta la importancia de una *Academia...* El Ayuntamiento de Durango, cuyo premio correspondió a la obra del señor Artiñano, va a presentarla a la Diputación de Bizkaya, a fin de que apruebe y prohije un Proyecto cuyos Estatutos son inmejorables (Artiñanonaz ari da Sabino), y proceda a la instalación de la *Academia en conformidad con las Diputaciones hermanas...*».

Zoritxarrez hogeitamabi urte itxaron izan behar izan zuen hizkuntzaren Akademiak sortzeko, hori bai, Sabinok iragarri bezala, lau diputazioen babespean. Historiaren Akademiarik ez zen eta, ez da sortu, ez Artiñanok nahi zuen Akademia bikoitzarekin ez bestela.

Urteak geroago, 1940ko azaroaren 30ean, Londresen, nire ustez Euskal Gobernu gizonik hoberenetarikoa izan den Manuel Iruxok, aurkeztutako Euskal Errepublikaren Konstituzioak (Ibarretxeri plana egin diotenek ezagutu ote dute aurreproiektu hori?) 37. artikuluan honako hau dio:

> «Las Academias de la Lengua, Historia, Artes, Ciencias, Legislación y Jurisprudencia, funcionaran bajo la protección del Estado, y en régimen de autonomía....»

Ez bakarrik Sabinok eta Iruxok, Koldo Mitxelenak ere behin baino gehiagotan aipatu zuen Historia Akademiaren falta. Madrilgoaren erasoak ikusita, nabaria da haren beharra.

1901ean, Hondarribian egindako Biltzar famatuaz eta Sabino Aranaren partaidetzaz luze eta kritikoki idatzi da, baina ahazturik haren erakundetzea nondik nora zihoan:

> «Conviene recordar que Arana-Goiri no era partidario de esta Asociación (Eskualzaleen Biltzarraz ari da editorea) y que todos sus esfuerzos en aquellos Congresos fueron enderazos a la creación de *la Academia de la Lengua Vasca*»

Are gehiago, Hondarribiko Kongresoaren adierazpena honela hasten da:

> «En la ciudad de Fuenterrabía, a 18 de noviembre de 1901, bajo la Presidencia del señor Adéma, Canónigo de la Catedral de Bayona, se reunió la Comisión Permanente del Congreso Basco... y se adoptaron los siguientes acuerdos: Que se lleve a debido efecto, sin pérdida de tiempo, en su totalidad el plan presentado por Don Sabino Arana, en la reunión de septiembre, respecto al procedimiento que ha de seguirse para estudiar y determinar la unificación de la ortografía euskera....».

Batzorde Iraunkorreko lagunak ez ziren edonor eh! Adema, Campión, Arbelbide, Azkue, Broussain, Guerra, Hiriart-Urruti, Serapio Muxika, Daranatz eta Guilbau.

Aranari eskatu zioten txostena, baina, gaisorik nonbait ez zuen joaterik izan, nahiz eta idazki bat bidali zuen. Gero izugarrizko eztabaidak sortu ziren eta Azkuek berak hau zioen Broussaini idatzitako gutun batean (1902-III-12):

> «Habría todavía otra solución que sería encargar de esta unificación de la ortografía a una *Academia Vasca*. Pero esta Academia está todavía en el limbo y no nacerá jamás».

Ez zen igarle izan lekeitiarra, zeren eta hamazazpi urte geroago sortu baitzen eta bera izango zen lehen burua. Are gehiago, Euskaltzaindiaren 8. Batzarrean, Bilbon, 1920ko urtarrilaren 15ean, 6. erabaki legez hau agertzen da:

> «Beraz, Euskaltzaindiak beretzakotu duan euskal abecé auxe da: (eta 6 bokal eta 25 kontsonantedun alfabetoa irakur daiteke, *h* tartean) eta 7. «Euskaltzaindiak gure izkerazko idazle guztiei eskatzen die arren, ahal delarik behintzat, idazkari auxe, ta besterik ez, erabili dagiela».

Sinatzaileak Eleizalde'tar K., zadorlaria (ote dakite askok nor zen Eleizalde bergararra eta jeltzalea?) eta R.M. Azkue, euskaltzainburua. Alfabeto honen oinarri osoa Sabino Aranarena, egia esan, honek ere *k* eta beste letra batzuk Aizkibel azkoitiarrengandik hartu zituen.

Ortografiaren zentzu nazionala argitzeko *Pater noster* otoitza korrejitzeaz aritu zenean, alde batera utzirik bere garbizalekeria, berau ez baita nire egitekoa, hizkuntzalariena baizik, pasarte hau dakart:

> «He de hacerlo en el sistema gráfico que más correcto me parezca, mientras tanto que por el Congreso de Euzkeristas convocado para el presente en Hondarrabia no se decida..... cuál sea la ortografía que *todos debamos aceptar*».

Ikusten da Biltzar horren ondorioz eta bera desiatzen zegoen Akademiaren esanetan jartzeko. Bibliografia ugaria erabiltzen du korrejitze lanerako, lapurterazkoan L. Diharassarryren *Giristino-Legeaz* baliatzen da, horkoan bakarrik «*Gure aita...*» esaten baizen eta berak Hegoaldeko hiru euskalkietara ere pasatu zuen, Kontzilioaren ondoren gertatzen den legez. ***H*** zorionezkoaren aurka ez zuela argi ikusten da Sabinorengan, zeren eta bere Iparraldeko *Gure aita* berrituan, *saindukiren* ordez, *donhoki* erabiltzen baitu, *zeruan* ordez *donhoki, borondateren* ordez *nahia, barkharen* ordez *hazkhetsi, amenen* ordez *halaxe*. Bazekien hatxeak ongi erabiltzen, postkonsonantikoak ere. Lapurterazkoa eta nafarrerazkoa, bizkaierazkoa eta gipuzkerazkoak baino hobeagotzat jotzen ditu, bestalde. Bazekien, gainera, *h*-a berea zuela Iparraldeko euskarak, frantsesak edo okzietanierak mailegatu izan bazuen ez zuelako onartuko:

> «La reforma moderna (de z, siempre g, etc) nos vino del otro lado del Bidasoa...».

> «El sonido *h* no es general en Bizkaya ni peculiar de una región determinada de ella... (1) En un principio estaba en la creencia de que no era bizkaina, pero hoy (geroago idazten du) tengo que acusar su irregular existencia, pues lo he oído a varios bizkainos de distintas localidades, una de las cuales es mi república natal, Abando, en la voz Haungoikoa»

Beraz, *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino* delakoan erabiltzen ez badu ere argi dauka beste euskalkietan erabiltzea zilegi dela:

> «Pero esta demarcación interdialectal que propongo ¿supone también diversidad de ortografía? En manera alguna».

* * *

Euskal Katedra famatua zela eta, alegia, Bizkaiko Diputazioak sortua eta nahiz eta Sabino bera aurkeztu arren, Azkuek irabazi zuena, erresumin apurrik gabe, euskararen erakundetzearen alde proposamen berriak egiten dizkio Diputazioari: sariketa mota bi sortzea ikasleen artean. Eta horiez gain:

> «certámenes de dos clases: literarios (prosa y poesía), y euskeralógicos (gramaticales y lexicológicos), fijándose los números o temas, por el jurado, con tres

o cuatro meses de antelación. Seguro estamos de que estos certámenes vendrían a ser origen de la Academia de la Lengua, que tanta falta hace. Por último, creemos también que sería un excelente estímulo para los que puedan escribir en euskera (horrela idazten baitu oraindik 1895an) libros científicos u obras literarias, y que por falta de medios quedan retraídos en el silencio, que la Diputación destinase anualmente cierta cantidad para premiar las obras euskéricas. He ahí todo lo que pedimos»

Gaur egunerako ez litzateke asko, baina XIX. menderako bai ordea. Nork eta non eskatu zion euskal erakunde publiko bati horrelako zerbait garai hartan? Egitasmo aurrelaria, benetan.

LAU HERRIALDEEN ARTEKOA, DIPUTAZIOEN BIDEZ

Bizkaiko diputatu probintzial zelarik euskal erakundetzeaz egin zituen ahaleginak ere zehazki aztertzeko daudela uste dut. Norbaitek, noizbaiten ikertzea onuragarria litzateke. Nik neure kontutik egindako zenbait dakarkizuek, hain zuzen, gaur eta hemen, zeren eta eraikuntza honetan baitzegoen Bizkaiko Diputazioa Sabino hogei diputatutik abertzale bakarra zen.

1898ko azaroaren 24an aurkeztutako mozioak hitzez hitz kopiatzea merezi du:

«Proyecto para la constitución de un *Consejo regional*, o Junta Superior de Araba, Gipuzkoa, Nabarra y Bizkaya, cuyos fines serían: a) Guiar, con voz de consejo, a las Diputaciones de dichas cuatro Provincias en las cuestiones de las mismas con el Poder Central, ora se trate de cuestiones de aplicación temporal, ora de las que tiendan a resultados estables, que conciernan al interés particular de sólo alguna de las Diputaciones hermanas, ya al general de todas ellas. B) Proponer a las citadas Diputaciones, para su ejecución por las mismas, todo lo que sea de notable interés para el bien común, moral o material de las cuatro Provincias».

Prat de la Riba katalanismo pragmatikoaren «aitak» bezala, idearioari uko egin gabe «la política del posibilisme» jarraitzea da hau.

1899ko ekainaren 27ko bilkuran hartutako erabakiaz pozik agertzen zen, alegia, Bizkaiko Diputazioak, Gipuzkoakoaren eraginez, lau herrialdeek Unibertsitate Barruti edo Distritu bat sortzea Madrilgo Gobernuari eskatzea, gestio hori Nafarroako Jauregian egin zelarik. Hara hor zer zioen amaieran:

«Si somos implacables en el ataque, cuando creemos perjudicial para nuestro pueblo la conducta de sus representantes, no hemos de escatimar seguramente nuestro sincero aplauso en todas aquellas ocasiones en que, como hoy ocurre, se emprende con valentía una obra beneficiosa para el País...» «...es ésta, y no otra, la aspiración de todo buen vasco, pues que lleva, no sólo a la conservación de los pobres vestigios que quedan en pie... sino a la restauración perfecta de nuestro Pueblo...».

Sustraiko estrategia ahaztu gabe, taktika posibilistaz baliatu deitzen zaio horri.

Bizkaiko foru erakundetzeaz argi zeukan diputazioek ez zutela ordezkatzen Jaurerria, ez eta Araba eta Gipuzkoako Probintziak, baizik eta Batzar Nagusiek. Ikusten da Lemonauria foruzale liberalaren esaldia ezagutzen zuela, alegia:

> «La Diputación es una institución secundaria en la historia del Señorío, es en las Juntas Generales donde se residencia la representación genuina del País».

Hauxe dio Sabinok:

> «Yo no me he de oponer a que la Diputación Provincial sea la encargada de emitir ese informe (Madrilera foru erakundetzeaz lege egitasmo bat proposatzeaz), a lo que me opongo es a que pueda entenderse que las Diputaciones actuales representan y sustituyen a las antiguas Juntas Generales del País».

Orduan eta, geroago, diputazioetan agintean zeuden, era desberdinetako monarkikoei ez zitzaien interesatzen Batzar Nagusirik birsortzerik, Kontzertu Ekonomikoa izatearekin aski zuten, diputazioetan kazikeaturik, herri erakunde errepresentatibo kontrolatzailerik gabe. Nafarroan, zeinek 1841etik, etenik gabe, Foru Diputazioa gorde den, berorren indarraz baliatu da mende eta erdian eskubidea herri erakundetze bat ez izateko, are gutxiago, lauen artekoa. Batzar Nagusien bersortzea ez zen gauzatu 1979.urterarte, zeinetan Ahaldun edo herri ordezkari hautatua izateko zoria izan nuen eta Jose Mari Makua, Ahaldun eta Diputatu Nagusi, berari Gernikako Batzar Etxean esan nion moduan, Fidel Sagarminagaren ondorengo ehun urte geroago, Sagarminaga foruzale liberal eta «euskalerriako»aren esaldi ez hain ezaguna oroituz:

> «Allá donde muere una lengua, fenece una nacionalidad».

1902ko martxoaren 5eko proposamena ere interesgarria da, alegia, Gernikako Batzar Nagusi guztien Agiriak argitaratzea, zehazki eta ortografia aldaketarik gabe, dauden-daudenean. Batzar-agiriok kronologikoki liburu bilduma legez atera, salgai jarri banaketa eta guzti. Ehun urte geroago, oraintsu hasita egon arren, burutu gabeko lan bat da. Gure historia ikerketak beste emaitza bat izango zuen, proposamen zuhur hori aurrera atera bazen. Ikerketetarako argitalpenei balio handia ematen ziola bistakoa da, nahiz eta, oraindik, I + D, askorentzat gai teknikoentzat bakarrik egon. I + D naziogintzaren mesedetan, historia, hizkuntza eta kulturaren ikerketan izan daitekeenik ere ez dute sumatzen, proposatzaileek ikusten bazuten ere.

Orain ehun eta bost urte justu Miñoien, alegia, Foralen erakundeari «Fuero Militarra» ezabatzea proposatzeaz, aurrelari bat izateaz gainera, bazekien zertaz ari zen, alegia, polizia erakunde zibila izan behar zuela.

Euskal irakaslego baten beharrizanaz zuzen edo zeharka askotan idatzi zuen Sabinok. Hori guztia biltzea ez litzateke kaltegarri eta, seguru asko, diputatu zegoela proposamenen bat egingo zuela Diputazioan, artxiboan iker-

tzea aski litzateke. Tartean Moyano legea bazebilen mende erdiko kalteak egiten estatu zentralizatu baten, irakaskuntzako hiru mailetan euskara, katalana eta galegoa baztertuz eta maisuen izendapenak ere, gure kasuan, Valladoliden egiten ziren gaztelauen mesedetan. Hogei urte geroago, haren ondorengo Landeta eta Eleizaldek, «Bizkayaren auzo ikastola» delakoak martxan jarriaz eta Zornotzan Maisu-Eskola sortzeko egitasmoa, gauzak bideratzen hasi ziren. Diputazio aldaketak eta Primo Riveraren Diktadurak zapuztu zituen asmo horiek.

ERAKUNDETZEA BESTE ARLO BATZUETAN

Sabinoren lanetan azterketa tematiko zehatz bat egiteko dagoela uste dut eta onuragarria izango litzateke alderdi askotatik. Haren idazlan ezagunetatik azterketa xume bat eginda, hara hor, beste arlo batzuetako erkundetzeaz jasotako adibide zenbait:

Folklorean ere nazio erakundetze asmoa igartzen zaio, hala nola konparatzen badugu –Durangoko Euskal Jaietan hogeitabat urterekin ikasteko egarri biziz egon baitzen– jai horietako ezpatadantza lehiaketa eta Bizkaiko folklorearen abolinaz:

> «Este antiquísimo baile guerrero de nuestra raza está cayendo en desuso»

dio berak.

Hain zuzen 1997an, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiak, bion artean, Hendaian, Abaddiaren mendeurrenkari, antolatu zuten Biltzarrean, txosten bat aurkeztu nuen eta hara zer esaten nuen pasarte batean:

> «Beste zeharkako emaitza aipatzea nahi nuke eta hau da, «Euzko Abendaren Ereserkija» deitzen dena. Hain zuzen ere, bera hil da gero argitaldariak hau dio:
>
> «Uste edo gogai onekin, 1902 urtian, barriro espetxian egualarik erexerkixa idatzi eban. Ezpatadantzaren soñuegaz abestutako egin eban, geroago, bera il da gero Zabala'tar Kelda eresgilliak eresija atondu eban».
>
> Sabino Aranak nondik atera zuen argi dago, 1886. urtean, lau herri horietakoei (Garai, Berriz, Abadiño eta Ihurreta) hasierako «Agintarien dantza» deitzen dugunarengandik, hain zuzen».

Urte gutxi geroago Donibane Lohizuneko *La Tradition Basque* izeneko jaialdiez iritzi oso kritikoa izan arren, hara gure Ezpatadantza eramatearen alde agertzen da Bizkaiko eta Lapurdiko tradizioak trukatzeko. Segurutik, han ez zelako izan, ez zen enteratu nola Adema «Zaldubi» kalonjeak, lehendabizikoaz, «Zazpiak Bat»en aldeko ohiua bota zuen Donibanen eta A. Villasantek dioen legez:

> «Sobresale entre éstos (patrióticos) el *Zazpi Eskualherriek*, que compuso para ser cantado, a manera de himno nacional, en los Congresos en que se juntaban los vascos de las diversas regiones».

Informazioa faltako zuen Sabinok, zeren eta literaturan, folklorean eta kulturan Hegoaldekoak baino aurrerago baitzebiltzan Bidasoaz haraindi.

* * *

Antzerkia ere naziotasuna eratzeko oso baliagarritzat jotzen du. Irakurtzea besterik ez dago 1895an idatzitako haren artikulu sorta *Bizkaitarra* aldizkarian, hasi «Teatro Nacional» deitzen dena eta segidako kapituluak:

«El teatro como medio de propaganda», eta Azkueren «Vizcay´tik Bizkai´ra» antzezlanaz jarrai. Uste dut Aranak Azkueren kontrako aurreiritziak baztertu eta adiskidetzeko antzerki hau onuragarria izan zela. Eta antzerkia aipatzen duenen liburugintza eta prentsa aipatzen ditu, gaur ere balio berbera edo gehiago dutenak. Irakurtzea merezi du.

Haren katolikotasuna, unibertsal zentzuan ulertzen zuen eta Elizaren eta botere zibilaren banaketaz sinesten, ez eta Eliza nazionalez ere. Nocedal XIX. mendeko politiko integrista famatuaren aurkako zenbait iritzitan agertzen ditu Elizaren erakundetze politikoaren kontrako iritzi interesgarriak. Gaurko gaia ez da, baina bai gaurkotasuna duena, aste honetako adierazpen batekin. Zioen 1902 urtean:

> «Los Obispos, ciertamente, son los pastores de los católicos; mas no para guiarlos y apacentarlos en la política, sino para guiarlos y apacentarlos en la religión».

MAHAI-INGURUA:
Euskalgintzaren gaurko egoera

Partaideak: Andres Urrutia,
Txomin Peillen eta
Itziar Laka

Moderatzailea: Joxe Mari Iriondo



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



FUNDACIÓN
SABINO ARANA
KULTUR ELKARGOA

SABINO ARANA: EUSKARA ETA KULTURA

Bilbo, 2003-XI-21

Andrés Urrutia,
euskaltzain osoa eta ***Jagon*** *Sailbura*

Mahai-inguru honetarako gonbita hartu nuenean, kezka bizia sortu zitzaidan, Sabino Aranaren ingurukoa luze-zabal iker eta plazara daitekeelako. Berehala argitu zidaten antolatzaileek nire eginkizuna zela Aranaren ondoko bizkaitar euskalgintza azaltzea. Halakoxea jarri zidaten gidalerro, eta halakoxea bete asmo dut neronek ere.

Proposamena onartu nuen Sabino Aranararen xehetasunak, Bizkaiaren aldetik behin-behin, ondo lotuta eta estekatuta daudelako. Izan ere, Arana bizkaitarra zen, eta Bizkaian garatu zuen, zatirik nagusienean behintzat, bere ekimen politikoa. Kulturaren aldetik, irten-irtenenak dira hark ondu zituen itxuraldaketak eta bultzadak, euskararen –edo hobe esanda– bizkaieraren aldetik.

Ez du horrek ukatzen Euskal Herria osoari begira molda daitekeen Sabinoren ikuspegia. Bai, ordea, zedarriztatzen eta antolatzen, abiapuntu nagusi izan baitzuen hark Bizkaian bizi zuena, gerogarrenean beste lurralde euskaldunetara zabaltzeko.

Has nadin, beraz, nonbaitetik. Esan gabe doa Sabino Aranaren biografia-xehetasunak ez ditudala emango. Sobera ezagunak dira halakoak hemen, beste behin ere alferreko errepikapenetan ibiltzeko. Tenore dudanean, hots, azalgai dudan horretarako lagungarri zaidala, orduantxe sarraraziko dut halako bizi-gertaera edo gertalixkia, diodanaren argigarri soila.

Sabino Aranaren eraginpeko euskalgintza aurpegi askotatik izan daiteke aztertua. Besteak beste, hasierako puntua jarriz, Bizkaian bizpahiru abiapuntu ditut nik nagusi. Lehen-lehena, ekimen politikoarena, ordu arteko forutasuna gainditu zuena, Euskal Herri oso baten asmopean. *Euzkadi* jarri zion izena hark batasun horri. Horren lorratzetik etorri ziren, geroxeago, nazio-ideiaren zabalkundea eta euskalgintza.

Nazioaren ideiak begirune osoa zor dio lurralde bakoitzak *Euzkadi* horren barruan izan behar duen nortasunari. Era berean, nazio berri horrek hizkuntza berritua behar du, eta, hartara, euskara bera, Sabinoren ustez, antzal-

datu, egokitu eta prestatu, zeregin berrietarako. Hizperriak ere multzoka jaso behar, hizkuntzak berak, antzinako idazle eta iturri erdaldunduetan baino, berezko zuen sen edo espirituan oinarrituak. Euskara hori, jakina, edonoiz, edonon eta edozertarako erabili behar, euskaldunen arteko komunikabide nagusia izan behar baitzuen. Horraino lerrabide pisuzkoenak eta ezagunenak.

Harako horiek zer ekarri zuten euskalgintzaren alderditik modu askotan jar daiteke aipuetan. Batak literatura aterako du denon bistara; besteak, filologia. Urliak euskaltzaletasuna jarriko du aitzakia; sandiak, aldiz, politika-ekimena.

Sabinoren ekimena bezain luze, nirea motz eta urri, bestelako mahaikideok ere mintzogai baitira. Azpimarra ditzadan, haatik, honako hauek: Sabino Aranaren euskalgintza euskararen *normalizaziorako egitasmoa* da. Arrangura bera du euskararen barne-kontuetan zein kanpokoetan. Ortografia eta joskera, ponte izen nahiz urtearen hilak, oro dira haren eginkizun. Aldi berean, euskara bera erabilgai nahi du leku eta aukera guztietan, lehenak bigarrena lotzen duelako.

Normalizazio hori, bistan da, oro hartzailea da, eta Euskal Herriari nortasun berria eman nahi dio, egundoko iraultza gauzatuz. Leku eta esparru askotara iritsi beharra dakar horrek, eta anitz puntu aldatzeko premia, lehen esan legez. Aranak, alabaina, ez dio horri beldurrik, bere bibliografiak argi erakusten duenez.

Ondorioak, hala ere, osterantzeko gertatu ziren: bateko, sekulako bultzada euskararen erabileran; besteko, herriarengandik eta ordu arteko tradiziotik aldentzea. Etena sortu zen euskararen herri-erabileraren eta aranatarren artean.

Gauzak horrela, garbizalekeria eta mordoilokeria elkarren aurka jarri ziren, euskara bera auzitan zegoela. Biziraupena jokoan zen, dena aldatu beharra zegoen, dena batera egin beharra. Menturaz, kontraesan horretan egon daiteke Aranaren kemena, euskara noranahiko, baina euskara berri eta arnas berritua, herriaren erabileratik urruntzen dena.

Hortik ere, urte batzuk geroago, Orixek egin zion kritika: *euskera gaixoak operazio asko dauzka egin bearrak, eta, guztiak batean egin ezkero, il liteke* (1).

Haren jarraitzaileek bizirik nahi zuten euskara, eta, Aranaren asmoekin bat eginez, arlo desberdinetara ekarri zuten euskara bera. Aipuetan jarriko ditut, besteak beste, foru-administrazioa, euskalgintza, komunikabideak eta eliza.

Foru Administrazioa Bizkaian

Bizkaiari nagokiola, aipa dezadan egun nahiko ezezaguna den kontua. Horretan ere nabari daiteke Aranaren desagertu ondorengo urteetan bere ekimenak izan zuen indarra Euskal Administrazioan. Sabino hil eta urte batzuetara (1917), abertzaleek eskuratu zuten Bizkaiko Foru Aldundiaren gobernua, Ramon de la

(1) ORIXE: *Urte guztiko meza-bezperak*, Ascain, 1950, X. or.

Sotaren buruzagitzapean. Euskara ofizialdu zuten abertzaleek, Bizkaiko herriekin zituzten harremanetarako. Testuen itzultzaileak zintzo-zintzo bete zituen Sabino Aranaren arauak, eta hizperri ugari sartu ere (2). Horietako batzuk baziren ordurako Euskaltzaindiak –1918an sortua– bere lehen ekimenetan ontzat emandako hitzak (3). Sabino Aranaren eragina, beraz, XX. mendean euskara juridiko-administratiboan hasiera-hasierako ahaleginean dago, gerorako ere gerra-denboran *Euzko Jaurlaritza*ren eskupean egingo zenaren aurrelari (4).

Euskalgintza, oro har

Gerra-denborako aipamen horrek bide ematen dit, orobat, XX. gizaldiko *Euskal Berbizkundea* gogora ekartzeko. Nago, eta diodan hau frogagarri dela uste dut, Sabino Aranaren eragina ez ote dagoen bestelakoetan, hau da, berarekin hasi eta gerraurreko –eta osteko lehen-lehena– horretara iristen dena. Bizkaian, edonondik begira dakiola ere, izenak borborka datoz. Behinolako Mikel Zaratek *aranatarren giroko idazleak* (5) deitu zituen horiek. Horra bilduta, bizkaitar idazle-andana luzea. Harako *Belaustegigoitia, Kirikiño eta Etxeita,* geroko *Altube, Enbeita, Ibargutxi, Garro, Eguzkitza, Arrutza, Errosa Bustinza, Lauaxeta...* Zerrenda amaibakoa da hori. Aldiari dagokionez, bestalde, XX. mende hasieratik hirurogeigarren urteetara doana.

Zerrenda berean ere, Aranaren bi garaikide ospetsuak, *Azkue* –honi *Orixek Arana-kuku* esango dio, Aranaren aurkakotasuna islatzeko (6)– eta *Agirre*, iritzi desberdinekoak eta osterantzeko euskalgintzaren zuzendariak. Hiruon elkargune, Euskaltzaindiako etxe hau berau, eta etxe honen *Euskera* agerkariaren lehen zenbakiak, aurrerago esan legez, artez ikertuz gero.

Bestelako hurrenkera ere osa daiteke Bizkaian, Sabino Aranaren jarraitzaile sutsuak –sutsuegiak, beharbada– izan eta *Aita Zabala-Arana, Aita Arriandiaga* eta eite berekoekin. Mitxelena zenaren gidaritzapean, Itziar Lakak, mahai-inguru honen kideak, hain zuzen ere, egoki aztertu du *hiperbizkaiera*ren mundua (7).

(2) GALLASTEGI, C., LOBERA, G. eta URRUTIA, A.: «Euskarazko testugintza juridiko-administratiborako osagaiak: Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien zirkularrak (1917-1920)», *Karmel*, 4 (1999), 3.etik 19.erako orr.

(3) EUSKALTZAINDIA: «III[na] Itz Berrika», *Euskera*, I. urtea, 2 (1919–1920), 90. orrialdetik 95.erakoak.

(4) IVAP-HAEE: *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa (1936ko urritik 1937ko ekainera)-HIZTEGIA*, IVAP-HAEE, Gasteiz, 1997. Ikusalde beretik, LOBERA, A.: «Hainbat jakingarri *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*ren gainean», *Karmel*, 3 (1995), 28. orrialdetik 55.erakoak.

(5) ZARATE, M. : *Bizkaiko Euskal Idazleak*, Derio, 1970, 114. orrialdetik 232.erakoak.

(6) ORIXE (P. Iztuetak prestatua): *Euskal literaturaren historia laburra*. Utriusque Vasconiae, Donostia, 2002. 76. or.

(7) MITXELENA, K.: *Historia de la literatura vasca*, Erein, Donostia, 2001, 137. or.; LAKA, I.: «Hiperbizkaieraren historiaz: hastapenak», *ASJU*, XX-3 (1986), XXI-2 (1987), XXI-3 (1987).

Hurrengo belaunaldiaren asmoetatik ere, urrun ez Sabino Aranaren eragina. Adibiderik adibidetsuena, esaterako, *Eusebio Erkiaga* bera. Lekeitiarraren biografia literarioaren lehen artikulua (1931) (8), hain zuzen ere, Sabinoren ohorez egina. *Zubikarai, Muniategi, Ziarsolo...* eta beste hainbeste soka berekoak.

Esan ohi da Sabino Aranak eta Azkuek, bakoitza bere aldetik, lexiko-tradizio baten aita pontekoak direla. Horien aldamenean, Larramendi zena, azken horren ildoa berehala desagertu bazen ere (9).

---

(8) Oroipenez (*Bizkaitarra*, VIII, azaroa, 1930): Edestijak irakasten dauskun lez, erri geyenak euki ditubez seme ospetsubak, erri orrek aurkitu ziran ezbiar edo arriskubetatik atara dabezan seme aundijak, emonik euren Aberrijari bizija, galduta edo erdi galduta euken bizija.

Euzkadi'k be, eukiko dituz orrelako semiak baña, beintzat, danen ganetik bat agertzen da, euzkotar gustijok ondo dakiguna: Arana-Goiri'tar Sabin.

Geure Euzkadi ija osoro galduta eguan. Gure asabak aztuta euken nortzuk zirian eta euren Aberrija zein zan. Gastelarren menpian eta eurakin eikezan artu-emonak gatik eurakin bat eginda lez egozan; dana zan berton erderia, errijetan egozan gixon agindudun gustijak ziran erdeldunak, eta geure euzkera ederrari guda gogorra egiten eutsen. Emenguak be, asi ziran euren (gaztelaren) izkuntzagaz pozik (zoritxarrez gaur be geyenak orretan dagoz, batez be, emakumiak) eta euzkeria, lenengo erdi eta gero ija oso aztu jaken. Geure lege ain ederrak kendu, ostu euzkuezan, eta oitura eta okandu garbijak zapaldu eta loitu ebezan; orregaz, euzkaldunen zinizmena be asko makaldu eta otzitu zan. Euzkadi, ainbeste gixalditan azke bixi ixan zan errija, erijotzia urre-urre eukala eguan. ¡Zelako egun larrijak benetan geure Aberrijarentzat!

Orrelan aurkitu eban Sabin'ak. Erdeldun jayo zan, baña laster ezaguturik bere odola eta bere Aberrija zeintzuk zirian, eurori jagoken izkuntza ikasi eban: euzkerea. Bere errija ikusirik errukarrizko era orretan, gaizkituteko asmua artun eban. Bere ixate gustija, ezkiñi eutson, jakite, ogasun, lagun, eta baita bere bixitza be, Aberri gaxuari osasuna emotiarren. ¡Sabin bai ixan zala bijotz onekua!

Eta gogotik asi zan bere lanean; sendo ekin eutson, ez iñoren aldetik goralpenak entzuteko asmuz, ez; entzun beren itzak: «Pozik emongo neuke neure bixitza ori gatik Aberrijari osasuna etortiarren iñork nire barri jakingo ez ba leuke be». ¡Benetako abertzaliak zelakuak diran!

[URRUTIA, ANDRES: *Eusebio Erkiaga. Berbalauaren kulunkan, Prosa lanak II*, Sutondoan Sorta – Labayru Ikastegia – Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa. Bilbo, 2002. 783. or.]

Abertzaliak: jarraitu daigun Sabin'ek irakatsi euskun biderik zintzo-zintzo; bera artu daigun eredutzat, eta lan egin daigun gogoz bape gogatu barik; ¡Jel aldez beti! ¡Ekin, bildurtu barik Euzkadi osasunez beterik agertu daiten egun zoriontsu baten...

Irakurle: azilan 25'karrenian da beren ogetasaspi garren il-urteurrena, ta euzkotar gustijok zuzendu biar doguz geure bijotzak Jaungoikua'gana, Sabin geure irakasle zanaren gogo aldez otoi egiñik, eta eskatu Aberrijentzako biar dan laguntza. Goyan bego.

(9) Bion arteko ezaugarriak ederki asmatu ditu PAGOLAk *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri* lan estimagarrian:

La labor neologista de AG se desarrolla en tres direcciones:

»a) sustitución de términos «alienígenas»

»b) creación de voces que satisfagan las nuevas inquietudes, y

»c) perfeccionamiento de formas indígenas [...].

«Lo cierto es que Azkue es esencialmente tan purista como AG. Casi no hay neologismo de éste para el que aquél no ofrezca alternativa; en cambio, no puede decirse lo mismo de AG con respecto a Azkue, sin duda porque éste vivió muchos más años. Azkue participa de la obsesión de AG por rehuir los préstamos; lo que le reprochan al creador del nacionalismo vasco es su imperfecto conocimiento del idioma, es decir, básicamente, el quebrantar las leyes fonéticas de la composición y derivación contrayendo en exceso los vocablos [...]; y la creación

Komunikabideak

Sabino Aranaren eraginpean Bizkaiko euskal letretan nor gailendu zen azalduta ere, laburregi geratuko litzateke haren ekina Bizkaia aldean. Politika eta administrazioaz zein euskalgintzaz zerbait esana dut gorago. Aipa dezadan oraingoan, haren iritziko komunikabideak. Izan ere, bai berak zuzenean, bai bere jarraitzaile bipilek, etengabe sortu zituzten mota eta tankera askotako aldizkariak. Nabariena, beharbada, *Euzkadi* egunkaria eta bere *Euskal Atala*, hainbat idazleren kabi eta agerleku. Ez ahanztekoak, *Aberri*, *La Patria*, *La abeja*... eta harrezkeroko *Euzkerea*, *Jakintza* eta abar.

Eliza

Bistan denez, egitasmo oso bat. Eta, egitasmo horren barruan, jakina, ordukoetan hain garrantzitsu zen Elizaren jokamoldea ere ezin bazter utzi. Sabinoren txaloak eta goresmenak merezi zituen abade bizkaitar zenbaitzuren euskal sermoilaritza berriak, euskaraz erlijio-egiak modu egokietan zertzen zituena. Haren heriotzondoan ere, ekimen horretan jardungo dute biztaitar abade batzuek, euskalgintzari heltzeko puntuan eta katolikotasunaren mezua euskara garbian zabaltzekotan, gerora *Jaungoiko zale* bazkuna izango dena sortuz, garbizaletasunaren errekatik.

Hitz gutxitan esateko, Sabino Aranaren itzal zabalak ia mende osoa hartu du Bizkaiko euskalgintza. Alde edo kontra, zale edo arerio, Sabino Arana izan da, urte luzeetan, euskalgintzaren erreferentzia Bizkaiko lurraldean. Onerako zein txarrerako, Sabinoren esana beti egon da hor, oinarri eta sustrai. Azken aldiotan ere, hortxe dago, euskararen normalizazioaren mezua gero eta hedatuago dabilenean gure artean.

Nire hitzen eta iritzien berresle, hona, beste behin ere, *Orixe* zena: *Arana gabe edo Aranaz leku ari izanak eta ari direnak badituzu, baino aren aldekoak naiz aitzikoak, naiz bitartekoak, naiz Arana-kukuak, ua dute eragile nola edo ala* (10).

---

innecesaria de los mismos por existir en la lengua términos equivalentes por muy remotos y arcaicos que éstos sean [...]. Azkue solo recurre a la formación de voces nuevas una vez ha agotado esta última vía; en cambio a AG la sustitución de préstamos le conduce casi siempre al neologismo, sin duda porque su conocimiento del léxico vasco es notablemente inferior al de Azkue, pero sobre todo porque, contra la tradición (Oihenart, Larramendi, etc.) que Azkue no interrumpe, para él no existe, si no es en un cierto nivel de abstracción, el léxico vasco patrimonio de todo el euskera. El euskera no es uno, sino varios y cada dialecto ha de habérselas con sus propios recursos» (PAGOLA HERNÁNDEZ, I.: *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*, EHU, Gasteiz, 1987–1988, I eta II. liburukia).

(10) ORIXE (P. Iztuetak prestatua): *Euskal literaturaren historia laburra*. Utriusque Vasconiae, Donostia, 2002. 76.or.

Labur-zurrean esanda, haren ideia batzuk zalantzan jartzekoak badira ere egun eta gure iritzipean, agerikoa da haren ekimenaren ondorioa, luze eta zabal baldintzatu duena Bizkaiko eta Euskal Herriko euskalgintza. Horrek, zalantzarik gabe, on-gaitzak eta argi-ilunak izan ditu. Beroriek haztatuz gero, niretzat behinik behin, Aranaren euskalgintzaren argiek nabarmen ostentzen eta gutxitzen dituzte haren ilunak eta itzalak.

SABINO ARANA: HIZKUNTZA ETA KULTURA

Bilbo, 2003-XI-21

Txomin Peillen,
euskaltzain osoa

Euskararen historian beti izan ditugu, gure hizkuntzaren eta kulturaren aurka mintzatu zitzaizkigunak, etsaiki. Etsaigoa horrek ordea bihurtze mota ezberdinak ekarri ditu; batzuetan euskara idatziak bere frogak egin nahian idatzea. Halaxe Larramendiren ondotik orduko espainol kritikalariei erantzuteko liburuak idatzi ziren, halaber 1974.an Juan Karlos erregeordeak esan zuenen euskara ez zela jakintzarako gai *Elhuyar* aldizkariarekin erantzun genion, *gaitasunaren froga*. Beste erantzun bat izan da apologisten ondotik, gure hizkuntza *mordoiloa*, nahasia zelarik hitzen asmatzea eta hori bera egin zuen Larramendik bere hiztegi *garbizalea* Sabinok baino lehen.

Sabino Aranaren garaian zio asko zeuden euskararen duintasunaren alde jartzeko. Lehenik berriki Unamuno eta besteek, berek menderatzen ez zutelako, esan ziguten euskara ez zela kulturarako gai, hizkuntza murritza zela eta «hitz abstrakturik eta orokorrik» ez zeukala. Ez ziren osoki okerrean hori idaztean hiztegi hori gaurkotasunerako laburregi zelako, baina Sabinok Larramendik bezala hitzak asmatuz nahi izan zuen euskarak hitzen sortzeko gaitasuna zuela erakutsi eta *euzkera* aberastu.

Sabino Bizkaiako giroan bizi zen: Ezkerraldeko fabriketan erdaldunak trumilka sartzen ziren eta Bizkaiko kaletarrek euskara pidjintua zerabilten, Sabinok euskararen idaztea, eta «euzkera ona» hiztegi garbi batekin idaztea bultzatu nahi izan zuen. Euskara hobearen egiteko Iparraldeko idazleen tradizioan eta Hegoaldeko batzuen idazkietan hitzak aurkituko zituen, baina idazki horik ez ziren inon erosgai eta sarritan jadanik euskaran errotu hitzak ez ezagutuz bere izparriak eskaini zituen.

Hizkuntzaren aldetik hasieran eragina izan zuen, Bizkaian, batik bat prentsan eta lehen eskola liburuetan, baina Sabinoren *euzkerak* beste idazle asko zertxobait kutsatu zituen: Lauaxeta eta Lizardi, Iparraldean oso gutxi, Mirande izan ezik.

Azkuek, ordea, gaztaroan «aranismo» askoren asmatzailea izan ondoren, beste bide bat hartu zuen, gure hizkuntzaren aberastasunak eskainiz, jakiteko

ez ote zen euskaraz, jadanik adigai askorentzat hitzik eta Sabinorengandik urrundu.

Gerrate aurreko idazleen artean Azkueren gipuzkera osotuak arrakasta gehiago izan zuen: bide horretarik ibiliko dira jesuita eskoletan formatu, Nikolas Ormaetxea «Orixe», Jokin Zaitegi, Andima Ibinagabeitia eta euskalki kutsuaren Irisarri fraidea, Salbatore Mitxelena eta hasierako Joan Mari Lekuona, Jon San Martin, Martin Ugalde eta Luis Villasante bera eta beste.

Ibinagabeitia Parisen ezagutu nuen. Jon Mirande eta hirurok gipuzkera osotuan idazten genuen. Jon Mirandek hasieran Sabinoren hizkuntzaren kutsu zerbait eduki zuen gero lapurtar klasikoaren bidez euskara baturantz iritxi. Sekulan ez nuen garbizale trinko idatz bide hori jarraitu nahi izan eta horretaz bi lagunekin eztabaidak izan nituen.

Gero, Andima Ibinagabeitiak Parisen joera berria izan zuen, nahiz gipuzkera osotuan idatzi, euskal liburu zahar eta berrietarik sustraitu hitzen biltzen zebilen, biltzen eta eskaintzen. Honela *Euzko-Gogoan* sabinista amorratu bakan batzuek izparrizaleek jarraitu bazuten hala nola Jemeindar Zeferin, gehienek gipuzkera osotuan, aldiz *Eganen* K. Mitxelenaren zuzendaritzapean eta haren eredua jarraikiz pixkanaka gipuzkera osotua, benetan beste euskalkiez osatzen hasi zen. Mirande eta biok gure gipuzkera osotuan «h» -ak sartzen hasi ginen.

Sabindiar euskara horri bihurtzeko joan den mendeko hirurogeita hamargarren urteetan idazle berriek, sabinismoak baztertu nahiz, euskaniolera jo zuten. Ustez eta Sabinok asmatu zituen hitz batzuen baztertzen hasi, hala nola idatzi izkribatu erabiliz guk generabilan jakintza hitzaren ordez, zientzia espainolkeria. Ulergarriago izateko, omen? Hilabeteak gaztelaniaz esateko moda jarri zen, alegia euskaraz hitz gehiegi zeudela, nahasgarriak zirela. Gogoratzen naiz Iñaki Teodoro gipuzkoarraren semearekin eduki hizketa:

«Hark: zer egiten dezu uda onetan?

Nik: Uztaila eta Agorrila Zuberoan

Hark: Zer dira orik?

Nik: frantsesez Juillet- Août

Hark: garbizalea zera; guk Julioa eta Agustua esaten degu.»

Sabinok besterik ezean eskaini , beharrik gabeko hitz asko, galdu dira zorionez, *gabeukatz, urrutizkina, txadona* eta *lutelesti* gaizki formatuak eta ulergaitzak zirelako, baina beste asko salbatu: *aberri, abertzale, abertzaletasun, abesti, abeslari, abesbatza, arkatz, ertzantza, espetxe, ikastola, jaurlaritza* eta beste. Gutxiago erabiliak: *enda, Gotzon, gotzain,* eta beste. Hitz zaharkitu batzuk berpiztu zituen: *agintari, idatzi,* baita zubererazko *ahul, zinegotzi.* Baliteke euskal argote bat egitekotan sabinismoez baliatzea. *Igela* aldizkarian geuk

behintzat umorezko hibridak eskaini genituen: *urrutifonua, *txasanta, *ludigrafia edo *telehizkina, *casadona eta *geolestia.

Sabinoren euskarak arrakasta gehienik izan zuen espainol izenen itzultzean. Andreentzat oraindikan bizirik dira: *Agurtzane, Edurne, Ikerne, Jaione, Jasone, Karmele, Sorne;* baita gizonezkoen artean: *Gotzon, Kepa, Koldo.*

Sabinok behintzat azpimarratu zuen Iparraldeko abertzale burụ batzuek eta Hegoaldekoek ere onartu ez dutena, euskara da euskotarren hizkuntza, beti erdaldun motz gelditzen zazikigunean eta zer egin behar dugun agindu nahi digutenak. Sabino beraren eragina hizkuntzan ezpada hain handia izan, gure kultura hurbil lokartua esnatu zuen.

Sabino Arana eta kultura

Haren garaian noski euskara hobeki egiten zutenak euskaldun elebakardunak ziren eta baserritarrak, horregatik nekazarien hizkuntza gehiegi sakondu gabe, euren bizimoduak goresten hasi zen. Sabinok ezpadu baserri munduaz idatzi eta gutxiago euskaraz, haren jarraitzaileen bidez eta aspaldian Mogelek *Peru Abarkarekin* erakutsi kostunbrismoaren eredutik, Donostian abiatu zen kaletar eskolatik urrunduz, baserritar hotsezko kultura eskaini zitzaien euskaldunei.

Agian kaletarrei exotikoak zitezkeen baserritar zintzo, kristau, on, langille, euskaldun huts horiek. Ikuspegi manikeo batetik kaletarrak, hiritarrak eta erdaldunak, gaiztoak, ustelak, ateoak dira, indianoak, Ameriketan egon euskaldunak txarrenak. Gerrate zibilaren bezperan, ordea, gauzak aldatu ziren gizartezale katolikotasuna edo katolizismo soziala abiatu, erdaldunen ganako aiherra galdu. Halatan ere gaurko progrek Sabino literatura antzutzaile bezala ikusten duten arren, jakin behar da, hogeigarren mendeko urte haietan, erakusten diguten gizartea benetan kontserbadorea zela, eta eurek idatzitakoa, nahiz erromantiko usaina eduki, erdi errealista dela.

Halere gerrate zibilako eskarmentuetan Sabinista askok baserria zer zen jakin zuten hain zuzen *Ekaitzpean* (1) bezalako eleberrian, traidorea euskaldun hutsa da eta Euskadirentzat hiltzen dena ezkerraldeko erdalduna; bestalde abertzale zauritua baserri batean izkutatzen denean, konturatzen da etxalde horretako jendeek ez dakitela abertzaletasuna zer den. Karlista geratu direla. Eta gerrate horren gorabeherak ez dituztela ondo ulertzen.

Bestalde Europari ireki ziren olerkariak hala nola Lauaxeta eta Lizardi sasi erromantizismo batetik sinbolismora igaroaz eta izadiaz ikuspegi sentikor berria emanez.

(1) José Eizagirrek, Argentinan, EKIN argitaletxean, 1948.ean argitaratua.

Mikel Zarate *(Haurgintza minetan)*, Enaut Etxamendi *(Gilentegiko Gilen)*, edo Joan Mari Irigoien *(Babilonia)* itxoin egin behar da benetako baserrien kezkak ezagutzeko. Bestalde euskaldunok mutur batetik bestera ibili ohi garelako baserriaz ahaztu ginen, azken nekazarien bizitzaz ez da jende asko arduratzen, nahiz munduan oraindik % 75.a nekazari izan, gure herrian ehuneko 7. tik behera jaitsi garelako, baina gogoratu behar zaigu gure hizkuntzaren oinarriak, zibilizazio guztietan bezala, artzainek, nekazariek, itsasgizonek eta esku langileek eraiki zituztela.

Kaletar kultura bat sortu zen, eta ahalik eta popularenik izateko euskainolez idazten hasi; literatura eta pentsamendu horrek hiria goresten zuen, miresten zuen; industriaren harrokeria herriaz jabetu zen. Idazle batek joan den mendeko 70. urtetako euskararen modernotasuna erakusteko idatzi zuen euskararen gaurkotasuna ageri dela kaletarrek ez baitute haritza eta pagoa bereizten: denak arbolak direla. Zer ba? Unamunori arrazoin eman beharrez. Horrelako gauzak ingeles bati edo aleman bati esan baginetzaio sekulako barreak egingo lituzke, haientzat naturaren ezagutza kulturaren oinarri bat delako. Giro ezjakin eta ezezkor horiek jadanik gaindituak dira, ez jakitea ez da gehiago kalitate ez eta aurretik aipatu idazlearentzat.

Uste dut, kritikoki bada ere, Sabino Arana eta haren ondokoen idazkiak (berrogei eleberri) gazteek ezagutu behar lituzkela, desagertzera doan gizarte baten ispilu direlako. Zorionez berriz jatorrizko hizkuntzan ematen zaizkigu, klasikoetan agertu ez zirenak, honela gazteek jakingo dute –kaletar erdaldundu intelektual batzuk edo sindikalistak bazter utzita– zer zen, euskaldunen Euskal Herri gehiena kontserbadore zelarik, pentsamoldea eta oraindikan gehien bat baserritar zen gizarte baten egoera. Denbora berean ikusiko dute idazle guztien joera kostunbrista bazen, hizkuntzan ez zutela denek Sabino Arana jarraitu. Jarraitu dutenek badute erru apur bat hogeita hamar urteez euskal literatura konformista egin bada, hoben handiagoa dute ezkerreko idazleek ez baitzioten euskarari eskerrik ez eta begirune txikienik.

Sabino Aranaren saioak eta ekarpena hizkuntzari eta kulturari ez da osoki ezezkorra eta bera izan ez balitz ez dakit euskara oraingo mailan legokeenez ere.

SABINO ARANAREN ZAZPI GUTUN
(Bat argitaragabea)

Bilbo, egoitza, 2003-XI-21

Prestatzaileak: Piarres Xarritton eta
Pruden Gartzia (1)

HITZAURREA

Bi aldiz argitaratu dira Sabino Aranaren idazlan guztiak (2). Ezaguna denez, bigarren edizioa aurrekoaren birrinprimaketa da, hiru tomotan, Martin Ugalderen ahaleginari esker zenbait dokumentu (batez ere gutunak) erantsi zitzaizkiolarik. Horien artean daude S. Aranak Piarres Broussain (3) mediku hazpandarrari igorritako bost gutun, Jenofa Le Roy-Broussain andereak utziak Piarres Xarrittonen bitartez.

Baina argitalpen horrek badu zenbait hutsune eta akats. Alde batetik, ez bost, baizik eta sei dira Aranak Broussaini igorritako gutunak. Gutun horiek gaur egun Bilbon daude, Euskaltzaindiaren egoitzan, P. Xarrittonen aholkuari segituz Le Roy-Broussain andereak Euskaltzaindiari utzi baitzion bere aita zenaren artxiboa, ikerleen esku egon zedin (4). Ondare dokumental hori arakatuz seigarren gutun bat aurkitu dugu, Martin Ugalderen edizioan argitaratu ez zena. Bestalde, sei gutun horien arteko baten iturria ez da Aranak Broussaini bidalitako gutuna bera, Broussainek Resurreccion Maria Azkueri (5) igorritako gutun batean interpolatuta agertzen zen euskarazko testu bat baizik, hain zuzen ere Aranak Broussaini berari igorritako gutun baten transkribaketa. Bada, Aranaren gutunaren testua argitaratu bazen ere, ez zen garbi azaltzen ha-

---

(1) Eskerrak eman behar dizkiogu Begoña Amondaraini, Euskaltzaindiko gure lankideari, gutun hauek argitaratzeko eskainitako laguntzagatik.

(2) Lehena: *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin (Sabino de Arana-Goiri)*, Buenos Aires: Sabindiar-Batza, 1965, eta bigarrena: *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin (Sabino de Arana-Goiri*, 2. ed., Donostia: Sendoa, 1980.

(3) Piarres Broussain (1869-1920) medikuari buruz, ikus: Xarritton, Piarres: *Pierre Broussain: sa contribution aux études basques (1895-1920)*, Paris: Centre National de la Recherche Scientifique, 1985, eta *Resurreccion Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa = Correspondencia entre R. M. de Azkue y P. Broussain = Correspondance entre R. M. de Azkue et P. Broussain: (1897-1920)* , Piarres Charrittonek paratua, Bilbo: Euskaltzaindia, 1986.

(4) Ikus «Pierre Broussainen fondoa hartzean», *Euskera*, 38 (1993), 673-685. orr.

(5) Resurreccion Maria Azkueri buruz (1864-1951), ikus: Arana Martixa, Jose Antonio: *Resurrección María de Azkue*, Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína, 1983, eta *Resurreccion Maria Azkue: (1864-1951)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1993. Baita ere: Kintana Goiriena, Jurgi: *Vizcaytik Bizkaira?: R.M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)*, Bilbao: Euskaltzaindia: Bilbao Bizkaia Kutxa, 2002 (Mikel Zarate saioa saria).

ren testuingurua, hots, nork nori bidalitako gutunetik hartutako testua zen. Hortaz gain, badira zenbait akats txiki gutunen transkribaketan.

Eta Azkue aipatu dugularik, bada Aranak berari bidalitako beste gutun bat, 1957an Alfonso Irigoienek *Euskera* agerkarian argitaratu zuena, baina *Obras Completas*-en jaso ez zena, ez lehenengo ez bigarren edizioan (6).

Beraz, egoki iruditu zaigu zazpi gutun horiek biltzea eta batera argitaratzea, orain arteko sakabanaketa gainditzeko. Bat euskaraz dago, sei gaztelaniaz. Egilea beti Sabino Arana da, eta jasotzaileak euskal kulturan toki nabarmena duten bi lagun: Broussain eta Azkue.

Gutun bakoitzaren hasieran jarritako oharrean zehaztuko da jatorrizko dokumentua non den eta non argitaratua den orain arte. Halaber, Euskaltzaindiaren idazkari den Xabier Kintana jaunak jatorrizko gutunen kopia digitalizatu bat Sabino Arana Fundazioaren buruorde den Jose Luis Aurtenetxe jaunari eman zion eskura, Sabino Aranaren omenez burutu ziren jardunaldien baitan.

Ohar osagarri gisa, esan dezagun P. Xarrittonek berriki Emanuel Intxauspe zenaren artxiboa arakatzeko aukera izan duelarik, Sabino Aranaren gutun argitarabe bat aurkitu duela, orain arte ezezaguna. Zortzigarren gutun hori *Euskera* agerkariaren zenbaki honetan bertan argitaratzen da lehen aldiz, Emanuel Intxausperen gutuneria jasotzen duen artikuluan (7).

---

(6) Dirudienez, Sabino Aranak Azkueri igorritako beste zortzi gutun ere egon ziren Azkueren artxiboan, baina, tamalez, gaur egun ez dakigu non egon daitezkeen. Galera horretatik salbatu den bakarra Azkuek bere eskuz osatutako gutunen aurkibidea da, A. Irigoienek ere aurreko gutunaren ondoan argitaratu zuena:

«[En el sobre donde se encuentra archivada la única que se publica, dice de puño y letra de Azkue]:

De Arana eta Goiri'ttar Sabin:

1ª Azkue'rentzat: Begoña'ko Ixar Zerutarrari. Siete estrofas vascas. Y termina con estas palabras: (Euk niri esandako nuerrijaz) 1895, Orrila-31 an. A. eta G'tarr S.

Y en el sobre: Azkue'tarr Resurreccion Eleizkixon eta euzkeltzaliari. A. eta G'tarr S'ek.

2ª Sukarrieta 28, V, 1900. Una larga carta y razonable acerca del vocablo buruntzi que significando corona introduje en mi recién publicada poesía a Nª Sª de Begoña.

3ª Contestación mía, dentro de una carta que escribí tres días más tarde desde Hendaya (Chateau d'Abbadia) a mi amigo Juan Carlos Gortazar.

4ª Fragmento de una carta de Sabino a su hermano Luis.

5ª Bilbao 26, 8 bre, 91. Carta agradeciendo mi regalito de Euskal izkindea.

6ª Mía a Sabino. Bilbao 23-VI-1901. Enviándole dos libros... etc.

7ª Tres tarjetas suyas sin fecha. En una me llama «Mi respetable amigo», en otra «Muy Sr. mío», en la otra dice que b. l. m. S. de A. y G.

8ª Una carta suya 2, V, 1901 [contestación de Azkue detrás].»

[Alfonso Irigoien, Euskera, 2 (1957), 325]

(7) Euskera, 48 (2003-2), «Manuel Inchausperen mendeurrena», 541.or.

GUTUNAK

1.–Sabino Aranak Piarres Broussaini (Broussainek Azkueri igorritako gutun batetik hartutako testua) (8)

[1898-9-11 eta 1898-11-15a bitartean]

«Arana eta Goiri'tarr Sabin'ek gogo zinduaz agurr-egitten dautso Pierre Broussain Jaunari, amaika eskarr [sic] emoten dautsoz beronegandik arrtutako irazkijagattik, eta autorrtzen dautso bere aldian beti egongo dala Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra'ren aldez ta erritarrtzat, geure aberri gaxo au errdeldunen esku gaiztoetatik gaizkatuteko. Gora dagijan geure abendu zarrak!».

[jatorrizko dokumentuaren *r* eta *t* gangardunak *rr* eta *tt*-ekin ordezkatu ditugu]

2.–Sabino Aranak Piarres Broussaini (9)

[Bi gurutze elkarren gainean]

Sukarrieta [*r* gangarduna jatorrizkoan] (Pedernales), 4-XII-1901

Sr. Broussain ta Salagoïty. Hasparren

Distinguido compatriota y buen amigo: Dos letras nada más para acusarle el recibo de su grata del 23 del pasado y la segunda del 30. Mil gracias por ambas. En ambas he podido convencerme una vez más de su patriotismo de V. y de sus nobles deseos, y de que V. y yo marcharemos de acuerdo siempre en las cosas sustanciales; por lo cual me felicito. Crea V. que no auguraba muy buenas y muy serias cosas de nuestra todavía ridícula Comisión (sin ofender á nadie); pero su segunda carta de V. me ha servido de gran consuelo: con el apoyo de V. no temo ya se hayan de confundir nuevamente los asuntos en perjuicio de todos y de todo. Lo que yo no veía era esa necesaria separación entre el congreso de Hendaya y su Comisión por un lado y la reunión privada de la tarde y la dichosa *Federación* por el otro; y lo que yo pretendía y pretendo es que esa separación sea absoluta. Afortunadamente, V. ha encauzado la cosa por este camino con los de esa parte del Bidasoa; pero como esto no me consta á mi oficialmente, sino todo lo contrario por oficios que tengo recibidos del Sr. Presidente, no se in-

(8) Broussainek Azkueri bidalitako gutun osoa in *Resurrecion Maria de Azkue ta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa*, Piarres Charrittonek paratua, Bilbo: Euskaltzaindia, 1986, 200-202 orr. Gutunaren zati bat, erreferentziarik gabe, in *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin (Sabino de Arana-Goiri)*, 2. ed., Donostia: Sendoa, 1980, 3. t., 2396 (72) or. Jatorrizko dokumentua Azkue Bibliotekan dago, Euskaltzaindiaren egoitza, Bilbo.

(9) In *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin (Sabino de Arana-Goiri)*, 2. ed., Donostia: Sendoa, 1980, 3. t., 2396 (66-67). orr. Jatorrizko dokumentua Azkue Bibliotekan dago, Euskaltzaindiaren egoitza, Bilbo.

quiete V. por que vea publicarse en *La Patria* (que haré se lo remitan) mi nueva contestación al dictamen de la Comisión de Hondarrabia [*r* gangarduna jatorrizkoan] y otros documentos. Tengo oficios que se contradicen. Además, no sé cómo piensan respecto de esa separación los Comisionados de la izquierda del río; y en fin, no hay acuerdo oficial de la Comisión en pleno que la declare ó al menos no se conoce. Para poner las cosas claras y para sinceramente ante el público vasco, puesto que al bien público del vasco perseguimos, voy á darlo todo á la prensa, desde el principio hasta el fin. Creo que sólo así podremos arribar á una ruta clara y oficialmente definida. El plan ortográfico se hará esperar; pero no importa, si esto es preciso para proceder con orden y con seriedad, de modo que nadie pueda tacharnos de informales ó de algo peor.

Los escritos que voy á publicar los tenía hechos de hace días y no voy á corregirlos á pesar de haber recibido hoy su carta de V. segunda, que me abra ya ante los ojos un horizonte más despejado. No hallo otra manera de sincerarme.

Por hoy nada más le digo. Se me ha acumulado la correspondencia y el trabajo, pues hace muchos días que nada hago por no permitírmelo la salud. Dios se ha dispuesto acariciarme esta temporada como nunca. Nunca hasta ahora he estado enfermo tan largo tiempo. Apenas repuesto de la afección gástrica que empecé á sentir en Hendaya y me impidió asistir á Hondarrabia [*r* gangarduna jatorrizkoan], pues otros trabajos más precisos para mí (las elecciones de Bilbao) me obligaron á descanso, caí nuevamente de gripe faringobronquial, y esta vez en cama, aunque sólo dos días y comenzando á convalecer al siguiente. Aún no he salido de casa, ni puedo trabajar cuando quiero. Pronto espero, sin embargo, estar al cabo de la calle en mi restablecimiento, pues no es mi flaco éste del pecho, sino el gástrico.

Le agradeceré mucho á V. me mande lista de vascos de esa parte del Bidasoa amantes de su Patria, acompañándolos con las notas que crea oportunas. En con objeto de enviarles cuantas publicaciones patrióticas vean aquí la luz, á fin de que unos y otros nos conozcamos y podamos estrechar nuestra natural fraternidad con los lazos de afecto. Yo tengo muchos deseos de entablar y continuar con V. correspondencia, si bien debo prevenirle que soy incorregiblemente perezoso para escribir cartas y llego en esto hasta á ser desatento con mis más caras afecciones. No lo olvide V.

Respecto de los otros puntos de su carta que dejo de contestar, lo haré en otra ú otras, guardando turno.

Sabe V. que en mí tiene un compatriota que es su leal amigo y servidor en Jaungoikua eta Lagi-zarra [*r* gangarduna jatorrizkoan].

Arana-Goiri

S.C. = Pedernales (por Bilbao)

3.–Sabino Aranak Piarres Broussaini (10)

[Bi gurutze elkarren gainean]

Pedernales, 6-I-1902

Sr. Doctor Broussain. Hazparren [*r* gangarduna jatorrizkoan]

Muy Sr. mío y distinguido compatriota: Como M. Guilbeau me anunció, he leído en *La Patria* la circular que ha pasado a la prensa. La circular ésta me parece sumamente incompleta, y como no contradice á la que yo tenía redactada, la cual enteraría perfectamente al lector del acuerdo tomado en Hendaya, mando imprimir esta mía, y una vez impresa se la enviaré a M.M. Adéma, Guilbeau y Daranatz para haber si la aprueban y me permiten publicarla á cuenta mía en la prensa de Bizkaya cuando menos. Nada haré sin su autorización.

Esta sería una *solución* al lío que no está armando M. Guilbeau.

Enviaré á V. también algunos ejemplares para que se entere.

Quedo á sus órdenes atto. servidor y amigo en Jel.

S. De Arana-Goiri

4.–Sabino Aranak Piarres Broussaini (gutun argitaragabea) (11)

[Bi gurutze elkarren gainean]

Pedernales, 11-1-1902

Sr. Broussain

Hazparren [*r* gangarduna jatorrizkoan]

Muy Sr. mío y distinguido amigo: Con esta fecha mando á los señores Adèma, Guilbeau y Daranatz à cada ejemplar de la presente circular, pregun-

(10) In *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin (Sabino de Arana-Goiri)*, 2. ed., Donostia: Sendoa, 1980, 3. t., 2396(67-68). orr. Jatorrizko dokumentua Azkue Bibliotekan dago, Euskaltzaindiaren egoitza, Bilbo.

(11) Gutuna eskuorri inpramatu baten bukaeran idatzia dago. Delako eskuorria (*Congreso de euzkeristas para la unificación de la ortografía. Invitación* [1902ko urtarrila]) Sabino Aranak erredaktatu eta inprimarazi zuen Hondarribiko Biltzar entzutetsua (1902) zela eta, Piarres Broussaini bidali ziolarik, bukaeran bere eskuzko lerro batzuk erantsiz: lerro horiek dira goian transkribatzen direnak. Eskuorri berari dagokionez, hemen dago argitaratua: *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin (Sabino de Arana-Goiri)*, Buenos Aires: Sabindiar-Batza, 1965, 2105-2108. orr. (2. edizioan berrargitaratua, zenbakikuntza berdinarekin). Gogoratu behar da formalki Sabino Aranaren idazlan bat ez bada ere (berez Hondarribiko Biltzarra antolatzeko batzordeko buruorde eta idazkari gisa jasotako agiri bat besterik ez da), badirudiela Aranak Hendaiako bilkurara (1901eko irailean) *idatziz* eramandako planaren bertsioa besterik ez dela. Jakina denez, gainetiko batzordekideek ez zuten ontzat jo Aranak bilkura horretan hartutako erabakiez egiten zuen interpretazioa, eta istilu latza sortu zen gertakari honen inguruan, besteak beste hemen argitaratzen ditugun gutunetan ikus daitekeen bezala. Informazio gehiagorako, ikus *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin (Sabino de Arana-Goiri)*, Buenos Aires: Sabindiar-Batza, 1965, 2095-2150. orr. (2. edizioan berrargitaratua, zenbakikuntza berdinarekin).

tando à los dos primeros si la aprueban, à fin de enviarla à la prensa de Bizkaya. Pregúntoles también si he de encargarme de remitirla à la prensa de Alaba, Gipuzkoa y Nabarra [*r* gangarduna jatorrizkoan].

Aun ahora he tenido que corregir las fechar iniciales porque el tiempo corre.

Si aprueban la presente circular, indico a M. Guilbeau que puede inmediatamente hacer que se la traduzcan al francés, para enviarla à la prensa de ese lado del Bidasoa.

Sinceras gracias á V. por todo y mande á su amigo y servidor en Jel

Arana-Goiri

[Oharra]

La votación verá V. que lleva la enmienda que V. me propuso por medio de Grijalba y que no afecta á la esencia del plan.»

5.–Sabino Aranak Piarres Broussaini (12)

[Bi gurutze elkarren gainean]

Suk. (Pedernales), 13-I-1902

M. le Dr. Broussain. Azparrne [*r* gangarduna jatorrizkoan]

Muy Sr. mío y noble amigo: Hay un abismo entre las cartas de V. y las de M. Guilbeau. La de V. son *claras* y respiran *patriotismo.*

Acabo de recibir en este momento, á la vez, sus dos últimas: del 7 y del 11. Para esta fecha supongo habrá recibido V. la circular que propongo.

Voy á contestar escuetamente á sus dos gratísimas, pues no me sobra tiempo.

En la del 7 me propone V.:

1º *Fijación de nuevos plazos para las distintas partes del plan.*–Creo que le agradarán á V. los señalados en la circular. Dada la naturaleza del plan, los plazos que no se pueden recudir son: el de 3 meses para la presentación de proyectos; el de 6 para la presentación de refutaciones; y el de 1 para enterarse de éstas y prepararse para la discusión oral.

(12) In *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin (Sabino de Arana-Goiri)*, 2. ed., Donostia: Sendoa, 1980, 3. t., 2396(68-70). orr.; azpimarratzekoa da gutunaren data txarto transkribatua dagoela, urtarrilaren 13koa baita, ez 19koa, Sendoaren edizioan datorren bezala. Jatorrizko dokumentua Azkue Bibliotekan dago, Euskaltzaindiaren egoitza, Bilbo.

2º *Votación para cada sonido por separado.*–De esta enmienda de V. me enteró Grijalba á la vuelta de Hondarrabia [*r* gangarduna jatorrizkoan], y la acepté desde luego. Si no se lo he dicho, ha sido por olvido. Como es muy ventajosa y no altera la esencia del plan y, como V. dice, será aceptada por todos, la he consignado en la circular.

3º *En caso de ausencia, derecho á votar por correo.*–En la circular se deniega este derecho, en atención á que la discusión oral del Congreso tendrá importancia. Pero realmente, la polémica escrita que ya existe entre el proyecto y su refutación es la esencial, y no tengo inconveniente en que se conceda el voto al ausente. Por tanto, si la circular remitida es aprobada *sin modificación esencial*, le explicaré esa reforma que me propone V.

En su grata del 11 me dice V.:

1º Que M. Guilbeau dice que el *Bureau* ha introducido alguna reforma en el plan que de palabra presenté en Hendaya; que el *Bureau* no posee el plan escrito; que él sólo lo conoce por *La Patria*.- M. Guilbeau se ha olvidado de que yo, en la Comisión ponente, *leí* el plan que llevaba *escrito*; que, encargado M. Daranatz, de hacer de Secretario, el acta que levantó en francés era muy incompleta, porque este señor no entiende bien el idioma de nuestro dominador; que en el Congreso *se leyó* el plan escrito por mí en español, y luego el acta en francés de M. Daranatz, siendo aprobado el plan sin enmienda. M. Guilbeau no me pidió el original, y yo por delicadeza, porque no creyeran que desconfiaba de ellos, tampoco se lo dí por mi. Pero es claro que si mi plan fué aprobado primeramente por la Comisión y luego por el Congreso, el acta de la Comisión debía acomodarse al plan y resultaba nula si no se adaptaba a él. Ahora bien: habiendo llevado yo escrito el plan á la Comisión y al Congreso, paréceme que tanto una como otro debieran confiar en mi veracidad y reconocer como exacto el plan que se publicó en *La Patria*. Yo, apenas llegué á Bilbao, entregué al Director de este periódico, á petición suya, así el preámbulo como el plan, tal como los había leído en Hendaya, y luego me retiré enfermo á casa. Al corregir las pruebas de imprenta, sólo una modificación introduje en el plan: la de fijar *5 minutos* [«minutos», eta ez «miembros», Sendoako argitalpenean txarto dakarren gisan] para cada turno en la discusión oral. Ya ve V. que esto no varía en lo más mínimo lo acordado.

2º Que M. Guilbeau dice se ha cordado por el *Bureau* que la impresión de los proyectos y de las refutaciones se haga por éste, en vez de por los autores, á fin de abreviar el tiempo y facilitar la ejecución.–M. Guilbeau está en un error, si tal cree. Con mi plan se reparte el trabajo, puesto que cada autor se encarga de lo suyo, y sólo cuando lo tiene impreso, lo envía al *Bureau* y á los adheridos; con la reforma del *Bureau* todos los proyectos y todas las refutaciones, yendo manuscritos á éste para imprimirlos, se acumularían en poder del *Bureau*, el cual se encontraría con el trabajo sumado de todos los trabajos particulares: y no parece sino que el *Bureau* tiene muchos

escribientes. Con mi plan, la impresión del proyecto y de la refutación se haría más á gusto del autor, y llevaría además menos [«menos» eta ez «nuevas», Sendoako argitalpenean txarto dakarren gisan] erratas; con la reforma del *Bureau*, el autor corre el peligro de que no se impriman sus trabajos con la claridad necesaria y de que vayan plagados de errores. Con mi plan, es preciso mucho menos tiempo que el que sería necesario con la reforma de *Bureau*.

Supongamos que sean 10 los proyectos y que cada autor refutase á los demás. Hé aquí el tiempo que respectivamente sería necesario y las operaciones á hacer:

Con mi plan:

1º El autor escribe su proyecto = 2 meses

2º El autor imprime su proyecto, y lo envía al *Bureau* y á los adheridos = 1 mes

3º El autor refuta á los 9 proyectos = 3 meses

4º El autor imprime las 9 refutaciones y las remite al *Bureau* y á los adheridos = 3 meses

Total = 9 meses

Con la reforma del BUREAU:

1º El autor escribe su proyecto, y lo envía al *Bureau* = 2 meses

2º El *Bureau* imprime los 10 proyectos y los envía á los adheridos = 10 meses

3º El autor refuta á los 9 proyectos y remite 9 refutaciones al *Bureau* = 3 meses

4º El *Bureau* imprime las 90 refutaciones y las envía á los adheridos = 30 meses

Total = 45 meses

Recuerdo que en el Congreso hizo la misma observación M. Guilbeau y le contesté con el mismo ejemplo. Bueno que no sean 10 lo meses que necesite el *Bureau* para imprimir los 10 proyectos, y 30 para imprimir las 90 refutaciones; pero es claro que necesitará 10 cajistas de imprenta y 10 correctores de pruebas si los proyectos los ha de imprimir en 1 mes, y 30 cajistas y 30 correctores para imprimir las refutaciones en 30 meses.

En una palabra: la reforma de M. Guilbeau es muy o más complicada que el plan, requiere mucho más tiempo, y ofrece á los autores menos garantías de buena ejecución.

Yo creo que M. Guilbeau no ha entendido mi plan. Además, debe de creer que para presentar un proyecto basta presentar una lista de signos gráficos. ¡Buenos estaríamos, si tal fuera! Cada individuo, cada conquista presentaría su proyecto, dándose aires de euzkerólogo. No: por nuestra lengua nacional, semejante procedimiento no puede tolerarse. Los proyectos deben ser razonados, sentado los principios ortográficos, clasificando los sonidos, y aplicándoles aquéllos razonablemente. Después de esto, y después de refutarse por es-

crito y conceder alguna discusión oral, viene el que todos los congresistas intervengan en la resolución, emitiendo su voto.

Por esta reforma, pues, si supone que el proyecto pueda ser una sencilla lista de signos, no puedo pasar; si esto no supone, véase cuánto tiempo será necesario para llevarla á la práctica.

3º Negué en el Congreso y vuelvo á negar que haya euzkerálogo que no pueda por si ó ayudado por otros costear la impresión de un proyecto de ortografía, á condición de que á los pocos meses se le reintegre por el Congreso. Desgraciadamente, ni son muchos los que escriben en euzkera, son bien pocos los tratadistas que seriamente lo estudian. ¿Todos los que escriben en francés son tratadistas de este idioma, son gramáticos? No nos expongamos á ser menos serios aún que lo son los latinos.

4º No es cierto que tales cosas me haya dicho M. Guilbeau en su última. Si así se hubiese expresado, le habría contestado.

5º No son comunicaciones de ninguna clase las que mi plan establece entre los adheridos, sino sólo *envío de proyectos y de refutaciones*. Está visto que M. Guilbeau no ha comprendido el plan.

Adiós, mi querido amigo. Dispense tanta molestia como le doy, y mande lo que guste á su fiel servidor y verdadero amigo en Jel.

Arana-Goiri

Por casa: Sr. _____

(Por Bilbao – Guernica)

Pedernales

6.–Sabino Aranak Piarres Broussaini (13)

[Bi gurutze elkarren gainean]

Perdernales, 20-I-1902

Sr. Doctor Broussain.

Hazparrne [*r* gangarduna jatorrizkoan]

Muy Sr. mío y distinguido amigo: Con fecha 16 de mandó M. Guilbeau una copia del acta de la reunión que había celebrado ese día el *Bureau* en Bayona. El acta estaba formada por MM. Adèma y Guilbeau; la copia, por este último.

(13) In *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin (Sabino de Arana-Goiri)*, 2. ed., Donostia: Sendoa, 1980, 3. t., 2396(71-72). orr. Jatorrizko dokumentua Azkue Bibliotekan dago, Euskaltzaindiaren egoitza, Bilbo.

Doy á V. gracias sinceras por haber enviado en su lugar, no pudiendo V. asistir á dicha sesión, á M. Darricarrère. Es seguro que, gracias á éste, á M. Arbelbide y á M. Daranatz, el plan conserva aún trazas de lo que fue. Sin duda que M. Adèma está totalmente confiado en los trabajos de M. Guilbeau. Así es que, á pesar de la intervención de aquellos señores, el plan ha sido reformado en su parte esencial.

Esto me obligará á mí á presentar la dimisión de mi cargo de Vicepresidente, pues no quiero hacerme responsable de culpas que no he cometido. Pero he de esperar á que pase este mes para presentar la renuncia, á fin de no entorpecer la marcha de las adhesiones.

No obstante mi propósito, cumplo con el encargo que me confió la Comisión reunida en Fuenterrabía: es decir, modifico el plan tal como se ha acordado últimamente en Bayona, y lo envío á 17 periódicos de esta parte del Bidasoa. Entre las modificaciones, van también hechas aquellas que con muy buen acuerdo, se ha servido V. indicarme. Va adjunto un ejemplar.

Sospecho que todo el empeño de M. Guilbeau es el de que se celebre el Congreso durante las fiestas de Fuenterrabía. Y ya tiene que ver esto de sacrificar por las fiestas de un pueblo el acierto en una cosa que ha de ser para siempre y que es de interés nacional.

No será extraño que otra vez también llamen *grotescos* á nuestros Congresos.

Mal camino de restauración llevamos, sobrepujando en frivolidad y ligereza á las dos frívolas y ligeras naciones que nos dominan.

Agurr [*r* gangarduna jatorrizkoan], mi noble amigo. Siento en el alma haberle molestado á V. tanto, para haber venido á parar á este resultado. Le agradezco cordialmente cuantas gestiones ha realizado su patriotismo y su actividad para dar feliz solución al enojoso asunto.

Perdone por todo y mande con entera libertada á su fiel servidor y amigo en Jel.

Arana-Goiri

P.D.–Deseo, antes de cerrar de corta, indicarle las razones en que se ha de fundar mi renuncia:

1ª No se ha publicado la convocatoria con la debida formalidad y con la necesaria anticipación. Por esto las adhesiones no podrán ser tantas como era de desear.

2ª No se ha obligado para la adhesión la palabra formal de no emplear más sistema ortográfico que el que acuerde el Congreso. Sin ese compromiso serio, la obra del Congreso es ineficaz.

3ª No se da tiempo bastante para escribir y hacer imprimir un proyecto razonado. Siendo tan corto el plazo, no puede tener el Congreso seguridad de acierto, porque no se presentarán todos los autores que en otro caso podrían, ó no será su estudio tan concienzudo como debiera ser.

De Bizkaya, sí, irán muchas adhesiones.

Pasado este mes, publicaré mi renuncia.

Envío ejemplar de la Circular á cada uno de los señores que estuvieron el 16 en Bayona.

7.–Sabino Aranak Resurreccion Maria Azkueri (14)

[Bi gurutze elkarren gainean]

Sr. D. Resurrección Mª de Azkue, Pbro.

Bilbao 2-V-1901

Mi respetable amigo: Llegan á mis oídos con mortificante insistencia voces nada vagas de ser V. el autor ó, al menos, uno de los colaboradores de los escritos que en los últimos números de *Euskalduna* aparecen firmados por *Euskaldun bat*. Excuso decirle á V. que yo no puedo creerlo: primero por su carácter sacerdotal, y segundo por la amistad y consideración con que me honra. Pero á fin de tapar la boca á quienes tales especies propalan y de ahogar en germen esos falsos juicios, cuyo nocivo fruto es siempre la calumnia, suplico á V. encarecidamente se sirva facilitarme por medio del portador una carta en contestación á la presente.

Yo marcho hoy para casa: pero mañana á las diez estoy aquí, y con su carta de V. en la mano podré de seguida ir apagando el fuego de la difamación, que, por motivos quizá disculpables en unos, por menos caridad en otros, amenaza con extenderse muy pronto lo mismo en Bilbao que fuera.

Sabe V. puede disponer á su arbitrio de su servidor y amigo en Jel Q. S. M. B.

Arana eta Goiri'ttarr S.

[*r* eta *t* gangardunak sinaduran: rr, tt].

(14) In *Euskera*, 2 (1957), 324.or.; edizioaren prestatzailea: Alfonso Irigoien. Jatorrizko dokumentua Azkue Bibliotekan dago, Euskaltzaindiaren egoitza, Bilbo.

JAGONET
2003. URTEKO ERRENDAPENA

Euskararen erabilerari buruzko kontsulta-zerbitzua da JAGONET, Euskaltzaindiak Internet bidez euskaltzeleei laguntzeko sortua. 2001eko martxoaren 21ean hasi zen jendaurrean lanean, Joxe Ramon Zubimendi idazlearen ardurapean. Euskaltzain urgazlea da Zubimendi eta Jagon saileko Corpus batzordeko idazkaria. Egun erdiz ari da lanean JAGONET zerbitzuan, Euskaltzaindiak berariaz izendatutako laguntzaileokin:

Jagon sailburua:	Andres Urrutia
Iker sailburua:	Beñat Oihartzabal
Hiztegigintza batzordetik:	Xabier Kintana eta Miriam Urkia
Gramatika batzordetik:	Patxi Goenaga eta Jesus Mari Makatzaga
Onomastika batzordetik:	Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberri
Euskara Batuko batzordetik:	Pello Salaburu

2003ko datuak

JAGONETek bi atal eskaintzen ditu Euskaltzaindiaren webgunean:

1. Galde-erantzunen datu-basea, egundaino emandako erantzunak bilduz-bilduz doana. Datu-base horren edukia gero eta lagungarriago ari zaie gertatzen euskaltzaleei: 6.621 bisitari izan zituen 2001ean (egunean 24), 12.073 bisitari 2002an (egunean 33) eta 28.121 bisitari 2003an (egunean 77). Kontuan hartzekoa da, gainera, bisitari bakoitzak bilaketa bat baino gehiago egiten duela aldiro datu-base horretan (41.753 bilaketa 2003an).

2. Galdeleku informatikoa. Posta elektroniko bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da (eta pribatua da galdegilearekiko). Bertan jasotako galdera ia guztiak (%99) erantzun dira 2003an ere: zehatzago esateko, 892 erantzun eman dira bederatzi hilabetetan (iaz urte osoan adina).

Lan-prozedura

Hauxe da, urratsez urrats, JAGONETeko lan-prozedura:

1. Galdera jaso

2. Galdera erantzun: arduradunak berak, ahal badu; bestela, laguntzaileetako batek
3. Erantzundako galderak aztertu eta datu-basean sartzekoak hautatu
4. Datu-basean sartzeko hautatutako galde-erantzunak berridatzi (laburtu eta)
5. Berridatzitako testu horiei kode informatikoak erantsi (letrakerak-eta bereizteko)
6. Kodetutako testu berridatzia datu-basean sartu
7. Galde-erantzun sartu berria ongi txertatu dela ziurtatu

Zer kontsultatu JAGONETen

Datu-basearen edukia sei atal nagusitan sailkatua dago: morfologia, lexikoa, onomastika, sintaxia, idazkera eta ahoskera. Atal bakoitzak, berriz, hainbat azpiatal ditu: aditzen erregimena, aditzaren ingurukoak, deklinabidea, atzizkiak, juntagailuak, zenbakiak... Nolanahi ere, bilaketa egiteko ez dago antolaketa horren berri jakin beharrik; izan ere, euskaltzaleak aski du bere zalantzari dagokion gaia edo hitz nagusia (esanguratsuena) idaztea.

Zer ez galdetu JAGONETen

Euskaltzaindiaren erabakiz, euskararen erabilerari buruzko galderak erantzuteko tokia da JAGONET; baina teoria mailako erantzunak emateak beste baliabide batzuk eskatzen ditu (horretarako daude irakasleak eta gramatika-liburuak) eta hizkuntza-arazoak behar bezala aztertuak izatea aldez aurretik. Horrez gainera, eta Euskaltzaindiaren erabakiz:

– JAGONET ez da erdarazko hitzen edota erdal esapideen euskal ordaina galdetzeko lekua; hau da, ez da erdara-euskara nahiz euskara-erdara hiztegien kontsultategia. Horretarako daude orain arte argitaratutako hiztegiak eta, batasunerako erabakitako hitzen formari dagokionez, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua.

– JAGONET ez da terminologiaz arduratzeko zerbitzua.

– JAGONET ez da itzulpen-zerbitzua.

– JAGONETen eginkizuna ez da izen-deituren jatorria edota esanahia azaltzea.

– JAGONETen eginkizuna ez da euskal hitzen etimologia azaltzea.

– JAGONETen eginkizuna ez da ikerkuntzarako laguntza bila datorrenari argibideak ematea: adibidez, autore jakin batek halako egitura erabili ote duen edota zenbat bider erabili duen galdezka datorrenari laguntzea.

– JAGONETen eginkizuna ez da Euskaltzaindiaren erabakien zergatia azaltzea. Euskaltzaindiak badu bere aldizkari ofiziala, *Euskera* izenekoa, eta hor jakinarazten ditu bere erabakiak eta gainerako jakingarriak (*Euskera* agerkarian eta, 1994az geroztik, *Euskaltzaindiaren Arauak* izeneko argitalpen-karpetetan).

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIA (IV)

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIAZ

Xabier Kintana,
idazkaria

SARRERA

Gure Hizkuntzaren Akademiak aspaldidanik ikerketa eta arautze arloan egiten dituen lanak eta euskara sustatu eta jagoteko asmoz ematen dituen pausoak gero eta ezagunagoak dira, eta horiek gure gizartean sorrarazten duten oihartzunak eta dituzten aplikazio zabalek aski ongi erakusten digute jendeak zer nolako interesa duen gure egitekoez.

Badira, ordea, gure erakundearen historian hain ezagunak ez diren puntuak, beraren sortze, jardunbide eta bilakaeraren gorabeherei buruzkoak, horhan-hemenka gutun argitaragabe, artikulu eta dokumentu sakabanatuetan barreiatuak. Horietan guztiotan nolabait Euskaltzaindiaren barne historia dei genezakeena datza, maiz, zoritxarrez, aski ezezagun eta gaizki adituen eta ulerkera okerren iturri, eta, horrexegatik, gure ustez, barne historia horretako zokomokoak argitu eta gure argi-ilunak islatzea egokia bezain komenigarria litzateke. Beraz, xede horrekin, zenbaki honetan hasi eta hemendik aurrera osatuz joan nahi genukeen atal honetan, Euskaltzaindiaren ibilbide historikoa hobeki ulertzeko lagun dezaketen era guztietako agiriak eta lekukotasunak agertzen hasiko gara, P. Xarrittonek oraingoan argitaratzen dituen dokumentu baliotsuak lehenbiziko urratsak izanik.

PIERRE BROUSSAIN-EN GUTUNDEGIA

Laugarren gutun azaoaren aurkezpena

P. Charritton eta J. P. Ouret

Euskera agerkariaren 2003-ko 2. liburuki honetan sartu ditugu lehenik aitzineko bi zenbakietan itzuri zitzaigun Dominique Mocoçain apezaren azken gutuna bai eta ere aitzineko bi zenbaki haiek agertuz geroztik Azkue liburutegian aurkitu diguten J.P. Arbelbideren ahurtara bat idazki: hots, aitzineko 10 gutunen gainera eskuratu beste 13. Azkueri edo Broussaini bidaliak.

Hortik lekora datoz XX. mendeko lehen hogei urteetan, Euskal Herriaren historian bai eta P. Broussainen bizian gertatu xehetasun eta gorabehera asko argi ditzaketen lekukotasunak, hala nola Georges Lacombe euskaltzain zenaren osaba Frédérik de Saint-Jayme amikuztar adiskideak, 1903 eta 1919 tartean Pierre Broussaini bidali 7 eskutitz luzeak.

1903 koak dira aldiz urte horren hasieran euskararen kontra Frantziako gobernuak, Pabeko prefetaren bitartez, euskal katiximaren eragozteko hartu zuen erabakiari ihardokitzeko Broussain, Constantin eta Saint-Jaymek asmatu zuten proposizioa Iparraldeko hautetsiek nola hartu zuten jakiteko hor dauzkagu Broussainek atxiki lekukotasunak.

Eta berdin Lapurdiko frantses nazionalismoak itsutu apez zenbaitenganik, 1911an Azkuek jasan erasoaren ondotik, 1912an, Broussainek sustaturik, Azkuek berak hartu zuelarik bere euskal kantu bilketa baliosari berriz lotzeko xedea, hor dauzkagu apez eta jauntxo zenbaitenganik bildu solas abegitsuak..

Azkenik azao honetan sartzen ditugu 1914-18 eko gerla bururatzean Piarres Broussain Hazparneko auzapezak, kargu hori uztera zoalarik Kontseilu Orokor alkia hartzeko Makeako herrian aurkitu zuen laguntzaile hoberenetarik baten Gratien Istilart (1864-1954) Makeako auzapez eta hizlari ezagunaren zenbait eskutitz zehatz eta zorrotz.

Mouguerre, 19/12/1911 (1)

Mon cher ami,

Puisque vous avez occasion d'écrire quelquefois à Azkue, dites-lui qu'il a laissé chez moi une paire de souliers; j'ai attendu qu'il me donnât signe de vie à son retour de Soule pour les lui faire parvenir à son passage à Bayonne et maintenant je ne sais où les lui adresser.

Quand je recueillerai des mots nouveaux, je vous les transmettrai.
Etourneau se dit *hartzori-a* à Baïgorry aussi.
Chevelure se dit *kartzapil-a* ou *kartzoil-a* à Mouguerre
et *kalpar-ra* du côté d'Irun.
Lamatzea à Irouléguy se dit pour *cherrieri muthurrekoen ezartzea* (*cherrien lamatzea*).

Ne croyez pas que je lise tout l'*Eskualduna* ! Dans le dernier numéro il y avait assez de bêtises à la première page même au sujet des retraites ouvrières.

Garputs-a se dit à Baïgorry pour le petit chaperon que portent les enfants.

J'ai un tas de mots ou d'expressions basques recueillis à Irouléguy; malheureusement tout cela est écrit au crayon et je vois le diable pour déchiffrer mon écriture.

C'est entendu pour la bonne; je préviens à Baïgorry.

Je suis chiffonné avec mon denier du culte; cela ne marche pas.

Bien cordialement à vous.

Mocoçain

J'ai eu beau chercher le mot *lamatzea* que vous m'avez signalé, je n'ai pas pu le découvrir dans le numéro indiqué de l'*Eskualduna*.

(1) *Euskera* agerkariaren 2003,1. zenbakiak Euskaltzaindiaren «Barne-Historian» daukan P. Broussainen Gutundegiko III. azaoan sartzen ziren (233-254. orr.) Dominique Mocoçain apaiz adiskidearen 14 gutun, hona hemen Mugerren erretor jarri ondoan bidali zuen azken gutuna. Hortarik landa Mugerreko erretora zendu zelarik haren adiskide handi Manex Hiriart Urrutyk eskaini zion *Eskualduna* astekarian artikulu zinez hunkigarria.

Hasparren, 3 Octobre 1897 (2)

Monsieur Azkue,

J'ai appris par M. Pierre Broussain avec quel zèle actif et quelle compétence éclairée vous consacrez vos efforts à la conservation de notre chère et belle langue basque. Permettez-moi de vous en féliciter et de vous offrir mes dévoués et respectueux encouragements.

Permettez-moi de recommander à votre sollicitude de Basquophile (sic) une œuvre que j'ai établie à Saint-Jean-pied-de-port, dans le but chrétien et patriotique de sauver la foi et la langue de nos chers compatriotes. Il s'agit d'un Noviciat de Frères de Ploërmel que le bon Dieu m'a permis de fonder dans cette localité. Ces frères sont habitués en Bretagne à aller un par un dans les paroisses et à y enseigner comme instituteurs la langue bretonne en même temps que la langue française. Je voudrais arriver à les répandre dans tout le Pays Basque pour que sur les deux versants des Pyrénées ils puissent enseigner la langue Basque en même temps que l'espagnol et le français.

Je vous envoie un de mes livres afin que dans la préface vous voyiez comment cette œuvre est déjà organisée en Bretagne. Je vous demande d'envoyer des enfants Basques, pieux et décidés à devenir Frères, dans ce Noviciat de Saint-Jean-pied-de-port.

M. Broussain m'a parlé de votre projet d'Académie Basque. J'y applaudis de tout cœur. Mes très nombreuses occupations ne me permettent pas d'y collaborer, mais je suis heureux de vous affirmer que M. Pierre Broussain lui-même est un des hommes les mieux indiqués par son intelligence, par sa situation de fortune, par ses connaissances très sérieuses de notre langue et de nos usages, pour faire partie de cette Académie.

Je vous prie d'agréer tout mon respect.

Père Arbelbide, supérieur des Missionnaires de Hasparren, Basses Pyrénées.

(2) Hona beraz *Euskera*, 2002-2 (659- 669) argitaratu ditugun J.P. Arbelbide (1841-1905) euskal idazle eta kalonje ezagunaren Broussain gutundegiko 10 gutun, Azkue gutundegiko beste 13 eskutitz.

Bayonan, urthatsez, 1900

Arbelbide aphezak bihotz guziz agur,
neurthizlari zahar baten kantaldi hunekin:

«Nola da arrosa baratze batean
Ederrez gainditzen loreen artean
Edo nola ditu zeruko argiak
Bere distiraz goibeltzen Ekhiak,
Hala Euskarak erdaren erdian
Distiratzen bethi guzien artian»

Nere adiskide Arbelbide jaunari

Zarrak gazteen laguntasuna zaiñetik edo jatorriz billatzen dutenez, nik ere zuk bialdutako neurtitz zarren ordez, gaur egiñikako berritxo batzuek bialdu nai nizkitzun; eta ortarako nere animako labea sutan ipiñi det, baiño suak eztu ogirik ematen, berari iriñ-orerik ematen ezpazaio.

Neri au berori gertatu zait: eztit ene animak neurtitz berri osorik eman nai izan.

Azpi-erdi-dun oski edo zapatek bezala, atzean dituzun neurtitzak ere, erdia dute zarra, erdia berria, gaur egiña. Orra:

Euskalerria-ri

«Zure malkoak errekaturik isasorontz dijoaztela,
Gau ta egun daude guri esaten naigabetua zaudela.
Agortu bitez zure begiak, ozeha bekizu sama:
Zure semeak bat egin eta piztu nai zaituzte, Ama!»

Urte berri on bat Jaunaren pakean izan dezagula, ene adiskide eregugarri orrek!

Azkue apaizak 1900/17/1

Bayonan, agorrilaren 14ean, 1900

Jaun Azkue,

Othoi barkha ene ausartzia. Nere kanonigo lagun batentzat heldu nauzu galdatzera, eyan Bilbaoko etche komerzioko zembaitetan aurkhitzen ahal othe zindukenez emplegu zerbait hemeretzi urthetako jaun gazte batentzat. Jaun gazte horrek ez du nahi deus pagamendurik; nahi du choilki ikhasi Español hizkuntza, gero Pariseko bere etche-comerzioko batean baliatzeko gisan. Badazki jadanik Anglesa eta Alemana. Nahi luke jana eta egoitza urririk, lanean ariko bailiteke artetik.

Zure adiskide, J.P. Arbelbide.

* * *

Bayonan, Buruilaren 28an, (1900?)

Ene adiskide ona,

Itzuli handi bat egin dut Parisen, Bavieran, Tyrolen, eta Suisan gaindi eta hona non, etcherat berriz sartzearekin, zure gutuna eta zure Begoñako emaitza ederra (3) aurkhitzen ditudan.

Nere bihotzezko eskerrik hoberenak. Aiphatu gizon gazteaz den bezenbatean, zure gutunaren guait egonen naiz. Erran bezala nahi luke egoitza eta jana.

Nere ibilkatze luze huntan, Oberamergon ikhusi dut Jesusen Pasionea diteken bezain ederki emana. Europako bazter guzietarik jendeak ehun milaka Pasione hortara badoazi.

Zuri bihotz guziz,

J.P. Arbelbide.

(neure, bere...) onetik atera, irten, ilki: *bere (neure, zeure...) onetik atera du (nau, zaitu...).*
aterabide
ateragailu iz.
aterakin iz.
ateraldi
aterarazi, ateraraz, aterarazten. *du* ad.
ateratzaile
ateratze
aterbe* e. **aterpe**.
atergabe
atergabeko izlag.
ateri
ateri egin
ateri egon
ateri izan *da* ad.
aterki
aterki-konpontzaile
aterki(-)ontzi
aterpe
aterpetu, aterpe(tu), aterpetzen. *da/du* ad. 'babestu'.
aterraldi iz. *g.er.* 'aterrunea'.
aterrarazi, aterraraz, aterrarazten. *du* ad. *g.er.*
aterrarte iz. 'aterrunea'.
aterri* e. **ateri**.
aterrune
atertu, ater, atertzen. 1 *du* ad.: *atertzen duenean aterako naiz.* 2 *da* ad.: *haurren negarrak ez ziren gau guztian atertu.*
atertze

ateta iz. *Bizk. g.er.*
atetu, ate(tu), atetzen. *da/du* ad. *Zub.* 'pilatu': *jendea azokan atetu zen.*
atezain
atezain automatiko
atezaindegi
atezaintza
atezatu, ateza, atezatzen. *du* ad.
atezu iz.: *atezuan egon.*
atija iz. *Naf.* 'usina, dominikua'.
atitxatu* e. **(sua) zirikatu.**
atiza iz. *Ipar. Zah.* 'aukera, abagunea'.
atlantiko izond.: *Ozeano Atlantikoa.*
atlas
atleta
atletiko
atletismo
atmosfera
atmosferiko izond.: *motor atmosferikoa.*
atoan adlag. *Bizk. Lgart.* h. **behingoan, berehala.**
atoe* e. **atoi.**
atoi
atoian eraman
atoiontzi
atoiuntzi* e. **atoiontzi.**
atoloi
atomatu, atoma, atomatzen. *du* ad. *Bizk. g.er.* 'eraso'.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 2003ko abenduaren 19an onartua).

133

NAFARROA BEHEREKO HERRI IZENDEGIA (eta III)

Nafarroa Behereko 6. eskualdea: *Agaramont*

I. Herrien euskal izena

Euskal izena	*Izen ofiziala*	*Herritarra*
Akamarre	Came	akamartar
Bidaxune	Bidache	bidaxundar
Burgue	Bergouey	burguetar
Erango	Arancou	erangoar
Erreiti	Viellenave	erreitiar
Samatze	Sames	samaztar

II. Herrien izen ofiziala

Izen ofiziala	*Euskal izena*	*Herritarra*
Arancou	Erango	erangoar
Bergouey	Burgue	burguetar
Bidache	Bidaxune	bidaxundar
Came	Akamarre	akamartar
Sames	Samatze	samaztar
Viellenave	Erreiti	erreitiar

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 2003ko abenduaren 19an onartua).

134

HIZTEGI BATUA

atomika - aurpegi[1]

atomika* e. **bonba atomiko**.
atomiko izond.: *bonba atomikoa.*
atomismo
atomista
atomizagailu
atomizatu, atomiza, atomizatzen. *du* ad.
atomo iz.: *atomo bonba, atomo egitura.*
atomo(-)masa *Kim.*
atomo(-)zenbaki *Kim.*
atondo
atondu, aton, atontzen. *da/du* ad.
atondura iz.
atonia iz. *Med.*
atorra
atorra hutsean: *goizeko bostak eta atorra hutsean!*
atorra hutsik: *negu gorrian ere atorra hutsik ibiltzen da.*
atorra-has *Ipar.*: *bero honekin atorra-has etorri da.*
atotsi, atots(i), atosten. 1 *dio* ad. *Gip.* 'deitu'. 2 *du* ad. *Gip.* 'erakarri, onartu'.
atralaka iz. *Bizk. g.g.er.* 'liskarra, errieta'.
atralakari iz. *Bizk. g.g.er.* 'liskartia'.
atrapatu, atrapa, atrapatzen. *du* ad. *Bizk.* h. **harrapatu**.
atrebentzia
atrebitu, atrebi, atrebitzen. *da* ad. *Ipar.* edo *Beh.* 'ausartu'.
atributu
atril iz. *Heg.* h. **kantore**.
atrizio iz. *Sin.* **beldur(-)damu**.
atrofia iz. 'endurtzea'.
atrofiatu, atrofia(tu), atrofiatzen. *da* ad. 'endurtu'.
atseden 1 iz.
atseden egin *Bizk.* 'atseden hartu': *atseden egiteko leku egokia da hau.*
atseden hartu
atseden 2, atsedeten. *du* ad. *g.er.*: *atsedeten (egon)* bezalako esapideetan erabilia.
atsedenaldi
atsedenarazi, atsedenaraz, atsedenarazten. *du* ad.
atsedendu, atseden(du), atsedentzen. *da* ad. 'atseden hartu'.
atsedengarri
atsedenleku
atsedentegi iz. *Zah.* 'atsedenlekua, atsedentokia'.
atsedentoki
atsedete iz. *g.er.* 'atsedena, atsedenaldia'.
atsegale 1 iz. *Goi.* 'atseginzaletasuna'. 2 izond. *Goi.* 'atseginzalea'.

[1] Arau honek osatu eta eguneratu egiten ditu 48. Arauan argitaratutako Hiztegi Batuko zerrendak, **atomika-aurpegi** tarteko hitzei dagokienez. Arau berria da, beraz, kontuan hartzekoa.

atsegin izond. eta iz.
atsegin egin
atseginekin adlag. *Ipar.*
atsegin eman
atseginez adlag. *Heg.*
atsegin hartu
atsegin izan *du* eta *zaio* ad.
atsegin-kontentu
atsegin-poz
atsegin(-)sari 1 adlag. 'doan'. 2 iz. 'eskupekoa, erregalua'.
atseginaldi
atseginbide iz. *g.er.*
atsegindu, atsegin(du), atsegintzen. *da/du* ad.
atsegindun izond. *g.er.*
atsegingarri
atseginkeria iz. *g.er.*
atsegintasun
atsegintegi iz. *g.er.*
atsegintoki
atsegintsu
atseginzale
atseginzaletasun
atsekabe
atsekabe(a) eman
atsekabe(a) hartu
atsekabean lagundu (doluminetan): *atsekabean laguntzen dizut.*
atsekabe egin *Zah.* 'atsekabetu'.
atsekabedun izond. eta iz. *g.er.* 'atsekabetua'.
atsekabegarri iz. eta izond. *Zah.*
atsekabetsu
atsekabetu, atsekabe(tu), atsekabetzen. *da/du* ad.
atsekabeztatu* e. **atsekabetu**.
atsekaitz 1 iz. *g.er.* 'atsekabea'. 2 izond. *g.er.* 'gozakaitza'.
atsitu izond. *Batez ere Bizk. Sin.* **kirastu**.
atso (hitz markatua da, gutxiespen balioa du eskuarki, eta ezin erabil daiteke *adineko*-ren sinonimo oso balitz bezala).
atso-agure (*pl.* da gehienetan).
atso(-)besta *Naf.*
atso(-)ipuin
atso sorgin
atsokeria iz. 'sinetsi behar ez den ipuina edo kontua'.
atsolor iz. *Gip.: erditu berriari atsolorra egin.*
atsotasun
atsotitz
atsotizlari iz. *g.er.* 'atsotitzak aztertzen dituen pertsona'.
atsotu, atso(tu), atsotzen. *da* ad.
atu* e. **hatu**.
atuan* e. **atoan**.
atun 1 iz. *Thunnus.*
atun(-)txori *Sternina paradisea.*
atun 2 iz. *Zah.* 'ohitura'.
atungorri iz. *Thunnus (Thunnus) thynnus. Sin.* **hegalabur**.
atunketa iz. 'atunaren arrantza'.
atunketari
atuntxiki iz. *Sarda sarda.*
atunzuri iz. *Thunnus (germo) alalunga. Sin.* **hegaluze**.
aturatu, atura, aturatzen. *du* ad. *Bizk.* 'norbaitekin edo zerbaitekin ezin ezer lortu, ezin ezer burutu' (batez ere ezezkoetan erabilia): *ume honekin ezin dut aturatu.*

atx interj. (harridura, ezustea, mina adieraztekoa).
atx egin
atxakia* e. **aitzakia**.
atxapar iz. *Lonicera sp.*
atxeki* e. **atxiki**.
atxengi* e. **borragoma**.
atxeter iz. *Ipar. g.er.* 'sendagilea'.
atxiki 1, atxiki, atxikitzen. 1 *zaio* ad.: *hormari atxikitzen zaion huntza bezala.* 2 *du* ad.: *hitza atxiki zuen.*
atxiki 2 iz. 'joko zikina'.
atxiki handi (pilota-joko bat).
atxiki txiki (pilota-joko bat). *Sin.* **joko garbi**.
atxikiarazi, atxikiaraz, atxikiarazten. *dio* ad.
atxikidura
atxikimendu
atxikipen iz. *Admin.*
atxikitasun
atxikitzaile
atxilo
atxilo egin
atxilo egon
atxilo ekarri
atxilo hartu
atxiloketa
atxilotu, atxilot(u), atxilotzen. *du* ad.
atxilotze
atximur
atximur egin
atximurka
atximurka egin
atximurkada
atximurkatu, atximurka(tu), atximurkatzen. *du* ad.
atximurtu* e. **atximurkatu**.
atxitu* e. **atzitu**.
atxitzaile* e. **atzitzaile**.
atxitze* e. **atzitze**.
atxo iz. *Lgart.* '*atso*-ren era adierazkorra'.
atxon iz. *Batez ere Naf.* 'urrina'.
atxurdin* e. **haitzurdin**.
atzamar iz. 1 h. **atzapar**. 2 *Bizk.* 'hatza'.
atzamar(-)oskol *Bizk.* 'azazkala'.
atzamartu* e. **atzaparkatu**.
atzandel iz. *Bizk.* eta *Gip.* 1 'titarea'. 2 'hatzetan babesgarri gisa jartzen den zorroa'.
atzapar iz.: *atzaparra bota*; *atzaparra erantsi.*
atzapardun
atzaparka
atzaparka egin
atzaparkada
atzaparkari
atzaparkatu, atzaparka(tu), atzaparkatzen. *du* ad.
atzaparpe (batez ere leku-denborazko atzizkiekin erabiltzen da, gehienetan *atzaparpean* forman).
atzapartsu
atzapartu* e. **atzaparkatu**.
atzapartzar
atzar 1 izond. *Ipar. g.er.* h. **atzarri**.
atzar 2 iz. *BNaf. g.er.* 'ardi zahar antzu eta haragitarako gizendua'.
atzarki iz.
atzarrarazi, atzarraraz, atzarrarazten. *du* ad. *Ipar.*

atzarrarazle
atzarri 1, atzar, atzartzen. *da* ad.
atzarri 2 izond.
atzartasun
atzartu, atzar(tu), atzartzen. *da* ad.
atzartze
atzazal iz. *Batez ere Bizk.* h. **azazkal**.
atzazkal* e. **atzoskol, azazkal**.
atze 1 iz.
atzea eman
atzean adlag.
atze-atzeka adlag.: *atze-atzeka hasi, ibili, sartu.*
atze-aurre iz. *pl.*
atzeko izlag.
atzeko alde
atzekoz aurre adlag. *g.er.* 'atzekoz aurrera'.
atzekoz aurrera
atze 2 izond. 'ahaidea ez dena; arrotza'.
atzealde
atzeka 1 izond. 'lagunartea saihesteko joera duena'.
atzeka 2 adlag. 'atzera eginez; atzea emanez'.
atzekari iz. *Mat., Fil., Hizkl.*
atzeki iz. *g.er.* 'isatsa'.
atzeko iz. 1 'lemazaina, ontziko nagusia'. 2 *g.er.* 'arrotza'.
atzelari iz. 'kiroletan atzean jokatzen duen jokalaria'.
atzemaile izond. eta iz. *Ipar.*
atzeman, atzematen. *du* ad.
atzemanarazi, atzemanaraz, atzemanarazten. *dio* ad.
atzemanka adlag.
atzemate
atzen ord. *Bizk.* eta *Gip.* 'azkena'.
atzenean adlag. 'azkenean'.
atzeneko izlag. 'azkeneko'.
atzenengo izlag. 'azkeneko'.
atzenez adlag. 'azkenez'.
atzenarazi, atzenaraz, atzenarazten. *du* ad.
atzendu, atzen(du), atzentzen. *da/du* ad.: *euskara atzendurik zuen, nahiz ez erabat ahazturik.*
atzenkor izond. 'ahanzkorra'.
atzera 1 adlag.: *atzera jo.*
atzera-aurrera 1 iz. 2 adlag.: *atzera-aurrera ibili da.*
atzera egin *Sin.* **gibelerat egin**.
atzera gelditu: *ez da atzera gelditzen diren horietakoa.*
atzera 2 adlag. 'berriro, ostera'.
atzera egin (berriz egin).
atzera ekarri
atzera esan
atzera etorri
atzerabide
atzeragarri 1 iz. *g.er.* 'oztopoa'. 2 izond. *g.er.* '(zerbait) atzeratzen duena'.
atzerago
atzeraka
atzeraka egin
atzerakada
atzerakarga
atzerako 1 iz. *g.er.* 1 'itzultzen den diru xehea'. 2 'itzulbidea'.
atzerako 2 iz. 'atzerakuntza, uzkurtasuna': *atzerakoa ematen du inoren lanetan sartzeak.*
atzerakoi

atzerakoikeria
atzerakoitasun
atzerakuntza
atzerapauso
atzerapen
atzerarazi, atzeraraz, atzerarazten. *du* ad.
atzeratasun iz. 1 'lotsa, uzkurtasuna'. 2 '(pertsonen, herrien) atzerapena'.
atzeratu, atzera(tu), atzeratzen. *da/du* ad.
atzerri
atzerrialdi iz. *Sin.* **erbestealdi**.
atzerriratu, atzerrira(tu), atzerriratzen. *da/du* ad.
atzerritar
atzerritartasun
atzesku
atzetiko iz. 1 'jarraitzailea'. 2 'ondorengoa'.
atzetu, atze(tu), atzetzen. *da* ad. *Ipar. g.er.* 1 'atzerriratu'. 2 'arroztu'.
atzimurtzi iz. *g.er.* 'zimikoa'.
atzipe iz. *g.er.* 'engainua'.
atzipe egin* e. **atzipetu**.
atzipetu, atzipe(tu), atzipetzen. *du* ad.
atzipetzaile
atzitu, atzi, atzitzen. *du* ad. 'atzeman': *bi erbi atzitu dituzte oihanean.*
atzitzaile
atzitze
atzizki
atzo: *atzoz gero* edo *atzo ezkero.*
atzoko 1 izlag. 2 adlag.: *atzoko bukatua behar genuena gaur bukatuko dugu.*
atzoskol iz. *Bizk.* 'azazkala'.
au 'txakurraren zaunkaren onomatopeia'.
aube iz. *Bizk.* 'amaginarreba'.
audientzia iz. *Zah.* 1 h. **auzitegi, entzutegi**. 2 h. **entzuleria, entzuleak**. 3 h. **entzunaldi**.
audiobisual izond. h. **ikus-entzunezko**.
audiograma iz. *Fis.*
audiologia iz. *Med.*
audiometria iz. *Fis.*
auditorio 1 iz. *Zah. g.er.* 'entzuleak, entzuleria'.
auditorio 2* e. **entzunareto, auditorium**.
auditorium iz. *Sin.* **entzunareto**.
aufa interj.
auhen
auhendagarri
auhendatu, auhenda, auhendatzen. *du* ad.
auhenka
aujame iz. *Batez ere Zub. g.er.* 'mamua'.
auka 1 iz. 'alga'.
auka 2 iz. 'ahotza, gari-alearen azala'.
auka 3 adlag. 'au eginez, zaunkaka'.
aukera iz.: *aukeraren maukera, azkenean okerra.*
aukerako izlag. 1 'aukeran dagoena'. 2 'egokia, bikaina'.
aukera-maukera
aukeran
aukerabide
aukeraketa
aukerakizun iz. *g.er.*
aukerakotasun
aukeramen
aukerarazi, aukeraraz, aukerarazten. *dio* ad.

aukeratu, aukera(tu), aukeratzen. *du* ad.
aukeratzaile
aukeratze
auki iz. *Bizk.* eta *Gip. g.er.* 'mihura'.
aulki
aulkidun izond. *g.er.: euskaltzain aulkiduna.*
aulkigile
aulkigin* e. **aulkigile.**
aulkigintza
aulkitxo
auma iz. *Bizk.* 'antxumea'.
aunatu* e. **unatu.**
aunitz h. **anitz.**
auno egin* e. **anu egin, unatu.**
aupa
aupada
aupadaka
aupats iz. *Bizk.* 'korrokada'.
aupatu, aupa(tu), aupatzen. *du* ad.
aurbera iz. *Bizk.* 'aldapa'.
auria iz. 'ulua'.
aurikula iz. (bihotzaren partea).
aurio 1 iz.' urre-txoria' (*Oriolus oriolus*). 2 izond. '(haur) geldoa'.
aurizki, aurizkitzen. *du* ad. *Zah.* 'oinkatu, zapaldu'.
aurka
aurka egin
aurkako
aurkakotasun
aurkapen iz. *Zuz.*
aurkari
aurkaritza
aurkatasun* e. **aurkakotasun.**
aurkaz* e. **aurkez.**
aurkez adlag. 'aurrean, aurrez aurre': *jauretxearen aurkez eseria zegoen.*
aurkez aurke 'aurrez aurre'.
aurkezle
aurkezpen
aurkeztaile* e. **aurkezle.**
aurkeztatu, aurkezta, aurkeztatzen. *du* ad. *g.er.* 'irudikatu'.
aurkezte
aurkeztu, aurkez(tu), aurkezten. *da/du* ad.
aurki 1 iz. (*ifrentzu*-ren aurkakoa).
aurki 2 adlag. 'laster'.
aurki 3 adlag. *Bizk.* 'noski, antza, dirudienez'.
aurkiarazi, aurkiaraz, aurkiarazten. *du* ad.
aurkiberri iz. *Batez ere Ipar.* 'aurkikundea'.
aurkibide
aurkientza* e. **aurkintza.**
aurkigaitz izond. *g.er.: liburu aurkigaitzak.*
aurkigarri iz. *Zah. g.er.* 'aurkibidea'.
aurkikunde
aurkikuntza
aurkile iz. *g.er.* 'egilea, autorea'.
aurkimen iz. *g.er.* 'aurkikundea'.
aurkintza
aurkitegi
aurkitu, aurki(tu), aurkitzen. *da/du* ad.

aurkitzaile
aurkitze
aurpegi

aurpegia atera 'aurpegia eman, (norbaiten) alde egin': *guk ere aurpegia atera behar dugu maisuaren alde.*
aurpegi(a) eman
aurpegia izan *Heg.*: *eskatzeko aurpegirik ez dutelako, laguntzarik gabe gelditu dira.*
aurpegian eman *Zah.* 'aurpegira eman'.
aurpegira bota
aurpegira eman
aurpegira esan *Heg.*
aurpegiz aurpegi
aurpegiz ezagutu

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 2003ko abenduaren 19an eta, Donostian, 2004ko urtarrilaren 30ean onartua).

BATZAR-AGIRIAK

Bilbon, 2003.eko ekainaren 27an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Antonio Arana-Martija, diruzaina,
Patxi Altuna,
Miren Azkarate,
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Andres Urrutia,
eta Piarres Xarritton euskaltzainak.

Ezin etorriak eta ahalak: Juan Mari Lekuona, ahala Jean Haritschelharri; Beñat Oihartzabal, ahala Jean Haritschelharri; Juan San Martin, ahala Jose Antonio Arana-Martijari; I. Sarasola, ahala P. Salabururi; Patxi Zabaleta, ahala Andres Iñigori. Bilera osoan egoterik ez duela eta, A. Urrutiak, alde egitean, bere ahala X. Kintanari utzi dio.

Batzarra goizeko 10,05ean hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzako batzar aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Akta onartzea

Maiatzeko batzarraren akta oharrik gabe onartu da.

2. Eskuartekoak

2.1. R. de Rijk-en heriotza

Rudolf de Rijk nederlandar euskalariaren heriotzaren berri eman da, 2003/6/15ean gertatua. Euskaltzaindiak haren alargunari, Virginia Chang de Rijk andreari doluminezko telegrama bidali dio. Ondoren, P. Salaburuk, alargunarekin izandako elkarrizketa azaldu eta hildakoaren azken nahia haren errautsak Euskal Herrian, Urkiolako parke naturalean barreiatuak izatea izan dela esan du, lagun arteko giroan. Helburu horretarako Virginia andrea uztailean Euskal Herrira etorriko da. Euskaltzaindiak omenaldi horretan parte hartzeko gogoa erakutsi du.

2.2. Patxi Salaberri Zaratiegiren unibertsitate-kargu berria

Bestalde, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren errektore berriak, Pedro Burillo jaunak, Patxi Salaberri Zaratiegi euskaltzain urgazlea Hizkuntza plangintzarako arduradun izendatu duela jakinarazi da. Zorionak bidaltzea erabaki da.

2.3. EITB-rekiko hitzarmena

Jean Haritschelharrek Euskaltzaindiak ekainaren 13an, Bilboko egoitzan EITBrekin lankidetzarako akordioa sinatu duela adierazi du. Testua euskaltzainen artean banatu da.

2.4. Euskaltzaindiaren zerbitzu eguneratuak

Ondoren J.L. Lizundiaren gutuna irakurri da, Euskaltzaindiaren zerbitzuen argibide eta e-mail eguneratuekin.

2.5. Kudeaketa eta Idazkariordetzaren arteko banaketa-proposamena

Era berean, bere kargu uztea dela eta, J.L. Lizundiak proposamen bat aurkeztu du orain arte berak zeramatzan kudeaketa eta idazkariordetza banatzea gomendatuz. Zuzendaritzak bezperan onarturiko testu hori euskaltzainen artean banatu da. Euskaltzainburuak formula hau 2004. urtearen amaierara arte, oraingo zuzendaritzak bere agintaldia bukatu arte, alegia, baliagarria dela uste du. Halere, P. Salaburuk ez deritzo ondo, eta Euskaltzaindian kanpotik helduriko jende berria behar dela uste du. Arana-Martijak kudeatzaile-idazkariorde arteko koordinatzaile baten premia ere dakusa, baina oraingoz euskaltzainburuaren bidez gauzak hurrengo zuzendaritzari uztea pentsatzen du. P. Salaburuk gogoratu du Jaurlaritzak egindako auditorian Euskaltzaindiak gerente bat behar duela eta hori kontuan eduki behar litzatekeela hurrengo birmoldaketarako.

2.6. *Euskal Herria* izenari buruzko argitasunak

Mª Angeles Iztueta Hezkuntza Sailburuak Unai Ziarreta Bilbaoren bidez Euskaltzaindiari egindako eskaria irakurri da, *Euskal Herria* izenari buruzko azterketa eta txostena eskatuz. Onomastika batzordeari hori lehenbailehen egiteko ardura eman zaio.

3. J. M. Satrustegi euskaltzainaren hutsunerako euskaltzaina hautatzea

J. M. Satrustegi euskaltzainaren heriotzak Akademian sorturiko hutsunea betetzeko, arautegiak agintzen duen epean kandidatu bakarra aurkeztu da. Hautatzeko egin beharreko botazioa eginda, emaitza hauek izan dira: 19 boto alde eta 2 zuri. Hortaz, J.L. Lizundia Askondo jauna euskaltzain oso izendaturik gelditu da. Berari horren berri eman ondoren, batzar aretora etorri da, eta euskaltzainburuak akademiko guztien izenean zorionak eman dizkio.

3. Hizkuntza arauak.

3.1. Onomastika.

Batzar aretora Mikel Gorrotxategi, Onomastika Saileko idazkaria, sarturik, «Nafarroa Behereko herri izendegia (Amikuze)» zerrendari eginiko oharrak aztertu dira. Zubereraren ü fonema Zuberoatik kanpoko herrietan ere grafikoki adieraztea komeni den ala ez, eztabaida luzea izan da, hor, J.L. Davant, Tx. Peillen, P. Salaburu, A. Eguzkitza, P. Xarritton, A. Iñigo, M. Gorrotxategi eta X. Kintana arituz. Azkenean, ondoko forma hauek onartu dira: *Amikuze (amizkutar), Atzümarta (altzümartar), Amendüze (amendüztar), Garrüze (garrüztar)* eta *Lüküze (lüküztar),* eskualde mailan *Amiküze* aldaera ere erabil daitekeela gaineratuz.

Ondoren, Onomastika batzordearen ordezkariek «Aita Santuen zerrenda» aurkeztu dute, euskaltzainek oharrak uztailerako bidal ditzaten.

3.2. Hizkuntza Arauak: Hiztegi Batua

P. Salabururen zuzendaritzapean, **arbiska-arlotetze** zerrendako hitzak eta hauei egindako oharrak aztertzen segitu da, **ardi**-tik hasita.

* * *

Bilera 1,30etan eten da, eta euskaltzainak beheko solairuko hitzaldi aretora jaitsi dira. Han Euskaltzaindian lanean arituriko 34 urteen oroigarri, Jean Haritschelharrek pergamino bat eman dio J.L. Lizundiari, izkribu honekin: «Euskaltzaindiak Jose Luis Lizundia Askondo lankide jaun leialari, erakunde honetan 1969-2003 urteetan egindako lan baliotsuaren esker ona adierazteko pergamino hau eskaintzen dio. Bilbon, 2003.eko ekainaren 27an», Euskaltzainburuak eta Idazkariak sinatua.

Ondoren, Pruden Gartzia Azkue Bibliotekako Zuzendariak katalogatu berri duten *Euskera* agerkariaren berri eman die euskaltzainei, Internet-en *Euskera*-ko lanak eta egileak bilatzeko modua ere azaldu eta haien galderei ere erantzunez.

Azkenik, Luis Badosa jaunak, margolari eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko irakasleak, berak egindako koadro bat eskaini dio oparitzat Euskaltzaindiari, eta antze-lan horren esangura eta sinbolismoa azaltzean obra hau Akademiak eduki beharko lukeen arte-bilduma osatzeko lagungarri izatea espero duela esan du. Euskaltzainburuak, eskerrak eman ondoren, liburu batzuk eskaini dizkio.

Arratsaldean, bazkalondoan, 4,30etan goizeko lexiko-lanarekin lanean segitu da. Goizeko zerrendari jarraikiz, **ariel**-erainoko hitzak aztertu eta onartu dira.

6. Osasun-arloko zerbitzu eta leku batzuen hitz zerrenda

Osasun-arloko zenbait zerbitzu eta leku-izendapen izeneko zerrenda, A. Eguzkitzak prestatua, banatu da euskaltzainen artean. Joan den abenduan, Laudion egin zen osoko bilkuran osasun arloko hitzei buruzko eztabaida izan zen, eta A. Eguzkitzak arlo horretako hitzak bilduko zituela adierazi zuen, eta oraingoan emaitza horren berri eman die euskaltzainei.

Bukaeran Rikardo Badiola Argitalpen eragileak honako liburu hauek banatu ditu euskaltzainen artean: *Euskera* 2002, 2; BBK-Euskaltzaindia sariak 2002: Toribio Altzaga teatro saria, Mikel Zarate saio saria eta Txomin Agirre eleberri saria.

Batzarra arratsaldeko 6,15ean amaitu da.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Donostian, 2003.eko uztailaren 18an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Antonio Arana-Martija, diruzaina,
Beñat Oihartzabal,
Patxi Altuna,
Andolin Eguzkitza,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Joan Mari Lekuona,
Jose Luis Lizundia,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Juan San Martin,
Piarres Xarritton
eta Patxi Zabaleta euskaltzainak, eta
Juan Jose Zearreta, kudeatzailea.

Ezin etorriak eta ahalak: Jean Louis Davant; Henrike Knörr, ahala J.A. Aranari emanez; eta A. Urrutia, ahala X. Kintanari utzirik.

Batzarra goizeko 10,18an hasi da Donostiako Diputazioan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Akta onartzea

Ekaineko batzarraren akta oharrik gabe onartu da.

2. Hizkuntza arauak:

Hiztegi Batua: ***arbiska-arlotetze*** zerrendaren segida. P. Salabururen gidaritzapean ***ari izan***-etik hasi da eztabaida.

2. Onomastika:

Aita santuen zerrendari egindako oharrak aztertzea.

X. Kintanak *Higinio* eta *Joan-Joanes* izenei egindako oharrak ikusi eta ontzat hartu dira.

3. *arma-arrimu* zerrenda aztertzea. armada-tik *arrane*-rainoko berbak ikusi dira.

Arrimugarri-askatu eta ***askatzaile atomatu*** zerrendetako oharrik gabeko zerrendak onartu dira.

Euskaltzaindiaren izaera eta finantzabideak txostena aurkeztu eta irakurtzea. Idazkariak lehen partea irakurri du eta ondoren J.J. Zearretak azaldu du aurrekontuen arlo ezberdinak nolako marko juridikoren barruan eta nolako finantza iturriekin hornitu behar diren. Euskaltzainei honi buruzko oharrak datorren irailaren baterako idatziz bidaltzea eskatu zaie.

P. Zabaletak Felipe Saraguetak europar harremanez egindako txostena euskaltzainen artean banatzea eskatu du. Datorren astean bidaltzea erabaki da. Aurrekontuen atalak direla eta, liburuen salmentetatik lorturiko dirua ere kontuan hartu beharko genukeela esan du P. Zabaletak. J.J. Zearretak, erantzunez, esan dio maiz ezin dugula babes osoa lortu, eta kostuaren erdia Euskaltzaindiak ipini behar duenez, hurrengo urterako zer eta nola argitaratuko den ezina dela aldez aurretik jakitea.

2004. urteko aurrekontuez lehen proposamena

J.J. Zearretak aurkeztu eta azaldu du, arlo ezberdinetako xehetasunekin, eta egin zaizkion galderak erantzun ere bai.

Eskuartekoak

J.L. Lizundiaren izendapenaren berri ematea. Haren gutuna jaso da, eskerrak emanez eta onartu egiten duela adieraziz. Era berean bere sarrera-hitzaldia 2004ko udaberri aldera egiteko asmoa duela azaldu du.

Rudolf de Rijk-en omenaldia, haren errautsak Urkiolan barreiatzeko

Uztailaren 26an, arratsaldeko 7etan. Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak gomitatu ditu. J.L. Lizundiak ospakizunaren azalpenak eman ditu. P. Salaburuk protesta egin du, alargunaren asmoa zeremonia pribatua egitea zela esanez. Idazkariak Chan-de Rijk andreak egindako gutuna eta beronen onespena azaldu ditu. P. Zabaletak bere desadostasuna agertu du Euskaltzaindia baztertu nahi izateagatik.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eskaria *Euskal Herria* hitzaz

J.L. Lizundiak eskari honen arrazoia azaldu du. Ondoren, A. Iñigok Onomastika batzordeak prestaturiko testua irakurri du, eta J.A. Aranaren eta Xarrittonen zenbait aipamen eta zuzenketarekin, txostena ontzat eman da.

Frantziako itzulia

Euskaltzainburuak horren berri eta dossierra azaldu du, Baionako alkateari egindako gutuna irakurriz.

Era berean, J. Haritschelharrek Frantziako Barne Arazoetarako Ministroari, Sarkozi jaunari egindako gutuna ere irakurri du, Euskaltzaindiaren eta euskararen ezagutza Frantzian eskatzeko.

Kudeatzailearen eta idazkariordearen izendapenaren berri ematea

Aurreko batzarrean erabaki bezala, J.L. Lizundiaren jubilazioagatik hutsik geldituriko kargua bitan banatuz, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak bere azken bileran (03-VII-17) kudeatzaile-kargurako Juan Jose Zearreta Urigoitialdekozea jauna eta idazkariorde-kargurako Pello Telleria Zeberio jauna izendatzea erabaki duela jakinarazi du.

Bestelakorik

Antonio Arrue euskaltzainaren urteurrena dela gogoratu du P. Xarrittonek.

Bilkura arratsaldeko 3etan amaitu da.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Atharratzen, 2003.eko irailaren 26an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Antonio Arana-Martija, diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Andolin Eguzkitza,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Jose Luis Lizundia,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
eta Piarres Xarritton.
Pello Telleria, idazkariordea et
Juan Jose Zearreta, kudeatzailea,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: M. Azkarate (ahala P. Salabururi), J.L. Davant, P. Goenaga (ahala P. Salabururi) eta Juan Mari Lekuona (ahala J. Haritschelharri).

Batzarra goizeko 9,30etan hasi da Atharratzeko Udaletxeko batzar aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Akta onartzea

Uztaileko batzarraren akta oharrik gabe onartu da.

2. Euskaltzainburuak A. Eguzkitzak hizkuntzalaritza-katedra lortu duela jakinarazi du, eta zorionak ematea erabaki da.

J.L. Davant-en giltzurruneko eritasunaren berri ere eman du, behin ospitaleratuz gero hobera egin duela azalduz.

3. «Euskaltzaindia: izaera eta finantza-bideak» txostenari P. Salaburu egindako oharrak banatu dira, eta ***Euskal Herria*** hitzari buruzko txostena ere bai.

4. 2004ko aurrekontuak onartzea:

J.J. Zearreta kudeatzaileak Zuzendaritzak onartutako aurrekontu txostena irakurri eta kontuak nola egituratu diren xeheki azaldu du, eta egin zaizkion galderak erantzun ditu.

Euskaltzainburuak azaldu du aurrekontuen banaketa honetan Euskaltzaindiaren ohiko aurrekontu arrunta Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioek osorik ordaintzea aurreikusten dela, gainerakoa, egitasmo-proiektu eta beste laguntzekin estaltzeko, diputazio, sail eta enpresekin egindako hitzarmen berezien bidez.

P. Xarrittonen ustez, argitalpen arruntetan, ohiko argitalpenez gainera, batzordeetako lanak ere sartu beharko lirateke. Babesa lortutakoak sartuko direla argitu zaio.

B. Oihartzabalek edizio kritikoak egiteko finantziazioaren arazoa mahairatu du, eta horrek konponbidea beharko lukeela.

P. Salaburuk dio agintariei esan behar zaiela aurrekontu hauek trantsiziozkoak direla, behin-behinekoak, eta hurrengoetan ukitzekoak. Bere ustez, Euskaltzaindiak ez dio gizarteari itzultzen hartzen dituen diruen adinako emaitzarik. Hiztegigintza gehiago landu beharko litzateke. Oraingo aurrekontuetan beldur da datorren urtearen bukaeran Euskaltzaindia berriz ere zorretan izanen dela. Ondoren zenbait partidaren argitasunak eskatu ditu. J.J. Zearretak erantzun ditu.

H. Knörr eta A. Urrutia ez datoz bat P. Salabururekin Euskaltzaindiak gizarteari emaitza urriegiak eskaintzen dizkiolako kontuan. Hizkuntzaren batasunaren gidaria, zazpi herrialdeen batasunaren isla, nazio osoaren aurreko hizkuntz erantzulea izateaz gainera, dituen baliabideen araberako lan garrantzitsua egiten dihardu lexikografian, gramatikan, onomastikan, toponimia finkatzen eta dialektologian, bestela inola ere egingo ez liratekeenak.

Euskaltzaindiaren lanei buruz, halaber, J. Haritschelharrek azaldu du fruituak bere sasoian heldu ohi direla, eta ez agintari politikoek nahi dituztenean.

P. Salaburuk kudeatzaileak emandako argitasun bati buruz bere iritzia azaldu du, adieraziz ez datorrela bat aurrekontuetan egin den aldaketa batekin: kostua aldatu gabe, kanpotik jasotzen ziren zerbitzu batzuk zuzenean hartu ditu bere gain Euskaltzaindiak, informatikaria eta prentsa arduraduna kontratatuz eta lanpostuen zerrendan sartuz. Salabururen ustez, langileen atalari zuzenean ez dagozkion gastuen diru kopuru bat ezin da beste atal batetik hartara aldatu, horrek askoz ere gehiago lotzen duelako, baliabide ekonomikoei dagokienez, Euskaltzaindia. Berak uste du egokiago dela Euskaltzaindia bezalako erakunde txikietan eskuarki egiten denez, zerbitzu horiek kanpoan kontratatzea. Nolanahi ere, pentsatzen du aldaketa hauek beti osoko bilkuran eztabaidatu beharko liratekeela, erabaki hartu aurretik. P. Xarrittonek, ildo beretik, protestatu du informatikaria eta prentsa arduradunaren kontratazio finkoak osokoari azalpenik gabe egin direlako. J.L. Lizundiak erantzun die, horretarako arrazoiak argitzeko, bai zerbitzu bataren eta bestearen prozedura nola izan zen zehaztuz. J. Haritschelharrek dio erabaki hauen informazioa eman dela eta aski duela bakoitzak irakurtzea.

Andres Urrutiak aurrekontuen filosofia azaldu du. Kontratazioen erantzukizuna, bestalde, Arautegi eta Barne Erregelen arabera, Zuzendaritzarena dela argitu du.

B. Oihartzabalek pentsatzen du agintarien aurrean argi utzi behar dela aurrekontu hauek ez direla, berez, guk beharko genituzkeenak, ikerketan eta beste arlo batzuetan ere mentsa baitute. Bestalde, uste du Euskaltzaindiak ez duela behar den moduan barne gogoetarik egin, hurrengo urteei begira. Bestetik, lanpostu berriak sortzea osoko batzarrean onartzea komeniko litzatekeela esan du.

P. Salaburuk esan du, bere ustez, langileak kontratatzeko moduaz, Euskaltzaindiak, aurrekontuekin batera, urtero lanpostuen zerrenda ere onartu beharko lukeela.

I. Sarasolak azaldu du gutun bat igorri ziola J.L. Lizundiari OEHko pertsonala gutxitzeko proposamenaz, baina ez zuela erantzunik izan. Halere, Zuzendaritzaren hurrengo bilerarako, hiztegi elektronikoaren eta euskara-euskara hiztegirako proiektuen proposamenak bidaliko ditu, baina kaleratzeko dauden pertsonekin giro txarra sortu dela, erabateko erantzunik eman ez zaielako.

J.L. Lizundiak eskutitz hori jubilatzen zen egunean heldu zitzaiola esan du, eta aurrekontuei egindako oharretan datu hori (bi langile gutxiago beharko zirela OEHn)

sartu zuela, I. Sarasolaren eskutitzeko datuak kontuan izanda. Bidenabar, eta aurrekontu hauen eztabaida une honetan, oroitarazten du, bera izan dela uztailean Zuzendaritzak aurkezturiko egitasmoari oharrak egin dizkion euskaltzain oso bakarra.

Andres Urrutiak berriro azaldu du hiztegigintza eta beste ekintza batzuk proiektuetan sartzeak, azken buruan, Euskaltzaindiari askotariko finantzabideak eskuratzeko aukera emanen diola.

J. Haritschelharrek esan du lehenbiziko hitzarmenean Herri Aginteek ehuneko 80 ordaintzen ziotela Euskaltzaindiari eta azkenengoetan, aldiz, %45era besterik ez direla heltzen, eta horrexegatik aurtengo aurrekontuetan gastu arruntak bermatu nahi izan direla.

P. Salaburuk eskatu du aurtengo abendurako hausnarketa-dokumentu bat prestatzea, agintari batzuen kezka asetzeko. A. Urrutiak baietz erantzun dio, baina administrazioak Akademiaren aurrekontuen eta hitzarmenekiko abegi ona erakustekotan.

Aurrekontuak ontzat eman dira.

5. Hizkuntza arauak

«Aita santuen izenak» zerrenda onartua eta ***arbtrario-arlotetu*** zerrenda onartua banatu dira.

Aurretik erabakitako zerrendari dagokionez, eta zalantza bati ukituz, P. Salaburuk, A. Iñigok emandako datuen argitan, ***arkela*** hitzari buruzko informazioa azaldu du, ***arkel*** forma hobesteko. ***Atomiko-aurpegi*** zerrendako oharrik gabeko hitzak aurkeztu eta onartu egin dira.

P. Salaburuk aurkezturiko ***arma-arrimu*** zerrendari egindako ***arrankatu*** eta ***arrastu*** hitzen arteko oharrak aztertu dira.

X. Kintanak aurkezturiko Euskara batuaren Hiztegia azkartzeko proposamena banatu da, datorren bilkuran aztertzeko.

6. Azken ordukoak

Domingo García-Sabell jaunaren, Galiziako akademiaren buru-ohiaren heriotzaren berri eman da. H. Knörr euskaltzainburuordeak bertako Akademiari dolu-telegrama bidali zion.

A. Urrutiak Euskaltzaindiko lege-batzordeak Espainiako Konstituzioa euskarazko itzulpena berrikusi eta egokitu ondoren, Madrileko Senatuan aurkeztu zutela azaldu du, horren moldiztegiko probak zuzentzeko eskubideaz. P. Salaburuk horrelako itzulpen-egokitzapen-lanak egiteko prozeduraz bere desadostasuna agertu du. A. Urrutiak lan hori lege-batzordeari bereziki eskatu zaiola argitu du.

H. Knörrek esan du Bilboko udaleko P.P.ren zinegotzia den A. Basagoitik Martin Ugalde euskaltzain ohorezkoaz prentsan idatzitako irainek erantzutea merezi dutela esan du eta halaxe egitea proposatu ere bai. Hortaz, behin-behineko testua eskaini du, ontzat eman dena.

Batzarra ordu batean amaitu da.

Bukaeran, Rikardo Badiola argitalpen eragileak eta Jon Artza banaketa zerbitzu arduradunak *IKER 14* liburua eta beronen separatak banatu dituzte euskaltzainen artean.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2003.eko urriaren 24an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Antonio Arana-Martija, diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Andolin Eguzkitza,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Jose Luis Lizundia,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
Piarres Xarritton,
eta Patxi Zabaleta
euskaltzainak.
Pello Telleria, idazkariordea, eta
Juan Jose Zearreta, kudeatzailea,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Patxi Altuna, ahala P. Salabururi; Miren Azkarate, ahala P. Salabururi; Jean Louis Davant; Juan Mari Lekuona, ahala J. Haritschelharri. Patxi Goenagak, bilkura erdian alde egin behar izan duenean ahala P. Salabururi utzi dio.

Batzarra goizeko 10,18ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Akta onartzea

Iraileko batzarraren akta, P. Salabururen ohar batekin, onartu da.

2. Hizkuntza arauak: Hiztegi Batua:

arma-arrimu zerrendaren segida. P. Salabururen gidaritzapean, *arrautzadenda* eta *arrimu* hitzen arteko oharrak ikusi dira. Ondoren, *Arrimugarri-askatu* zerrendari egindako oharretara pasatu da eta *arriskualdi*-tik *artatse*-rainoko hitzen oharrak aztertu dira.

3. Hiztegi Batuaren prozedura azkartzeko proposamena

Xabier Kintanak egindako gogoeta-proposamena, joan den hilean euskaltzainen artean banatua, azaldu du txostengileak, hitz zerrenda luzeagoak banatzeko eskatuz, eta ohar konkretuak hurrengo bilkuretan aztertzekoei egin arren, geroago ikertzekoen artean zeintzuei ohar egingo zaien ere adierazteko eskatuz, horrela, inolako oharrik izango ez dutenak 'askatu' eta besterik gabe berehala argitaratzeko.

X. Kintanaren proposamena onarturik ere, P. Salaburu Euskara Batuko batzordearen buruak beste txosten bat aurkeztu du, orain arteko prozeduraren nondik norakoak eta aztertuz, geldiuneak eta atzerapenak non eta zergatik gertatzen diren xeheki aztertuz. J.L. Lizundiak hitz zerrenden argitalpenak bi eratara (koadernoa eta liburua) nola egin daitezkeen azaldu du. I. Sarasola beldur da prozedura honekin ez ote dugun interesik gabeko hitzak besterik eskainiko.

Euskaltzainek, behar bezalako irizpideaz erabakitzeko, hitzei buruzko informazioa ere behar dutela ere esan da. B. Oihartzabalek, gainera, hitzak onartzeko prozedura azkartu behar dela esan du. Kontsideraziook entzun ondoren, A. Urrutiak proposamen hau egin du prozedura azkartzeko metodologi protokoloa prestatzeko, datorren bilerarako, P. Salaburu eta X. Kintana elkarrekin bildu eta bien artean proposamen bateratua egitea. P. Salaburuk eta I. Sarasolak protokolo hori gogorki aplikatzea eskatu dute, eztabaida-denbora laburtzeko. J.L. Lizundiak lehen erabakiak ez ukitzea eskatu du, argitzeko ez bada. Proposamen guztiok ontzat eman dira.

4. *Aita santu* hitzaz

A. Eguzkitzak aita santuen izen-zerrenda dagoen bezala argitaratu baino lehen *aita santu* hitzaren grafiaz eztabaidatzeko aukera eskatu du. Ontzat eman da.

5. Eguneroko berba-zerrendak argitaratzeaz

A. Eguzkitzak, itzultzaile batzuek egiten dituzten gehiegikeriak kontuan izanda, beharrezkoa dakusa, berak osasun arloko lexikoan egin bezala, Euskaltzaindiak Hiztegi Batuko ohiko lanez gainera, eguneroko bizitzako beste arloetan ere antzeko hitz zerrendak aldizka ematea. Lan hori lehendik ikusita dagoela erantzun zaio, eta M. Azkarate, X. Kintana eta A. Urrutia horretan arduraturik daudela. Beraz, haren proposamena hortxe kokatuko litzateke. B. Oihartzabalek uste du batzorde bereziak antola daitezkeela eguneroko hitzetarako eta terminologia berezirako, zerrenda horiei onarpen orokorra emanez. A. Urrutiak hori agintarien aurrean aurkeztu beharreko proiektuetan sar daitekeela esan du. P. Xarrittonek Frantzian irakaskuntzarako argitaratzen diren euskal liburuez bere iritzia eman du, espainol eta frantses gehiegikeriak salatuz, eta begiratzaileen lana koordinatu beharko litzatekeela uste du.

6. «Euskaltzaindia: izaera eta finantza-bideak» txostenari egindako oharrak eztabaidatzea

P. Salaburuk txostenari eginiko oharrak banatu dira, baina denbora aurrera doala ikusirik eta presa handiagoko beste gai batzuk oraindik ukitzeko daudelako, Euskaltzainburuak ohar horiek hurrengo baterako uztea proposatu du.

7. Hitzarmen berria

J. Haritschelharrek Jarraipen-batzordearen berri eman du. Erakundeek Euskaltzaindiaren aurrekontu arruntaren ehuneko ehuna onartu dute, hots, egoitzen gastuak, Orotariko Hiztegia, Euskara Batua eta Hizkuntza Atlasa. Agintariei hitzarmen berriaren proposamena egin eta bidali zitzaien. Jarraipen batzordean ohar batzuk egin dituzte, gaur euskaltzainei aurkeztu zaien testuan letra beltzaz markatuak. J.J. Zearretak eta A. Urrutiak jatorrizko testua eta beroni egindako aldaketak zertan diren argitu dute.

A. Urrutiak 2003.eko mentsa azaldu du. Era berean, Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioen emaitzak ziurtaturik daudela esan du, eta Eusko Jaurlaritzarena ere espero dela, eta agian Arabakotik ere zerbait. 2004.eko aurrekontuak (Jaurlaritzarenak eta diputazioenak) onartzen badira, protokoloa sinatu ahal izango da. Jarri dituzten baldintzak hauek dira: langile finkorik ez kontratatzea eta Orotariko Euskal Hiztegia 2004an

amaitzea. Jasoko diren oharrekin, Zuzendaritzarentzat agintariekin negoziatzeko ahalmena onartzea eskatu die gainerako euskaltzainei, eta eskari hau ontzat eman da. Hitzarmen berriaren aldaketa nabarmenenez ere mintzatu da A. Urrutia: hemendik aurrera proiektuen araberako diru-emaitzak eskuratuko ditu Euskaltzaindiak, eta lana egin eta amaitu ahala helduko da dirua. Nafarroako arazoaren eskarmentuaz, sinatzaileetako batek alde egiten badu, besteek ordain dezakete haren hutsunea. Aurrekontuak xehetasun guztiekin, prestatu behar direla gaineratu du, giza eta diru baliabideak, denborak etab. ongi zehaztuz.

Euskaltzainburuak esan du, euskaltzainek, ohi bezala, oharrak bidaltzeko datorren hilaren 20ra arteko epea ukanen dutela, hitzarmenaren testua azaroan Donostiako batzarrean eztabaidatu ahal izateko.

8. Eskuartekoak

8.1. Literatura Sariak

Aurtengo Literatura Sarietarako aurkeztu diren lanen berri eman ondoren, Zuzendaritzak proposaturiko epaimahaikideen zerrenda banatu da:

Txomin Agirre, eleberrirako: Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo.

Toribio Altzaga, antzerkirako: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patxi Urkizu.

Felipe Arrese-Beitia, poesiarako: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.

Mikel Zarate, saiorako: Xabier Altzibar, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

Bestalde, Iruñeko udalak urtero antolatzen duen Literatur Sariketarako Euskaltzaindiari epaimahaikide bat izendatzea eskatu dio. A. Iñigok horretarako A. Eguzkitza izendatzea proposatu du. Ontzat eman da.

8.2. Juan San Martinen omenaldia

Koldo Mitxelena Kulturunean Juan San Martin euskaltzainaren omenez azaroaren 11 eta 14 artean antolatuko diren jardunaldien programa jaso eta banatu da.

8.3. Sabino Aranaren mendeurrena

Sabino Arana fundazioak Abandoko politikari eta idazlearen omenez antolatu duen ekitaldian Euskaltzaindiak ere parte hartuko du, eta arazoaren 20an egingo den jardunaldia Akademiaren beheko aretoan burutuko da.

8.4. Kardaberazen omenaldia

Euskaltzainburuak aita Agustin Kardaberazen omenaldia Donostian, E.U.T.G.en azaroaren 27an ospatuko dela azaldu du.

9. Azken ordukoak

Azkenik, J.L. Lizundiak bere kexua adierazi du, aste honetan Etienne Salaberri euskaltzain ohorezkoaren omenez Iparraldean eratu diren hiru ekitaldietan lau antola-

tzaileen artean Euskaltzaindia ez ikusteak harritu duelako. Are gehiago E. Salaberri euskaltzain ohorezkoa zenik ere programetan agertu ez delako. P. Xarritton ordezkariak huts hori aitortu du, gainera, horretarako prestaketa batzuk Akademiaren Baionako ordezkaritzan egin dira eta. Hor Euskaltzaindiaren partaidetza ez agertzea erakundearentzat domaia dela esan du J.L. Lizundiak.

Bukaeran Rikardo Badiola argitalpen eragileak eta Jon Artza argitalpen banaketa arduradunak *Euskaltzaindiaren arautegia eta barne-erregelak* eta Akademiaren 2002ko *Oroitidazkia* liburuak banatu dituzte euskaltzain artean.

Batzarra 2,30etan amaitu da.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Donostian, 2003.eko azaroaren 28an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Patxi Altuna,
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Andres Iñigo,
Juan Mari Lekuona,
Jose Luis Lizundia,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
eta Piarres Xarritton,
euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea, eta Juan Jose Zearreta, kudeatzailea, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Jose Antonio Arana-Martija, ebakuntza izan duelako. Beren ezin etorria adierazi dute, halaber, Emile Larrek, Miren Azkaratek, ahala P. Salabururi eta Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori emanez..

Batzarra goizeko 10,20an hasi da Donostiako Diputazioaren jauregiko tronu aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Akta onartzea.

Iraileko batzarraren akta, J.L. Lizundiaren ohar batekin, onartu da.

2. Onomastika.

Nafarroa Behereko 6. eskualdea – *Agaramont* – aurkeztu da. Oharrak abenduaren erdirako bidali beharko dira.

3. Hizkuntza arauak: Hiztegi Batua.

Arma-arrimu zerrenda onartua banatu da.

Ondoren, *arrimugarri-askatu* zerrendan egindako *artamendu* eta *asistar* arteko oharrak aztertu dira

4. Iruñeko Udalaren eskaria.

Iruñeko Udalak erdarazko *Plaza del Baluarte* euskaraz nola itzul daitekeen galdetu duela eta, horri eskain lekizkiokeen itzulpenak aztertu ondoren, egokiena *Baluarteko plaza* erabaki da. Hala jakinaraziko zaio.

5. Batzar egutegia.

P. Telleriak Euskaltzaindiaren 2004.eko batzar-egutegia aurkeztu eta, eztabaidatu ondoren, honela uztea erabaki da:

Urtarrilaren 30an Donostia.
Otsailaren 27an: Egoitza.
Martxoaren 26an, Lezaman (Bizkaian).
Apirilaren 30an: Donostian.
Maiatzaren 28an: Durangon.
Ekainaren 25ean: Egoitzan.
Uztailaren 23an: Haltsu-Larresoron.
Irailaren 17an: Gasteizen
Urriaren 22an: Lizarran.
Azaroaren 26an: Donostian .
Abenduaren 17an: Egoitzan.

6. Hiztegi Batuaren prozedura azkartzeko proposamena.

P. Salaburuk eta X. Kintanak adosturiko testua eztabaidatu eta J.L. Lizundiak, pertsonak barik, karguak aipatzeko eta artikulazio zenbakiak ongi jartzeko zuzenketekin onartu da. I. Sarasolak ohargintza Euskara Batuko batzordetik ez pasatzea ere aipatu du. A. Urrutiak zuzenketa hori idatziz aurkezteko eskatu du A. Urrutiak.

7. Hitzarmen berria.

Jasoriko oharrak aztertzean. J. Haritschelharrek 4.1.1. puntuan Euskaltzaindiaren aurrekontuak iraila amaitu baino lehen aurkeztea proposatu eta ontzat eman da. 4.2 puntua nahitaezkoa da dagoen bezala uztea. 4.3.2. Eginiko lanen txostenak agintariei zenbatero aurkeztu behar zaizkien eztabaida izan da. Azkenean urtean behin aurkeztea erabaki da, proiektu konkretuetan, bakoitzaren baldintzen arabera, txostenak maizago aurkeztuko diren arren. 6.3. puntuan urtarrilaren 20rako osokoaren %10, protokoloa sinatu eta bi hilabetera %40 eta ekainean gainerako %50a jartzea onartu da. P. Salaburuk 5.2.ko puntuari buruzko zalantza-galderari erantzun zaio, puntu hori agintariekin adostu zela argituz. Era berean Euskaltzainek Zuzendaritzari negoziatzeko ahala eman diote, eta negoziazio horren ondorioz beharrezko diren aldaketak egitekoa ere, betiere osoko bilkurari kontu emanez.

8. Esku artekoak.

8.1. Ortotipografiaren irizpena.

Corpus batzordeak *Ortotipografia*ri buruzko irizpena prestatu du, Hezkuntza Sailak Euskaltzaindiari eskatua.

8.2. Onomastika idazkariaren lan egoeraz.

Mikel Gorrotxategi jaunaren egoera azaldu da, aurtengo abenduaren bukaeran Santurtziko Udalarekin Euskaltzaindiak duen hitzarmena amaitzen baita. Zuzendaritzak lankide hori urtebete gehiagorako kontratatzea erabaki du. EUDELek hitzarmen berritik jasoriko diruaz gainera, helburutu gabeko diru-iturriekin ordainduko zaio.

8.3. Kontularitza-laguntzailea.

J.J. Zearreta kudeatzaileak atzeraturiko ordainketak eta arintasunez egiteko beharrezkoa dakusa laguntza izatea. Hori dela eta, Zuzendaritzak Bilboko egoitzarako laguntzaile bat sei hilabeterako lan-kontratua egitea ontzat hartu du.

8.4. Euskara Batuko lantaldearen ohiko prestalana bermatzeko baldintzak.

P. Salaburuk azalpenak eman ditu Euskaltzaindiak aspaldian UZEIpean daraman lan menpekotasunaz. A. Urrutiak azpimarratu du Euskaltzaindiak UZEIrekin kontratu berri bat egin behar duela eta horrek nahitaez dakarrela haren egitekoa aurrekontu arruntean ez baina programetako aurrekontuan sartzea, kontratu hori dela bide. gehiago X. Kintanak eta J.L. Davantek Hiztegi Batuko iritzi-emaileen fasea kentzea proposatu dute, lanari bizkortasuna emateko, bide batez kostuak urrituz. Zuzendaritza ahaldundurik geratzen da arazo hau zuzentzeko, betiere Euskara Batuko Buruarekin hitz eginda.

8.5. Nafarroako berri batzuk.

Andres Iñigok Nafarroako berri batzuk eskaini ditu. Alde batetik, Iruñeko udalarekiko hitzarmen berriaren sinadura.

Bestalde, Nafarroako Epaitegi Gorenak *Orkoien* herri-izenaren aldeko epaia eman duela jakinarazi du. Gainera, beste epai-erabakien bitartez, hemendik aurrera eremu euskalduneko langile funtzionarioak ez dira zigortuko eremu misto eta ez euskaldunetara pasatzen galaraziz.

J.M. Satrustegi zenaren hutsunea betetzeko, Patxi Salaberri euskaltzain urgazlea *Fontes Linguae Vasconum* zuzendari izendatu dutela adierazi du.

8.6. *Cambio 16*-k Euskaltzaindiari saria.

Cambio 16-k, azken aldion Euskal Herrian *Aldaketa 16* izenarekin aldizkari bat argitaratzen duenak, gutun bat helarazi dio Euskaltzaindiari, euskararen sustapen eta normalkuntzaren alde egiten duen lanagatik saritzea erabaki duela azalduz.

8.7. Gerediaga Elkartearen gonbita.

Aurten Durango egingo den Euskal Liburu eta Disko Azokaren 38. edizioa dela eta, Gerediaga Elkarteak Euskaltzaindia inaugurazio-ekitaldira gonbidatu du.

Bilkura 6,30etan amaitu da.

Irteeran Rikardo Badiola argitalpen eragileak eta Jon Artza argitalpen banaketa-zerbitzuburuak euskaltzainei ondoko liburu eta argitalpen hauek eman dizkiete:

1. *Euskera* agerkaria, 2003,1.
2. Arnaud Oihenarten *Euskal atsotitzak eta neurtitzak,* P. Altunak eta J.A. Mujikak prestaturiko edizioa.
3. R.M. Azkue lehiaketan 2002an sariturikoen lanen bilduma, Bilbao-Bizkaia Kutxa – Euskaltzaindia.
4. 2003.eko Gabon-txartelak.
5. Durangoko Euskal liburu eta disko azokaren 38. edizioaren argibide-gonbidapenak.

Euskaltzainburua,
Jean Haritschelhar

Idazkaria,
Xabier Kintana

EUSKALTZAINDIAK @.REN EUSKAL IZENA ERABAKI DU

– ***a* bildua** izendapena onartu du Akademiak.

Euskaltzaindiak 2003-eko urriaren 24an Bilboko bere egoitzan egindako bileran, Hiztegi Batuko beste hitz askoren artean, gaurko bizimoduan garrantzi handia daukan sinbolo baten euskal izena erabaki zuen: @-rena hain zuzen. Dakigunez, posta elektronikoan hainbeste erabiltzen den ikur honek izen ezberdinak dauzka munduko hizkuntzetan, adibidez, ingelesez *at*, eta alemanek ere horrelaxe darabilte, espainolez *arroba*, frantsesez *arobase*, eta italieraz, *chicciola* 'barraskiloa'. Bestalde, euskaraz, erdarazko *arroba* arruntaz gainera (arabierazko *ar-rub*-etik mailegatua, euskarak *arroa* moduan jasoa), izan dira beste zenbait proposamen, batzuk besteak baino serioagoak, hala nola *a batua, a bildua, barraskiloa* edo *txibirita*, ezagunenak besterik ez aipatzearren. Hori dela eta, alde batetik nazioarteko batasunik eza, eta gure arteko aniztasuna ikusita, informatikarien aholku eta proposamenak jaso eta aztertu ondoren, Euskaltzaindiak, espainierazko *arroba* guztiz gaitzetsi ez arren, @ ikur honetarako **'a bildua'** izendapena hobestea erabaki zuen, euskaldun hiztun eta idazle guztiei eredu jatorragoa eskaini nahirik.

EUSKALTZAINDIA DECIDE SOBRE EL NOMBRE DEL SIGNO @

– La Academia aprueba la denominación de ***a* bildua**.

En su pasada reunión mensual del 24 de octubre de 2003, la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, entre otras muchas palabras, tomó una decisión sobre el nombre de un símbolo que ha adquirido una gran importancia en la vida moderna: @. Como es bien sabido, esta marca, tan utilizada en el correo electrónico, se denomina de diferentes modos según los idiomas, por ejemplo, *at* en inglés y en alemán, *arroba* en español, *arobase* en francés y *chicciola* 'caracola' en italiano. Por otra parte, en vasco, además del castellanismo *arroba* (palabra procedente del árabe *ar-rub*, y que en euskara ha dado *arroa*) se vienen empleando también otros términos, unos más serios que otros, tales como *a batua*, o a *bildua* 'a rodeada o envuelta', *barraskiloa* 'caracol' o *txibirita* 'margarita'. Ante la falta de unanimidad en las denominaciones de otros idiomas y la diversidad de criterios existente en vasco, Euskaltzaindia, tras estudiar las propuestas de los especialistas en informática, ha decidido, sin rechazar por el momento el castellanismo *arroba*, proponer como más adecuada para la lengua vasca la fórmula ***a bildua***, esto es, 'a envuelta', intentando ofrecer de esta manera a todos los hablantes y escritores un modelo más castizo e unificado.

EUSKALTZAINDIA STATUE À PROPOS DE L'APPELLATION DU SIGNE @

Lors de son assemblée mensuelle du 24 octobre dernier, 2003, l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia, parmi d'autres sujets traités, a pris une décision en ce qui concerne le nom d'un symbole qui a acquis une grande importance dans la vie moderne : @. Tout le monde sait que ce signe, si souvent utilisé dans le courrier électronique, prend différents noms selon la langue utilisée, par exemple *at* en anglais *et* en allemand, *arroba* en espagnol, *arobase* en français et *chicciola* 'escargot' en italien. D'autre part, en basque, en dehors du castillanisme *arroba* (mot venant de l'arabe *ar-rub*, qui a donné en basque *arroa*), on utilise également d'autres termes, certains plus sérieux que d'autres comme *a batua*, ou *a bildua* 'a entouré ou enroulé', *barraskiloa* 'escargot' ou *txibirita* 'coquillage'. Face à ce manque d'unanimité pour les appellations dans d'autres langues et la diversité des critères existant en basque, Euskaltzaindia, après avoir étudié les propositions de spécialistes en matière informatique et sans pour autant rejeter pour le moment le castillanisme *arroba*, a décidé de proposer une forme plus adaptée à la langue basque ***a bildua***, c'est-à-dire 'a enroulé', afin d'offrir ainsi à tous les bascophones et à tous les écrivains un modèle à la fois unifié et plus authentique.

TXEKEAK BETETZEKO IDAZKERA EREDU BATUA

Andres Urrutia,
***Jagon** sailburua*

Euskaltzaindiko *Jagon* Saileko Corpus Batzordeak, txekeak euskaraz betetzeko orduan zegoen nahaspila kaltegarria ikusirik, erabaki zuen euroari egokitutako «Txekeak betetzeko idazkera-eredu batua» prestatzea, herritarren esku jarri behar denerako. Horretarako, kutxa eta bankuetako ereduak bildu eta aztertu ditu, eta eredu berria landu, hizkuntza-arauak eta legezkotasunari dagozkionak betez.


Horrelaxe sortua da, «Txekeak betetzeko idazkera-eredu batua» izeneko dokumentua. Dokumentu hori Interneten aurkitu nahi bada, joan bedi Euskaltzaindiaren webgunera (www.euskaltzaindia.net), sartu JAGONET--eko datu-basean, idatzi «Txeke» eta sakatu «Bilatu».

Bilbon, 2003ko urriaren 17an.

TXEKEAK BETETZEKO IDAZKERA-EREDU BATUA
Segurtasun-neurriak

Txeke izenduna egin, ahal bada.

Kopurua LETRAZ idatzi, *ZENBAT EURO* dioen lerroan hasita. Gero, marra bat egin, hutsunea balio gabe uzteko.



Babestu zenbakiak # marka eginez diru kopuruaren alde bietan.

Zeharkako marra bi egin eta barruan hau idatzi: *KONTUAN SARTU*. Horrela, inork ezin izango du eskudirutan kobratu txekea.

Txekea eskuz idaztean, KONTUZ ibili: ikusezin bihur daiteke tinta, eta idatzitakoa desagertu.

Txekerik galduz gero, berehala eman galeraren berri **BANKUTXA**ri.

Zenbakien idazkera

0	zero	15	hamabost	90	laurogeita hamar
1	bat	16	hamasei	100	ehun
2	bi	17	hamazazpi	200	berrehun
3	hiru	18	hemezortzi	300	hirurehun
4	lau	19	hemeretzi	400	laurehun
5	bost	20	hogei	500	bostehun
6	sei	21	hogeita bat	600	seiehun
7	zazpi	22	hogeita bi	700	zazpiehun
8	zortzi	23	hogeita hiru	800	zortziehun
9	bederatzi	30	hogeita hamar	900	bederatziehun
10	hamar	40	berrogei	1.000	mila
11	hamaika	50	berrogeita hamar	10.000	hamar mila
12	hamabi	60	hirurogei	1.000.000	milioi bat
13	hamahiru	70	hirurogeita hamar	10.000.000	hamar milioi
14	hamalau	80	laurogei		

Diru kopuruak idazteko adibideak

27 †	hogeita zazpi euro
27,35 †	hogeita zazpi euro eta hogeita hamabost zentimo
312 †	hirurehun eta hamabi euro
312,46 †	hirurehun eta hamabi euro eta berrogeita sei zentimo
4.911 †	lau mila bederatzehun eta hamaika euro
4.911,34 †	lau mila bederatzehun eta hamaika euro eta hogeita hamalau zentimo
3.500.000 †	hiru milioi eta bostehun mila euro
3.582.000 †	hiru milioi bostehun eta laurogeita bi mila euro
3.582.670 †	hiru milioi, bostehun eta laurogeita bi mila, seiehun eta hirurogeita hamar euro

Hilabeteen izenak

urtarrila	uztaila
otsaila	abuztua
martxoa	iraila
apirila	urria
maiatza	azaroa
ekaina	abendua

Laburdurak

Kontu korrontea: **k.k.**
Zenbakia: **zk.**
Kontu korronte zenbakia: **k.k. zk.**

TOUR DE FRANCE

Bayonne, le 9 juillet 2003

Docteur Jean Grenet
Député-Maire
Hôtel de Ville
64100 Bayonne

Monsieur le Député-Maire,

Monsieur Jean-Marie LEBLANC, directeur du Tour de France, s'exprimant hier au soir mardi 8 juillet à la télévision française, a déclaré qu'il rompait son accord avec Batasuna au sujet de la langue basque mais qu'il acceptait qu'un speaker puisse s'exprimer en basque à l'arrivée à Bayonne, à condition que le maire de cette ville le lui demande.

Pour calmer tous les remous inutiles autour de cette polémique, sachant aussi l'attachement que vous avez envers notre langue, je vous prie instamment, en tant que président d'EUSKALTZAINDIA, de faire auprès du directeur du Tour de France la demande qu'il sollicite.

Je vous prie de croire, Monsieur le député-maire, en l'assurance de mes sentiments les meilleurs.

Jean HARITSCHELHAR,
Président d'EUSKALTZAINDIA

EUSKALTZAINDIA INTERNET-EN

2003-XI-18

Iñaki Kareaga,
Informatika eta
Telekomunikazio teknikaria

Amaia Okariz,
Prentsa eta
Komunikazio arduraduna

2000. urteaz geroztik, sarean da Euskaltzaindia. Handik hona, Internet-ek eskaintzen dituen aukerak baliatuta, geroz eta informazio eta zerbitzu gehiago aurki daiteke www.euskaltzaindia.net helbidean. Horretaz jabetuta, gainera, 2002ko abenduan ahalegin berezia egin zen webgunea handituz zihoazen beharretara egokitzeko, diseinu eroso eta edukien egitura eramangarriagoarekin; egitasmoa, Euskaltzaindiaren Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuak berak zuzendu zuen eta diseinu grafikoaz, berriz, SPI nafar enpresa arduratu zen.

Internet, erakunde batek gizarteari irekitzen duen beste leiho bat da. Eskaintzen duen malgutasun eta bat-batekotasunagatik, azken aldi honetan indar handia hartu duen eremua da, batik bat benetan baliagarria den informazioa eta zerbitzuak emateko duten webguneen kasuan.

Horren guztiaren harian, Euskaltzaindiak sarean egoteko erronka hartu zuenean, bertan bere presentzia instituzionala bermatzeaz gain, benetako tresna interaktiboa eskuragarri jartzea zuen xede nagusi. Hau da, gutxienez, baldintza hauek beteko lituzkeena:


- Erakundearen izaera eta jardueraren berri eman.
- Dokumentazio-eremu aberatsa sortzea, denen eskura jartzeko, era sistematikoan.
- Dokumentazio eta informazio guztia eguneratu.
- Interneten erabiltzaileekiko harreman-bideak ireki

Laburbilduz, tresna benetan eraginkor eta erabilgarria sortzea izan da helburu nagusia sarean izan garen urteotan eta horretara bildu dira ahalegin guztiak. Diseinu mailan, egitura erabilerrazago baten bila ibili gara. Edukiei da-


gokienez, Euskaltzaindiaren web gunean kontsulta daitekeen dokumentazioa geroz eta zabalagoa da.

Urratsok emanda, komenigarria litzateke jakitea apostuak zer nolako harrera izan duen hartzaileen artean, benetan erabiltzen den eremua ote den honako hau. 2003. urteko datuok hainbat modutara interpreta daitezke baina, ondorengo irudietan agertzen diren estatistiketatik, honako ondorio hauek nabarmendu nahi genituzke.


Kontsulta-kopurua (1) zerbitzuka, 2003an



2003ko hileroko bisitak (2)



Azken urteetako bisita-kopuruaren bilakaera



(1) Kontsulta: bisita bat egiterakoan, atal batean edo gehiagotan (Azkue Biblioteka, Jagonet, Onomastika, e.a.) egiten den kontsulta.

(2) Bisita: webgunean sartzen den aldi bakoitza.

1. Urtean zehar bildutako bisita-estimazioa begiratuta, gorakada nabarmena antzematen da aurreko urteekin alderatuz gero: 2001ean 53.914 izan ziren, 2002an 67.824 eta 2003an, berriz, 144.059.

2. Hileroko datuei begiratuta, lehen begiradan antzeman daiteke udazkenetik aurrera izan den gorakada nabarmena, urrian eta azaroan 20.000 bisita izan direlarik. Hilerik apalenak, berriz, udari dagozkionak izan dira.

3. Internet-eko bisitariek gehien erabili dituzten atalak, alde handiz gainera, Hiztegi Batuari eta Onomastikari dagozkionak dira. Azken horren kasuan, irailetik aurrera izandako gorakada handia oso adierazgarria da.

4. Jagonet zerbitzua da interaktibitatearen tresnari etekinik handiena ateratzen diona, zerbitzu horren bitartez, euskara langai dutenen kontsultak eta ekarpenak jaso baitaitezke, haiekiko komunikazio zuzena bermatuz.

Datuak aztertuta, eta garaiaren arabera izan diren gorabeherak ikusita, argi dago erabiltzaileen portaera bat datorrela Euskaltzaindiaren nortasunarekin: webgune akademikoa izaki, ikasturtean zehar erabiltzen den espazioa da.

Halaber, emaitza absolutuak hartuta euskararen ikerle, ikasle eta adituek ontzat eman dute Euskaltzaindira urreratzeko modu hau.

EUSKALTZAINDIAREN ARGITALPEN EREMUA

Argitalpenetarako prozedurari buruz zenbait ohar eta iradokizun

Bilbon, egoitzan, 2003.eko abuztua

Ricardo Badiola Uriarte,
argitalpen eragilea,
eta
Jon Artza Bikandi,
argitalpen banaketa-arduraduna.

A

Araudia/ Arautegia eta Barne-erregelak:

I. Euskaltzaindiaren ARAUDIA / ARAUTEGIA:

40.artikulua: ARGITALPENAK:

«Euskaltzaindiak aldizkako agerkaria argitaratuko du, eta han hizkuntza eta literatur lanekin batean, erakundearen akta eta erabakiak etorriko dira. Honez gain, erakundearen xedeei dagozkien argitalpenak kaleratuko ditu».

* * *

II. Barne-erregelak:

VI. «ARGITALPENAK:

87. art. Argitalpenei buruzko xehetasunak:

Arautegiaren 40.artikuluan Euskaltzaindiaren argitalpen bezala, *Euskera* agerkaria eta instituzioaren xedeei dagozkienak aipatzen dira. Argitalpenok, une honetan, sorta hauetan banatzen dira:

87.1. *Iker* Sailekoak; 87.2. *Jagon* Sailekoak; 87.3. Izendegi eta hiztegiak; 87.4. Euskararen lekukoak; 87.5. Argitalpen solteak.

88. art. Argitalpenen ardura:

Euskaltzaindiaren izenaz plazaratzen diren argitalpenen ardura, organigramaren arabera, Zuzendaritzari dagokio. Eginkizun hori Argitalpen Batzordearen bidez gauzatuko da eta honela osatuko da batzordea:

Zuzendaritzakideak eta beste bi kide. Argitalpen eragileak egingo ditu Idazkari lanak.

89. Art. Argitalpen Batzordea:

Argitalpen batzordeak inprimatuko diren lan guztiak programatu eta onetsiko ditu, eta argitalpenaren prestakuntza, nondik-norakoak, epeak eta bestelako xehetasunak jarraiki eta zainduko ditu.

Erabateko onarpena eman ahal izateko, lanak guztiz burutua eta taxutua izan beharko du eta, finantziabidearen aldetik, aurrekontuarekiko diruzaintzaren baiezko irizpen idatzia ezinbestekoa izango da.

90. Art. Argitalpen berezien prestutasuna eta edukia:

Elkarlaneko bildumetan eta gaiaren berezitasunak hala eskaturik, lanaren prestutasuna eta edukia jagoteko, euskaltzainburuak, idazkariak eta **Iker** eta **Jagon** sailburuek osatzen duten azpibatzorde akademikoak aztertuko du lana lehenik eta proposamena aurkeztuko Argitalpen Batzordeari. Baita ere, beronen eskuordetzeaz beren beregi izendaturiko azpibatzordez kanpoko irizpen emaileek. Hauek gutxienez bi izango dira, eta gaian adituak.

Azpibatzorde akademiko honen idazkari legez eragile teknikaria arituko da.

91. Art. Argitalpenen jabegoa:

Euskaltzaindiaren izenarekin argitaratzen diren lan guztien jabetza osoa instituzioarena da.

Euskera agerkarian nahiz sorta batean egilea aipatuz argitaratzen diren lanetan Euskaltzaindiak argitaratze-jabetza zainduko du, egilearekin sinatutako argitaratze-hitzarmen baten bidez. Hitzarmen hau sinatzeak lana argitaratzea merezi duela adieraziko du, baina ez han esaten denarekin osoki bat datorrenik.

92. Art. Argitalpen eragilea:

Inprimatze-prozeduraren hurbileko jarraipena Argitalpen eragileari dagokio eta ez da beste inor horretan sartuko.

Ezinbestekoa gertatuko balitzaio, egile, prestatzaile, batzorde ordezkari, edo bildumaren arduradunaren laguntza eska dezake eragileak.

93. Art. Argitalpenen biltegia:

Euskaltzaindiaren biltegian gordeko dira salgai dauden argitalpen guztiak. Argitalpena biltegiratu ondoren, ondarea denez, diruzaintzaren esku geldi tzen da horren kudeaketa. Eginkizun honetan salmenta arduradunaren laguntza izango du.

94. Art. Argitalpenen aurkezpenak:

Idazkariordeak, argitalpen eragileak, eragile teknikariak, Diruzaintzako kide batek, Azkue Bibliotekako kide batek eta salmenta arduradunak osaturiko lantaldea arduratuko da aurkezpen, publizitate, zabalkunde, banaketa, trukezko zerbitzu eta bestelako xehetasunak antolatzeaz eta burutzeaz».

* * *

Argitalpen eragilearen oharra 95. Artikuluari: aipaturiko kideez aparte, oraintsu onartu eta lanean diharduten gizasemeak - prentsa arduraduna (Amaia Okariz andrea) eta informatikaria (Iñaki Kareaga jauna) - zereginotan partaide izan behar luketela, uste du; eta, beraz, aipaturikoon aipamena Barne-erregeletan eguneratzeko asmo-gogoarekin sartu behar litzatekeela.

* * *

B

Goiko Araudi / Arautegi eta Barne-erregelotan indarrean den testuarekiko gehigarri eta ohar-osaketa:

Euskaltzaindiaren argitalpenak jarraiko sistemotan antolatuak dira:

I. Paperean (zuri-beltzean eta koloreetan)

II. *CD-ROM* sisteman;

III. *On-line* sisteman (Instituzioaren *webgunean*).

* * *

1. Testu originalak bete beharreko baldintzak:

1.1. Euskaltzaindiaren edozein argitalpen kaleratu aurretik Argitalpen batzordearen adostasuna –akademikotasuna eta babes ekonomikoa / finantziazioa– onartu eta ziurtatua izan behar du.

1.2. Testu originala, paperean, *CD-ROM* zein *On line* sisteman kaleratzeko testu, ilustrazio eta abar oso-osorik / guztiz amaituta aurkeztuko da, eta ahal delarik, diskette eta paperean inprimatua edo eta e. postaz / e. mailez... eta proba garaian, ez da gehikuntza larririk onartuko.

1.3. Irudi, lauki edo argazki hornigarririk balerama, gehigarriok ahalik eta argi, zehatz eta era txukunenean –paper, diskette, *CD-ROM*, argazki edo beste edozein euskarri informatikotan– ahal den argi eta garbien izatea eskatzen zaio testu egileari.

1.4. Bestalde, azentu desberdinak, zeinu diferenteak (diakritikoak...) eta bestelako aipamenak, oharrak etab. azaldu nahi direnean, gardentasunez azaltzea / adieraztea eskatzen da, hots:

– Liburu eta aldizkarien izenburuak / tituluak: *kurtsiba edo letra etzanez* etorri behar lirateke.

– Beste argitalpen baten aipamenak: kakotxo edo komillen artean.

– Argitalpen oso bateko barruko artikulua/txostena edo dokumentuaren izenburua/ titulua: kakotxo artean eta letra arruntez eta *ez* letra *etzanez*.

1.5. Testuaren aipamenak / zitak zenbakien bidez (erromanikoz zein arabigoz) adieraziko dira.

1.6. Idazle baten aipamena edo eta testu-zita, ezker aldean, tarteune edo margen handiagoa / *sangratua* utziz idatziko da, edo eta, letra txikiagoz edo eta kakotxoen artean edo bestela letra txikiagoz eta etzanez / kurtsibaz.

1.7. Kapituluen hasierak nabarmenduko dira letra larri edo eta beltzez ezarririk.

1.8. Euskarri informatikoetarako, programa ezaguna izan behar du, gero inprimategietan arazorik ez sortzeko.

1.9. Euskaltzaindiak argitalpenean partaide anitz direnean, Argitalpen Batzordeak akademikotasuna ongi zaindu eta hornitzeko, euskaltzain oso edo urgazle edo batzordekide bat izendatzea ongi legoke Argitalpen eragileari lana erraztu eta kalitatea ziurtatzeko, Barne-Erregeletan azaltzen den moduan.

1.10. Euskaltzaindiak beste erakunde edo elkarte batekin argitalpena aurrera ateratzeko: –koedizioz– *Hitzarmena* sinatuko du Argitalpen Batzordearen oniritziarekin. Hitzarmenean Zuzendaritzak parte hartuko du eta, xehetasun teknikoetan (irudi, marrazki, logotipo eta abarretan...) parte har dezakete idazkariorde- kudeatzaileak, argitalpen eragileak, eragile tekinikariak edo eta ekonomi eragileak, informatikariak edo eta prentsa arduradunak.

1.11. Goian azalduriko argitalpenekiko xehetasunez aparte on litzateke euskaltzain oso batek horren ardura beregan hartzea Argitalpen eragileari lagungarri izateko eta jarraiko oharrok eta beste betetzeko, hots: «Artikuluak honela agertuko dira bibliografian, letra zuzenak eta etzanak edo kurtsibak, xeheak (minuskulak) eta larriak (maiuskulak), parentesiak, komak eta puntuak jarraiko eran: egilearen deitura(k), egilearen izenaren lehen letra, (urtea): «artikuluaren izenbuurua», *Aldizkariaren izena*, zenbakia, orrialdea(k)». Edo eta liburuarenean honela: egilearen deitura(k), egilearen izenaren lehen letra, (argitalpen urtea): *liburuaren izena*, argitaletxea, edizio-tokia». Edo eta bilduma batean, biltzar edo kongresu bateko agiri-liburuan, edo holakoetan agertzen diren artikuluekin on litzateke jarraiko era segitzea: «egilearen deitura(k), egilearen izenaren lehen letra (urtea): «artikuluaren izenburua», in Editorearen

izenaren lehen letra. Editorearen deitura (arg.), *Bildumaren izena*, argitaletxea, edizio-tokia, liburukiaren zenbakia, orrialdea(k)».

1.12. Bibliografian sartu nahi ez den zerbait aipatzeko noizbait horrela egin gura bada baldin, lehen aldiz agertzen denean osorik aipatuko da, eta hurrengoetan bibliografian balego bezala jokatuko da, edo *op. cit.*, *ibidem*... holakoez baliaturik. Bestalde, egin edo bete behar diren bibliografiaren aipamenak ahal dela testu nagusian barnetuko dira, parentesi artean, autorearen deitura(k), aipatzaileak uste duenean, kaleraturiko urtea eta puntu biren ostean dagokion orrialdea ezarririk. Bestalde, bibliografia-oharpen laburtuaren arauak errespetatuko dira (*ISO 690* erreferentzia bibliografikoak; *UN 50-104*), alegia: deiturak (letra larri edo maiuskulaz), egilearen izena, izenburua (letra etzan edo kurtsibaz, argitalpen zenbakia, hiria / herria, argitaletxea, urtea, orria(k).

1.13. Hizkuntzarekiko zuzentasuna egiaztatzeko edo liburuki edo *Euskera* agerkariaren testuak Euskaltzaindiak emandako ARAUetara egokitzapena egiteko, testuetan aldaketaren bat behar izanez gero –aldaketa edo gehiketa nabarmenik ez da onartuko–, hamabost eguneko epea izanen du autoreak.

1.14. Hasiera-hasierako testua jarraiko programa konpatibleetan bidali beharko luke / du autoreak: *Word-Sart, Word-Perfect, McWrite* edo *Word* nahiz *PC* nahiz *Mac*-erako disketeekin, *PDF* sisteman edo eta *e.mail /e.postaz* eta baita on litzateke kopia bi paperean bidaltzea DIN A 4 formatoan, alde batetik inprimaturik, espazio / tarteune bikoitzez eta ezkerreko margina ez da inoiz 4 zentimetro (cm) baino txikiagoa izanen.

1.15. Lanaren luzera (artikulu edo txosten arruntetan) 20 orrialde ingurukoa izatea gomendatzen da, gehienez 30 orrialdekoa. Orrialde guzti-guztiak zenbakiz hornituak izango dira, oharrei eta irudi (argazki, ilustrazio, faksimile eta abar barne) dagozkienak ere kontuan harturik.

1.16. Egileak/-ek, aparteko orri batean, kontaktuetarako helbidea eta beste xehetasunak (telefono edo eta fax-zenbakiak edo e.maila, eta abar) igorriko ditu, jasotzailearen eta inprimategietako lanak errazago burutzeko.

1.17. Goiko arau edo eta baldintzok ez betetzeak lana / artikulua / txostena... ez argitaratzea ekar liezaioke testu prestatzaileari.

* * *

2. Testuaren konposizio eta zuzenketak:

2.1. Originala datorren euskarrian datorrela, Euskaltzaindiaren argitalpen eragilea arduratuko da konposizio, taiutze eta maketatze lanak antolatzen eta burutzen.

2.2. Txosten edo dokumentu baten egileak aukera izanen du konposizio lanean gerta daitezkeen hutsak / erratak, ezusteak... zuzentzeko, baina ezin izanen du gehikuntza **nabarmenik** erantsi. Eta Argitalpen Batzordeak norbait izendatzen baldin badu –euskaltzain oso, urgazle edo batzordekide edo kanpoko kideren bat– hura arduratuko da argitalpen eragileari proben zuzenketak burutzen eta testu orrazketak eta beste xehetasunak betetzen.

2.3. Zuzenketak egiteko orduan probak orraztu, zuzendu eta atontzean, inprimategiko zuzentze-arauak eta erak zainduko dira eta zuzenketa-orrazketok, ahal delarik, gorriz markatuko ditu zuzentzaileak. Bestalde, letra etzanak, kakotxoak, aipuak, margenak eta abar... xehetasunak argi adieraziko dira gaizki ulertzeak ekiditzeko.

2.4. Buruturiko proba-orrazketak eta originala, ezarritako epean itzuli behar ditu egileak. Adierazitako egunerako jasoko ez balira, Euskaltzaindiaren esku geratuko litzateke bere horretan inprimaraztea edo eta argitalpenari segida ez ematea.

* * *

3. Argitalpenaren taiuketa eta filmazioa, CD-ROM sistema edo eta On-line sisteman ezartzea:

3.1. Proba zuzenduak jaso ondoren, argitalpenaren taiuketa / antolaketa / maketazioari ekingo zaio. Honetarako argitalpen eragileak laguntza eskatu ahal dio Euskaltzaindiko informatikariari, inprimategietako teknikariei edo eta diseinatzaileari: argitalpenaren azala eta barneko banaketa teknikei dagozkien zereginak ongi burutzeko.

3.2. Taiuketa eta baimen-orrialdea egoki betezeko ISBN zenbakia, Legezko Gordailua, preinpresio eta inpresio edo inprimategi xehetasunak adierazi eta babesleen logotipoak eta Euskaltzaindiaren logotipo / ikurra, kapituluen hasierak, argitalpen-mantxa eta abar kontuan izanen ditu argitalpen eragileak inprimatze agindua eman aurretik, alegia, ozalido edo cianografiko garaian.

3.3. Taiuketa eta diseinu-burutzea ongi lantzeko kanpoko laguntza teknikoa eskatu ahal du argitalpen eragileak. Honetarako dagokion aurrekontua eskatuko du eta Diruzaintzari aurkeztuko, beronen oniritzi / onespena jaso eta argitalpenak aurrera egin dezan.

3.4. Taiuketan bilduma-eredua zainduko da bai mantxan, neurri, paper mota, kolore eta beste xehetasunetan, argitalpen-margenak alde batera utzi gabe.

3.5. Filmazioa burutzean, kontuan izanen dira –paperean eta *CD-ROM* sistemaren kaleratze kasuan– argitalpengaiaren azala, kontraazala, solapak--kontrasolapetako testuak, logotipoak, kolore, margenak eta paper-motak...

3.6.- Taiuketa teknikan Euskaltzaindiko informatikaria eta banaketa arduradunen iritzia eta ekimen/ iniziatibak kontuan izanen ditu argitalpen eragileak eta baita Diruzaintzarena, argitalpen-kopurua zenbateko izanen den erabakitzeko unean.

* * *

4. Inprimaketa: paperean, *CD-ROM* eta *On-line* sisteman:

4.1. Argitalpenarekiko taiuketa guztia amaituz gero, argitalpen horren ozalido/ ferro/ zianografikoa / ploterra edo eta chriris probak –paperean edo CD-ROM-sisteman denean– zuzenketak taiuketa eta erratei buruz bakar-bakarrik hutsen zuzenketak onartu ahal izango dira, edo eta, akatsen zuzenketak zehaztu eta behin betiko finkatuko dira.

4.2. Inprimaketari ekin aurretik, argitalpen eragileak, edo eta argitalpen horren aparteko arduradunak –Argitalpen Batzordeak onartutakoak–, akademikotasun kalitate-oniritzia idatziz emanen du.

4.3. Inprimatu aurretik –paperean edo *CD-ROM*-ean, paper-mota (gramaia... kontuan izanik) azalerako eta barrurako edo eta *CD-ROM*-ean zein karatula, inprimatze-testu, kolore eta abar onartuko ditu argitalpen eragileak. Eta kasuan kasuko –eskuarteko gaian adituak direnei– kontsulta eginen die behin betiko onarpena erabaki / hartu aurretik.

4.4. Aurrekontuak onartzean, erabakitzen den zein fotokonposizio-inprimategi etxetan, edo eta *CD-ROM* sistemaren kasuan –etxe espezializatuetan– gauzatuko da lana.

4.5. Argitalpen bakoitzeko kaleratze ale-kopurua eta saltze-prezioa / salneurria erabakitzean, ekonomi eragilea, argitalpen-banaketa arduraduna eta argitalpen eragilearen adostasuna izan behar du eta babesa Erakundetik kanpokoa denean, babesleen adostasuna ere izan behar du bai ale-kopuruan eta bai salneurrian ere.

4.6. *On-line* sistema dela eta urrats bi eman behar lirateke: I.-Euskaltzaindiak abere akademikotasuna idazkariaren esku utzi (onarpena, orrazketa...) eta II.-erakundearen ekonomi eragilea, informatikaria, eragile teknikariak, salmenta zerbitzu arduraduna, kazetaritza arduraduna eta argitalpen eragilea adosturik Euskaltzaindiaren *webgunean* ezarri egoki eta komeni diren dokumentu-agiriak.

* * *

5. Koadernaketa:

Atal honi dagozkion zehaztapenak (koadernaketa-mota, azalaren egitura, koloreak, solapen neurri eta testuak, ilustrazioak, babesle-logotipoak eta abar)

argitalpen eragileari dagokio bildumen arabera eta koedizioetan kanpoko erakunde, elkarteen adostasunarekin, eta inprimategietan betearaztea.

Bestalde, koadernaketa burutzean kontuan izan behar da barren kodea gero salmentarako behar-beharrezkoa baita liburudenda eta merkatalguneetarako.

Koadernaketa eremuan kontuan izan behar da, –argitalpen berezi eta *CD-ROM* erantsita edo barnean daramanean– argitalpenak erretratilatu egin behar dira argitalpena gordea izan dadin (hautsa, kolorea gal ez dezan...) eta baita liburudenda eta merkatalguneetan lapurreta zailtzeko ere.

* * *

6. Argitalpen onartze eta gordeketa / gordailuratzea:

Argitalpena amaitutzat emateko, jarraiko urratsok bete behar dira:

6.1. Onespena:

Inprimategitik ateratako liburuki edo *CD-ROM* sistemako argitalpena zehatz-mehatz aztertu ondoren, argitalpen eragileak edo / eta argitalpen horren aparteko arduradunak, behar denean, idatziz adieraziko du bere oniritzia.

6.2. Onartzea:

Onespena jaso ondoren banaketa-arduradunari dagokio inprimaturiko liburuki edo bestelako dokumentuak (*ARAUAK, CD-ROM*...), ale kopurua biltegian onartzea, zenbatze-kontrolatzea, metatze lana, salerosleekiko harremak izatea.... behar diren emate-oharrak sinatuz gero. Salmenta eremuan, Diruzaintza eremuak eta argitalpen eragileak eta banaketa zerbitzudunak parte hartu dute argitalpenaren salerosketa gora-beheretan: banatzaileekin tratuak egin, prezioak ezarri, beherapenak finkatu...

6.3. Originalak eskuratu:

Argitalpenaren urrats bakoitzean erabili diren original guztiak (testu originala, disketteak, Cdak, ozalido onartua, argazki/ilustrazio, fotolitoak eta ostantzeko euskarriak...) bilduko ditu argitalpen eragileak, gordetzea, urte betez edo gehien jota urte bitan izanen da. Ondoren errezíklatzera eramainik. Original-originalak dira bakar-bakarrik, bilduko. Euskaltzaindiaren argitalpen artxiboan gorde daitezen. Biltegi ardura banaketa-arduradunari dagokio eta hark kudeatuko du salmenta, banaketa eta abar Euskaltzaindiaren kudeatzaile, argitalpen eragile eta ekonomi eragilearekin ados jarririk bai salneurrietan, kopuruetan, beherapenak egiterakoan, dohaineko eskaintza eta abarretan.

Baina egun, toki, segurtasun eta zenbait kasutan erosotasunarengatik, eta batez ere Erakundearen webgunean sartzekoa baldin bada, hobe da *PDF* sisteman gordetzea.

6.4. Aurkezpenak:

Euskaltzaindiak kaleratzen dituen argitalpenak (paperean zein *CD-ROM*-ean...), aurkezpena egin behar baldin bada, argitalpen eragile, Euskaltzaindiko kazetaritza zerbitzuarduraduna, banaketa zerbitzu- arduraduna eta, behar izanez gero, egoitzan denean bulegariak... eta aurkezpena kanpoan denean –Udaletxe, Foru Aldundi edo beste toki batean– bertako arduradunekin ados jarriko dira aurkezpen eguna, tokia, aurkezleak nortzuk eta zenbat izan... prentsa desberdinei deia nork egin eta nora bidali eta abarretan.

6.5. Aurrekontu eta fakturen arteko kidetasuna:

Diruzaintzari dagokio aurrekontu eta fakturen arteko kidekotasuna neurtzea. Desberdintasunik gertatuko balitz, zergatiaren azalpen idatzia eskatuko du, hartu behar den erabakiak oinarria izan dezan.

Bestalde, argitalpen salneurria ezartzeko diruzaintzak, argitalpen banaketa zerbitzu-arduradunak eta argitalpen eragileak – eta, koedizioetan, dagokionarekin bat eginik, edo eta, egoki dakusatenean, Argitalpen Batzordeari iritzia eskatuz gero, finkatuko dute salneurria.

6.5. Ordainketa:

Azken-azkenik, Diruzaintzak, aldez aurretik jarritako epeetan, diru-kopuruetan.... ordainduko du sorturiko zorra (egileekikoa, inprimategietakoa...). Eta dagokion garaian, ordaindu ezin denean, likidazio arazoengatik edo..., argitalpen eragileak eskua botako die inprimategi eta enparauen aurrean haien eta Euskaltzaindiaren artean bitarteko/ararteko eginik.

HITZARMENAK / CONVENIOS

NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEAN 2003. URTERAKO EGINDAKO HITZARMENA. 2002KO EKAINAREN 27AN SINATURIKO ESPARRU-HITZARMENAREN ERANSKINA

ACUERDO ENTRE EL GOBIERNO DE NAVARRA Y LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/ EUSKALTZAINDIA PARA EL AÑO 2003. *ANEXO* AL ACUERDO MARCO FIRMADO EL 27 DE JUNIO DE 2002

NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEAN 2003. URTERAKO EGINDAKO HITZARMENA. 2002KO EKAINAREN 27AN SINATURIKO ESPARRU-HITZARMENAREN ERANSKINA

BILDURIK

Batetik:

PEDRO PEGENAUTE GARDE jauna, Nafarroako Gobernuko Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia.

Bestetik:

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE jauna, Euskaltzaindiko lehendakaria/euskaltzainburua.

2002ko ekainaren 27an Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren artean sinaturiko Hitzarmenak lankidetzarako oinarri orokorrak ezarri zituen eta bi erakunde sinatzaileen arteko konpromiso finantzario eta materialen esparrua arautu ere. Haren bigarren puntuan ezarritakoan jarraikiz,

HITZARTZEN DUTE

1. Euskaltzaindiak, bere batzordeek egiten dituzten jardueren barruan, Nafarroako Gobernuarendako, 2003. urtean zehar egin ditu eta 2003. urtean egin asmo ditu ondoko eginkizun hauek:

1.1. Berariazko izaera duten jarduerak:

a) Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egiteko bildu ziren Nafarroako 3 herritako grabazioak euskarritan paratu eta ematea, beti ere informazioaren pribatutasuna errespetatuz.

b) Euskararen Herri Hizkeren Atlaseko lehen liburukirako, Nafarroari dagokion edukiaren argitalpen bereiztu eta banandua ahalbidetuko duen informatika programaren berritzea. Lanek urte bateko iraupena izanen dute. Hortaz 2003. urtean zehar berritze horren lehen zatiari ekinen zaio.

c) Nafarroako euskalki baten gramatika bat («Baztango euskalkiaren gramatika») prestatzeko lanak abiatzea.

d) Nafarroako euskalkien hizkuntza ikerketetarako plan bati buruzko txostena egitea.

e) Bi libururen argitalpena, bi entitateak ados jarrita finkatutako irizpideei jarraikiz zehaztu beharrekoak.

f) Nafarroako euskalkien inguruko jardunaldiak prestatzea.

g) Biok adosturik, finkatuko den edozein.

1.2. Euskaltzaindiak garatzen dituen eta aurrekoen euskarri diren izaera orokorreko gainerako jarduerak.

2. Aipaturiko eginkizunak aurrera eramateko, Nafarroako Gobernuak, 2003. urtean, Euskaltzaindiaren esku, gehienez ere, 134.600 € paratuko ditu. Kopuru hau 2003. urterako luzaturiko 2002ko Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Orokorreko «Hitzarmena Euskaltzaindiarekin» izeneko 43000-4816-455100 kontusailaren kargura ordainduko da, 2003. urterako Hitzarmena sinatu ondoren.

Hitzarturikoa hala ager dadin dokumentu hau sinatzen dute, hirukoitzez.

Iruñean, bi mila eta hiruko uztailaren 3 an.

Pedro Pegenaute Garde,
UNIBERTSITATEETARAKO ETA HIZKUNTZA POLITIKARAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Jean Haritschelhar Duhalde,
EUSKALTZAINDIKO LEHENDAKARIA

ACUERDO ENTRE EL GOBIERNO DE NAVARRA Y LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/ EUSKALTZAINDIA PARA EL AÑO 2003. *ANEXO* AL ACUERDO MARCO FIRMADO EL 27 DE JUNIO DE 2002

REUNIDOS

De una parte:

D. PEDRO PEGENAUTE GARDE, Director General de Universidades y Política Lingüística del Gobierno de Navarra.

De otra parte:

D. JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE, Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.

De acuerdo con lo establecido en el punto segundo del Acuerdo suscrito entre el Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia el 27 de junio de 2002 por la que se establecen las bases generales de colaboración y por el que se regula el marco de compromisos financieros y materiales entre las dos instituciones firmantes,

ACUERDAN

1. La Real Academia de la Lengua Vasca/Euslkaltzaindia ha realizado durante el año 2003 y se propone realizar, encuadradas dentro de las actividades que desarrollan sus diferentes comisiones, para el Gobierno de Navarra en el año 2003 las siguientes tareas:

1.1. Actividades de carácter específico:

a) Montaje en soporte y entrega de las grabaciones de 3 pueblos de Navarra que se recogieron para la elaboración del Atlas de las variedades locales del Vascuence-Euskararen Herri Hizkeren Atlasa. Respetando, en todo caso, la privacidad de la información.

b) Renovación del programa informático que posibilite una publicación diferenciada del primer tomo del «Atlas de las variedades locales del Vascuen-

ce/Euskararen Herri Hizkeren Atlasa». Los trabajos tienen una duración de un año por lo que durante el 2003 se acometerá la primera mitad de dicha renovación.

c) Iniciación de los trabajos de preparación de una gramática («Baztango Euskalkiaren Gramatika») de una de las variedades del vascuence en Navarra.

d) Elaboración de un informe sobre un plan de investigaciones lingüísticas de las variedades dialectales del vascuence en Navarra.

e) Publicación de dos libros, a determinar, según criterios conjuntos entre las dos entidades.

f) Preparación de unas jornadas sobre el tema «Los dialectos del vascuence en Navarra/Nafarroako euskalkiak».

g) Cuantos de común acuerdo se determinen.


1.2. Las demás actividades de carácter general que desarrolla la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia y que, sirven de soporte a las anteriores.

2. Para la realización de las tareas descritas el Gobierno de Navarra destinará a la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia en el año 2003 hasta 134.600 € que se abonarán a cargo de la partida presupuestaria 43000-4816-455100, denominada «Acuerdo con Euskaltzaindia» de los Presupuestos Generales del Gobierno de Navarra del 2002 prorrogados para el 2003, una vez se haya firmado el Acuerdo para el 2003.

Para que así conste lo acordado se suscribe este documento por triplicado.

En Pamplona, a 3 de julio de dos mil tres.





Pedro Pegenaute Garde,
DIRECTOR GENERAL
DE UNIVERSIDADES Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Jean Haritschelhar Duhalde,
PRESIDENTE DE LA REAL
ACADEMIA DE LA LENGUA
VASCA/EUSKALTZAINDIA

EiTB / EUSKALTZAINDIA

EiTBren ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO *LANKIDETZA-HITZARMENA*

Andoni Ortuzar Euskal Irrati Telebista (EiTB) herri erakundeko zuzendari nagusiak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak EiTBren –eta horren sozietate Euskal Telebista, Eusko Irratia eta Radio Vitoriaren– eta Euskaltzaindiaren arteko lehendabiziko lankidetza-hitzarmena sinatu dute, ekainaren 13an, Akademiaren egoitzan. Hitzarmen horren bidez, EiTBko hedabideetan euskararen erabilera ona sustatuko da, euskal gizartean euskara nomalizatzeko eta bultzatzeko helburuaren ildotik.

Bi erakundeon arteko lankidetza jarduerak hiru arlokoak izango dira:

- Lexikoa, batez ere Onomastika alorrean, eta bereziki EiTBn erabiltzen diren toponimo, exotoponimo, antroponimo eta abarri lotuta.
- Hizkuntzaren gramatika.
- Ahoskerari buruzko arauak eta jarraibideak, hizkuntzaren ahozko erabilerarekin lotuta.

Hala bada, euskararen erabilera egokiaren alde, EiTBri aholkua eskainiko dio Euskaltzaindiak eta, horren gainean, urtean lau txosten osatuko ditu. EiTBk, bere aldetik, ikus-entzunezko komunikabideak tresna dituela, euskararen normalizazioa, sustapena eta erabilera zuzena bultzatuko ditu.

Bestetik, EiTBren hedabideek egindako kontsultei lehentasuna emango die Akademiak. Hiztegiaren edota gramatikaren gaineko erantzun guztiak JAGONET zerbitzuan jarriko dira, astero. Galde-erantzun guztiak hileroko txostenean bilduko dira.

Onosmatikari buruzko kontsulta guztiek ere lehentasuna izango dute Akademiarentzat, bai eta hileroko txostenean bilduko ere. Erabaki gabeak izango balira, ordea, Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak hartuko lituzke erabakiak.

Lankidetza-hitzarmena hiru urtetan egongo da indarrean.

CONVENIO DE COLABORACION ENTRE EiTB Y EUSKALTZAINDIA

Andoni Ortuzar, director general del ente público Euskal Irrati Telebista (EiTB) y Jean Haritschelhar, presidente de Euskaltzaindia, han firmado el primer acuerdo marco de colaboración que se establece entre EiTB –y sus sociedades Euskal Telebista, Eusko Irratia y Radio Vitoria– y la Real Academia de la Lengua Vasca. El objeto de dicho acuerdo, suscrito en la sede académica el 13 de junio de 2003, es garantizar el buen uso del idioma en los medios de comunicación de EiTB, en el cumplimiento de sus objetivos de normalización y promoción del euskera en la socieda vasca.

La colaboración abarca tres áreas concretas:

- Léxico, especialmente en el campo de la Onomástica y concretamente en el uso, por parte de EiTB, de topónimos, exotopónimos, antropónimos o nombres de personas o familia, personajes históricos, etc.
- Gramática de la lengua.
- Normas y consejos sobre pronunciación en el uso oral de la lengua.

Así las cosas, el grupo de comunicación recibirá, por parte de la Academia recomendaciones para el uso correcto y nomalizado de la lengua; estas recomendaciones se concretarán mediante cuatro informes anuales EiTB, por su parte, y a través de sus medios de comunicación, colaborará en fomentar la normalización, promoción y buen uso de la lengua vasca.

Todas las consultas realizadas por EiTB tendrán prioridad para Euskaltzaindia quien recopilará semanalmente en su servicio JAGONET todas las cuestiones gramaticales o de vocabulario. Asimismo, todas estas consultas serán recopiladas en un informe mensual.

También las dudas relativas al campo de la onomástica tendrán, igualmente, preferencia y serán recopiladas en un informe mensual. Las cuestiones no resueltas serán decididas por la comisión de Onomástica de Euskaltzaindia.

El convenio tendrá una vigencia de tres años.

EITB - EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO *HITZARMENA*

Bilbo, egoitza, 2003-VI-12

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Jaun-andereak, egun on.

Gehienetan egoitza honetan biltzen garelarik komunikabideei egiten diet beti ongi etorri on bat baitakit komunikabide guztiek hedatzen dituztela gure mezuak. Eta nola, gaur, Euskal Herriko komunikabide nagusia EITB deritzana hemen gurekin dagoen, ongi etorri berezi bat haren zuzendari jaunei.

Bilduak gara hitzarmen baten izenpetzeko, pozgarri baita ikustea harremanak gauzatzen ditugula elgarrekin. Duela 35 urte biltzar famatu batean –Arantzazukoa, noski– Euskaltzaindiak erabaki zuen bultzatuko zuela euskara batua deitutako hizkuntz «standard» bat, ikusten baitzuen beharrezkoa zela prentsarentzat, pentsatuz ere egun batez hizkuntza hori hedatuko zela Euskal Herriko zazpi hegaletara irratiaren lehenik eta telebistaren bitartez gero. Hain zuzen hori gertatu zen hamalau urteren buruan euskal telebista sortu zelarik 1982an.

Egia da Euskal Herriko zazpi hegaletara hedatzen direla euskal komunikabideak, prentsa, irrati-telebistak. Egia da ere zazpi hegal horietan ulertua izaiteko beharrezkoa dela euskaldun guziak lotzen dituen euskara batu bat.

Hain zuzen denekilako hizkuntza horrek bere bidea egin du azken 35 urte hauetan, hiztegian, gramatikan, onomastikan.

Euskaltzaindiak arau emaile gisa bere proposamenak egiten ditu, komunikabideak direlarik arau horien hedatzaileak. Instituzio bakoitzak bere alorrean betetzen du bere eginbide osoa euskararen onerako.

Garrantzi haundikoa da gaur sinatzen dugun hitzarmena eta eskertzen ditut bereziki horretan parte hartu duten guziek, Jose Luis Lizundia izan delarik Euskaltzaindiaren ordezkaria. Joan gaiten beraz, geroari buruz, eskuz esku EITB eta Euskaltzaindia gero eta gehiago zabaldua eta ulertua izan dadin gure euskara maitea.

EUSKALTZAINDIA — EiTB *AKORDIOA*

Euskaltzaindia, Bilbo, 2003-VI-13

Andoni Ortuzar,
EiTB-ko Zuzendari Nagusia.

Egun on denoi eta mila esker gurekin izateagatik.

Akordio honen helburua Euskaltzaindia eta EiTBren arteko harremanak sendotu eta gizarteari eskaintzen diogun zerbitzua hobetzea da.

Argi daukagu EiTB euskarazko edukien ekoizle eta zabaltzaile garrantzitsuena dela, bai eta Euskaltzaindiaren ardura dela hizkuntza arauak ezartzea eta euskara zaintzea ere. Gure eginkizunek elkarren beharra dute, gure elkarlanaren beharra, beraz.

Azken urte hauetan kalitatea hobetzea izan da EiTBren irizpide nagusietako bat. Eta *hitzarmen* honekin, gure lan eta komunikazio tresna dugun hizkuntzaren kalitatea hobetuko dugu.

* * *

Buenos días a todos y gracias por acompañarnos.

Decía que durante estos últimos años la apuesta por la mejora de la calidad ha sido un referente permanente para EiTB. Y en este contexto debemos enmarcar este acuerdo, cuyo objetivo fundamental es mejorar la calidad del idioma que utilizamos en los medios de comunicación públicos vascos. Euskaltzaindia y EiTB somos conscientes de que tenemos una gran responsabilidad social, como organismos encargados del cuidado de la lengua, así como de la producción y difusión de contenidos en la misma. Esta responsabilidad nos une y nos da ahora la oportunidad de trabajar y colaborar de forma más estrecha.

El *acuerdo* que hoy firmamos incorpora diversos objetivos ligados a las recomendaciones de uso normalizado del euskera; la respuesta a las solicitudes de consulta gramatical o de vocabulario; la asesoría en el campo de la onomástica o los topónimos, y un largo etc. Pero creo realmente que

lo que va a despertar un especial interés y atención va a ser el hecho de que Euskaltzaindia realice un Informe Anual de consideraciones y recomendaciones sobre el uso del idioma en EiTB. Estamos convencidos de que este Informe va a ser un referente profesional, académico y social; que va a contribuir a la mejora efectiva de la calidad de nuestra lengua en el ámbito de los medios de comunicación, y a través de los mismos, en toda la sociedad.





EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Bilbon, 2003ko ekainaren 13an

LANKIDETZAKO ESPARRU AKORDIOA, BATETIK, EUSKAL IRRATI TELEBISTA HERRI ERAKUNDEAREN ETA HORREN SOZIETATE EUSKAL TELEBISTA S.A., EUSKO IRRATIA, S.A. ETA RADIO VITORIA S.A.REN ETA, BESTETIK, EUSKALTZAINDIA EUSKARAREN ERRET AKADEMIAREN ARTEAN.

BILDU DIRA

Alde batetik, Andoni ORTUZAR ARRUABARRENA jauna, EUSKAL IRRATI TELEBISTA Herri Erakundeko zuzendari nagusia.

Eta, bestetik, Jean HARITSCHELHAR jauna, euskaltzainburua.

ALDERDIAK

Alde batetik, Andoni ORTUZAR ARRUABARRENA jauna, EUS-

En Bilbao, a 13 de junio de 2003

CONVENIO MARCO DE COLABORACIÓN ENTRE EL ENTE PUBLICO EUSKAL IRRATI TELEBISTA Y SUS SOCIEDADES EUSKAL TELEBISTA S.A, EUSKO IRRATIA, S.A. Y RADIO VITORIA S.A y DE OTRA PARTE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA «EUSKALTZAINDIA».

REUNIDOS

D. Andoni ORTUZAR ARRUABARRENA, Director General del Ente Público EUSKAL IRRATI TELEBISTA.

D. Jean HARITSCHELHAR, Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca.

INTERVIENEN

De una parte, D. Andoni ORTUZAR ARRUABARRENA actuando en

KAL IRRATI TELEBISTA Herri Erakundearen eta horren sozietate EUSKAL TELEBISTA S.A., EUSKO IRRATIA S.A. eta RADIO VITORIA S.A.ren izenean eta ordezkari gisa, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 29ko 20/1999 Dekretuan argitaratutako izendapenagatik dagozkion ahalmenak erabiliz. Aurrerantzean EiTB.

Beste aldetik, Jean HARITSCHELHAR jauna, Euskaltzaindiaren izenean eta ordezkari gisa, 2000ko abenduaren 22ko izendapenagatik dagozkion ahalmenak erabiliz. Aurrerantzean EUSKALTZAINDIA.

nombre y representación del Ente Público EUSKAL IRRATI TELEBISTA y de sus sociedades EUSKAL TELEBISTA, S.A., EUSKO IRRATIA, S.A. y RADIO VITORIA, S.A, conforme al nombramiento publicado por Decreto del Gobierno Vasco 20/1999 de 29 de junio. En adelante EiTB.

De otra parte, D. Jean HARITSCHELHAR, actuando en nombre y representación de la Real Academia de la Lengua Vasca, conforme a su nombramiento como Presidente con fecha 22 de diciembre de 2000. En adelante EUSKALTZAINDIA

ADIERAZI DUTE

I. EUSKALTZAINDIA, Euskararen Erret Akademia izanik eta Autonomia Estatutuaren 6.5 artikuluaren arabera, euskara zaintzeko, gizarte erabilera jagoteko eta hizkuntza arauak ezartzeko ardura duen erakundea dela.

II. EiTBk, EAEko gizarte komunikaziorako taldea izanik, helburu nagusietarikoen artean, euskararen normalizazioa eta sustapena bultzatzeko zeregina bete behar duela; eta hala dago jasota Herri Erakundea sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legean eta 2002ko azaroaren 5ean Eusko Jaurlaritzak eta EiTBk sinatu zuten Programa Kontratuan.

Arlo horretan, EiTBk hizkuntza kontrola egiteko egitura bat du, honako aholku eta kontrol organo hauek osatua:

MANIFIESTAN

I. Que EUSKALTZAINDIA, en su calidad de Real Academia de la Lengua Vasca y de acuerdo con el artículo 6.5. del Estatuto de Autonomía, es el órgano encargado del cuidado de la Lengua Vasca, así como de su tutela social y del establecimiento de sus normas lingüísticas de uso.

II. Que EiTB, como Grupo de Comunicación Social de la CAPV, tiene entre sus principales funciones la de velar por la normalización y promoción de la Lengua Vasca, como así queda recogido en su Ley de Creación 5/1982 de 20 de mayo y en el Contrato Programa 2002-2005 suscrito entre el Gobierno Vasco y EiTB el 5 de noviembre de 2002.

En este ámbito, EiTB cuenta con una estructura organizativa de control lingüístico con los siguientes órganos de asesoramiento y control:

- EiTBko Zuzendaritza Nagusiaren eta UPV-EHUaren arteko lankidetza hitzarmena. Horren bidez, Lourdes Oñederra Irakasleak hizkuntza aholkularitzako zerbitzuak egiten ditu EiTBn.
- Hizkuntza Kalitateko Saila, Herri Erakundearen eta horren sozietateen zerbitzuan.

III. Hala izanda, dauden egiturak indartzeko asmoz eta Erakundea Sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legeak eta Eusko Jaurlaritzarekin 2002-2005 epealdirako sinatutako Programa Kontratuak zehaztutako eginkizunak hobeto betetzeko asmoz, EiTBk egoki deritzo EUSKALTZAINDIArekin batera lanean aritzeari, LANKIDETZAKO ESPARRU AKORDIO honetan zehaztutako moduan, ondorengo klausulen arabera.

KLAUSULAK

1. XEDEA

Hitzarmen honen bidez, EiTBren eta EUSKALTZAINDIAren arteko lankidetza jarduerak zehaztuko dira, EiTBko hedabideetan euskararen erabilera ona sustatzeko asmoarekin, euskal gizartean euskara normalizatzeko eta bultzatzeko helburuaren ildotik.

Lankidetza jarduerak hiru arlotakoak izango dira batez ere:

1. Lexikoa, batez ere Onomastikaren alorrean, eta bereziki EiTBn erabiltzen diren toponimo, exoto-

- Convenio de colaboración entre la Dirección General de EiTB y la UPV-EHU, por el que la Profesora Lourdes Oñederra presta sus servicios de asesoría lingüística en EiTB.
- Un Departamento de Calidad lingüística al servicio del Ente Público y sus sociedades.

III. En este marco, con el fin de reforzar las estructuras existentes para una mayor eficacia en el cumplimiento de la misión encomendada por Ley de Creación 5/1982 de 20 de mayo y en el Contrato Programa 2002-2005 suscrito con el Gobierno Vasco, EiTB estima oportuna la colaboración con EUSKALTZAINDIA en los términos que se establecen en este CONVENIO MARCO DE COLABORACIÓN, el cual quedará sometido a las siguientes,

ESTIPULACIONES

1. OBJETO

El objeto de este acuerdo consiste en fijar las acciones y medidas de colaboración entre EUSKALTZAINDIA y EiTB, para la mejora del buen uso del idioma en los medios de comunicación de EiTB, en el cumplimiento de sus objetivos de normalización y promoción del euskara en la sociedad vasca.

Se manifiesta preferentemente en tres campos concretos:

1. Campo relativo al léxico, especialmente al campo de la Onomástica, y concretamente al uso

ponimo, antroponimo eta abarri lotuta.

2. Hizkuntzaren gramatika.

3. Ahoskerari buruzko arauak eta jarraibideak, hizkuntzaren ahozko erabilerarekin lotuta.

Hala eskatzen du Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak.

de EiTB de los topónimos, exotopónimos, antropónimos o nombres de persona o familia, personajes históricos, etc.

2. Campo relativo a la gramática de la lengua

3. Campo relativo a las normas y consejos sobre pronunciación en el uso oral de la lengua.

Todo ello en cumplimiento del artículo 10 de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara, Ley 10/1982 de 24 de noviembre.

2. EUSKALTZAINDIAREN BETEBEHARRAK

Hitzarmen honen arabera, EUSKALTZAINDIAk honako bitarteko eta zerbitzu hauek emango dizkio EiTBri:

- Euskararen erabilera arautu eta egokirako gomendioak. EUSKALTZAINDIAren beraren ekimenez edo EiTBko Hizkuntza Aholkularitzako Zerbitzuak berariaz eskatuta, urteko lau txosten.

- EiTBren hedabideetan euskararen erabileraren gainean egunero sortzen diren kontsultei, hiztegiaren zein gramatikaren gainekoak izan, lehentasuna emango zaie. Erantzuna zuzenean emango zaio galdegileari, eta JAGONET zerbitzuan jarriko dira denak astero. Erabaki gabekoak dagokion batzordera bidaliko dira. Galde-eran-

2. OBLIGACIONES DE EUSKALTZAINDIA

En virtud del presente acuerdo, EUSKALTZAINDIA adquiere el compromiso de poner a disposición de EiTB los siguientes medios y servicios:

- Recomendaciones para el uso normalizado y correcto del euskara. Estas recomendaciones se concretarán mediante cuatro informes anuales realizados bien a iniciativa de EUSKALTZAINDIA o bien a solicitud expresa del Servicio de Asesoría Lingüística de EiTB.

- Respuesta prioritaria a las solicitudes de consultas gramaticales o de vocabulario que se originen en la utilización diaria del euskera en los medios de comunicación de EiTB. Dichas respuestas se recopilarán semanalmente en el servicio JAGONET. Las cuestiones no reguladas se dirigirán al Comité correspondiente. Las preguntas y

tzun guztiak, hileroko txostenean bilduko dira.

- EiTBren hedabideentzat, bai euskaraz ari direnentzat –Euskal Telebista eta Euskadi Irratia–, bai gaztelaniaz ari direnentzat –EiTB 2, Radio Euskadi eta Radio Vitoria–, onomastikari buruzko aholkularitza ematea. Lehentasuna emango zaie kontsultei. Hileroko txostena prestatuko da, edo / eta erabaki gabeak Onomastika batzordera bidaliko dira

- EUSKALTZAINDIAko Zuzendaritzak EiTBko Zuzendaritza Nagusiarentzat urteroko txostena prestatuko du, EiTBko hedabideetan euskararen erabileraz izan diren zalantza, kezka eta irizpideak jasota.

- EiTBko Zuzendaritza Nagusiak eta EiTBko Hizkuntza Aholkularitzak beharrezko ikusiz gero, aipatu eremuetako gaietan trebakuntza, ikastaroak edo informazioa ematea.

- Eskatutako kontsulta eta zerbitzu guztiak formatu elektronikoan utziko ditu Euskaltzaindiak EiTBren esku.

- Bi zerbitzuon martxa egokirako, harreman eta erantzunkizun zuzeneko pertsonak, ordutegiak eta bitarteko teknikoak finkatzeko konpromisoa.

respuestas objeto de las consultas, se recopilarán en un informe mensual.

- Asesoría continua en el campo de la onomástica, topónimos, exotopónimos, nombres, etc, en los medios de comunicación del grupo EiTB: ETB1, Euskadi Irratia, EiTB2, Radio Euskadi y Radio Vitoria. Dichas consultas gozarán de prioridad. Asimismo, se publicará un informe mensual que recoja las cuestiones consultadas. Las cuestiones no reguladas se enviarán a la oficina de Onomástica.

- La Junta de Gobierno de EUSKALTZAINDIA realizará para la Dirección General de EiTB un informe anual en el que recopilará las consideraciones y recomendaciones que considere oportunas sobre el uso del idioma en los medios de comunicación de EiTB.

- En los casos en los que la Dirección General y la Asesoría Lingüística de EiTB lo consideren necesario, Euskaltzaindia ofertará formación, cursos o información relacionada con los campos mencionados.

- Las consultas y servicios solicitados a EUSKALTZAINDIA serán ofrecidos en formato electrónico.

- EUSKALTZAINDIA adquiere el compromiso de establecer personal con responsabilidad directa, horarios y medio técnicos para el correcto funcionamiento de los servicios mencionados en este acuerdo.

3. EiTBren BETEBEHARRAK


- EiTBk, EUSKALTZAINDIArekin batera, euskararen normalizazioa, sustapena eta erabilera zuzena bultzatuko ditu bere hedabideen bitartez.
- EiTBk 18.000 euro ordainduko dio urtero EUSKALTZAINDIAri, euskara sustatzeko eta bultzatzeko Akademiak emandako bitarteko eta zerbitzuengatik. EUSKALTZAINDIAk dagokion ordainagiria aurkeztu eta EiTBk 90 egunera kitatuko du esandako kopurua.

4. INDARRALDIA

Hitzarmen hau hiru urtean egongo da indarrean, 2003ko irailaren 1etik hasita, eta alderdi biek adostutako jardueren bitartez gauzatzen joango da.

5. EZBETETZEA

Alderdi bietako batek kontratu honetan zehazturiko eginbeharren bat ez betetzekotan, beste alderdiak ondo betetzea eskatzeko eskubidea du, edo kontratua deusezteko eskubidea.



EUSKALTZAINDIAren izenean,

Jean HARITSCHELHAR j.

3. OBLIGACIONES DE EiTB


- EiTB colaborará con EUSKALTZAINDIA en fomentar la normalización, promoción y buen uso de la Lengua Vasca a través de sus medios de comunicación.
- EiTB abonará a EUSKALTZAINDIA por los medios y servicios que ésta le preste en su labor de contribuir al fomento y promoción de la Lengua Vasca, la cantidad anual de 18.000 euros. Dicha cantidad será satisfecha por EiTB a EUSKALTZAINDIA a los 90 días de la presentación por ésta de la factura formal correspondiente.

4. VIGENCIA

El presente convenio estará vigente por un periodo de tres años a contar desde el 1 de septiembre de 2003 y se desarrollará mediante acciones concretas que las partes acuerden.

5. INCUMPLIMIENTO

En caso de incumplimiento por alguna de las partes de las obligaciones previstas en este documento, la otra parte podrá exigir el correcto cumplimiento o bien optar por resolver este acuerdo.



EiTBren eta horren sozietateen izenean,

Andoni ORTUZAR ARRUABARRENA j.

AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA / IRUÑEKO UDALA – – R.A.L.V. / EUSKALTZAINDIA

HITZARMENA/CONVENIO

2003

LANKIDETZA HITZARMENA, IRUÑEKO UDALAREN ETA EUSKALTZAINDIA-EUSKARAREN ERRET AKADEMIAREN ARTEAN

Iruñean, 2003ko azaroaren 18an ondokoak bildu dira: Kultura Zinegotzi Delegatua den Ignacio Pérez Cabañas, Iruñeko Udalaren izenean, eta Jean Haritschelhar jaun euskaltzainburua.

Horiek biek Lankidetza-hitzarmen hau sinatzeko behar bezainbateko eskumena eta gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri, betiere ordezkatzen dituzten erakundeen izenean, eta hitzartutakoa hobeki konprenitze aldera honako hau

ADIERAZI DUTE

Bi erakundeek, zeinak bere esparruan, interes bat eta bera dutela, euskara gorde eta sustatzeko, eta biek ala biek dituztela helburu gure hiriko biztanleek euskara gero eta estimu handiagoan izatea, euskara ezagutzen duten lagunak gero eta gehiago izatea eta euskararen erabilera sustatzea, hala hiztunen kopuruari nola hizkeraren kalitateari dagokienez.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA Y LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

En Pamplona, a 18 de noviembre de 2003, reunidos de una parte el Concejal Delegado de Cultura D. Ignacio Pérez Cabañas en representación del Ayuntamiento, de Pamplona, y de otra D. Jean Haritschelhar Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca.

Ambos se reconocen, respectivamente, competencia y capacidad para subscribir en nombre de sus respectivas instituciones el presente Convenio de cooperación, para cuya mayor comprensión

EXPONEN

Que las dos entidades, cada una en su ámbito respectivo, comparten un común interés en la preservación y promoción del vascuence, constituyendo un objetivo común para las dos a consecución de una estima cada vez mayor hacia el euskera por parte de los habitantes de nuestra ciudad, el aumento del numero de personas que lo conocen y la potenciación de su uso, tanto en lo que se refiere al número de hablantes como a la calidad lingüística del habla.

Horiek horrela, kontuan harturik bi erakundeek bat egiten dutela, hala helburuetan nola lan esparruetan, eta helburu horiek erdiesteko euskarak arreta berezia behar duela, derrigorrezkoa da aitortzea bi erakundeen arteko harreman errazak ezartzeko komenentzia, harreman horiek, betiere, elkarren. arteko begirunean eta lankidetzan oinarrituta.

Beste aldetik, abenduaren 15eko Euskarari buruzko 1986/18 Foru Legeak, 3.3 artikuluan, Euskaltzaindia izendatzen du erakunde aholkuemaile ofiziala, Foru Erkidegoan indarra edukitzekoak diren hizkuntz arauak ezartze aldera.

Horiek guztiak kontuan harturik, bi erakundeek Hitzarmen hau izenpetzea

Por todo ello, y teniendo en cuenta esta coincidencia de objetivos y de ámbitos de trabajo y dada la especial atención que necesita el vascuence a efectos de la consecución de estos objetivos, se impone reconocer la conveniencia de establecer una relación fluida entre las dos entidades, basada en el mutuo respeto y colaboración.

Por otra parte la Ley Foral 18/1986 de 15 de diciembre del vascuence, en su art. 3. 3.º designa a la Real Academia de la Lengua Vasca como institución consultiva oficial a los efectos del establecimiento de las normas lingüísticas aplicables en la Comunidad Foral.

Teniendo en cuenta todos estos razonamientos las dos entidades

ERABAKI DUTE,

ACUERDAN

Ondoko klausula hauekin bat erabaki ere:

Suscribir el presente Convenio con respecto a las siguientes cláusulas:

1. Euskaltzaindia Iruñeko Udalari aholku emateko zereginetan aritu ahalko da, euskararekin zerikusirik duten izkuntza aferetan bezainbatean.

1. La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia podrá ejercer labores de asesoramiento al Ayuntamiento de Pamplona en cuestiones de materia lingüística relativas al euskera.

2. Euskaltzaindiak hiritarrek eskaturiko argibideak eta aholkuak oro eskaintzen jarraituko du, hala bere zerbitzu orokorretan nola Iruñean kokaturik dagoen Nafarroako ordezkaritzan.

2. La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia seguirá facilitando, tanto desde sus servicios generales como desde la propia delegación de Navarra en Pamplona, la información y el asesoramiento requeridos por los ciudadanos.

Halaber, kultur hedapenerako jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar

Del mismo modo, impulsará actividades de difusión cultural, cursos,

bultzatuko ditu, eta horretarako behar diren erakunde eta elkarteekin arituko da, elkarlanean.

3. Iruñeko Udalak konpromisoa hartzen du hitzarmen honetarako 6.000 euro paratzeko, finantzazio gisara, eta kopura hori ordaintzen dio Euskaltzaindiari. Erakunde horrek, bere aldetik, konpromisoa hartzen du kopuru hori hitzarmen hau betetzen erabiltzeko, bai eta hitzarmen honen bitartez lortu nahi diren helburuak gauzatzen ere.

4. Euskaltzaindiak sustatzen dituen argitalpen, aldizkari edo edizio guztietatik bi ale emanen dizkio Iruñeko Udalari, betiere Hitzarmen honen esparruari dagozkion aferei buruzkoak baldin badira.

5. Hitzarmen honek 2003ko urtarrilaren 1 etik abenduaren 31ra bitartean izanen du indarra.

Eta hitzarmen honetan azaldutako guztiarekin bi erakurideak bat datozela adierazirik, Hitzarmen honen hiruna ale izenpetu dituzte ondokoek, arestian aipatu datan eta lekuan:

Euskaltzaindiaren izenean,

Iruñeko Udalaren izenean,

conferencias, etc. en colaboración con las entidades e instituciones correspondientes.

3. El Ayuntamiento de Pamplona se compromete a aportar a este convenio de colaboración la financiación de 6.000 euros, abonando a la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia esta cantidad, que se compromete a aplicar al cumplimiento de este convenio y a la consecución de los fines que con este convenio se pretenden.

4. La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia entregará al Ayuntamiento de Pamplona dos ejemplares de las publicaciones, revistas y diferentes ediciones que promueva la entidad y versen sobre temas incluidos en el ámbito del presente convenio.

5. El presente convenio tendrá vigencia desde el 1 de enero a 31 de diciembre del año 2003.

Y en prueba de conformidad con todo lo arriba expresado, firman el presente Convenio por triplicado ejemplar, en el lugar y fecha anteriormente señalados.

Por Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca,

Por el Ayuntamiento de Pamplona,

EUSKAL KOMUNITATE ZIENTIFIKOAREN DATU-BASEA
INGUMA

Euskaltzaindia eta Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) arteko lankidetza *hitzarmena.*

BILDUTA

Toki-egunak: Bilbon, 2003ko abenduaren 18an.

Alde batetik, Jean Haritschelhar jauna, euskaltzainburua.

Bestetik, Xabier Isasi Balanzategi jauna, –nortasun agiria: 14.927.649-M–, zeinek Udako Euskal Unibertsitatearen izenean eta hura ordeztuz baitihardu –IFZ: G 48218416; helbidea: Erribera kalea 14, 1-C, 48005 Bilbo, B/151/86 zenbakiaz Eusko Jaurlaritzako erroldan inskribaturik dagoena *1986ko 20az geroztik* eta halaber onura publikoko aitormena lortu zuena *280/1990 Dekretuaren* bidez–,

Udako Euskal Unibertsitatearen zuzendaria bere erakundearen izenean eta ordezkari, dagokion erakundeko organoak aitortzen dizkion ahalmenez baliatuz,

HONAKOA ADIERAZTEN DUTE

(PRINTZIPIOEN ADIERAZPENA)

LEHENA. Euskaltzaindiak eta UEUk elkarri aitortzen dizkiote beren izate administratiboa nahiz zientifikoa, indarrean dauden legeek ezartzen dituzten baldintzen arabera hitzarmen hau izenpetu eta aurrera eramateko

BIGARRENA. Euskaltzaindiak eta UEUk lankidetzan bultzatu eta garatu nahi dute, unibertsitate mailako jakintza-arlo bakoitzean euskararen normalizazio prozesua bultzatu eta garatzeko

HIRUGARRENA. Euskaltzaindiak eta UEUk, esandako xedeari jarraikiz, euskaraz ekoitzitako kultur produktuen erreferentzia erabilera publikoko datu-base batera ekartzea oso interesgarria dela deritzote

LAUGARRENA. Euskaltzaindiak eta UEUk adierazten dute, 2003. urtean zehar *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea (Inguma)* Euskaltzaindiaren produkzioaz hornitzea eta datu-base bera erakundean bertan zein gizarte-zabalean ezagutaraztea, komunitate euskaldunarentzat oso onuragarria dela.

ETA

HONAKO HAU HITZARTZEN DUTE:

Lankidetza esparru bat eratzea, Euskaltzaindiak euskaraz sortu, argitaratu eta zabaltzen duenaren oinarrizko informazioa *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basean (Inguma)* jartzeko.

Euskaltzaindia eta UEUren arteko lankidetzaren xedeak hauek dira: alde batetik, euskaraz ekoizten dena biltzea, sailkatzea eta ezagutaraztea, eta bestetik, euskaraz diharduten ikertzaile, sortzaile, eta oro har, emaile guztiak harremanetan jartzea, euskararen normalkuntza, eta bereziki, unibertsitate mailako jakintza-arlo bakoitzaren euskararen normalkuntza sustatzeko. Halaber, sinatzaileok *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea (Inguma)* unibertsitarioen curriculum-garapenerako lanabes interesgarria dela adostendute.

Horrela, legeriari eta Euskaltzaindiaren eskuduntzei jarraikiz ondokoa adierazten dute:

BALDINTZAK

Lehena.–*Datu-basearen horniketa*

Behean sinatzen duten erakundeek hitzarmen hau izenpetzen dute, Euskaltzaindiak euskaraz ekoizten duenaren oinarrizko informazioa erabilera publikoko datu-basean jartzeko.

Datu-basearen izena: *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea (Inguma).*

Euskaltzaindiak, *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea (Inguma)* osatzeko, euskaraz ekoitzitako ondoko osagaiak euskarri elektronikoan UEUren eskura jarriko ditu. Aipatu osagaiak besteak beste, honakoak dira:

- Euskaltzaindiak euskaraz argitaraturiko liburuei buruzko datuak (izenburua, argitalpen urtea, ISBN zenbakia, egilearen/-en izen-deiturak, eta azkenik, liburua itzulpena den ala ez).

- Euskaltzaindiak euskaraz argitaraturiko artikuluei buruzko datuak (aldizkariaren izena, artikuluaren izenburua, argitalpen urtea eta zenbakia, orrialdeak, egilearen/-en izen-deiturak).
- Euskaltzaindiak euskaraz emandako ikastaro/jardunaldi eta hitzaldiei buruzko datuak (ikastaro/hitzaldiaren izenburua, urtea, egilearen/-en izen-deiturak).
- Euskaltzaindiaren baitan euskaraz garatutako ikerketa-proiektuei buruzko datuak (izenburua, urtea, ikerleen izen-deiturak).

Bigarrena

Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basearen (Inguma) horniketa, datuen mekanizazioa eta datu-basearen kudeaketa Udako Euskal Unibertsitatearen ardura izango da. Euskaltzaindia *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basearen (Inguma)* web-gunean *Erakunde laguntzaileak* atalean agertuko da.

Hirugarrena

Hitzarmeneko eremuaren barruan, *Udako Euskal Unibertsitateak* honakoak betetzeko konpromisoak hartzen ditu,

- Euskaltzaindiak UEUren eskura jarritako datuak adierazitako epean *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basean (Inguma)* jartzea.
- Euskaltzaindiaren ordezkariarekin, edo berak izendatutakoekin, *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basearen (Inguma)* ezagutza plana adostea, aurkezpen ekitaldiak antolatzea eta beraietan parte hartzea.

Laugarrena

Euskaltzaindiaren ordezkariak, edo berak izendatutakoak, UEUren lanak errazteko eta jarraitzeko ardura hartuko du/dute. Era berean Euskaltzaindiak, honako konpromisoak hartzen ditu:

- UEUri datuak eskura jartzea eta eskuratzeko lanak erraztea.
- UEUrekin *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basearen (Inguma)* ezagutaraztea eta hedapen plana adostea.
- *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Baserako (Inguma)* behar diren bitarteko eta baliabideak, adostutakoaren arabera, UEUren esku jartzea.

Bosgarrena.–*Finantzaketa*

UEUk *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basearen (Inguma)* kudeaketarako behar besteko baliabideak bilatu eta jarri egingo ditu.

Euskaltzaindiak, bere aldetik, datuak eskuragarri jartzeko eta hedapen planean sortzen diren gastuak bere gain hartuko ditu.

Seigarrena.–*Sustapena*

Euskaltzaindiak *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea (Inguma)* erabilera publikoko datu-base interesgarria izendatzen du eta horrela jakinaraziko dio euskal komunitate zientifikoko kideei. *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basearen (Inguma)* hedapen plana, Euskaltzaindia eta UEUren artean adostua izango da. Era berean, hedapenerako behar diren azpiegiturak eta baliabideak Euskaltzaindia eta UEUren artean partitu eta adostuak izango dira.

Zazpigarrena

Hitzarmen hau 2004ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean eta, bi aldeek hala iriztekotan, hurrengo bost urteetan indarrean iraungo du.

Zortzigarrena

Itun hau sinatzen duten unibertsitateak eta erakundeak hitzarmena kontrolatu eta zaintzeko koordinazio prozedura adosten dute, biak aske direla itundutakoaren arabera. Edozein modutan, biek dute ordezkaritza hitzartutakoari jarraitzeko:

Euskaltzaindiaren ordezkariak dira:

– Euskaltzainburua: Jean Haritschelhar


UEUren ordezkariak dira:

– UEUren zuzendaria: Xabier Isasi Balanzategi

Halaxe hitzartu da, goian esandako leku eta egunean.


Sinadurak:

Euskaltzaindiaren izenean



Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

UEUren izenean



Xabier Isasi Balanzategi,
UEUren zuzendaria

BERRIAK

'LIBER 2003'-ri BURUZKO TXOSTENA

Bilbo, egoitza, 2003-X-08

Ricardo Badiola Uriarte,
argitalpen eragilea

Jon Artza Bikandi,
banaketa zerbitzuburua

Liber 2003, Feria del Libro Iberoamericano, Madrilen egin da, urriaren 1etik 4ra, Juan Carlos I erabilera anitzeko Erakustazokan. Ordutegia, goizeko hamarretatik arratsaldeko zazpiak arte izan da eta jarraiko babesleak izan ditu: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, liburu, artxibo eta biblioteka Zuzendaritza; Kanpo merkataritzarako Espainiar Institutua; Madrileko Autonomia Erkidegoa, Arte Kontseilaritza; Madrileko Udala; CEDRO eta Madrileko Editoreen Elkartea.

Euskaltzaindiko argitalpen zerbitzu eremua bertan izan da, estatu eta herrialde desberdinetako beste seiehun eta piku argitaletxerekin batera: Madril (Ministerioa, *Boletín Oficial del Estado....* eta abar), Andaluzia, Kanariar Irlak, Katalunya, Castilla-León, Euskal Herria, Extremadura, Galizia (Xunta), Aragoia, Israel, Grezia,... editorial partikularrak ere izan dira: Anaya, SM, Desclée de Brouwer, Edelvives, EDEBE, ECU, Giltza,... Gonbidaturiko Estatuak: Eslobakia, Txipre, Estonia, Hungaria, Letonia, Malta eta Polonia. (Hurrengo urtean Europar Batasunean integratuko direnetatik, gehienak.)

* * *

LIBER 2003 ondoren, urriaren 7tik 12 bitartean, Frankfurt am Main hirian egiten ari da liburu azoka erraldoia. Azoka bion gertutasuna- denbora aldetik- aprobetxatuz, batez ere Hegoameriketako argitaletxeek, leku biotan izateko, behin, bidaiaturik aprobetxatzen dute.

* * *

Euskaltzaindiak, *Institut d'Estudis Catalans-ekin* eta *Consello da Cultura Galega-rekin* (Real Academia Galegaren ekoizpena oso urria baita) parte-hartu du. Standaren titularra Euskaltzaindia izan da eta besteak, ordea, «co-espositor» gisa aritu dira. Koordinazio eta administrazio lan guztia Euskaltzaindiko ordezkariek egin dute, besteek dirua jartzera mugatuz. Erakunde bi hauekin joateko arrazoi nagusiak, honako hauek izan dira:

- Alde batetik, hiru akademiok, batera, gure lan eta fruituen berri eskaini nahi genion azokara zetorkeen orori; hots, erakundeen lanen zabalkundea erakutsirik.
- Bestalde oso aukera bikaina iruditu zaigu, jarduera antzekoan gabiltzan erakundeok elkarren berri izateko eta elkarrengandik zerbait ikasteko eta dakiguna hobetzeko.
- Eta, zalantzarik gabe, hirurok batera joanik, merkeago irteten zaigulako.

* * *

Euskaltzaindiak 1.585 euro ordaindu du stand-a alokatu eta zerbitzuak kontratatzeagatik. Noski, ordainketa hiru erakundeen artean egin da. *Institut*-eko ordezkaria, Manuel Pascual, egun bitan izan da azokan. *Consello*-ko langile edo ordezkaririk agertu ere ez da egin. Euskaltzaindia ordea, irailaren 30tik urriaren 4arte izan da bertan. Jakina, stand-a hornitze eta batze lanak ere Euskaltzaindiko ordezkariek egin behar izan dute.

Euskaltzaindiko ordezkarien ustez, aurrikusitako helburuak egoki, agian, uste baino hobeto bete dira. Instituzioaren lanen zabalkundea, oso aproposa izan da eta gure arteko harremanak ere, sendotu dira. Akats bakarra Consello-koak ez direla etorri eta ezin izan dugu beraien lana ezagutu. Institut-eko ordezkariarekin, ordea, harremana hestu eta onuragarria izan da, eta egun ditugun proiektu eta erronken berri eman ostean, etorkizunean, gure arteko elkarlana sendotzeko konpromezua hartu dute.. Horrela gauzak, Man(u)elek hurrengo urteari begira, hainbat proiektutan parte-hartzeko gonbitea luzatu dio Euskaltzaindiari.

Euskaltzaindiak bere editorial fondotik jarraikook erakusgai izan ditu, alegia:: *Euskera* agerkaria, ARAUAK, Iker bildumatik: azken bi edo hiru liburuki; Hiztegietatik: R.M. Azkuerena, *Hitz-elkarketa, Voces alavesas, Orotariko Euskal Hiztegia,* Gramatikak, Hizkuntza Atlasaren *Antologia*, Izendegiak, Onomasticon Vasconiae bildumatik laupabost, Literatura bildumatik: B. Etxepare, Axular, A. De Poza, Ubillos, I. Leizarrga, R.M.Azkue: *Cancionero Popular Vasco*, J.B. Gamiz Ruiz de Oteo, Antoine d' Abbadie; Literatura sariketakoak: (Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindiaren artekoak); Euskararen Lekukoak bildumako azken-azkenak; Jagon bildumakoak; Katalogoak: *Argitalpenen Katalogoa* (kutxa bi edo ehun bat ale banatu dira stand-era hurbildu diren bisitarien artean); argitalpen solteak: *Euskararen Liburu Zuria, Hitz egin* metodoaren irakurgai zenbaitzuk, Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar* (haueta-tik azken bi edo hiru), Madrileko Ministerioak argitaraturiko *Euskaltzaindia* liburukia eta beste zenbaitzuk

* * *

Bestalde, Stand-aren inguruan Erakundeak kaleraturiko argitalpenen harpidetza-orriak, *Katalogoak*, Informatikari-teknikariak diseinaturiko posterrak eta abar izan dira ikus eta eskuragai.

Arlo komertziala dela eta, zera azaldu, azoka hau ez dela komertzialegia. Durangokoan, adibide bat jartzearren, saltzaile-erosle harremana da nagusi eta horretaz aparte kultur eskaintza ugari izaten da haren inguruan. Nolabait esateko, Durangokoa kul-

turalagoa dela, esan daiteke. LIBER, ordea, profesional-profesionala da. Arloko sektore desberdinak: banatzaileak, argitaletxeak, fotokonposizio etxeak, inprimategiak, liburudendak, e. a. batu eta elkarlanean aritzea da helburua. Ideia bat izateko: Durangoko Azokako profesional eguna, baina askoz dimentsio handiagokoa, alegia, demagun bost bider handiagoa.

Eta, salmentei dagokienez esan, argitaletxe gehienek ez dituztela bertan argitalpenak saltzen Stand-etan. Eta azokan dituzten langileak, azokarako soilik hitzartuak/ kontratatuak dira eta, gehienek, ez dute produkzioaren berri, beraien helburua promozionatzea baita. Argitaletxe txikiagoak bai saltzen dute. Euskaltzaindiak liburu banaka batzuk baino ez ditu saldu: *Euskal izendegia* ale bi eta *Haizearen hegaletan* ale bat. Euskaltzaindiaren lanaren zabalkundea egin asmoz, ehun bat *Argitalpenen Katalogoa* banatu dira, berau Bilbao Bizkaia Kutxak finantziatua, beti ere interesa agertu dutenen artean eta herri-aginte eta argitaletxeetako arduradunen artean eta baita fotokonposizio eta inprimategi zenbaitzuren artean ere.

Euskaltzaindiko stand-era hainbat jendek jo du argibideen bila: Arauak, Pertsonaizenak, Toponimia eta abarri buruzko itaunak eginez; euskara ikasteko metodoez galdezka; euskal gramatikako aditzaz, hiztegigintzaz, sariketei buruz, euskal entziklopediez, euskararen jatorriaz, bibliografiaz... eta abar luze batez galderak eta proposamenak eginik. Eta hurbildurikoen artean aipatzekoak dira: Israelgo Enbaxadore-ordezkoa eta hebraieratik gaztelania eta ingelesera testu itzultzaile burua, Letoniako olerkari ospetsu bat, Poloniako stand-ekoak, Asturiaskoak, Andaluziakoak, Aragoikoak, *El Correo Español, El Mundo, El País*... egunkarietakoak.

Argitalpenei dagokienez, esan, nagusiki *Haizearen hegaletan* argitalpenari buruz agertu dutela jakinmina. Hurrengo egunotan, argitalpen honen zabalkunde zabalagoa egin asmoz, zenbait hartu-eman izan ditugu. Horretaz gain, eta Azokan Euskal Herriko stand gutxi zeudelako edo, jendea Euskaltzaindiko standera hurbiltzen zen, hizkuntza eta hizkuntzaz landa, beste hainbat gauzari buruz itaunak eginik.

* * *

Bestalde, bai preinpresio edo fotokonposizio saileko eta bai inprimategietako eskaintzak egitera hainbat merkatal etxek jo dute Euskaltzaindiko stand-era.

Eta elkarkidetza edo kolaborazio eremuan aipatzekoa da *El Correo* egunkari-taldeko merkatal sailak Euskal Autonomia Erkidegoko entziklopedia egin-sortu-eguneratu eta haiek egunkariarekin batera banatzeko eskaintza ere egin zutela gaineko egun batez Erakundera joko dutelarik aginduz.

Aste honetan zehar –urriak 6-8–, Azokaren lehenengo emaitzak jaso dira, Madrilen izandako bisitari bik eskariak egin dizkigutelarik. Horrekin batera, *Institut*-eko ordezkariarekin harremanetan eta elkarlanean jarraitzen dugu, beti ere gure eguneroko jarduna hobetu asmoz.

* * *

Balorazio orokor bat egiterako orduan, esan, LIBER 2003 Azoka, benetan interesgarria iruditu zaigula. Azpiegitura aldetik oso ongi antolatua: dena txukun, argi eta garbi, standak ikaragarri bikain-erakargarriak, baliabide guztiak eskura, e. a. Hortaz

aparte topaleku bikaina iruditzen zaigu eta liburu munduan gabiltzanontzako, ikasteko aukera aparta. Beraz, hurrengo urtean, eta jakina ahal izanez gero, uste dugu komenigarria izango litzatekeela bertan izatea. Gainera, datorren urtean –2004an– LIBER 2004 Bartzelonan izanik, *Institut*eko langileak, bere burua eskaini du, Euskaltzaindiak aurten egin duen bezala, antolamenduaren pisua eramateko. Euskaltzaindiak diru kopuru bat ordaintzeaz aparte, bere langileak, bertan, egun bat edo beste izatea aski litzateke.

* * *

Eta ostiral iluntzean, urriak 3, Euskaltzaindiko ordezkariek, Pedro Yrizar, euskaltzain ohorezkoa bisitatzera jo dute San Camilo eritetxera, arnasa estua dela eta han baitzen gure Pedro. Euskaltzain ohorezkoak nahiz eta eri edo makal samar aurkitu Instituziarekiko itaun mordoxka egin zien Erakundeari buruz, euskaltzain oso, ohorezko, urgazle... eta baita Euskaltzainburugoari buruz ere. Eta jakina galdetu zuen, nola ez, orain arte argitaraturiko liburuez aparte, *Morfología del verbo auxiliar* delakoaren *Índice / Aurkibidea* ea zertan den, zeren berak duela zortzi hilabete inguru originala eman baitzuen... Eta, Haren gogoa, euskal aditzarekiko ikerketa testu horiekin bukatu nahi baitu, daukan adina –93 urte– kontuan izanik. Ordezkarien erantzuna: Arabako Aldundi/Diputazioko Kultura Sailean, Bizkaiko eta Gipuzkoako kutxetan eta Iparraldeko instituzioetan diru-babesaren bila ari dela Euskaltzaindia, baina, oraingoz, Argitalpen Batzordeak onartua duen arren, babes ekonomikorikik ez dela eskuratu.

* * *

Oharra: Euskaltzaindiko ordezkariek Instituzioaren auto-furgonetan egin dituzte Madrileko joan-etorri eta Liber 2003 delakoaren inguruko bidaiak.

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA: LITERATURA SARIAK

R. M. AZKUE LITERATUR SARIAK ABIAN

Bilbo, egoitza, 2003-XI-13

Amaia Okariz,
Euskaltzaindiko prentsa-arduraduna

- 11 eta 18 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduriko deialdia da
- *Narrazioak eta olerkiak 2002* liburua argitaratu da

Gaur, osteguna, azaroaren 13an, *Resurreccion Maria Azkue* Literatura sarien edizio berriaren oinarriak aurkeztu dira. Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak Literatura mundura erakartzeko asmoz sortuak baitira.

Jakina denez, sariek bi lan mota onartzen dituzte euren baitan, *narrazioa* eta *olerkia*, alegia. Adinari begira, bi maila dira: A maila, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 15 eta 18 urte bitartekoentzat.

Lanak aurkezteko epea, 2003ko abenduaren 16an amaituko da. Helbide honetara bidali beharko dira: BBK Kultur Gela. Elkano, 20. 48008 Bilbo.

Narrazioak eta Olerkiak 2002 liburua

Gaurko ekitaldian, *Narrazioak eta Olerkiak 2002* izeneko liburua ere aurkeztu da. 2002ko *Azkue* sarietan irabazle izandako narrazioak eta olerkiak batzen dira liburu honetan.

* * *

Hona hemen zerrenda:

A MAILA:

Narrazio alorrean

Lehen Saria: «Bi ahizpak». Egilea: Maiatza Louessard. Beskoitze (Lapurdi). Kanboko Xalbador Kolegioko ikaslea da. Laguntzaile: Pruden Sudupe Azkune.

Bigarren Saria: «Arnasa sakona». Egilea: Estibaliz Olibares Etxebarria. Zeanuri (Bizkaia). Arratia BHI-ko ikaslea. Laguntzaile: Jabier Olibares Etxebarria.

Hirugarren saria: «Egoera larri bat». Egilea: Aiora Yurrebaso Zarate. Igorre (Bizkaia). Arratia BHI-ko ikaslea.

* * *

Olerki alorrean

Lehen Saria: «Larrañe». Egilea: Nahiara Saralegi Goena. Baiona (Lapurdi). Kanboko Xalbador Ikastegiko ikaslea. Laguntzaile: Pruden Sudupe Azkune.

Bigarren saria: «Amodioa». Egilea: Uxue Buñuales Ugalde. Barañain (Nafarroa). San Fermin Ikastolako ikaslea. Laguntzaile: Jose Manuel Aleman Astiz.

Hirugarren saria: «Zertarako bizi?». Egilea: Asier Moreno Saldise. Iruñea (Nafarroa). San Fermin Ikastolako ikaslea. Laguntzaile: Jose Manuel Aleman Astiz.

* * *

B MAILA:

Narrazio alorrean

Lehen Saria: «Aberri arrotza». Egilea: Dioni Aguerre. Bidarrai (Nafarroa Beherea). Baionako Bernat Etxepare Lizeoko ikaslea. Laguntzaile: Jasone Salaberria Fuldain.

Bigarren Saria: «Sorterrira bueltan». Egilea: Lourdes Elizegi Urrutia. Elizondo (Nafarroa). Lekaroz-Elizondo BHI-ko ikaslea.

Hirugarren Saria: «Norabait». Egilea: Ekiñe Aristizabal Tolosa. Oiartzun (Gipuzkoa). Oiartzungo Haurtzaro Ikastolako ikaslea. Laguntzaile: Kontxi Begiristain San Sebastian.

Maila honetan, epaimahaikoak ondoko lana argitaratzeko gomendioa eman zuen eta hala egin da:

- «Desio gozo-gaziak». Egilea: Aintzane Usandizaga Lopez. Lasarte-Oria (Gipuzkoa). Landaberri BHI-ko ikaslea. Laguntzaile: Loren Loidi.

* * *

Olerki alorrean

Lehen Saria: «Arrotza». Egilea: Amaia Jauregizar Ormaetxea. Gernika (Bizkaia). Gernikako Aixerrotape Ikastexeko ikaslea. Laguntzaile: Onintza Enbeita Maguregi.

Bigarren Saria: «Zu ikustean». Egilea: Iskander Barrena Zubiaur. Larrabetzu (Bizkaia). Derioko Txorierri Institutuko ikaslea. Laguntzaile: Juan Luis Goikoetxea Arrieta.

Hirugarren Saria: «Elkarrekin bai, lortuko dugu». Egilea: Ion Muñoa Errasti. Zerain (Gipuzkoa). Txindoki Alkartasuna Ikastexekoa ikaslea. Laguntzaile: Josu Agirre Bikuña.

Epaimahaiko kideek hala eskatuta, ondoko lana argitaratua izan da:

- «Itsasoaren ilun». Egilea: Itxaso Munarriz Aramendi. Idiazabal (Gipuzkoa). Beasaingo Linazpe BHI-ko ikaslea. Laguntzaile: Begoña Yarza.

* * *

Epaimahaikoak

Urtero bezala, Literatura eremuko pertsona adituek osatu zituzten epaimahaiak, beti ere Euskaltzaindiak izendatuta. 2002. urtean, hauek izan ziren:

A mailan: Igone Etxebarria Zamalloa, Manu Lopez Gaseni eta Amagoia Lopez de Larruzea Zarate.

B mailan: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Kirmen Uribe.

YA ESTÁ EN MARCHA LA NUEVA EDICIÓN DE LOS PREMIOS LITERARIOS R. M. AZKUE

Bilbao, Sede de la R.A.L.V. / Euskaltzaindia, 13-XI-2003

Amaia Okariz, encargada del Servicio de Prensa

- El certamen está dirigido a jóvenes de entre 11 y 18 años
- Publicado el libro *Narrazioak eta olerkiak 2002*

Hoy, jueves, 13 de noviembre, se han hecho públicas las bases de la nueva edición de los premios del Concurso Literario *Resurrección María Azkue*. Estos premios fueron creados por la propia Academia de la Lengua Vasca y por la Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa para fomentar la creación literaria entre los más jóvenes.

Los premios *Azkue* están divididos en dos categorías: categoría A, para los jóvenes de edades comprendidas entre los 11 y los 14 años; y categoría B, para los que tienen entre 18 y 15 años. En cada categoría se admiten dos géneros literarios, *narración* y *poesía.*

El plazo para la entrega de trabajos finalizará el próximo 16 de diciembre. La dirección a la que han de remitirse es BBK Kultur Gela. Elkano, 20. 48008 Bilbao.

Publicación de *Narrazioak eta Olerkiak 2002*

Asimismo, en el acto celebrado hoy se ha presentado el libro *Narrazioak eta Olerkiak 2002,* que recoge los trabajos premiados en la edición de 2002.

* * *

Ésta es la lista completa:

CATEGORÍA A:

Narración

Primer Premio: «Bi ahizpak». Autora: Maiatza Louessard. Beskoitze (Lapurdi). Estudiante del Colegio Xalbador de Kanbo. Ayudante: Pruden Sudupe.

Segundo Premio: «Arnasa sakona». Autora: Estibaliz Olibares Etxebarria. Zeanuri (Bizkaia). Estudiante de DHI de Arratia. Ayudante: Jabier Olibares Etxebarria

Tercer Premio: «Egoera larri bat». Autora: Aiora Yurrebaso Zarate. Igorre (Bizkaia). Estudiante de BHI de Arratia.

Poesía

Primer Premio: «Larrañe». Autora: Nahiara Saralegi Goena. Baiona (Lapurdi). Estudiante del Colegio Xalbador de Kanbo. Ayudante: Pruden Sudupe Azkune.

Segundo Premio: «Amodioa». Autora: Uxue Buñuales Ugalde. Barañain (Nafarroa). Estudiante de la ikastola San Fermin. Ayudante: Jose Manuel Aleman Astiz.

Tercer Premio: «Zertarako bizi». Autor: Asier Moreno Saldise. Iruñea (Nafarroa). Estudiante de la ikastola San Fermin. Ayudante: Jose Manuel Aleman Astiz.

* * *

CATEGORÍA B:

Narración

Primer Premio: «Aberri arrotza». Autor: Dioni Aguerre. Bidarrai (Baja Navarra). Estudiante del Liceo Bernat Etxepare de Baiona. Ayudante: Jasone Salaberria Fuldain.

Segundo Premio: «Sorterrira bueltan». Autora: Lourdes Elizegi Urrutia. Elizondo (Nafarroa). Estudiante de BHI Lekaroz-Elizondo.

Tercer Premio: «Norabait». Autora: Ekiñe Aristizabal Tolosa. Oiartzun (Gipuzkoa). Estudiante de la ikastola Haurtzaro de Oiartzun. Ayudante: Kontxi Begiristain San Sebastian.

Asimismo, el Jurado recomendó la publicación de la siguiente obra:

- «Desio gozo-gaziak». Autora: Aintzane Usandizaga Lopez. Lasarte-Oria (Gipuzkoa). Estudiante de BHI de Landaberri. Ayudante: Loren Loidi.

* * *

Poesía

Primer premio: «Arrotza». Autora: Amaia Jauregizar Ormaetxea. Gernika (Bizkaia). Estudiante del centro Aixerrotape de Gernika. Ayudante: Onintza Enbeita Maguregi.

Segundo premio: «Zu ikustean». Autor: Iskander Barrena Zubiaur. Larrabetzu (Bizkaia). Estudiante del instituto Txorierri de Derio. Ayudante: Juan Luis Goikoetxea Arrieta.

Tercer premio: «Elkarrekin bai, lortuko dugu». Autor: Ion Muñoa Errasti. Zerain (Gipuzkoa). Estudiante del centro Txindoki Alkartasuna. Ayudante: Josu Agirre Bikuña.

También en esta ocasión el Jurado recomendó la publicación de:

- «Itsasoaren ilun». Autora: Itxaso Munarriz Aramendi. Idiazabal (Gipuzkoa). Instituto Linazpe de Beasain. Ayudante: Begoña Yarza.

* * *

Jurados:

Los respectivos jurados estuvieron compuestos por:

Categoría A: Igone Etxebarria Zamalloa, Manu Lopez Gaseni y Amagoia Lopez de Larruzea Zarate.

Categoría B: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta y Kirmen Uribe.

AZKUE SARIKETAK

Bilbo, egoitza, 2003-XI-13

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Jaun Andereak, egun on.

Ene lehenbiziko hitzak eskerren bihurtzeko izanen dira: bai, eskerrak zuri Joserra Bilbao jauna, aspaldi honetan lanean ari garelakotz elgarrekin, eta zure bitartez BBK aurrezki kutxari, betetzen dituela bere eginbide guziak, dirua eskainiz, liburuak publikatuz. Hain zuzen egun aurkezten dugu liburutxo bat oso polita iaz sarituak izan diren obren bilduma izan dadin olerkietan edo hitz lauzetan. Zorionak eskaintzen dizkiet saridunei. Jakin ezazue pozik ikusten duela Euskaltzaindiak egin dituzuen lanak. Pentsatzen dut zuek ere pozik ikusten dituzuela agertu den liburu batean zuen izen deiturak eta idatzi duzuena. Jakin ezazue zuek baino urte parrasta bat gehiago nuela ikusi nituelarik lehen aldikotz liburu batean idatzirik ene izen deiturak. Zuek gazterik hasi zarete, segi ezazue, otoi, euskaldun idazleen zerrendan sartzeko bihar edo etzi.

Eta orain emaiten diot hitza Xabier Kaltzakorta jaunari, berak paratu baitu artoski liburu hau.

SARIKETAK (*)

Bilbo, 2003-XI-13

Xabier Kaltzakorta

Berriro ere egun on eta eskerrak etortzeagatik kazetari, saritu, euskaltzain eta guztioi.

Sariketa hau, beste sariketa asko bezala, uste dut, kate bat dela eta kate horrek baditu hainbat katenbegi, hainbat «ou edo obo», eta nolabaiteko forma badauka kate horrek biribilaren forma dauka. Hasieran, katearen lehen katenbegian, urtero-urtero, Azkue sariketa deialdia egiten da, deialdia hemen bertan egiten da eta behin deialdia egin ondoren, arau batzuk jartzen dira eta arauetan eskatzen dena da idazlanak egitea, zein hitz lauz, zein bertsotan edo neurtitzetan. Nik uste dut behin deialdia egin ondorengo bigarren katenbegia izan ohi dela, bai hedabideak eta baita eskola, institutu, lizeo, ikastoletan, mugalde bietako ikastola eta ikastetxeetan ari diren irakasleek egiten dute deialdia, gela bakoitzean eta nik uste dut literatura irakasleek, batez ere, idazteko sena dutenek, sustatu edo pixka bat bultzatu egiten dituztela idazlanak egitera. Behin hori egin ondoren, zaletasuna daukanak bere onena jartzen ahalegintzen da eta hor bakoitzak egiten du edo ontzen du edo ehuntzen du idazlan bat. Behin idazlana ondu ondoren, egin ondoren, gure epaimahaiko edo idazlan neurtzaile edo zeregin horretan ibili garenok, ibili ohi gara denak irakurtzen, behin eta berriro aztertzen eta gure ustez, mailarik onena edo beteena edo erpinena duena, gailentzen. Behin hori egin ondoren, eta erabakiak hartu ondoren, eta geure erabakien berri eman ondoren, sarituak etorri ohi dira hona eta sarituek hemen saria hartzen dute eta sarituen poza, saria hartzean ez da bakarrik gelditzen hona etorri eta sari hori eskuratzean, oraindik kateak aurrera egiten du eta hurrengo katenbegia izan ohi da saritutako lan hori liburu batera ekartzea eta behin hori egin ondoren, azken katenbegia edo dela uste dut eta berriro kate berria abioan hasten da eta hurrengo urteko sariketako berriak eta arauak eta ematen dira.

Eta hori da gaurko gure eginkizuna, behin saritu guztiak, eta nahiz eta saririk ez jaso, accesita izan dutenak, liburu batera ekartzea eta moldezko letren duintasuna ematea eta moldeko letren duintasuna egiten da liburua argitaratuz, batetik; bestetik, ahalik eta ondoen argitaratuz. Eta hau da horren adibidea, gure Euskaltzainburuak esan duen bezala, liburu polita da, argitalpen itxurosoa da eta argitalpen horretan ahalegintzen gara eta ahalegintzen dira, ahalik eta ondoen ematen eta azalak, esate baterako, barrukoarekin zer ikusia izaten, esate baterako, liburu honetan agertzen da neskato bat, neska koskondu bat eta neska koskondu horren atzean agertzen da Estambuleko edo garai bateko Kostantinoplako meskita zuriaren ertzak, bere miranete eta guzti eta hori

(*) Ahozko berbak jasotzen dira hemen.

da hain zuzen saritutako lanak, hau da, bidarraitar baten lanak, kontakizun luze batean Turkiako Estambuleko hiria dakarrelako bere narrazioan. Eta behin horretara, hemen amaitzen da gure kate honen katenbegia eta era horretara liburu honetan agertzen dira, hain zuzen, sari honetako protagonistak eta sari honetako protagonistak dira sarituak eta parte hartzen duten guztiak, gainerakoak laguntzaileak gara, bai liburu argitaratzaileak, zein sariketa antolatzaileak eta abar. Eta hori da sari hau eta hori da nik hitz laburretan esan gura nuena.

AZKUE LITERATUR SARIAK:
2002eko liburua eta 2003ko oinarriak

2003/XI/13

Joserra Bilbao,
Bilbao Bizkaia Kutxaren elebitasun zerbitzuko burua

Egun on, mahaikide zarien Jean Haritschelhar euskaltzainburua, Xabier Kintana, idazkaria eta Xabier Kaltzakorta jauna, epaimahaikide eta liburuaren prestatzailea.

Egunon baita be, euskaltzain eta beste lagun guztioi.

Eta egunon beren-beregi kazetarioi, zuek ezinbestekoak zarielako prozesu honetan, sariei ospea eta horreen ganeko informazinoa emoterakoan.

Eskerrik asko.

Euskaltzainburuak eskerrak emon deutsoz BBKri. Ba, nik eskerrak Euskaltzaindiari itzultzen deutsodaz BBKren izenean, sarioi babesa eta izen ona emoteagaitik.

Informazino moduan eta banatu doguzan oinarrietan ikusten dozuenez, Azkue literatur sarietan azpimarratzekoak dira partehartzaileen adina, literatur arloak, diru-sariak eta epeak.

Adinari jagokonez, maila bi dagoz, bata 10-13 urte bitartekoena eta 14--17 urte bitartekoena bestea eta bi dira literatur arloak be, narrazinoa eta olerkia. Diru-sariak 3 dira arlo bakotxean, 300, 240 eta 180 eurokoak, hurrenez hurren. Aipatu beharrekoa da baita be, idazleen laguntzaileek be euren saritxua daukiela, 60 eurokoa.

Idazlanak aurkezteko epea, abenduaren 16an amaitzen da. Egia esan gaurtik hilabete eta hiru egunetara. Baina ez arduratu, ikastetxeetara informazinoa sasoiz heldu-ko dalako, urtero legez. Epaimahairen erabakia, hilabete bi beranduago jakinarazoko da, datorren urteko zezeila edo otsailaren 28rako beranduenez.

Idazle gazteei ohar bi: bata, lanak makinaz edo inprimagailuz idatzirik etorri behar dirala, eta bigarrena, saritu bako lanak desegin ala apurtu egingo dirala. Hagaitik, jatorrizkoa gordetzea komeni da, norberaren gobernurako.

Ekitaldi honetan, igazko sariketako lanakaz egindako liburua be aurkeztu dogu. Liburua antolatzen eta prestatzen, Xabier Kaltzakorta irakasleak jardun dau. Eskerrak berari be, gazteakaz hain eskuzabal jokatzearren.

Azkenik, idazle gazteei gogoratu zelan igaz, egunotan, Unai Elorriagak Espainiako Narratiba Sari Nazionala eskuratu ebala, gazterik, 29 urtegaz baino ez. Hagaitik, animoak idazle gazteok, eta ispilu horretan zeuon burua ikusita, literaturari lotuta jarraitu.

Beste barik, eskerrik asko etorri zarien guztioi.

AZKUE SARIKETAK: Azken hitzak

Bilbo, egoitza, 2003/XI/13

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Bukatzera goaz. Kazetarien artean ba ote da galderarik egiteko? Hemen gaude zuei erantzuteko.

Ez baita galderarik izan, berriz ere agertu nahi dut ene poza BBK-rekin egiten dugun lanaren gatik. Egun aurkezten dugu Azkue sarien liburua. Hemendik hilabete baten buruan, abenduaren 12an hain zuzen, jakinen dugu zein diren irabazleak, narrazioan, olerkian, antzerkian, saiakeran. Egun ederrak Euskaltzaindiarentzat eta BBK-rentzat sarien eskaintzea.

Berriz ere doatzila ene eskerrik beroenak: BBK-ari eman dizkiot hasieran; orain eskaintzen dizkiet kazetari guztiei errepikatuz beti ongi etorriak direla gure egoitza honetan. Eskerrak milaka ere haur eta gazte horiek sustatzen dituzten irakasle guztiei eta azkenik, nola ahantz jende horiek, epaimahaikoei haien artean, bereziki Xabier Kaltzakorta jauna hain ederki paratu duelakotz egun aurkeztu dugun idazle gazteen liburua.

EUSKALTZAINDIAREN XV. BILTZARRA:
AGIRIAK: BAIONA, 2001

Baiona, 2003-XI-25

EUSKALTZAINDIAREN XV. BILTZARRA
Baiona, 2001.
IKER 14 liburukien auzkezpena

Baiona, 2003-XI-25

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Jaun-Andereak egun on.

Duela bi urte, bai Bilbon eta bai Baionan ospatu zen Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra, gogoan atxikitzen zirela Bilboko hiru egunetan Resurreccion Maria de Azkue eta Julio de Urkijo, gure Akademiak ukan dituen bi ikerle haundi eta Baionako bi egunetan Pierre Lafitte gramatikalari eta idazle famatua.

Egun, hemen Kontseilu Orokorreko areto nagusi honetan (eskerrak bihurtzen dizkiodala Elichondeborde andereari haren baimenari esker hemen baigaude) aurkezten ditugu Baionako bi egunen emaitzak.

Oroit dezadan lehen aldikotz Euskaltzaindiko kongresu batean sailkatu zirela aztertzen ziren bi gaiak, bi gelatan bilduz ikerleak, gramatikalariak gela batean, literaturazaleak bertze batean. Hala egin zen eta hala agertzen da Iker 14 honek bi liburukitan azaltzen duela bi taldeen emaitzak.

Iker 14 (I)-ak biltzen ditu 21 gramatika lan eta Iker 14 (II) delakoak 16 lan literatura gaiak aztertuz. Orotara beraz 37 ikerlan, gramatikan bat ingelesez idatzia, literaturan bat gaztelaniaz, bertze 35 guztiak euskaraz. Ez da harritzekoa jakinik nola hedatu diren ikerketak euskaldunen artean unibertsitateei esker azken mende laurden honetan. Euskarak bere tokia hartu du eta lehentasuna lortu goimaileko ikerlanetan, seinale ona gerorako.

Ene eskerrik beroenak har bitzate J.M. Makazaga-k eta Beñat Oyharçabal-ek Iker 14(I)-en argitaratzaileek, halaber Aurelia Arkotxa-k eta Lourdes Otaegi-k Iker 14 (II)-ren paratzaileek, ahantzi gabe Rikardo Badiola egin dien laguntzaren gatik.

Akitania-Euskadi-ren diru-laguntzaz baliatuz egin zen Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra eta bi liburukietan agertzen dira zinez haien eskertzeko erakunde publikoen zigiluak, Iparraldekoak nola Hegoaldekoak.

Eta orain ene ondoan baitira bai Beñat Oyharçabal Iker 14 (I)-en arduraduna eta Aurelia Arkotxa Iker 14 (II)-rena emaiten diet hitza.

GRAMATIKA GAIAK

iker - 14 (I)

EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN

EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN



EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN

EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN

LITERATURA GAIAK

iker - 14 (II)

IKER 14. AURKEZPENA

PIRINIO-ATLANTIKOETAKO DEPARTAMENDUKO KONTSEILU OROKORRAREN BAIONAKO EGOITZAKO EKITALDIA

Baiona, 2003-XI-25

B. Oyharçabal

Jaun-andereak.

Plazer dut gaur hemen, J. Haritschelhar euskaltzainburuarekin batean, eta A. Arkotxa, Bordele 3.eko Unibertsitateko irakasle kadetraduna lagun dudala, IKER, Baionako euskarari eta euskal testuei buruzko ikerguneko (CNRS, Bordele 3ko Unibertsitatea, UPPA) arduradun gisa, duela bi urte edo, P. Lafitteren omenez eta haren sortzearen mendemuga kari, egin zen nazioarteko biltzarreko akten aurkeztea.

Bi liburukitan bilduak dira biltzarreko lanak, orotara 750 bat orrialde direlarik, eta 37 ikerlan 43 egileren artean eginak. Liburuko aitzin hitzean erraten den bezala, P. Lafitteren sortzearen mendemugako biltzar horren helburua zen Lafittek euskalaritzan gehienik landu zituen bi lan sail nagusietako espezialisten biltzea, bai gramatikalariak, eta bai euskal letren historiaren aztertzaileak ere. Xedea, hitz batean, hogeita batgarren mendearen hastapen honetan, euskal gramatikaren eta euskal literaturaren historiaren ikerketetan gauzak zertan ziren erakustea zen. Hala dio biltzarraren izenburuak ere: *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian.*

2001eko irailaren 20 eta 21ean egin zen biltzarra, Baionako fakultatean, segur lehen aldia baitzen Iparraldean maila eta hedadura horretako biltzar bat antolatzen zutela euskararen eta euskal letren ikertzaileek.

Biltzar hartako egitarauari, eta aktak biltzen dituzten bi liburuki gotor hauei behatzen zaielarik, bi puntu badira azpimarratu behar direnak eta, gure ustez, euskalaritzaren aitzinamenduaren ondorio diren neurrian, pozgarri ere direnak : lehenbizikorik, ikertzaile belaunaldi berri baten agertzea; bigarrenekorik, biltzarkideek bi batzar aretotan paraleloki bildu behar izatea, batzuek literatura gaien lantzeko, eta besteek, berriz, gramatikari buruzkoak.

Lehenbiziko puntua denaz bezain batean, aski da ikustea zenbat ikertzaile diren liburu honetan beren lanak agerrarazi dituztenak, *iker-2* Lafitte bizi zeneko omenezko liburuan orduan gazteegi izanez parte hartu izan ez zutenak berrikuntzaren hedaduraz ohartzeko. Ez da dudarik, azken hogei urteetan denbora ez dela alferrik pasatu eta unibertsitateetan euskalari belaunaldi berri bat formatua izan dela. Ereintza horren fruituak ageri dira hemen.

Bigarren puntua ere, beste modu batean, berriztatze honen erakusgarri da, zeren ez baita dudarik biltzarkideak *paraleloki* bildu behar izateak euskalaritzaren alorrean azken bi hamarkadetan gertatu aldaketa sakon bat adierazten duela. Alabaina, lehen aldia zen euskalaritzako gisa horretako biltzar batean literatura ikertzaileak eta gramatikalariak, elkarretarik bereiz, zein bere alde, elkarretaratzen zirela elkarri beren lanen berri emateko. Ez da hori parte hartzaileen kopuruagatik bakarrik gertatu, baina bi alor horietan azken urteetan egin diren aurreramenduen ondorioz ere, ezinezko bihurtu baita ikertzaileentzat gaur egun bi sailetan manera jarraiki batean aritzea. Dakigunaz, duela ez hain aspaldi oraino, orotan eskas baitziren langileak, euskalariak, bai K. Mitxelenaren garaikoak, bai, areago, P. Lafitteren edo R.M. Azkueren belaunaldikoak, orotan aritzera behartuak ziren. Parte handi batean euskalaritzaren gibelamenduaren ondorioa zen hori, eta igurika zitekeen (beldur izatekoa ere gisa batez jakitate eremuen zatikatze etengabearen alderdi txarrak kontuan hartzen baditugu) euskara unibertsitatean sartzearekin eta hari buruzko ikerketak aitzina joatearekin eremu desberdinetako ikerketariak ere elkarrenganik urrunduko zirela. Hain zuzen hala gertatu da.

Horra zergatik bi liburukitan ateratzen diren biltzar hartako aktak, batean gramatikari buruzkoak, eta bestean literaturari buruzkoak, biltzen direlarik. Lehenbizikoaren argitalpena (*iker14-I*), J. M. Makatzaga, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeko idazkariak eta neronek, IKER ikergunearen izenean, prestatu dugu hogeita bat gramatika ikerlan bildurik hartan. Ikusiko duzuen bezala, lan horien artean, usaiako ikerketa deskriptiboen edo formalagokoen ondoan, ikusmolde eta azterbide berriagoen seinale direnak ere agertzen dira, hala nola hizkuntza patologiari, hizkuntzaren barne-garapenari, edo hizkuntzen ikerbide informatikoei dagozkienak. Literatura gaiak erabiltzen dituen bigarren liburukiaren argitalpena (*iker 14-II*), berriz, L. Otaegik, Euskaltzaindiko Literatura Batzordearen izenean, eta A. Arkotxak, IKERen izenean, prestatu dute. Hamasei ikerlan bidurik daude hartan, Lafitte sortu zen arteko euskal literaturaren gaiak atzertzen dituztenak. Zinez lan eder eta mamitsua.

Eskerrak bihurtu nahi dizkiet biltzar haren antolatzera eta liburu honen osatzera lagundu duten guztiei, bai parte hartu duten txosten egileei, bai eta egitaraua finantzatu duten erakunde publikoei ere, izan daitezen mugaz alde batekoak (Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra, eta Akitaniako Eskualdeko Kontseilua, eta DRAC, Kultura Ekintzarako Akitaniako Zuzendaritza), nola beste aldekoak (Eusko Jaurlaritza).

EUSKAL GRAMATIKA ETA LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK XXI. MENDEAREN ATARIAN

Literatura gaiak

Baiona, 2003-XI-25

Aurelia Arkotxa

Prestatzaileak: A. Arkotxa & L. Otaegi

Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*-ren lehen inprimatzea (Bordele, 1545) eta Pierre Lafitteren sortze-muga (1901) izan ziren literatura sailan hautatu bi urte-mugak. Nolapait Frantzian Oulipo-ko taldekoek literatura-sorkuntzan beren buruen akuilatzeko erabiltzen zituzten muga mota bat, literatura-kritikari aplikatua. Nolapaiteko desafio bat ere, umore pixka batekin hautatua egia erran, euskarazko literatura sorkuntzak ezagutu duen boom izugarria XX. mendeko azken 20 urteetarik hona ezagutzen ari duguna baita. Bertzalde, idazle-gizaldi berri horrek baitekarra ere berekin, bere 'saihetsean', kritikari-gizaldi berri bat gaurko irakurlearen eta gaurko testuaren arteko harremanean kokatzen dena, garaikidea dugun literatura-esparruan leku handia hartzen duena. Ondorioz, Iker 14 zenbaki honek duen beste interes berezia da ikustea ohidurazko esparrutik kanpo dabiltzan kritikariek zer bisione dakarten 1545ª eta 1901ª artean den aroan bortxaz kokatu behar zuten hautatu gaiaren bidez. Azkenik, 2001ean Baionako Fakultatean antolatu zen Literatura-Batzarrak generazio berri bat badela gaur, osoki literaturan espezializatua dena, agertu du. Literatura-kritikan gertatu den iraultza horren lekuko da Iker 14.

J.P. ULIBARRIREN

EUSKAL HIZTEGIA / DICCIONARIO VASCO:

Aurkezpena: Vitoria/Gasteiz, Euskaltzaindiaren ordezkaritza, 2003-XII-02

YOSE PAULO ULIBARRI GALINDEZ
HIZTEGIA

Vitoria / Gasteiz, 2003-XII-02

Patxi Galé

Alaitasunerako motiboa da niretzat gaur hemen liburutxo honen aurkezpena egiten egotea, horrek esan nahi duelako aurrerantzean erabilgarriago, eskuragarriago izango dutela ikerlariek euskaltzale okondoarrak bildutako euskal hiztegia. 3200 bat hitz bildu zituen, eta haien artean dudarik gabe harribitxiren bat izango da, euskararen hiztegiaren estandarizatze prozesurako ekarpen izango dena, dakizuenez, prozesu hori oraindik amaitu gabe, abian dagoen zerbait baita.

Yose Paulo Ulibarrik idatzitako obrak jadanik argia ikusia zuen Arabako Foru Aldundiaren eskutik, 1975ean haren *Gutunliburuaren* faksimilea plazaratu zuen-eta. Hala ere, gauza jakina da eskuizkribu baten faksimilea aztertzea ez dela ikerlarientzat lan samurra, testuak argitzeko behar den denbora extra handia dela-eta. Bada besterik ezean, liburuxka hau arazo hori soluzionatzera datorkigu.

Aipatutako *Gutunliburuaren* parte den hiztegia, liburuaren azkenengo herenaren hasieran dago gutxi gora behera, berezko gutun-liburuaren ostean eta irakaste-bertso bilduma handi bat baino arinago. Hasierako hitzak ordenean kopiatu ziren, baina denbora aurrera zihoala, sinonimoak, aldaerak eta abar gaineratuz joan ziren lerrokadan eta hasierako ordena alfabetiko hura desitxuratu zen, aurkibide sinple hori baliogabeturik. Gaur plazaratzen dugun liburuxkan, ordea, euskal hitzak ordena alfabetikoan ematen dira, bakoitzaren ondoan eskuizkribuan duen tokia adierazten delarik (orrialdea eta zutabea).

Ez naiz liburuaren edukiaz luzeago arituko, oso baita xumea eta begiratu batez ulertzeko modukoa. Kontrara, nahi nuke ekitaldi hau Ulibarriren figuraren omenaldi eta bindikatze-une bihur zedin. Haren idazkiek, bereziki haren gutunek, faksimile erako argitalpenak diren «argitzal» horretan segitzen dute oraindik ere, zeren gutun horiek ez baitira oraindio transkribatu, ez itzuli. Guk ordea, pentsatzen dugu foruen deuseztapena baino lehenagoko XIX. mendeko Euskal Herri hura bizi izan zuen euskaltzale honen gogoa konprenitzeko, interes handiko iturri dokumentala osatzen dutela. Herri honetako ikerlariak, badaudela seguru nago-eta, hemendik animatu nahi nituzke, lan horri ekin diezaioten, seguraski filologoek, antropologoek eta batez ere, gure historiaren ikerlariek eskertuko baitiete.

Amaitzeko, *AUNIA-ri* eskertu nahi diot argitalpen honen iniziatiba. Aiarako Kultura-Elkarte honi bizitza luzea opa izan behar zaio, bere ibilbide xume eta laburrean,

bertakoak zein kanpotarrak harri eginik utzi baititu jadanik, erakutsi duen aktibitate oldarkor eta ekinbide indartsua direla-eta.

Era berean, Euskaltzaindiari eskertu nahi diot argitalpenari eman dion babesa. Zerrendak dagoeneko *Euskera* agerkarian ikusia zuen argia, baina orain beste era bateko hedatzea lortuko du. Eskertu behar dut partikulazki, Akademiaren idazkaria den Xabier Kintanaren parte hartzea, liburuxkari atariko ederra egin nahi izan diolako. Niretzat ohore handia da, euskal hiztegigintzan hain izen handia duen euskaltzainak ekarpen xume hau interesekotzat jo izana.

Arabako Foru Aldundiari ere eskerrak eman behar zaizkio argitalpena babestu izanagatik. 1975ean (Ulibarriren jaiotzaren berrehungarren urteurrena zela-eta) faksimilea argitara ateratzean egin zuen bezalaxe, gaur egun ere goi mailako ordezkaria dugu hemen, Federico Verastegui Cobian, Kultura Diputatu jauna, era honetan, atzoko Arabak dudarik gabe biharko euskal hizkuntza eta kulturari egingo dizkion ekarpenak bultzatzen dituela erakutsiz.

Eskerrik asko

YOSE PAULO ULIBARRI GALINDEZ
DICCIONARIO

Vitoria / Gasteiz, 2 de diciembre de 2003.
Delegación de la R. A. L. V. / Euskaltzaindia

Patxi Galé

Es para mí un motivo de alegría el hecho de estar aquí hoy presentando este librito, porque ello significa que en adelante estará más disponible, más útil y fácilmente consultable, el vocabulario vasco recogido por este vascófilo okondoarra. Suman cerca de 3200 palabras, entre las que sin duda habrá alguna que otra joya, alguna que otra aportación interesante al proceso de estandarización léxica del euskera, que como es sabido, es algo aún no terminado, aún en marcha.

La obra escrita de Yose Paulo Ulibarri ya había visto la luz de la mano de la Diputación Foral de Álava, que en 1975 publicó el facsímil del manuscrito de su epistolario o *gutunliburua*. Sin embargo, es sabido que consultar un facsímil de un manuscrito no es tarea grata a los investigadores, por el tiempo extra que suele necesitarse para descifrar los textos. Pues bien, este librito viene simplemente a evitar este problema.

El vocabulario que forma parte del citado *Gutunliburua*, se encuentra más o menos al comienzo del último tercio del libro, tras el epistolario propiamente dicho y antes de una extensa colección de versos didácticos. Las palabras inicialmente se copiaron ordenadamente, pero con el tiempo se fueron añadiendo al listado sinónimos, variantes, etc. que invalidaron el orden alfabético inicial e inutilizaron esta forma simple de búsqueda. En el librito que publicamos hoy, el léxico vasco aparece ordenado alfabéticamente indicándose el lugar original que ocupa en el manuscrito (página y columna).

No voy a extenderme más sobre el contenido del libro, porque es sencillo y se comprende con una simple hojeada. Por el contrario, sí quisiera que este acto sirviese como homenaje y reivindicación de la figura de Ulibarri. Sus escritos, especialmente su correspondencia, sigue aún en esa «semipenumbra» que significa su publicación facsímil, pues esas cartas todavía no han sido transcritas ni mucho menos traducidas. El caso es que estamos convencidos de que constituyen una fuente documental de sumo interés, para comprender la mentalidad de este euskaltzale que vivió aquel País Vasco del siglo XIX anterior a la abolición foral. Quisiera animar desde aquí a los investigadores del país, yo sé que los hay, a que acometan esta labor, que seguramente agradecerán filólogos, antropólogos y sobre todo, estudiosos de nuestra historia.

Para terminar, quiero agradecer a *AUNIA* la iniciativa de esta publicación. Creemos que es deseable una larga vida a esta Asociación Cultural ayalesa que en su modesta y corta historia ya ha sorprendido a propios y extraños por su arrollador dinamismo y su tremendo empuje.

También quiero agradecer a Euskaltzaindia el hecho de haber patrocinado la publicación. El listado ya había visto la luz en la revista *Euskera*, pero ahora adquirirá otro grado de difusión. Debo agradecer particularmente, la participación de Xabier Kintana, Secretario de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, que ha tenido a bien prologar el librito. Para mí es un honor que un académico de tanto renombre en el mundo de la lexicografía vasca, haya considerado de interés esta pequeña contribución.

Gracias también a la Diputación Foral de Álava por patrocinar la publicación. Como ya hiciera en 1975 (bicentenario del nacimiento de Ulibarri), cuando publicó el facsímil, hoy también hallamos aquí a una alta representación, el señor Diputado de Cultura, Federico Verástegui Cobian, que de este modo apoya las aportaciones que la Álava de ayer sin duda ha de hacer a la lengua y cultura vascas del mañana.

Gracias.

J. P. ULIBARRI: *EUSKAL HIZTEGIA / DICCIONARIO VASCO*

Gasteizko Ordezkaritza, 2003-XII-02

Felix Mugurutza,
AUNIA *Kultura Elkartearen burua*

Jaun-andre agurgarriok:

Asko dira gaur *AUNIA* Kultura Elkartean pozik egoteko ditugun arrazoiak. Besteak beste, deialdiak izan duen oihartzun handia: beraz, eskerrik asko Federico Verástegui, Arabako Foru Aldundiko Kultura Diputatuari, Henrike Knörr euskaltzain oso, buruorde, Arabako ordezkari eta lagunari, Patxi Galé ikerlari eta laguntzaileari eta, zer esanik ez, hurbildu zareten lagun guztioi, are gehiago, ikusita gaurko eguraldi traketsa.

Baina, nartzisismoak kutsatuta gaudela esan badiezagukete ere, batik bat, pozik gaude geure buruarekin. Duela urte bete eskas hasi zuen *AUNIA*k bere ibilbidea, Nerbioigoieneko ondarea lau haizetara eramateko helburu zehatzarekin. Eta hona hemen, Euskaltzaindia eta Aldundiarekin elkarlanean ari garela, oparitzeko prestatu dugun liburu baten berria emanez.

Baina ez da bide erraza izan, ez. Gure *AUNIA* maitatuak «elkarte» hitza daraman arren, lagun bi baino ez gara, kultura, ondare, hizkuntzalaritza eta naturarekin kezkatuta, gure ustez behintzat, dotorezi handia lortu duen aldizkari bat argitara ematen dugunok, hiru hilean behin. Ez dago, hainbatek uste bezala, talde editorialik edo diru-iturri miresgarririk gure arduren zamak arintzen. Ez: nork bere lana du eta, aisialdian, egiten ditugu honelakoak.

Harritzekoa bada ere, Jose Paulo Ulibarri okondoarra ezezagun bat da gure eskualdean eta, lotsagarriagoa oraindik, haren jaioterrian. Harrigarri suertatuko zaigu gutako askori, baina horrelakoa da dugun errealitatea. Eta jende gehienak, izena ezagutu bai, hala deitzen direlako zenbait kale eta antzeko, baina ez haren euskaltzaletasuna, haren gutunak edo, honako honen bezalako haren hiztegia ezagutzen dituztelako.

Esan liteke Arabako Foru Aldundia izan dela Ulibarriren lana ezagutarazteko ahalegindu den bakarra, faksimilean atera baitzuen, aspaldi, haren *Gutun-liburua*. Harrez gero, ezer gutxi. Argitalpen eskergarri hura ahitu zen eta ikerlariak, ikasleak eta abar umezurtz gelditu dira euskaltzale okondoarraren lanean non ikertzerik ez dutela.

Jakin badakigu, bestetik, orain arte bestelako argitalpen zainduago bat ez bada egin arrazoi ekonomikoengatik izan dela eta ez liburuak edo autoreak merezi ez zutelako. Argitaletxe batentzat, dirua eskuka galtzeko bidea da honelako batean saiatzea.

Beraz, aukera gutxi zegoen gurpil zoro hau gelditzeko, korapilo gordianoa askatzeko. Behar horretaz jabetuta eta Patxi lagunak lanean zebilela argitaratzearen eraba-

kia hartu genuen diru-kontu beldurgarrietan pentsatu baino lehen. Areago oraindik, eskaera txikiko liburukia izateko itxurak zituenez, gure harpidedunei oparitzea erabaki genuen hori baitzen beronen hedapena bermatzen zuena.


Asko eta asko direnez, bai gure eskualdean bai gainontzeko lurraldeetan, gure aldizkaria eskuratzen dutenak, Ulibarriren lana, nahi barik ere, hedatuko genuke oso. Eta ekimena borobiltzeko, erabaki genuen, lagungarri gisa, aldizkariaren barneko artikulu bat ere, Jose Paulo okondoarrari buruz egitea. Idazlea, berriro, Patxi Galé jasankorra.

Ezer gutxi gehitzeko Jose Paulo Ulibarriri buruz, eta nire aurrekoek, trebezia nabariagoz, esan ez dutena. Beraz, hona etortzeko arrazoia eman digunaz zenbait ohar baino ez dut aipatuko: formatu txikiko liburuxka bat da, 1000 aleko argitalpena izan da, 3000 sarrera baino gehiago biltzen dela bertan eta 140 orrialde inguruz osatuta dagoela. Beronen banaketa, batik bat, gure harpidedunen bitartez egingo da, Euskal Herri osora iristeko, eta oparitua izango da. Hauetaz gain, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan salgai jarriko ditugu ale batzuk, 3 euroko salneurrian.

Hau guztionekin uste dugu erdiesten dugula duela gutxi asmo bat baino ez zena: Jose Paulo Ulibarriren historia eta lana hedatzea.

Amaitzeko, esker mila Arabako Foru Aldundiari, urte asko pasatu direnean, berriro inplikatu delako Ulibarriren lana hedatzearekin. Esker mila Euskaltzaindiari gure proposamen xumeari egin dion harrera onagatik eta, azken finean, liburuskaren egileak, Erakunde horretakoak direlako: bai Xabier Kintanak egin baitu hitzaurrea eta bai Patxi Galé bere lan estimatuarekin. Esker mila, azkenik, hona hurbildu zaretenoi gurea bezalako elkarte txiki batentzat, zuen presentzia, lanean segitzeko bultzada bihurtzen delako (*).

(*) Ikus eranskina (1199-1200.orr.)


JOSE PAULO
ULIBARRI
(Okondo, 1755
Abando, 1847)
EUSKAL HIZTEGIA
DICCIONARIO VASCO
PATXI GALÉ
AVNIA

ERANSKINA

Berataratua: 08A Prescripto [Prescrito].
Berautua: 08A Prescripto [Prescrito].
Berbatokia: 15A Diccionario.
Berdinbiraurra: 06B Isó[s]celes, triángulo con dos lados yguales [iguales].
Berdinbollo: 06B Isoperímetro.
Berdiñaurrea: 06B [I]sógono en la geometría.
Berdiñaurrea: 06B Isopleuro, triángulo equilátero.
Bere burua alchaturic: 06A Cansado de sí mismo.
Bere istaldea: 06B A descreción [discreción].
Bere oldean: 06B A su boluntad [voluntad].
Bere: Ikus Albadin bere.
Bereala: 07A Al instante.
Bereci: 07A Desunir.
Berecinde: 06B Artículo.
Berecitu: 08A Prescindir, separar.
Beregandea: 05A Serenidad, sosiego.
Bereistu: 08A Prescindir, separar.
Berendia: 27A Zutano, correspondiente a fulano.
Beretacotu: 06A Apropiado.
Berezdea: 07A División.
Berlera: 07A Reforma, reformación.
Berliña: 06B Vidrio.
Berlasaita: 08B Relaxación [Relajación].
Berlasaitu: 07B Relaxación [Relajación].
Bernasaita: 08B Relaxación [Relajación].
Bernasaitu: 07B Relaxación [Relajación].
Berpatzea: 08A Reunión.
Berretura: 06A Recaída.
Berritu: 08B Renobar [Renovar].
Berriz dastatu: 08B Recaudación, el acto de recaudar.

Berriz eraztea: 08A Redención, acción de redimir.
Berriz igaro: 07B Repasar, bolber [volver] a pasar.
Berriz ucitu: 07B Subdividir.
Berrizbatzea: 08A Reunión.
Berroguei urtecoa: 08B Quadragenario [Cuadragenario].
Bertati: 07A Al instante.
Bertera: 08A Reforma, reformación.
Berterosgua: 08A Redención, acción de redimir.
Berticusia: 08A Revista.
Berticusta: 08A Revista.
Bertirago: 07B Repasar, bolber [volver] a pasar.
Bertiraundea: 07A Subsistencia, permanencia.
Bertucitu: 07B Subdividir.
Beruna: 27B Plomada.
Beruna: 27B Plomada.
Berunean dagoana: 30 Perpendicular.
Berzarri: 06B Restablecer.
Berzeguita: 08B Variedad, diferencia.
Besaga: 08B Rayo [Radio] de rueda.
Besalitza: 04A Parábola.
Besalkia: 08B Silla.
Besarra: 03B Tiro, a[c]ción de tirar.
Besarra: 05B Tiro, acción de tirar.
Besartu: 07A Intimar.
Beso: 07B Codo, codal, medida.
Besteren buruan centza: 06A Escarmentar.
Besteskia: 07A Subsi[s]tencia, hispe...sis en la filosofía.
Bestiragoa: 08B Traspasso [Traspaso], angustia.
Betaldicoa: 27A Regular, común, ordinario.

HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA IPARRALDEAN

EGA IPARRALDEAN

Euskal Gaitasun Agiria (EGA) hasieran Euskaltzaindiak berak 7 Euskal Herrietan eskaintzen zuen. Gero Gasteizko Jaurlaritzak eta Nafarroako Foru Diputazioak hartu zuten bere gain bakoitzak bere euskaldean.

Iparraldean ordea Euskaltzaindiak ez dio uko egin bere eginkizunari eta urtero bi aldiz Baionako bulegoan antolatzen da udan eta udazkenean ohiko azterketa, hemen doazen emaitzekin.

Azterketa horretaz bi ohar egin genitzake:

1) «Irakasle titulua» marka izan bazuen ere EGAk lehen gaurregun ez darama berak horrelako aipamenik. «Irakasle titulua»-k gaurregun bestalde antolatzen direlakotz Iparraldean ere.

2) Iparraldeko herritarrentzat da antolatzen Euskaltzaindiaren azterketa.

Salbuespenak onartu ditugu bakarrik, Nafarroako edo beste hiru euskal probintzietako seme-alabentzat, Iparraldean jaioak, edo ikasle, langile etxekotuak, edo espetxeratuak direlarik aurkezten direnak.

Baiona, 2003.eko azaroa

Piarres Xarritton

D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA (*)

Emate eguna: Bilbo, 2003-VII-18

6.708.– Dioni AGERRE
6.709.– Andoni ALBERDI
6.710.– Aizkoa ARANO
6.711.– Oihana AROTCHAREN
6.712.– Aña AUCHOBERRY
6.713.– Ainara AYESTARAN
6.714.– Ainara BENGOA ARRIETA
6.715.– Joana BERTERRETCHE
6.716.– Patxi BIDART
6.717.– Axier CAMINO LAPEIRE
6.718.– Xabina CASTILLON
6.719.– Martine CHARRON
6.720.– Xabina CLAVERIE URRUTY
6.721.– Estibaliz CLEDON
6.722.– Amaiur COSCARAT
6.723.– Christian DETCHART
6.724.– Haize DUPEROU BASURCO
6.725.– Ihintza ERREMUNDEGUY
6.726.– Maider ETCHART
6.727.– Amaia ETCHEGARAY
6.728.– Leire ETXANDY GAREIN
6.729.– Beñat ETXARREN
6.730.– Amaia GALANT
6.731.– Haize GOENAGA FONTANG
6.732.– Maria Eva GONZALEZ LERMA

(*) Baionan deialdi bi: 91 gizasemek izena eman eta hauetatik 65 lagunek eskuratu dute.

6.733.– Maialen GORRI
6.734.– Lore GOYETCHE BOLOQUY
6.735.– Iker GOYHENECHE DUHART
6.736.– Mikela GUILLEMOTONIA
6.737.– Maider INCHAUSPE
6.738.– Arkaitz ITURRINO
6.739.– Ramuntxo LABAT
6.740.– Joana LABEGUERIE
6.741.– Patrick LARRONDO
6.742.– Maialen LEKUMBERRY
6.743.– Karolina MINABERRY
6.744.– Eneko NOBLIA
6.745.– Aitor OLLO
6.746.– Itziar ORBEZUA
6.747.– Josu ORDOÑEZ FERNANDEZ
6.748.– Egoi ORTEGO
6.749.– Maialen OTHONDO
6.750.– Extefana OYHENART
6.751.– Jon PATERNE
6.752.– Aizane PIMIENTA CHEMBERO
6.753.– Mikel POUEYTS
6.754.– Pettan PREBENDE
6.755.– Maitena SALLABERRY
6.756.– Isabelle SUBELZU
6.757.– Cyril TAFFIN DE TILQUES
6.758.– Joana URBISTONDO LARRALDE
6.759.– Oier URIA URIBEETXEBARRIA
6.760.– Amaia URIBARRI
6.761.– Joana VIDEGAIN LUZAR

D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA

Emate eguna: Bilbo, 2003-XI-28

6.762.– Irene ALMANDOZ ENDARA
6.763.– Iker ARRIZABALAGA
6.764.– Aitor BETELU
6.765.– Ibaia EGIAZABAL GARMENDIA
6.766.– Christophe ELISSALDE
6.767.– Patxi HARITSCHELHAR
6.768.– Carlos IÑIGO BLASCO
6.769.– Xami MAITIA
6.770.– Eki SOLORZANO
6.771.– Arantxa TURQUER
6.772.– Amaia UTHURRALT

* * *

Labur bildurik:

URTEA	Izen ematea	Gainditu dutenak	Gainditu ez dutenak
1. 1997	56	43	13
2. 1998	60	48	12
3. 1999	79	53	26
4. 2000	106	65	41
5. 2001	91	59	32
6. 2002	97	64	33
7. 2003	91	65	26

LUTXI ALBERDI ETA RESU ORBE-RI OMENALDIA

25 urte Euskaltzaindian lanean

Bilbo, egoitza, 2003-XII-19

LUTXI ALBERDI ETA RESU ORBE:
25 urte Euskaltzaindian lanean

Bilbon, 2003ko abenduaren 19an.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Lutxi Alberdi Arruabarrena, zornotzarra sortzez eta Iurretakoa aspalditik. Joan den ekainean bete ditu hogeita bost urte gurekin lanean ari dela. Idazkari lanetan, orain-tsu arte Jose Luis Lizundiaren manupean eta, egun, Pello Telleriarenean, idazkariordetzan eta Juanjo Zearreta, kudeatzailearen zenbait alorrekoetan. Esan didatenez, guri, euskaltzainoi, Zuzendaritzakooi, batzordekideoi, idazkariordeak prest prest mahai gainera ekartzen dizkigun karpeta horiek zuk apailatzen dituzu, ongi horniturik, zehatz zenbakiturik, txukun apaindurik.

Lutxik, bistan denez, ez du lan hori bakarrik egiten, beste aunitz ere: gutuneria guztiaren sarrera-irteerak; batzar agiri eta deien igorketak dagozkien zerbitzu, batzorde edo karguetara banaketa; ordezkaritzak eta egoitzaren arteko ostatu erreserben koordinaketa eta abar ere, bere ardura izaten da. Lehen solairuko administraziora zerbitzu bila iristen den nornahik (galdera, kontsulta, ziurtagiri nahiz beste dela) Lutxiren harrera-irriñoa aurkituko du, gero, berak, Begok, Resuk edo beste batek zerbitzatzen badu ere.

Jose Luis Lizundiak esana didanez, leialtasuna eta trebetasuna dira dohain aipagarrienak. Gainera, leialtasun horren baitan, behin baino gehiagotan, eta konfiantza osoz, nagusiari kritika mesedegarriak egiten ere erakutsi du.

* * *

Resu Orbe Monasterio, Errigoitin sortua. Nahiz eta lan egunetan, hemen, Bilbon bizi den, bere jatorrira itzultzen da asteburuetan. Resu ongi oroitzen da, zein egunetan hasi zen lanean Euskaltzaindian, 1978.urteko abenduaren 6an. Beraz, duela 25 urte Hegoaldekook, *konstituzio* bat bozkatzera deituak izan zineten egunean.

Resu, *Chocolates Bilbainos/CHOBIL* deitutako enpresa batetik etorri zen, Jose Antonio Agirre Lehendakariaren familiak zerikusi zuen enpresatik hain zuzen ere, enpresa hau Asturias aldera aldatzea erabaki ondoren. Fakturazio lanetan aritua, berehala jarri zen Juanjo Zearreta ekonomi eragilearen eta orduko Euskaltzaindiaren kontulari zen Xabier Gereñoren laguntzaile. Lan isila, konfiantzazkoa, Akademiaren zordunei goiz edo berant, askotan, ezinbestean, berant ordainkizunak prestatzen; geuri, dieta, bidaia-gastu, esleipenak eta abar ordaintzen; bankuetako joan-jinak, salmenten faktura-

zioak, kontularitzako ezarpenak egiten; Diruzaintzako artxibategia antolatzen eta abar. Gehiegi ikusten ez den baina eragina duen lana burutzen.

Resu langile noblea dela esan didate, esanekoa, langileen artean, haserrea baino umorea gehiago erabiltzen dakiena. Lankidetza bazkarietan irrintzi eta guzti giroa alaitzen dakiena.

Euskaltzaindiko langilegoak, bai egoitzako eta baita ordezkaritzetakoak, talde edo ekipo ona eta historikoa osatzen du. Gure Erakundearen zilarrezko zerrenda kronologikoan: Jose Luis Lizundia, Maria Pilar Lasarte, Juanjo Zearreta, Rikardo Badiola, Nere Altuna eta Bego Amundarainen ondoren aipatuko dira Lutxi Alberdi eta Resu Orbe.

Zorionak, beraz, LUTXI eta RESU. Gorde itzazue Zilarrezko domina hauek zuen zintzotasunaren eta Erakundearekiko atxikimenduaren lekuko baitira.

RESU ORBE ETA LUTXI ALBERDI:
Euskaltzaindian 25 urte lanean

Bilbon, 2003.eko abenduaren 19an

Jose Luis Lizundia,
idazkariorde-kudeatzaile ohia eta euskaltzain osoa

Administrazio solairuko langile hauek omentzean, partetxo bat hartzea eskatu nion gure Euskaltzainburuari.

Hogeita bost urtetan administrazio kudeaketa zuzena eraman dut. Juanjo, Rikardo, Bego, Lutxi eta Resu, nirekin hasitako berberek jarraitzen dute. Rosa Mari hil zen, Jonek ordezkatua; Xabier Gereñoren jubilazioan, ordezkoa Bibliotekara pasatu zen. Pello berria da.

Hogeita bost urteren buruan, administrazio solairuan ez dugu bat ere gehiketarik izan, agintari zenbaitek besterik uste izan badute ere.

Administrazioa koipetu gabe ezin nintekeen erakunde hau ongi bideratu. Horretan lehen Begori, orain Lutxi eta Resuri, heldu den urtean Gasteiz eta Iruñeko ordezkaritzetako biri iritsiko zaie zilarrezko domina jasotzeko txanda.

Eskerrik asko gaur Resu eta Lutxi hogeita bost urtetako lankidetza zintzoagatik.

HIL BERRIAK

JOSE MARI SATRUSTEGI ZUBELDIA (1930-2003)

Gipuzkoako Foru Aldundia.

2004.eko urtarrilaren 30ean

Jose Mari Satrustegi Zubeldia 1930eko azaroaren 20an Arruazuko *Kuartelea*-n jaio zen. 12 urtetan Iruñeko seminariora joan eta 1955ean apeztu ondoren, urte luzez bi herritako apeza izan zen. Hasiera batean, bi hilabete eta erdi Madozko parrokian egin bazituen ere, berehala izendatu zuten Luzaideko bikario eta bederatzi urte geroago Urdiaingo erretore. Erretiroko adina iritsi zitzaionean, bizitzan pilatu zitzaizkion materialak aztertu, moldatu eta argitaratzeko asmotan bere sorterrira itzuli zen, *Milikonea*-ra. 72 urtetan, burua argi, lanerako betiko sasoi betean eta aurrera ateratzeko esku bete proiektu zituela, 2003ko martxoaren 1ean Euskaltzaindiak Hernanin egindako XIII. Barne Jardunaldietatik itzulitakoan, ustekabeko garun infartoak jo eta hilabete bat eskas geroago, martxoaren 27an, Iruñeko Bideko Ama ospitalean pausatu zen.

Jose Mari Satrustegi euskararen defendatzaile Nafarroan

Azkeneko mende erdian Nafarroako euskararen historian ezinbesteko erreferentzia izan da Jose Mari. Hona hemen, laburbilduz eta gaingiroki bada ere, urte luze horietako ekintza nagusiak.

Lehenik eta behin, –bera hil ondoren argitaratutako artikulu batean idatzirik utzi digun bezala–, *zapaldurik eta zigorturik zegoen euskarari bizinahiaren arnasa itzultzeko* (1), Nafarroako Foru Diputazioaren *Príncipe de Viana* erakundeak, 1957an, Miguel Javier Urmenetaren eraginez eta Pedro Díez de Ultzurrunen zuzendaritzapean, abian jarri zuen «Sección del Fomento del vascuence» sailean agertzen zaigu Satrustegi apez gaztea. Hasiera hartako lanak izan ziren eskolaz eskolako bisitak eta euskaraz bazekiten haurrei sariak ematea, ondoren eskola horietan Diputazioaren kontura ordu erdiko euskarazko klaseak ezartzea, Nafarroako zazpi mila familia euskaldunetako sukaldeetara iristen zen *Príncipe de Viana* euskarazko aldizkaria argitaratzea, etab. Orduz geroztik, Nafarroan euskararen eta euskal kulturaren aldeko ekitaldi guztietan etengabe agertuko zaigu Jose Mariren, hala nola, Nafarroako ikastolen sorrera eta hedaduraren bultzatzaile, Gobernuaren Kultura eta Euskara kontseiluetako kide, Nafar Ateneoaren sortzaileetako kide, non hasiera-hasieratik Euskal Hizkuntza eta Kultura saila ezartzea lortu zuen, eta abar; inola ere ahaztu gabe bere ezin konta ahaleko hitzaldiei

(1) *Jakin*, 135, 78 or.

esker, pertsona askoak aurkitu eta balioetsi dutela geurea dugun kultura. Horietaz guztietaz gain, izan zuen Jose Marik, gure herrian eta gure mugetatik kanpo, euskal kultura eta hizkuntza zabaltzeko sen berezia eta sen horrek bultzatu zuen Nafarroako Foru Diputazioari berari 1969an *Cuadernos de Etnologia y Etnografia* eta *Fontes Linguae Vasconum, Studia eta documenta* aldizkariak sorraraztera. Azken aldizkari honen ibilbidea bere sorreratik bizitu zuen, eta bereziki 1988an zuzendari kargua hartu zuenetik. Bere zuzendaritzapean argitaratu izan dira 51. aletik 93. arte. *Fontes* izan da, Jean Haritschelharren hitzetan (2), Jose Mari Satrustegiren «opera magna» eta arruazuarra harro sentitzen zen aldizkari hori nazioarteko hainbat unibertsitate, kulturagune eta ikertzailerentzako, Nafarroako Erkidegoaren eta bere hizkuntza zaharraren erakusleiho bilakatu zelako.

Jose Mari Satrustegi euskararen lekukoen biltzaile eta ikertzaile

Gaztetan oinarri sendoko apez ikasketak egin bazituen ere, bere euskal jakinduria zabala ez zuen ez seminarioan ez inongo unibertsitatean eskuratu. Autodidakta izan zen. Alde batetik, urte luzeetako bere etengabeko jarduera pertsonalari esker eta, bertzetik, kultura eta ikerketa munduko zenbait pertsonarekin, hala nola, M. Tovar, J. M. Barandiaran, J. Caro Baroja, K. Mitxelena eta abarrekin, bai eta nazioarteko ospe handiko zenbait hizkuntzalari eta euskaltzalerekin ere izandako harreman estuei esker, izan zen goi mailako kultur gizona.

Gai asko ukitu zituen bere lanetan eta alor askotako argitalpenak utzi dizkigu, hala nola, antropologiakoak: *Antropología y Lengua, Euskaldunen sexubideak, Mitos y creencias*; etnografiakoak: *Solsticio de invierno, Sakanerri barrena*; literaturakoak: *Ipui miresgarriak, Axelko eta Otsoko, Lapur zuriak, Mattin mottela, Argisentiko ipuinak, Luzaideko kantiak, Ekaitza*; biografiak: *Bordel bertsularia, Aizkibel, Tapia Perurena, Jose Agerre, Perpetua Saragueta*; ikastoletarako zenbait libururen itzulpen; kazetaritza mailako ehunka artikulu, etab.

Horregatik, Jose Mariri titulu asko jarri izan zaizkio: antropologo, etnologo, historialari, idazle..., baina, gure ustez, guztien gainetik bere pertsona hobekien definitzen zuena eta, hortaz, egokiena, euskaltzain titulua da.

Euskaltzaindiaren ikuspegitik bere hizkuntzarekiko ekarpenik nabarienak honako bi alorretakoak izan dira:

1) Idatzizko euskal testu zaharren biltzea eta, neurri batean, argitaratzea.

Bere bizian testu zahar andana eskuratu ahal izan zuen, Iruñeko Katedraleko eta elizbarrutiko artxiboetan eta Nafarroako hainbat parrokiatakoetan bilduak gehienbat. Urteak eman zituen testu bilduma osatzen, eta berak idatzi izan zuen bezala «itzul-inguru askoren urrats galduak daude [bilduma honetan] uste gabeko aurkipen pozgarriekin batera» (3). Horietako asko argitaratu zituen, besteak beste, *Egan, ASJU, CEEN, Euskera, Fontes*... aldizkarietan, baina argitalpenik aipagarriena Euskaltzaindiaren *Eus-*

(2) «J. M. Satrustegi II. *Manuel Irujo* Saria», *Euskera*, 2002, 1, 330.or.
(3) *Euskal testu zaharrak, I*, Euskaltzaindia, 1987, 9.or.



kararen Lekukoak bildumako 13. aleko *Euskal testu zaharrak, I* da. Testuen irizpide kronologikoa eta euskalkien banaketa geografikoa ahalik eta hobekien orekaturik ageri dira XVI. eta XIX. mende bitarteko 50 dokumentutan, ia denak Nafarroa Garaikoak. *Euskal testu zaharrak, II* izanen litzatekeen bilduma gogotsu prestatzen ari zelarik utzi gintuen betiko.

Idatzizko testuekin batera ahozko testu bilduma ederra ere lortu zuen, Nafarroako herri hizkeren lekuko interesgarria eta, egun, Nafarroako Gobernuaren fonoteka proiektua osatzen duena.

2) Euskal lexikoaren eta onomastikaren azterketa.

Jose Marirendako, bai ahozko bilduma, bai testu zaharrak argitaratzeko helburuetako bat material horiek, ahalik eta hobekien prestaturik, filologo eta adituen eskuetan uztea izan zen. Behin baino gehiagotan espresuki dio hain beharrezkoak diren izkribu hauek «euskal filologia nahiz euskara bera landu nahi dutenen baliagarri» edo «filologiako ikastaroetan ikergai» izan daitezen eskaintzen dituela (4). Hala eta guztiz ere, ez zion ia inoiz uko egin bere gustuko zuen gai bat lantzeari: testuen lexikoari.

Erran beharrik ez dago bere grabazioetatik eta landu dituen testuetatik ateratako hiztegiaren ekarpena oso baliagarri izan dela Akademiaren *Hiztegi Batuan*. Lekuko bat bertzerik ez aipatzearren, gogora ekarriko dugu Euskaltzaindiaren 1997ko ekainaren

(4) *Euskal testu zaharrak, I*, Euskaltzaindia, Euskararen lekukoak bilduma, 13.liburukia, 1987, 14.or.

27ko aktak dioena: Satrustegi jaunaren proposamenez *guraskide* hitza sartzea onartu da, honako adiera honekin 'ezkonlagunen gurasoak elkarrekiko' (5).

Bertzalde, Onomastika, eta arlo honetan ponte izenak bereziki, izan zen Satrustegik, Luzaiden egon zeneko lehendabiziko urteetatik hasita, landu zuen gaia eta bere-berea sentitu izan zuena. Euskal onomastikaren harrobian ezkutaturik zeuden hainbat eta hainbat pertsona izen argitara eman eta ofizialtzea urrats garrantzitsua izan zen. Euskaltzaindiak, bere zuzendaritzapean egindako *Euskal Izendegia* hiru aldiz argitaratu zen. Lehendabizikoa 1972an 700en bat izenekin eta hirugarrena 1983an 1850en batekin. Denera, 160.000 ale. Liburuxka haiek Euskal Herriko etxe guztietara iristeaz gain, harrera ezin hobea izan zuten gure gizartean. Izendegi horiek izandako onarpen eta arrakastaz jabetzeko aski da ikustea hurrengo urteetan, Euskal Herrian nahiz gure mugetatik kanpo, ponte izenetan izan den aldaketa –erabateko iraultza– Satrustegiren hitzetan. Onomastika batzordeak 2001ean atera zuen argitalpen berriaren benetako bultzatzaile-akuilukatzaile izan zen eta liburuaren sarrerarako prestatu zuen «Pertsona izenen historia-»k afera honen inguruko ikuspegi historiko ezin hobea eskaintzen digu.

Jose Mari Satrustegi euskaltzain

1963ko maiatzaren 18an Orixek utzitako aulkia hartu eta ia berrogei urtez euskaltzain oso izan zen. Aldez aurretik, bertze sei urtez ere urgazle izan zen. Berriki gogorarazi digun bezala (6), hurbiletik hartu zuen parte erakundearen erabaki garrantzitsuenen bilakabidean, euskara batuarenean, alegia. Halaber, Erakundearen barne egituran kargu garrantzitsuak izan zituen, hala nola, 14 urtez idazkari eta 18 urtez Nafarroako ordezkari. Jarduera akademikoetan bere emaitzarik oparoenak Onomastika batzordean eta Jagon Sailean eman zituen, ahantzi gabe hain berea zuen Nafarroako euskaratik hiztegi batuari egin zizkion ekarpenak.

Akademia hurbiletik edo, hobeki erranda, barru-barrutik ezagutu eta bizi izan zuen, eta bere adierazpen publiko guztietan instituzioaren defendatzaile sutsu agertu izan da beti. Esaldi batekin laburbiltzeko, bere senideetako batek martxoaren 27an berean esandakoa aipatuko dut: «Euskaltzaindia Jose Mariren bigarren familia izan da».

Jose Mari Satrustegiz erran eta idatzitakoak

Martxoaren 28an Jose Mariren heriotza egunkari guztietako lehenengo orrialdeko berria izan zen.

- Hona hemen prentsako zenbait izenburu:
  - *Diario de Noticias*: «Euskarak bere zaintzaile garrantzitsuenetako bat galdu du».
  - *Diario de Navarra*: «Ikertzaile eta euskararen defendatzaile Nafarroan».

(5) *Euskera*, 1997,1+2, 42, 244.or.

(6) Ik. José María Satrústegui «Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena (1967-1976)», *Fontes Linguae Vasconum*, 90, 323-352 or. Hor ageri da bere parte hartze zuzena, bertzeak bertze, 1967an Zumarragako tren geltokian Madrileko Hezkuntza Ministerioko Serra Estruch jaunarekin izandako bileran edo Arantzazuko Kongresuan K. Mitxelenaren aginduz moderatzaile lanetan aritutako bilkura erabakigarrian.

- *Deia*: «Antropologo, etnografo eta euskaltzale ospetsua, euskararen benetako ikurra».
- *Gara*: «Euskal Herriak etnografian eta euskaran izan duen aitzindarietako bat».
- *Egunero*: «Euskararen eta herri kulturaren laguntzaile handia».
- *Diario Vasco*: «Euskararen erreferente nagusia Nafarroan eta XX. mendeko euskal kulturaren erreferentea».
- *El Periódico de Alava*: «Euskararen sustatze lanetan gizon erabakigarria Nafarroan».
- *El Correo*: «Euskararen sustatzaile Nafarroan».
- *El Mundo*: «Euskararen anima Nafarroan».

* * *

• Euskalgintzako zenbait pertsonaren iritziak:

- «Bere bizitza osoa euskarari eskaini zion. [...] Guztiok dakigu [Nafarroan] ez dela egin euskararen aldeko inolako ekitaldirik Satrustegiren parte hartzea gabe» (7), *Jean Haritschelhar*, euskaltzainburua.
- «Jose Mari Satrustegi gabe ez dago ulertzerik aro oso bat azken urteotako euskalgintzan. Haren lana izugarria izan da. Ekarpen handia egin du arlo askotan, baita Hiztegi Batuan, azken urteotan» (8), *Miren Azkarate*, euskaltzaina eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Kontseilaria.
- «Euskal Herriko kultura eta ikerketan apartekoa. Zenbatu ezin ahaleko euskararen lekuko zahar berari zor zaizkio» (9), *Patxi Ondarra*, euskaltzaina.
- «Exijentea eta zehatza, bai bere buruarekiko ere, baina beti Hizkuntza Akademiarekiko leiala» (10), *Jose Luis Lizundia*, Euskaltzaindiko kudeatzaile eta idazkariordea.
- «Euskararen aldeko borrokalari gogorra eta oso langilea [...] bere burua proiektuz beterik zuen» (11). «Euskararen ikerkuntzarako ezinbesteko diren testuen argitaratzailea» (12), *Patxi Salaberri Zaratiegi*, euskaltzain urgazlea.
- «Nafarroako euskal testu zahar gehienak haren eskuetara iristen ziren [...] Azken batean Joxe Mari lanerako gizona zen [...] mirespena haren lanetik datorkigu gehienoi: ikerkuntzako artikuluetako bibliografietan Joxe Mariren ekoizpen erabiliak usu orrialdea gainditzen du izenburuetan» (13), *Iñaki Camino*, euskaltzain urgazlea.

(7) *Egunero*, 2003-03-28.
(8) *Egunero*, 2003-03-28.
(9) *Diario de Noticias*, 2003-03-28.
(10) *Egunero*, 2003-03-28.
(11) *Europa Press* agentzia, 2003-03-27.
(12) *Diario de Noticias*, 2003-03-28.
(13) *Egunero*, 2003-03-28.

– «Euskal kultura eta hizkuntza izan dira bizitza osoan eta etengabe landu dituen gaiak» (14), *Pedro Miguel Etxenike*, EHUko irakaslea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Kontseilari ohia.

– «Nafarroako euskararen azken berrogeita hamar urte hauetan ezinbesteko erreferentzia izan da [...] Bizitza osoa euskal hizkuntza eta kultura ezagutzen eta zabaltzan saiatu da, buru-belarri ikertzen eta berreskuratzen, hain bereak zituen adore eta kemenez gure *lingua navarrorum* normalizatzen eta duin egiten [...] Zena eta zuena eman du Nafarroako euskararen alde» (15). *Andres Iñigo*, euskaltzaina eta Nafarroako ordezkaria.

* * *

• Nafarroako Gobernuaren adierazpen ofiziala:

«Antropologian, etnografian eta euskaran Nafarroak XX. mendean izan duen erreferente garrantzitsuenetako bat» (16).

Herri esaerak dioen bezala, *hil eta gero, salda bero*. Aitzinetik, ordea, ez zen dena lore izan. Azken aldi honetan, herri ekimenez sortutako zenbait erakunderen errekonozimenduak jasotzen hasia bazen ere, hala nola, *Larreko* saria, *Manuel Irujo* II saria, bereak eta bost jasan behar izan zituen, nafarroi, erabaki legal eta administratiboak zirela eta, geurea dugun hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko oztopoak eta eragozpenak jarri dizkiguten bakoitzean. Adierazpen publiko nahiz pribatuetan, behin eta berriro erran izan du euskara onartzea kultura kontua dela, konnotazio politiko guztien gainetik. Era berean, behin eta berriz malenkoniaz gogoratu izan du, gerra ondoko urteetan «Sección del Fomento del Vascuence» sortu eta bulkatu zuten Foru Diputazioko kide haiek, oraingo anitzek ez bezalako jarrera zabala erakutsi zutela, Nafarroako aniztasun kultural eta linguistikoa kontuan hartzen zutelako.

Joan den apirilaren 25ean Euskaltzaindiaren ageriko bilkuran Jose Mari Satrustegik Jose Mari Jimeno Juriori buruz idatzirik utzitako hilberri-txostena irakurtzeko eskatu zidaten. Irakurtzen ari nintzelarik, burura etorri zitzaidan Satrustegik Jimenoz idatzitakoan ez ote zuen neurri handi batean, eta beharbada inkontzienteki, bere burua ere sartu, jakinik Nafarroako euskararen bi ardatz sendo hauek bidaikideak izan zirela Erkidego honetako gorabehera askotan. Honela zioen: «Ospetsua izan da Jose Mari Jimeno Jurio Nafarroan azken aldiko kultura arloan [...] Ez da beti begi onez ikusia izan Nafarroari eta euskal kulturari zintzotasunez oparitu dion ondare sendo eta baliotsua eta izan zuen horregatik oztoporik bidean. Baina egiaren adiskide fidel eta gezurraren salatzaile ausarta gertatu zen beti Jose Mari, inoiz kokildu gabe [...] Euskaltzale guztiok zor diogu esker on eta ohore Artaxoako [orain Arruazuko erraten ahalko genuke] seme agurgarriari. Bere biziko oroitzapen ona eta lan guztien ondare baliotsua dira orain haren presentzia iraunkorra gure artean» (17).

Andres Iñigo,
euskaltzain osoa eta
Nafarroako ordezkaria

(14) *Diario de Noticias*, 2003-03-28.
(15) *Egunero* eta *Gara*, 2003-03-28.
(16) *Diario de Noticias*, 2003-03-28.
(17) *Euskera*, 47, 2002, 2, 981-982 or.

RUDOLF DE RIJK, EUSKALDUNEN HOLANDAKO ADISKIDEA (1937-2003)

Gipuzkoako Foru Aldundia.

2004.eko urtarrilaren 30ean

Rudolf Pieter Gerardus de Rijk hizkuntzalari ospetsua bizi zen karrikaraino ailegatuz gero, ez zen galtzerik bera bizi zen etxea aurkitzeko orduan. *Newton* kalea, etxe apalak, inguru hauetan ikusten ditugunak baino ttipiagoak. Karrika txiki hartako ate leiho ttall baten gibeleko aldean ikus zitekeen, pentsatzen dut orain ere ikusten ahal izanen dela, ikurrin bat kirikaka bezala jarria: iduri luke Euskal Herriko kontsula bizi dela han. Horrek ematen zizun seinale han bazela norbait Euskal Herriarekin lotura handia zuena, horrexek adierazten zizun non atzematen ahal zenuen euskaldunen Holandako adiskidea. Hura baitzen R. de Rijken etxea, eta bera baitzen, neurri batean segurik, gure kontsula.

Zoritxarrez, haren eritasunaren berri izan nuenetik, behin baino gehiagotan ireki nuen ikurrinadun ate hura. Beti galdetu izan diot nire buruari, orain dela aunitz urte etxe hartara lehenbiziko aldiz hurbildu nintzenetik, nola konponduko ote ziren biak toki hartan, Rudolf eta Virginia senar-emazteak, zahartuta edo ezinduta geldituko balira noizbait. Zeren, behin ate hura gurutzatu ondoren, buruz buru aurkitzen zenuen gauza bakarra, hantxe berean zure zain, eskailera zut bat baitzen, tente-tente, «hator hona!» erran nahiko balu bezala.

Holandako etxeek, oro har, ba omen baitute, hala azaldu zidaten eskailera hartaz nire harridura erakutsi nuenean, holako tradizio bat, urteetan itsasoari lurra irabazi nahian ibiltzetik datorrena: tokiz aski eskas dabiltzanez, etxe txikiak egiten omen dituzte eta etxe txiki horiek are eta eskailera zut eta estuagoak behar izaten omen dituzte, isats-ontzietakoak bezalakoak. Bada, eskailera horrek baditu 16 maila lehenik, bertze 15 berehala eskalaburuaren ondoren, zangoa doi-doi jartzeko moduko hortz txiki batzuk, senar-emazteak bizi ziren tokia iritsi nahi bazenuen nahi eta nahi ez egin behar zirenak. Eskailerapean uzten zenituen bertze bi bizitoki, ez dakit nor bizi den han, eta behin gaineraino ailegatu ondoren, han hasten zen De Rijk familiaren bizitokia: solairu hura, eta bertze pare bat gehiago, beti goiti. Alta, batek pentsa dezake horrenbertze eskailera eta solairu duen eraikina jauregi baten parekoa-edo, izango dela: baina ez, etxe ttipi bat da, apartamentu koxkor bat, ez bertzerik. Eta han bizi zen euskara biziki ongi ezagutzen zuen atzerritar hizkuntzalari bat, egin lan onak betiko guganatu duena. Zoritxarrez, ez zuen aukerarik izan Rudolf de Rijkek zahartzeko, eta horregatik ez dut jakiten ahal nola biziko zen etxe hartan zahartuta eta

ezinduta geldituko balitz noizbait, gogoz gelditu naiz jakiteko nola konponduko zen eskailera madarikatu haiekin.

Amsterdamgoa zen Rudolf de Rijk, han zen sortu eta han hil. Eta han, Vermeeren argi eztien artean, eman zituen bere urte gehienak, Estatu Batuetan hizkuntzalaritza ikasten egon zen garaia kenduta. Handik maizkara etortzen zen Euskal Herrira, denok ikusi izan dugunez.


Zergatik etortzen zen, bada, horrenbertze? Zergatik etortzen ziren biak, Virginia eta bera, gure eskualde hauetara?

Diote bizitza kasualitateek hornitzen dutela eta anitzetan ez dakigula zergatik gertatzen diren gauzak, elkarren artean muturka ibilitako zenbait gertaeraren halabeharreko ondorio baizik ez garela. Bada, halako zerbait gertatzen zen Rudolf de Rijkekin ere. Gaztetik zuen gogokoa harat-honat ibiltzea: garai hartan, orain baino errazago beharbada, bide bazterrera atera eta auto gidariren baten gupidari esker egiten ziren bidaiak, eta hori egin zuen Rudolfek halako batean, Espainiako hegoaldea ezagutu nahi zuela eta. Itzultzean Donostian baratu zen eta han ikusi omen zuen, monumentu batean, zerbait euskaraz idatzia. Berak ez zekien orduan zer hizkuntzatan zeuden letra haiek, baina bai konturatzen zen, hizkuntzetara aski zaletua zenez gero, erdara hura ez zela ez gaztelania ez frantsesa, bertze zerbait zela. Galdetu zuenean, inguruko norbaitek argitu zion erdara hura euskara zela. Eta arratsalde hartan berean liburu dendaren batean ikusi zuen Lopez de Mendizabalen liburu bat erosi eta harekin besapean itzuli zen Amsterdamera. Gero, Euskal Herriko hiri hori lehenbiziko aldiz ikusirik, Donostiara etorri zen behin eta berriz bere bizitzan zehar. Hasierako bidaia horietako batean aurkitu zuen bertze gazte bat bera bezala ari zela errepide bazterrean autoak geldiarazi nahian, eta harekin, Juan Mari Zulaikarekin alegia, urteetan luzatu den adiskidetasuna izan du. Orduko hasia zen dagoeneko arrotz egiten zitzaion hizkuntza hura berea egiten.

Hasierako ikasketak jesuiten ikastetxe batean eginak zituen: ordutik mantendu izan du adiskidetasun handia, nahiz berak bere burua katolikotzat ez zuen hartzen, hori uste dut behintzat, apaiz jesuita batekin. Etxe hartan nengoeneko batean agurtu nuen apaiz hau. Jesuiten ikastetxean egindako hasierako ikasketa horien ondoren Amsterdamgo Unibertsitatean akitu zuen lizentzia eta hantxe burutu zituen doktorego aitzineko ikasketak ere, master baten parekoak. Nahiz guk hemen hizkuntzalari eta euskalari gisan ezagutzen dugun, ikasketa hauek guztiak matematika, astronomia eta fisikarekin lotuak ziren, baina «Doctoraalexamen» egin zuenean, hizkuntzalaritza orokorra ere ukitu zuen.

Hango Unibertsitateko ikasketa sisteman bi hautu egin behar zituen ikasle batek garai hartan (orain, Europako Batasuna dela eta, hau guztia aldatzen ari da): zein zen, bere ikasketetan, landu nahi zuen arlo nagusia, 'major' deitzen zitzaiona, eta zein bigarren arloa. De Rijkek, erran dudan bezala, matematika eta fisika aukeratu zituen arlo nagusitzat, eta hizkuntzalaritza kontuak utzi zituen bigarren arloko, nahiz hauei ere lehentasuna eman nahi zien. Honek bazuen azalpen bat, aski erraz ulertzen ahal dena. De Rijk ezagutzeko aukera izan genuenok badakigu bazuela zailtasun txiki bat mintzatzeko, hitzak ez baitzitzaizkion nolanahi ateratzen ahotik, eta baimena eske bezala ibiltzen baitzitzaizkion, askatasuna bilatu nahian bezala. Horrek, nonbait, ahalke pixka bat ematen zion, eta horrexegatik ez zuen egin garai hartan bertze 4major» bat frantsesean: ez zen ausartu frantses azterketa jende aurrean egiten.

Hizkuntzalaritza gose hau urte batzuk geroago konponduko zuen, Estatu Batuetara joan zenean ikastera, Boston inguruan dagoen MIT izeneko unibertsitate famatura. Han eman zituen zenbait urte gramatika sortzailearen ikerketak, Chomskyren eskutik eta gaur egun aski ezagunak diren hizkuntzalariak zituela ikaskide, indarra hartzen ari ziren garai haietan, eta han aurkeztu zuen bere tesia, euskal erlatiboei buruzkoa, Ken Hale irakaslea zuela zuzendari, nahiz tartean egonaldi luze bat ere egin behar izan zuen Holandan, bere amaren eritasun larriak itzultzera bortxatu zuenean. Berak aurkeztu tesi hori *(Studies in Basque Syntax: Relative Clauses)*, lan mardula da eta ez da arinkara egina: aise geroago, 1998an alegia, argitaratu baldin bazen ere, hau da euskal erlatiboei buruz egin izan den lehenbiziko lan xehea. Egia badiot, nekez aurkituko zuen R. de Rijk-ek Ken Hale baino hizkuntzalari egokiagorik tesi hura zuzentzeko: Ken Halek hainbertze hizkuntza zekizkien, eskua zuen horretarako, eta hizkuntza horien artean bereziki gustatzen zitzaizkion hiztun gutxiko hizkuntzak: «Hizkuntza bat desagertzen uztea Louvreko museoan bonba bat jartzea bezalatsukoa da», idatzi zuen behin. Ken Hale maitagarri hura, zoritxarrez, gazte joan zitzaigun,



geroago R. de Rijk bera ere joko zuen minbiziaren gaitz mota berak eramana. Heriotza honen berri Rudolfek eman zidan, orain dela urte pare bat, arratsalde apalean etxera deitu zidan egun batean: «orain dela ordu bat hil da Ken», jakinarazi zidan. Hunkitua zegoen.

MIT-ko ikasketak amaitu ondoren ikastaro batzuk eman zituen zenbait tokitan, eta eskolak Chicagoko Unibertsitatean ere, 1970-71 urteetan, baina berehala itzuli zen Holandara, Amsterdamgo Unibertsitateko Psikolinguistika Laborategian kontrataturik lehenik, 1973an, eta Leidengo Unibertsitatean ondoren, 1977tik aurrera, Hizkuntzalaritza Konparatuko Sailean. Han egon zen harik eta 2002an jubilatu zen arte, eta jubilatu ondoren ere, erretiratu gabe, Unibertsitate horrek, Hizkuntzalaritza Sailean orain, merituzko irakasle egin zuen.

Amsterdamgo Unibertsitateak kontratatu aitzinetik bazituen hainbertze lan argitara emanak. Horien artean lehenbizikoa *Egan* aldizkariak atera zuen 1962an, Mari Karmen Garmendiarekin itzulitako Ana Franken egunkariaren atal bat. Hogeita bortz urte zituen orduan, eta dagoeneko buru-belarri sartua zen euskara kontuetan. Aldaketa garaian zegoen une horretan Rudolf euskalaria, ondoko urtean argitaratu baitzuen oraindik lan bat algebraren ingurukoa. Baina aski adierazgarria da, dena dela, ondoko hilabeteetan atera zituen lanak bi liburu ezagunen kritikak izatea (1): K. Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* eta E. Bach-en *An Introduction to Transformational Grammar*. Adierazgarria dela diot, bi liburu hauek biltzen baitituzte ezin hobeki De Rijk-en garai hartako kezkak: bazuen usaina konturatzeko, kanpotik begiraturik ere, Mitxelenaren lana dela euskararen ikerketen inguruan gertatu den mugarri garrantzizkoenetako bat. Halaxe aitortzen du berak ere liburuaren kritika egitean. Eta kezka hau, euskal hizkuntza filologo baten ikuspuntutik aztertzea erran nahi dut, beti izango zuen bidelagun, hil arte. Bigarren liburuak ongi biltzen du hizkuntzalaritza teorikoaren ikuspuntutik zuen kezka, apalduxeago gelditu zitzaiona ondoko urteetan.

Urte haietakoak dira euskal sintaxi eta fonologiari buruzko lan aipagarri batzuk: «Is Basque an SOV language?»; «Vowel Interaction in Biscayan Basque»; «Relative Clauses in Basque: a Guided Tour»; bere tesia, hainbertze urtetan argitaragabea izan zena eta «Partitive Assignment in Basque», bakar batzuk bakarrik ekartzeagatik gogora. Hor ageri dira, bere estilo argi eta xehean, euskal sintaxiaren gunea ukitzen dituzten zenbait gai: euskal sintagmen hurrenkera perpausean; erlatiboak; partitiboak estaltzen dituen egiturak, eta abar. Horrekin batera, itxuraz hain desberdinak ematen duten hitzen gibelean dauden oinarrizko arau fonologikoen zehaztapena ere egiten du. Hasieratik ikusten da hizkuntzalaritza gaiak lantzeko zuen modu eta estiloa: datu zehatzak biltzen ditu; euskal literatura ezagutzen du, badaki zertaz ari den, eta arrazoibideak ongi argumentatuak ematen ditu, hizkuntzalaritzaren teoria beti gogoan, esan behar dena zehatz-mehatz adieraziz eta isildu behar dena bazterrean utziz. Azterketak egiteko dohain berezia zuen. Holakoa zen De Rijk, atzerritar euskalaririk handiena. Eta uste dut hau ere erran behar den, bai baitut halako inpresioa gaur egi-

(1) Ez ditut Rudolf De Rijken lan guztiak hemen aipatuko, ezta haien erreferentzia osoak eman ere. Xehetasunak nahi dituenak aski du ondoko lan hauek ikustea: Rudolf P. G. de Rijk *De Lingua Vascomum: Selected Writings*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo 1998, eta Artiagoitia X., Goenaga P. eta Lakarra J. (arg./eds) *'Erramu Boneta': Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo 2002.

ten diren zenbait lanetan bertze bide batzuetatik abiatu dela jendea, eta batzuetan datuen artean zoraturik gelditzen garela, nahas-mahasean erdi galduak. Ez gara gai izaten datu horien gibelean beti egoten den sistemaren aurkitzeko. Txarrena da maiz ez garela saiatzen ere.

Urte horietako batean, 1972an, eman zuen lehenbiziko aldiz udako ikastaro bat Renon, eta ondoko urteetan ere eman zituen bertze batzuk. Han ezagutu zuen Virginia eta elkarrekin hasi ziren harremanetan. Halako batean, Virginia Amsterdamera hilabete bat pasatzera etorri, eta Ameriketara itzultzeko orduan aireportuan hegazkina huts egin zuen. Bertze bi hilabete gehiago eman zituen Amsterdamen, eta ezkontzaren kontua ez zuen garbi ikusi harik eta Rudolfek galdera zuzena egin zion arte: «Ez naiz ni aski zuretzat?». 1979an ezkondu ziren.

Halakoxea baitzen Rudolf De Rijk: ápala, apalik bazen norbait, gizon umila. Esku zabalik hartzen zuen jendea bere etxean. Beti izango zuen gela bat hara hurbildu nahi zuenarentzat: gazta aterako zion, ardoarekin, eta euskal musika jarri entzuteko. Eta halako batean esaten bazenuen, deskuidoz-edo, halako postrea gustatzen zitzaizula, Amsterdamen ematen zuten lekurik hoberenera eramanen zintuen, horretarako hiru edo lau autobus hartu behar baziren ere, ez berak ez andreak baitzuten autorik gidatzen. Berehala hasten ziren galderak, hori bai: «Eta hau nola esaten duzue Baztanen?» «Eta beste forma hau erabiltzen du ez dakit nork halako orrialdean, eta niri arraro samarra egiten zait. Baduzu zuk honen berri?» Hola konturatzen zinen hemengoak eta hangoak ezagutzen zituela, oraingo idazleak eta lehenagokoak (batez ere lehenagokoak) eta arras eroso sentitzen zela zubererazko nahiz bizkaierazko adibideen artean. Galderek segituko zuten Amsterdamen geunden bitartean, eta gero, etxera itzuli ondoan ere, ia-ia astero jotzen zuen telefonoak, larunbat goizetan gehienetan, dilindan gelditzen zitzaizkion galderen erantzuna behar baitzuen. Badakit gauza bera egiten zuela Euskal Herriko bertze lagun zenbaitekin ere.

Langilea, hitz gutxikoa, euskal gaietan jakintsua. Hola hil arte. Eta hil arte ere ez zuen ongi konprenitu zergatik genuen euskaldunok halako interes berezia berak egiten zuen lanean, ez zitzaion buruan sartzen zergatik izan zitekeen hori.

1979ko egun euritsu batean ezagutu nuen Donostian. Han ikusi nuen lehenbiziko aldiz, Deustuko Unibertsitateak han duen campusean antolatua zuen hitzaldi sail batean: euskal hizkuntzalaritzaren eta literaturaren bide berriak aztertu nahi ziren orduan. Ez dut egundaino atzenduko hitzaldi hark nigan izan zuen eragina. Ez ginen jende gehiegi, baina bai gaur egungo hitzaldietan jeneralean ikus daitekeen kopurua baino gehiago: aurrez aurre nuen gizon bat, atzerritarra, euskaraz xarmanki mintzo zena, nahiz arratsalde hartan ere hitzek baimena eskatu behar zioten jarioan ateratzeko. Berdin ematen zituen euskalki bateko nahiz bertzeko adibideak, berdin idazle baten eta bertzearen aipamenak. Ezinezkoa iruditu zitzaidan. Orduko bazituen bertze lan batzuk argitaratuak, predikaturi buruz, edo mintzagai eta galdegaiaren arazoa hartzen zutela hizpide.

Urteak geroago, tesia bukatu nuenean, Mitxelenak galdetu zidan nola ikusten nuen Rudolf de Rijk deitzea epaimahaira. «Arras ongi», ihardetsi nion, baina «Hau beldurra!» pentsatu nuen nire baitan, nahiz holakorik ez nion erran, jakina. Mahaiaren bertze aldean bortz lagun ikusteak beti ematen baitu, beldurra ez bada, errespetua segurik. Eta horietako bat hitzaldi hartatik ezagutzen nuen Rudolf de Rijk baldin bazen, errespetuzko beldur hura areagotu egiten zen. Halakoa zen, non 1983ko udan neronek eraman bainion tesia bere etxera, Holandara. Harrera atsegina egin zidan eta jatetxe txinatar bate-

ra joan ginen bi senar-emazteak afaltzera, Amsterdamgo «barruti gorria» deitzen dioten gunearen erdi-erdian zegoen batera, hain zuen: «Hoberenetakoa da» argitu zidan. Paretetan baziren lerro batzuk txineraz idatziak, eta janaria eskatu ondoren, bera irakurtzen hasi zen, eta euskaratzen. Zerbitzaria etorri zenean, harekin ere txineraz hasi zen eleketan, eta nik harriturik galdetu nion ea txineraz ere bazekian. «Zerbait bai, baina zerbitzari honen hizkuntza eta pareta kantoi horretan dagoena ez da berdina, hau kantoneraz mintzo baita, baina paretakoa mandarina baita, eta biak aski diferenteak dira elkarren artean». Inolako expanturik gabe erran zidan hori, Amsterdamgo barruti gorrian holako bereizketak egiten ibiltzea munduko gauzarik naturalena izango balitz bezala. Ez, ez zuen aparteko buruko minik ingelesez, gaztelaniaz, frantsesez, euskaraz, hebraieraz edo alemanez mintzatzeko. Eta, behar izanez gero, txekieraz ere ez zen gaizki moldatzen.

Tesiko mahaira hurbildu zenerako beldurra urrundua nuen pixka bat, eta anitzez ere lasaiago gelditu nintzen bezperan bere hoteleko gelan berarekin izan nuen elkarrizketarekin: tesi guztia zuen oharrez betea, orriz orri, eta hainbertze iradokizun zituen. Horiek guztiak eman zizkidan, «lana argitaratzen nuenerako kontuan hartu nahi banituen edo». Ordea, biharamunean, ekitaldi publikoan, solasaldi luze bat egin zuen tesia ezin hobeki taxutua eta idatzia zela gaztigatzeko, eta ez zuen bere oharretatik bat bakarrik ere, onerako ez bazen, aipatu.

Garai hartan Euskaltzaindiko Gramatika batzordea ere hasia zen lanean, eta lehenbiziko liburua lantzen ari ginen, Lafitte zela batzordeburu. Uste dut Rudolf de Rijk bera ere urte haietan hasi zela bueltaka idatzi nahi zuen euskal gramatika berri batekin. Euskara irakasten zion unibertsitatean ikasle talde bati, eta ez zuen gustuko materialik atzematen bere eskoletarako. Eta horrexegatik hasi zen gramatika horrekin bueltaka buruan. Lehenbiziko kapituluak ere eskribitu zituen, nederlanderaz. Gramatika lan hori, jakina, bertze lan batzuekin batera egiten zuen: euskal morfologia, erlatiboak idazle zaharren artean, tipologia, euskara eta gramatika unibertsala, leku izenak, tratamenduak euskaraz, zenbait adberbioren azterketa, Etxepareren bertsoak edo antipasiboak euskaraz, horietako batzuk aipatzeagatik. Lan mordo bat egin zuen gai horietaz, hizkuntza zenbaitetan argitaratuak direnak. Horrekin batera tesiren bat ere zuzendu zuen (X. Altzibarrena, lekuko) eta astia izan zuen OEH-ren eta EGLU-ren kritikak egiteko ere, eta zintzo etorri zen, ahal zuen bakoitzean, ikastaro baten ematera, hitzaldiren bat eskaintzera, edo euskararen inguruan eskatzen zitzaion guztia egitera. Horregatik erabaki zuen Euskaltzaindiak 1991n ohorezko euskaltzain izendatzea. De Rijk-ek eutsi baitzion, eutsi ere, bere herriko Van Eys eta Uhlenbeck hizkuntzalari eta euskaltzaleek, edo hain ezaguna ez den Nicolaas G. H. Deen jaunak, urteak lehenago markatutako bideari.

Orain dela urte bat eta erdi, goiti-beheiti, deitu zidan larunbat goiz batean, ohi bezala: adberbio baten erabilera jakin nahi zuen nolakoa zen Baztanen. Solasaldi laburra izan zen, bertzeetan baino laburragoa. Amaieran «zer moduz zaude? Nola doazkizu gauzak? Nola duzu gramatika hori?» galdetu nion, eta berak «bizi naiz», eta gramatika ere poliki-poliki, bazihoala, erantzun zidan. Hori, gramatika mantxo joatea erran nahi dut, ez zen kontu berria, bai bainekien R. de Rijk ez zela esku arinekoa eta paperean zerbait jarri aitzinetik ongi pentsatzen zuela nola jarri. Ordea, ez nuen espero handik egun batzuetara etxean eskuratu nuen gutuna:

Adiskide on hori,

Hogei urte badira elkar ezagutu genuenetik, eta harrezkero adiskideak bihurtu garela iduritzen zait.

Halaz ere, arestian telefonoz «zer moduz» edo galdetu zenidanean, «bizi naiz» erantzun nizun, egia osoa esan gabe.

Barka, otoi. Alde batetik, berri txarra goizegi etortzen da beti, eta bestetik, nire adiskide eta ezagunek oro bateratsu jakin dezaten nahiago dut.

Horra bada: orano bizi naiz, bai, baina pankreako minbizi gaitz baten mendean; sendagileek bizpahiru hilabete besterik ematen ez dizkidatela.

Kimioterapian hasia naiz, baina honek ere ez omen dit bizia luzaturen.

Fededuna naiz eta honek asko laguntzen dit egun hauetan bakean egoteko.

Virginiarentzat, ordea, gertatzen ari zaidana zeinen latz eta garratz den aise ikusiko duzu.

Amaitu baino lehen, urteetan zehar zuregandik hartu dugun adiskidetasunarengatik eskerrak eman nahi nizkizuke. Beti pozgarria izan zaigu, bai Virginiari bai neri.

Agian geldituko zaigu elkarrekin telefonoz hitz egiteko parada.

Bihotz-bihotzez

Rudolf de Rijk-engandik.

Eskuz idatzitako gutun horrek ez du datarik erakusten. Eta aski harrigarria da hori, kontuan izanik gauza hauetan zein arduratsua zen Rudolf. Segur aski ere, denborak galdua zuen erranahia berarentzat. Hori 2002ko iraila izanen zen, buruz ari naiz, oporren bueltan. Pentsatzekoa da nola gelditu nintzen. Holakoetan batek ez daki ongi zer egin behar duen, eta horretan pentsatzen egon ondoren ondoko goizean hartu nuen telefonoa. Berak erantzun zidan zuzenean. Joa aurkitu nuen, baina adore handiarekin aldi berean: «Uste dut gai izango naizela idazten ari naizen kapitulu hau bukatzeko. Ez dut uste urte berria ikusteko gauza izango naizenik, baina zurekin mintzatu nahi nuke gramatika kontu honetaz, zuek eman behar baitiozue amaiera». Hori erran zidan.

Baina gai izan zen kapitulu hura eta bertze kapitulu pare bat gehiago ere egiteko. Eta 2003ko urte berria ikusi ahal izan zuen.

Euskaltzaleen artean berehala zabaldu zen berria, eta hemengo jendea hasi zitzaion hara etxera joaten: asko estimatzen zuen hori, bere azken hilabeteetako eritasunaren goiti-beheiti handien artean. Bisita horietan aipatzekoa da Euskal Herriko Unibertsitateak, errektorea zela buru, egin ziona *Honoris Causa* gisa janzteko 2002ko azaroaren 29an. Gradu hori hilabeteak lehenago onartua zitzaion, baina, horretan, egin zen eritu. Etxean egindako ekitaldi xume haren ondoren denak joan ginen jatetxe batera: hura zen asteetan egiten zuen lehenbiziko irteera. Hori bai: ezbeharrak eskutik heldu dira elkarrekin, kateatuak bezala. Ekitaldiaren bezperan hilobiratua zuten bere arreba, hau ere bat-batean joana minbiziak usteketan jo ondoren. Berak ez zuen hitz erdirik erran honetaz ez ekitaldian, ez gero, bazkalorduan.

Ondoko asteetan, pixkaka-pixkaka itzaltzen hasi zen: telefono deiekin segitu zuen, baina deiak bakandu ahala kraskatuz eta hautsiz joan zitzaion ahotsa ere. Azken aldera, gero eta zailago gertatzen zitzaion mintzatzea eta marrantak estaltzen zizkion hitzak, telefonoan gero eta urrunago entzuten nituen. Azkenean, utzi zuen telefonoa ere.

Virginia zuela zaindari aldamenean, lanean segitu zuen, egunez egun gutxixeago, hori bai, baina azkeneraino indarrak galdu gabe. Euskal gramatika inoiz ere baztertu gabe, azken asteetan Virginiak ehunka orrialdeko eleberri bat irakurri zion ohe bazterrean. Gramatikaren goiti-beheitiak direla eta, berak honetaz ardura hartzeko eskatu baitzidan, orrialde bateko gutuna idatzi nion ekain hasieran, galdera zehatz batzuk eginez, eta argitasun batzuk eskatuz. Virginiak erran zidanez, bi egun behar izan zituen gutuna leitu eta ulertzeko, eta erantzunak berari eman zizkion niri helarazteko.

Hola, 2003ko ekainaren 15ean hil zen, arratsaldeko hiruretan. Biharamunean egin zen ekitaldi txiki hartan, hil aitzinetik berak zuzenean ingurukoak agurtzeko hautatu zuen egitaraua bete zuten: «Maitia, non zira?», 23. salmoa, hitz labur batzuk, «Adios, ene maitia» eta «Agur jaunak». Hilkutxaren gainean bi arrosa: bat gorria; xuria bertzea. Bizi izan zen apaltasunarekin egin zitzaion orduan agurra. Eta Euskal Herrian egiten den bezala, edo egiten zen bezala, denak elkarrekin joan ziren bazkaltzera jatetxe batera.

Newton izeneko karrikan bizi zen Rudolf de Rijk, eskailera zut hori duen etxe batean. Ondoko karriketan Arkimedes, Pitagoras, Laplace edo Galileo bezalako izenak irakur daitezke. Sinbolo ederra da hori, duda gabe. Handik joaten zen astero Amsterdamgo elkarte ofizialera xakean aritzera, bera baitzen Holandako xake jokalaririk onenetako bat, betiere elkarteko jokalari hautatuenen sailekoa. Etxean bazituen hainbertze liburu xakeari buruz, eta eskuz hartutako oharrak bere jokaldirik onenekin. Etxean utzi du kutxa batean «for fun», hau da, «ongi pasatzeko», egiten ari zen kantonerari buruzko hiztegi berri bat, milaka fitxetan bildua. Etxean utzi ditu, besteak beste, liburutegi handi bat eta hainbertze Biblia, bera fededuna baitzen, eta erlijio kezka handia baitzuen. Horregatik zituen hainbertze Biblia, hizkuntza diferenteetan idatziak, aldi berean balio baitzioten, Bonaparte berri baten antzera, hizkuntzen arteko konparazioak egiteko.

Hizkuntzekin, bibliekin, xake jokoekin... hornitzen zuen bere arimaren bizia. Isil-isilik, gauza guztiak egiten zituen gisa, hilabetero bidaltzen zuen dirua Bangladesh-eko eritegi batera, «medical post» batera, eta horri esker zaintzen zituzten han eriak. Diru gutxi aski omen da duintasunez bizitzeko, ez da gehiago beharrik, hori da berak zioena.

Baina gure artetik joan aitzinetik bere azken lan erraldoia, hemendik aitzinat euskalari ororen erreferentzia izango dena, utzi digu: euskal gramatika, alegia. Hasierako urteetan nederlanderaz idazten hasi baldin bazen ere, gero kapitulu guztiak aldatu, osatu eta bertze itxura batekin ingelesez berridatzi zituen. Lana akitu gabe baldin bada ere, zati handi-handi bat, ehuneko lauretan hogeia, egina zuen eta halala, deusik ere gaineratu gabe, argitaratuko da hurrengo hilabeteetan. Erran bezala, haste hartan, liburua ikasleak gogoan zituela hasi zen eskribitzen. Baina orain anitzez ere zabalagoa da, eta hizkuntzalari eta euskaltzaleek biziki eskertuko duten zerbait da. Hau izanen da, diodan gisan, hurrengo urteetan euskararen erreferentzia gramatika, batez ere euskara irakurtzeko gai ez direnendako. Hogeita hamabortz kapitulutatik 27 utzi ditu idatziak, orotarat mila orrialde inguru. Gelditzen diren kapituluetatik badira bertze hiru holandesez idatziak, eta geroak erranen du nola argitaratuko diren horiek. Gramatikaren gai nagusi gehienak hor daude, bada, modu zehatz eta argi batean aurkeztuak. Kapitulu bakoitzean gaia aurkezten da lehenik, adibide ugarirekin, denak euskal liburuetatik bilduak. Benetan harrigarria da hau, Rudolfek ez baitzuen ordenagailurik erabiltzen, zuzenean

segurik: liburu horiek guztiak etxean zituen. Gainera, kapitulu bakoitzak azalpenetan ibilitako hiztegi labur bat ere biltzen du, eta ariketa batzuk proposatzen dizkio irakurleari.

Gramatika honek biribiltzen du Holandako gure adiskideak euskaldunoi eskaini digun lan aberats eta oparoa. Rudolfen euskal bidaia Donostian abiatu zen, hango monumentu hartan hizkuntza arrotz batean irarritako lerro batzuk ikusi zituenean. Bizitzan zehar, erdara ezezagun hura harremanetako euskara egin zuen. Munduari itzulia egin ondoren, hain gogoko zuen Urkiolako mendian hedatu zituen Virginia bere alargun maiteak haren errautsak 2003ko uztailaren 26an. Orduan erran nuen bezala: *utzi diguzun irudimenarekin, utzi dizkiguzun lanekin, beti hurbil izango zaitugu, euskaltzale eta euskaldun, euskaltzale eta euskaldunok.*

Goian bego.

Pello Salaburu,
euskaltzain osoa

RUDOLF P. G. DE RIJK

Ohorezko euskaltzain zendu berriari omenaldia

Abadiño, Urkiola, 2003-VII-26

Virginia Chan-de Rijk andrea,

euskaltzainok,

agintariok,

jaun-andre eta adikide guztiok.

Hitz labur batzuk, Euskaltzaindiaren eta nire izenean, Rudolf de Rijk jaunari geure errespetu, aintza eta omenaldia eskaintzeko. Gaixotasun mingarriaren ondoren, beti ere bere emazte Virginiaren ardura eta maitasun etsituak gozatua, utzi gaitu sekulako, holandar hizkuntzalari handi honek.


Guztiok dakigu zer nolako lanak egin zituen Rudolfek euskararen alde, eta horietan ongi islatzen zuen Euskal Herriari eta euskaldunoi zigun amodio nabarmena. Horiez gainera, ohore paregabea da guretzat, non eta hemen, gure artean bere errautsak hedatu nahi izatea, bizi zenean hainbeste maite zuen herri hau azken egoitzatzat hautatuz.

Baina ez da haren errautsa gure artean geldituko den bakarra, haren itzala ere, gizontasunezko eta jakituriazko itzal urdin eta gozoa ere, euskaldun guztiongan egonen baita betiko.

Nederlandako zelai lau eta urtsuetan jaio zenak, har dezala betiko bakea, guztion maitasunarekin, eta gure Herriko baso, mendi eta harkaitzon besarkada abegikor eztia ere bai. Fededuna zen bera, zinezko kristaua. Hortaz, segur naiz goiko Jaunak ere ez diola ukatuko ongi merezitako atsedena.

Agur eta ohore, Rudolf: beti zaituzkegu gogo-bihotzetan.

Xabier Kintana,
euskaltzain osoa eta idazkaria



Abadiño, Urkiola, 2003-VII-26

HERIOTZAREN SAMINA

Heriotzak beti dira saminak. Saminagoak, hala ere, gure ingurua uzten duena gure artean sortu gabe geroago guregana hurbildu den norbait baldin bada.

Hemendik urrun ikusi zuen Rudolfek lehenbiziko aldiz argia, Vermeer-ek hain ongi margotzen zuen argi apal hura. Hemendik urrun entzun zuen, eta ikasi, gure artean mintzatzeko erabiltzen dugun mintzoaren hotsa. Eta hots horrek erakarri zuen guregana, Euskal Herrira.

Gaur ematen diogu agurra, eta egiten diogu ohore. Eta Lizardirekin batera esaten diogu:

Adiskide kuttun, lagun zorigabe,
Azpildu-gabeko bihotzaren jabe,
Onerako zabal, ederrak su-bera;
Hatorkit, Rudolf, gaur oroimenera!

Bihotzean min baitugu gaur, min etsia, negar isila darion mina. Lagun on bat genuen, adiskide berezia, gaur, uda etorri garaiez, alde egina.

Newton izeneko kalean bizi zen Rudolf. Laplace, Pitagoras, Galileo, Arkimedes edo Tolomeo deitzen dira inguruko karrikak. Hizkuntza kontuetan hauek bezain argia eta fina zen Rudolf. Leiala, isila, apala, langilea, eritasunak joa azkeneko hilabeteetan. Bere buruaren jabe beti.

Horregati, pentsatzen dut behin baino gehiagotan izango zuela gogoan azkenetan zenean, inoiz ere atzendua ez zuen fedeak berriz ere bihotza harrotzen zionean, Etxepare zaharrak halako hartan idatzi zuena:

Zuri gomendatzen nuzu hila eta bizia.
Neure gorputz eta arima eta dudan guzia.
Othoi, behar-orduyetan Zu zakitzat halia,
Eta, othoi, Zuk goberna ene bizi guzia

Ez zuen, hala ere, horren beharrik, segur naiz. Rudolfek ez baitzekien zer zen kalte egitea, ez zekien zer zen azpijokoetan ibiltzea, eta erakusten zuen zintzotasun eta leialtasun hura gardena zen. Ongi aski daki hori Virginiak. Xalbadorrek ezin ukana zuen maiteari kantatzen zion, eta esaten, zein xarmagarria zen. Rudolfek, ez zuen zorigaitz hori izan Virginiarekin, berak esaten zigunez:

Maite dut zure begitartea, maite zure boz eztia,
Halaber zure irri gozoa, zure izaite gazia;
Zuretzat baizik ez dut begirik, zare ene iguzkia,
Gau eta egun zuri pentsatzen daramat ene bizia.

Orain agurraren garaian gaude. Eta *aire tristean kantatuko dut tristea baitut sujeta, heriotzeak egin arazten dauku zonbait gogoeta. Nahi gabea dut gaur kantuan gidari, lagun batek erranik agur munduari; penaren agertzeko eman naiz kantari, hau laket baitzitzaion lagun zenduari.*

Esker ona erakutsi behar diogu euskaldunok Rudolf adiskideari. Ikus dezala berak, ikus dezala Virginiak, denok ikus dezagun:

Etzira bakarrik,
Zama hau har dezagun bi aldetarik;
Bainan, adiskideok, ez egin nigarrik,
Gure Rudolfek ez du tristura beharrik;
Ez du hargatik
Zeru hartarik
Ahanzten lagunik,
Ez eta adiskiderik;
Urruntzeak hortako ez du indarrik.

Ez, urrun joan zara, urrunegi. Baina Xalbadorrek zioen gisan, urruntzeak ez du indarrik. Utzi diguzun irudimenarekin, utzi dizkiguzun lanekin, beti hurbil izango zaitugu euskaltzale eta euskaldun, euskaltzale eta euskaldun. Agur, Rudolf, ongi ibili!

Pello Salaburu,
euskaltzain osoa

RUDOLF P. G. DE RIJK

Thank you for coming today. Rudolf loved the Basque Country. He found here warmth and hospitality, the dearest friends and colleagues, and the intellectual challenge of his life: the Basque language. This was the cradle of our love and the land of his heart. Now he will be a part of it forever.

Mila esker gaur etortzeagatik.
Euskal Herria maite zuen Rudolfek.
Hementxe aurkitu zuen berotasuna eta
abegi ona, lankide eta lagunik minenak
eta bere bizitzako erronka intelektuala:
euskara.
Hauxe izan zen gure maitasun-habia,
bere bihotzak hautatu zuen herria.
Orain hemen biziko da betirako.

Virginia Chang de Rijk

AURKIBIDEA / ÍNDICE / INDEX
2003

AURKIBIDEA / ÍNDICE / INDEX

2003

AGER, Pierre:
— Manuel Inchausperen mendeurrena 501

AGIRREAZKUENAGA, Joseba:
— Euskara, egitasmo politikoa bihurtu: Sabino Aranaren asmoak denboraren gurpilean, euskaltzaletasunaren ildoan 829

AGUILLO, Juan Carlos:
— Nomenclátor de Treviño/Trebiñu 375

ALTUNA, Patxi:
— Aita Kardaberaz Elgorriagaren bizitza 55

APEZETXEA, Pello:
— Elizaren euskararekiko jarrera Nafarroan 769

ARANA MARTIJA, Jose Antonio:
— Marijesiak 69

AURRE, Jon:
— Urgazle berriak 313

ARTOLA, Koldo:
— Pedro de Yrizar 381

ARTZA, Jon:
— Durangoko XXXVIII. Euskal Liburu eta Disko Azokarekiko kontu-errendapena 635
— Euskaltzaindiaren argitalpen eremua 1115
— 'Liber 2003'-ri buruzko txostena 1159

BADIOLA, Ricardo:
— Durangoko XXXVIII. Euskal Liburu eta Disko Azokarekiko kontu-errendapena 635
— Euskaltzaindiaren argitalpen eremua 1115
— 'Liber 2003'-ri buruzko txostena 1159

BELAUSTEGIGOITIA, Maitena:
— Gure aita Federiko Belaustegigoitia 177

BILBAO, Joserra:
— Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia: sari banaketa 361
— 2002ko *Azkue* sarien banaketa 393
— *Azkue* literatur sariak: 2002eko liburua eta 2003ko oinarriak 1177

CASENAVE-HARIGILE, Junes:
— Emmanuel Inchauspe (1815-1902) 549

CHARRITTON, Pierre:
— Pierre Broussain-en gutundegia 205
— Sabino Aranaren zazpi gutun 953
— Manuel Inchausperen mendeurrena 501
— *EGA* Iparraldean 1203

CUESTA, Ismael:
— Vocabulario de Miranda de Arga. Obra inédita del Padre Benjamin Elcano C.M.F. 593

DE YRIZAR, Pedro Ramón:
— *Morfología del verbo auxiliar Labortano, Bajo Navarro Occidental, Bajo Navarro Oriental* y *Suletino* 379

DEL RIO, María Jose:
— Euskaltzaindiari Miranda Argako alkateak emandako plaka 197

ELCANO SESMA, Martín:
— Toponimia Vasca de Miranda en tiempos de Bartolomé de Carranza 585

ETXEBERRIA, Mertxe:
— Agustin Kardaberaz 51

EUSKALTZAINDIA:
— Euskaltzaindiaren ARAUAK:
– 124. Hiztegi Batua *(analogo – antzoki)* 263
– 125. San, Santu, done eta besteren erabilera 270
– 126. Hiztegi Batua *(antzu – arbindu)* 272
— Batzar-Agiriak: 2002.eko abendua 281
— Batzar-Agiriak: 2003.eko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maia-tza 284
— Euskaltzain urgazle berrien izendapena eta diploma banatzea ... 307
— Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle berriak izendatu ditu 309
— Euskaltzaindia entrega los diplomas a los nuevos académicos correspondientes 311
— Nafarroako Euskara Kontseiluari 343
— Al Consejo navarro del Euskera 346
— BBK - Euskaltzaindia: sariak 357

* * *

— Euskaltzaindiaren ARAUAK:
– 127. Hiztegi Batua *(arbitrario – arloetu)* 1027
– 128. Nafarroa Behereko herri izendegia (II) 1034
– 129. Aita santuen izenak 1036
– 130. Hiztegi Batua *(arma – arrimu)* 1054
– 131. Hiztegi Batua *(arriskatu – askatu)* 1061
– 132. Hiztegi Batua *(askartzaile – atomatu)* 1068
– 133. Nafarroa Behereko herri izendegia (eta III) 1075
– 134. Hiztegi Batua *(atomika – aurpegi)* 1076
— Batzar-Agiriak: 2003.ko ekaina, uztaila, iraila, urria, azaroa 1085
— Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren artean 2003. urterako egindako *hitzarmena* 2002ko ekainaren 27an sinaturiko esparru *hizarmenaren* eranskina 1129
— *Acuerdo* entre el Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia para el año 2003. *Anexo* al acuerdo marco firmado el 27 de junio de 2002 1131
— EiTB eta Euskaltzaindiaren arteko *lankidetza-hitzarmena* 1135
— *Convenio de colaboración* entre EiTB y Euskaltzaindia 1136
— EiTB - Euskaltzaindiaren arteko *hitzarmena* 1137
— Euskaltzaindia – EiTB *akordioa* 1139
— Lankidetzako esparru *akordioa*, batetik, Euskal Irrati Telebista herri erakundearen eta horren sozietate euskal Telebista S.A., Eusko Irratia, S.A. eta Radio Vitoria S.A.ren eta, bestetik, Euskaltzaindia euskararen Erret Akademiaren artean / *Convenio* marco de colaboración entre el ente público Euskal Irrati Telebista y sus sociedades Euskal Telebista S.A., Eusko Irratia, S.A. y Radio Vitoria S.A. y de otra parte la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia 1141
— Lankidetza *hitzarmena*: Iruñeko Udalaren eta Euskaltzaindia-euskararen Erret Akademiaren artean / *Convenio* de colaboración entre el Ayuntamiento de Pamplona y la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia 1149
— Euskal komunitate zientifikoaren datu-basea *Inguma* 1153

FURUNDARENA, J. J.:
— *Hondarribiko toponimia* liburuaren aurkezpena 405

GALÉ, Patxi:
— Yose Paulo Ulibarri Galindez, *Hiztegia* 1191
— Yose Paulo Ulibarri Galindez, *Diccionario* 1193

GAMINDE, Iñaki:
— *Euskalkia eta hezkuntza* 431

GARCES, Jose Enrique:
— Nafarroa *oinez*: Bienvenida a Euskaltzaindia 693

GOIKOETXEA, Juan Luis:
— *Euskalkia eta hezkuntza...* Iker 13 415

GOROSTIAGA, Pablo:
— Federiko Belaustegigoitiari omenaldia 167
— F. Belaustegigoitiaren omenez 169
— Arratseko hitzak 171

GORROTXATEGI NIETO, Mikel:
— Onomastika: irizpenak 21
— Dictamen de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre los nombres: *Miñao, Guevara, Albeiz, Gopegi, Añua, Narbaxa, Bergantzu, Zuhatza, Ehari, Okina, Markina, Altsasu* . 21
— Dictamen de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre los nombres: *Murua, Soxo, Ilarduia, Murgia, Gamarra-Gutxia, Untzaga-Apregindana, Berriozar* 605
— Normativización, oficialización y normalización de la Toponimia en Euskal Herria 627

HARITSCHELHAR, Jean:
— Kardaberazen mendeurrena 53
— Euskaltzainburua Legebiltzarrean 329
— Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia: sari banaketa 359
— *Haizearen hegaletan:* Yĕhudah ha-Levi, Xabier Kintanaren liburu-aurkezpena 363
— *Morfología del verbo auxiliar vasco* 377
— R.M. Azkue: sari banaketa 387
— R.M. Azkue: «amaitzeko hitzak» 395
— *Euskalkia eta hezkuntza* 413
— Begoña Amundarain Uriarte: 25 urte Eukaltzaindian lanean: zilarrezko domina 449
— Intxauspe Axularren zentsuratzaile? *Gero*-ren gaurkotzaile? 569
— Tour de France 1109
— Azkue sariketak 1173
— Azkue sariketak: «Azken hitzak» 1179
— Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra. Baiona 2001 1183
— Lutxi Alberdi eta Resu Orbe, 25 urte Euskaltzaindian lanean ... 1211

IÑIGO, Andres:
— Dictamen de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre los nombres: *Miñao, Guevara, Albeiz, Gopegi, Añua, Narbaxa, Bergantzu, Zuhatza, Ehari, Okina, Markina, Altsasu* . 21
— Dictamen de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre los nombres: *Murua, Soxo, Ilarduia, Murgia, Gamarra-Gutxia, Untzaga-Apregindana, Berriozar* 605

— Bartolomé de Carranza-ren V. mendeurrena dela eta, Euskaltzaindiak Miranda Argan antolatutako ekitaldiak 181
— Actos organizados por la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia en Miranda de Arga, con motivo de la celebración del V centenario de Bartolomé de Carranza 183
— *Hondarribiko toponimiaren* aurkezpena 401
— Euskaltzaindia en Lumbier/Irunberri con motivo del Nafarroa oinez 2003 791
— Dictamen de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre el nombre de *Laguardia* 41
— Dictamen de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre el nombre de *Berriozar* 45
— Jose Mari Satrustegi Zubeldia (1930-2003) 1217

IRADIEL IBAÑEZ, María Teresa:
— Actos organizados por la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia en Miranda de Arga, con motivo de la celebración del V centenario de Bartolomé de Carranza 583

IRIONDO, Joxemari:
— Durango: 2003ko Euskal Liburu eta Disko Azokaren hasierako hitzaldia 639

IZTUETA, Paulo:
— Sabino Arana eta bere eragina euskal pizkundean 849

KALTZAKORTA, Javier:
— Erronda-kantuak eta eske-bertsoak 109
— Sariketak 1175

KAREAGA, Iñaki:
— Euskaltzaindia Internet-en 1111

KINTANA, Xabier:
— Euskaltzaindiaren barne-historiaz 203
— XIII. Barne Jardunaldietan hausnartzeko 317
— Yĕhudah ha-Levi 369
— Sobre Yĕhudah ha-Levi 371
— Sabino Aranaren gomutaz 823
— Euskaltzaindiaren barne-historiaz 971

KNÖRR, Henrike:
— Recordando al profesor Jacques Allières 15
— Dictamen de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre el nombre de *Laguardia* 41

LASA, Xabier:
— Euskararen erabilera Nafarroako elizan. Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan egiten den euskararen erabilerari buruzko azterketa soziolinguistikoa 697

LOBERA, Gotzon:
— *Euskalkia eta hezkuntza* 427

LIZUNDIA, Jose Luis:
— Belaustegigoitiaren omenez 173
— XIII. Barne Jardunaldietan hausnartzeko 317
— Euskaltzaindiaren 2003ko egutegia 337
— En torno a la Toponomástica 617
— Emakumeak idazle Durangerrian 681
— Sabino Arana eta euskal erakundetzea 931
— Resu Orbe eta Lutxi Alberdi: Euskaltzaindian 25 urte lanean ... 1213

MARTÍ I CASTELL, Joan:
— Acte de Lliuraments dels Premis de Literatura *R.M Azkue* 389

MONTERO, Manu:
— Sobre las *Alas del viento* 373

MUGURUTZA, Felix:
— J.P. Ulibarri: *Euskal Hiztegia / Diccionario Vasco* 1195

OKARIZ, Amaia:
— *Hondarribiko toponimia* 397
— R. M. Azkue literatur sariak abian 1165
— Ya está en marcha la nueva edición de los premios literarios R. M. Azkue 1169

OURET, J.P.:
— Pierre Broussain-en gutundegia 973

OYHARÇABAL, B.:
— Iker 14. Aurkezpena. Pirinio-Atlantikoetako departamenduko Konstseilu Orokorraren Baionako egoitzako ekitaldia 1185

PEILLEN, Txomin:
— Errelijionearen etsaiak Intxausperen libürüan 555
— Sabino Arana: Hizkuntza eta kultura 947

REBOLÉ, Eusebio:
— Toponimia y léxico vascos de Lumbier/Irunberri 795

SALABERRI, Patxi:
— *Altsasu / Alsasua* izenaren inguruan 37

SALABURU, Pello:
— Rudolf de Rijk, euskaldunen Holandako adiskidea (1937-2003) ... 1223

SARRAILLET, Jakes:
— Eüskalzaletarzüna Basabürüan 547

SELA, Eyal:
— Yĕhudah ha-Levi, Xabier Kintanaren liburu-aurkezpena 365

TELLETXEA, Jose Ignacio:
— *Mirandesis*, Fray Bartolomé de Carranza de Miranda 187

URRUTIA, Andres:
— VII. Jagon Jardunaldien aurkezpena. VII Jornadas de la *Sección Tutelar* de la R.A.L.V./Euskaltzaindia 695
— Sabino Arana: euskara eta kultura 941
— Txekeak betetzeko idazkera: eredu batua 1105

ZUGAZAGA, Lorentzo:
— On Karmelo Etxenagusiari «Urrezko luma» emotea 437
— Bilboko XXXIII. liburu azokarako lagungarritxoa 445